



GURE
BERTSOLARIAK

Aita Onaindia

I ZATIA

BERTSOLARIAK ANTINA

*«Nere irudimena antxiñako egnetan
dan-kactala ariu naiñ beti lanean.p*

J. K. GUERRA

Bertsolariak izan dira mundua mundu, kondaira aurretik eta gero, erri-izkuntzari eutsi ta kemena emon dautsoenak. Edonora io, gertaera berbera dogu: XV'garren mende-erdi-arte etzan irartzerik, inprentarik, eta ordurarteko idaz-lanak **bai** eskuz idatziriko paperetan bai aoz-aozko elezar, ipuin eta bertsuetan egozan. Aoz-aozko literaturak bertsolariari zor dautso, geien bat, bere gizaldirik gizaldiko iraupena.

Gizasemeak oler-zale doguz. Eta zaletasun berezko orri azaska emoteko, bertsolariak izan dabez erri ta izkuntzak; areik baiño mailla batzuk gorago, barriz, benetako eder-zale ta olerkariak. Bertsolari izenak, euskeraz beintzat, bere zelai mugatua **dau**; emen, alan be, nasai samar artuko dogu, erdel literaturetan izandako esan-naiak be barru arturik. Erabateko gainbegiratze au egitean, sail bitan banandu daikeguz bertsolari edo **koplariak**: 1) izneurtu-esaleak (juglarak), eta 2) bertso-egileak (trobadorak). Azter daiguzen sail biok zerbait, ondoren gure bertsolarieri zeatzik ekiteko.

1. Bertso-esaleak

Itzak diñoē naikoa garbi; gauza bat da bertso naiz izneurtu esalea ta beste bat, oso bestelakoa, bertso-egillea. Antxiña onetariko iru ziran; batzuk, bertso-egilia, noberak atara bageak, esan edo oiukatzen ebezan; beste batzuk atara bakarrik, ez esan; irugarren batzuk asmau, atara ta bertatik bota. Oneik irugarrenok dira, batez be, gure bertsolarien kidekoak.

Aspaldi batekoak juglar itza erabilli oi eben bertso-esalea adierazteko; aldiz ta aldez esan-nai bardiña izan ez dauan arren, auxe izan zan geienik bertso-esaleaj errege ta jenteen aurrean abestu, soiñua jo, dantzatu, esku-jolas ta beste itzuli-murdi batzuk egiten ebazana. Ez eban beste asmorik, ez jomugarik: alan naiz onan, jenteari poza emon.

Eta koplakantari oneik ez ebiltzan bakarrik, taldeka baiño; gizaldi batzuetan, asko ziran antzokiz antzoki ta etxerik **etxe**, bertsoz, kantuz ta txirul-soiñuz erregeak, andikiak eta erri-jentea alaitzarren, andik ona bizimodu ori ekarrenak. Euron kantu ta bertso-esatea etzan edozelakoa be: idazleak eurak eredutzat artu bai eben, ainbat bider, onein bertso-era ta **mu**sika. Au bai: jentearen aurrean saiatu bearra eben; bertsolari batek bertsoak taiutu arren, entzule-talde aurrean esan ezik, etzan iñundik be bertsoesale.

Euren buruari koko ta andi itxura geiago emoteko, aldatu egin oi eben askotan bateo-izena, beste ozenago ta erabilten bizibideari egokiago etorkion esan-nai garaiagoko bat arturik. Orrela, Probentza^{ko} bertsolaririk zarrenetarikoa Alegret (Alaikor) izena erabilten eban. Gure artean be Xenpelar, Txirrita, Basarri ta onakoak, ez dira bateo-izenak, baserrietxe naiz beste zerbaitetik artuak baiño. XV'garren gizaldian, Santxo Etxaleku napartar koblariari Antxo deitzen eutsoen geienez.

Jantzi nabarmenez jazen ziran, kolore biziko eunez. Taiu orretan, izan be, aisago erakarri oi eben algara. Errege-jauregi ta andiki askoren etxeetan, ostera, eder-sen geiagokoak ziralako, ez eutsen orrela ibiltzen izten. Naparroa^{ko} errege Karlos Zindoak (1387-1425) —bakezale baizen ertizale bait-genduan—, eder ebazan jauregi inguruan bertso-kantariak; baiña koloreetan etziran oneik ainbat nabarmentzen. Bost kantari eukazan, eta Bristol eun orlegizko soiñekoak eroiezan bostok, eta ezaugarri lez, plaka bat aldean zidarrezkoa.

Zein giza-maillakoak ete ziran? Menéndez y Pelayo^k onela diño: «Eskeko talde lez genduan esale pozkor ta naikoa ondo ordainduriko pillo au; ta orraxa jo oi eben, bades-billa, elbarritu ta zoribakoak, txerpolari ta ikasle gau-zaleak; ots, adur bako guztiak, antze edo arterako zerbait ziran guztiak, aizetako

bizitza atsegin yaken guztiak». Eskeko ta alper-zulo al genduzan, beraz? Ez dot uste. Gai ontan txit jakitun dogun Menéndez Pidal'ek, onela: «Bertso-esalea etzan eskeko, ezta txiro be, **beti** beintzat; ez gitxitan be gero, diruz ondotxo egozanak be ogibide ortan sartuta bizi ziran». (Ikus *Poesía juglaresca y juglares*, Madrid, 1945, 12 orr.)

Itsuak be bai? Ta abeslari trebeak, atan be. Naiz joteko naiz abesteko, berebiziko egokitasunez jantzita dagoz itsuak. Gogora daigun gaur Eibar'en bizi dan Angiozar'ko Itsua; joteko ta euskal-kanta sentikorrak abesteko, zelako sena, zelako etorria! Geureak baiño ez aitatzearren, Naparroa'ko errege Karlos Gaiztoaren egunetan, Braban dukearen bertsolari itsu batek artu eban an Iruña'n 60 librako saria.

Eta apaizak? Beste batzuk be ba-ziran erri-ableslari, apaizgai edo ikasle ibilzaleak —clerici ribaldi—, X'garren mende asieran, Sens'ko Gongotzaiñaren aginduz apaiz-ezaugarri dan burusoil-obao kendu bearra izan ebenak; bai ta beste batzuk, ikasle alperrak —vagos scholares aut goliardos—, Tréveris'ko elizbatzarrak. 1227'an, meza bitartean, Sanctus eta Agnus Dei'an bertsoak abestea galazo eutsienak; eta, azkenez, apaiz jokulariak —clericos joculatores— Bonifazio VHI'garren Aita santuak apaiz-eskubide barik itxi ebazanak. España'n be ba-ziran orobat, garai artan, Alfonso errege Jakitunaren Parridas'etatik: dakigunez, olako bizimoduz ebiltzanak.

Eta kantariok etziran aize utsez bizi. Jauntxo ta andikiak pozik artzen ebezan, euren bazkal-ordu, eztegu-egun eta urtebeteetan batez be. Onakoak beti, bazkaria, ugazaba, etxeokoak goratu bear ebezan jogailuz laguntako bertsoetan. Eta sarri, migura antzo, iñoren izerdia edoski arren, etziran txarto ordainduak; orriks-erdikidez ez-ezik, diruz be jaso oi eben euren merezia. Erregeak eta gotzaiñak etxe ta solo ta jabetza andiakaz iñoiz sariztu ebezan; Naparroa'ko Karlos Zindoak, adibidez, 1417'ko dagonillaren 13'an, «Ursua koplari maiteak» berari ta bere alabari egiñiko mesedeakaitik, «Iruña'n bera biziteko etxe bat erosi dagian», 90 florin urrezko damotsoz esku-erakutsiz. Ta orrelaxe Gaztela'ko ta Aragoi'ko erregeak; Portugal'en, Pran-

tzia'n eta Piobentza'n be beste ainbeste dagle. Iruña'n gaiñera 30 garianega eukazan izentauta, erregearen bertso-kantariak.

Bertso-esale edo juglar izen au, aldatz-beera asia yakun XIVgarren gizaldirantza. Andiki-jauregi ta ardangela-ziskue-tan, etzan izan be giro egokia izen ona zaintzeko; añenati, mozkorti ta txerpolari oneik gaitz andiz egozan, egon be, sarri; bertso-keta zurbilla, musika larua; trabena-ardoak eztarria garraztu ta, abestu ordez, garrasi; aapaldi ta azken-oskideak, lorrindu. Gisa ortan, apurka apurka, bertsoa ta kantua itxirik, ipuin kontalari arlote biurtu ziran. Ta, atzenez, euren izena etzan ondo entzuna, ta au itxirik, Prantzia'n batez be *menestrier*, au da, *otsein* izena artu eben; kantari oneik, izan be, andikien morroi ta otsein ziran, etxeko beste ogipeko guztien antzera, ta egoki etorkioen izen au.

Dana dala, euren egikizuna betc eben jostatzaiJle oneik. Eta ziur dakigima auxe: eurok izan zixala, amar bat gizaldíz, erririk erri eta jauregirik jauregi eurenak eta iñorenak ebezan bertso-saiHak abestuz, naiz Italia'n, naiz Prantzia'n naiz Espai-ña'n erri-izkuntzari asiera emon eta kementsu eutsi outsoenak. Ez al da zerbait?

2. Bertso-egilleak

Antxiñatean etzan errialderik, iñolaz be, bertsolari bage. Oneitatik batzuk ezagun doguz, beste batzuen egiñak ez yakuz guganaiño eldu. Erroma'k indar ikaragarria eban Jesukristo-ren aurretiko mendeetan; uriburu artako antzoki ta antzerki-leak ospe andiaren jabe ziran. Erromatarrak, ostera, mundu guztira zabaldu ziranean, euren giza-lantze ta aurrerabideak oro, naiz Europa'n, naiz Asia'n, naiz Aprika'n, menderatu eroiezan errialdeetara eroan ta an sustraitu oi ebezan. Orrelaxe edatua da bertso-lantza be. Kristo'ren aurreko idazleak eta gero Erdi-arohan eliz idazlariak darabillezan izenetatik —*mimi*, *his-trionis*, *thymelici*—, ori atera geinke ondokoz. Erromatar gizar-tea gaur emen ta biar an ebillen guda ta Hskarretan; ortik, naitaez olakoak eroan bear eurekin, bai eroien biziera alaitzeko,

bai eguneroko egite arrigarriak oiukatzeko. Jostalari —joculatores— izenez agertzen yakuz, beintzat.

Eta ez oneik bakarrik, IV'garren mendean, Iparraldetik etorrita, Europa'n barrena zabaldu ziran erri basatiak be babezan olako kantariak. Lenengo baten, Erroma'ko antze ta kuliura zan nagusi, ipar aldeko lur-zokoren batzuetan izan ezik, Europa zabal guztian nunbait; azpiraturiko erresuma danetan Erroma'k lege, oitura ta izkuntza, bere zibilizaziñoa ondo sus-traitzeko alegiñik egin oi ebazan; bai ta jadetsi be. Arrotz ta basatirzat joten ebezan oraindik euren mendean ez egozan errialde guztiak. Basati oneik, baiña, batzuk Europa iparralde-tik eta beste batzuk Errusi'ko lau ta Asia'ko zabaldietatik etorriaz, erromatarren aginpidetasuna darda gaiñean ipiñi, zuntsitu, iur joazo, ta tokirik geienetan euren Laterriak eratu ebezan. Arroiz oneitan iru talde ditugu ezagunenak: jermaniarra, esla-barra ta uralo-aitaika. Jermaniarrak sendi bitan sailkatzen dira : *leutondarra*, ta emendik datoz gero frankotarrak, anglo-sajondarrak, borgoindarrak, lonbardarrak, suebotarrak eta gaiñ-erakoak; eta *gotarra*, ta emendik gero Espaiña'ra etorri ziran bisigotarrak eta Italia'ra batez be jo eben ostrogotarrak. Erri basati oneik etziran, jakite-barrutian, erromatarrak baizen landuak, baiña ba-eben eurena naiko jagia. Euron bertso-kantariak *eskopak* eritxen; eta, geroago sail ontako arabiarra lez, gazte-Juz gaztelu ta guda-zelaiz guda-zelai ibilli oi ziran, bertakoen oitura, barne-min eta egikune arrigarriak bertsoz ta kantuz lau-aizeetara zabaltzen; bai ta mezulari edo mandatari zurrian be. Ortik atera eroien urrea ta zer-jana..

Kantariok, naiz-ta geienik ez, sarri bai eurak asmau ta onduriko bertso ta olerkiak aldarrikatzen ebezan. Ta eurok izan ziran, kondairak darakuskunez, erri-izkuntzetako bertsoketari asiera emon eutsoenak. Erromantze izkuntzetan, batez be, auxe esan nai eban bertso-esaie itzak, bere izkeraz bertsoketan eragoiona. Espaiñar olerkarietan zarrena, izenez ezagun doguzenatetik beiñik-bein, Bertzeo (1180-1246) errioxarra dogu; asko ta ederto idatzi eban; bederatzi poema bikain, 13.000 bertso gitxienez, Kristo, Andra Maria, Eleiza ta Santuak goralduaz; garai artan erdi-euskeldun bai-zan Berzeo erritxo ori, euske-

razko itzak be ba-darabiltz noizik bein bere idatzietan. Benito deunaren ordenakoa izan arren, koplartizat jotzen dau bere burua

Alan be, urteak ioan urteak etorri, XV'garren gizaldian, beste izen bat erasten yako olerkari apaiñago ta bertso-esale eztanari. Prantzia'kc ego-aldean, batez be, *irobadore* (trobar, aurkitu; trobadore, aurkitzaille) izena damotse geienik. Pro-bentza'ko izkera, oc izkuntza trobadore oneik, bertsoegille oneik jaso eben, bai, edozein gizarte-maillari atsegin yakon olerki liriku erpin-gaiñeraíño. Au bide ta oiñarri zala, izen berezi au Iaster zabaldu zan izkuntzarik geienetara, ta arrezkero, elerti guztietan parra parra erabilia dogu. Bertzeotarrak berak, Andra Maria'ren bertsolari, trobadore dala diño azkenez.

Esale ta egille onein artean alderik ete? Jatorriz beintzat itz bi-biok eztabe esangura bardiña. Kantariak, bera be iñoiz olerkari izan arren, iñork egindako bertsoak abestuz irabazten dau zer-jana; arazo ontan iñarduenak, gaiñera, gorago aurreraru dogunez, zilibokari, barre-eragille, esku-jokulari, tximiñu-esk, txerpolari ta antzekoak izan oi ziran, jenteari poza emotearren aurki. Bertso-esalea, beraz, etorkiz zarrago izanda be, duinta-sunez bertsolaria, trobadorea baiño mailla batzuk beerago aurkitzen zan, bai izatez bai erriaren eritxiz.

Egia esateko, beieizgarriok kontuan anuta be, bertso-esale ta bertso-egilleon artean ba-zan oindiñokarren, askotan beintzat, olako artuemon bete samarra. Biak ibilli oi ziran alkar arturik jauregirik jauregi, bertsoketan aurki, batak egin besteak bota; geiago, iñoiz batak besteari kantuz naiz musikaz lagundu be bai. Bertsolari batzuk, orrezaz gaiñera, bertso esale bi edo iru eroiezan aldean. Bertso-egille ospetsu genduzan, Espaiña'-koak baiño ez aitatzeko, Alfonso Jakintsua, Hita'ko Artzipres-tea, Aragoi'ko Pedro, Villasandino ta abar. Kantariak oiukatu oi ebezan onein bertso-lanak.

Galizia'n ta Portugal'en zabaldu zan iñun baiño geiago, gisa ontako bertsolaritza. Bai ta ba-zan an bertso-esale ta bertso-egille tarteko bat, segrer eritxoena; bertsolari baiño goragokoa berau. Etzan txiro, ez erritar, aitorseme baizen; zalduntzarako beste diru ez eukalako, urli zaldimaren eskutari; erregeren

otsçin-taldeko, edo-ta guda-oiñean kantari, bertso-gintzatik bizi zana. Bere ustez, beiñik-bein, kantaria baiño geiago zan, errege ta andikien egite arrigarriak abesturik.

3. *Bentsolarien ibillerak*

Bertsolariok etziian tokiz geldi egotekoak, bere biziko iper-loka baiño Adur-zale nunbait, erriz ta kalez ibilli oi ziran eten-bako txango ta ibilleretan, jauntxuen etxeak eta erregeen areto-sukaldeak arakatuaz. Ezinbestezko barren-deiari amor egiñik, ereskiñen bat aldean, amaitatxo ostera ta joan-etorri egiñak dira Erdiaroko bertso-kantariak. Ibilli-ala, zelanbait adierazo bearra eben euren antzejakintza.

Laterri bakotxak bere izkuntza berezia izatea be, ez yaken zoztor arat-onat alderrai ibilteko. OnaJabur, Menéndez PidaPek gai oneri buruz diñoana: «Oso garrantzi andiko yakuz, elertikondaira osatzeko, bertsolarien ibilte ta goraberak. Eskoparrak naiz beste basati kantariak, dakigunez, ara ona ebiltzan errege-uriburu ta andikien etxe inguru-minguru; mimiza'eak be beste orrenbeste; arabiatar abeslariak sorkaldetik Andaluzia'raiño ibilkatzen eben musulmanen ludia; bertso-esaleak be, era be-rean, andik ona ta emendik ara ibilli ot ziran lagunartez aldatu ta gizaldra barri miñez; gisa ortan, ostera, euren bertso-lanak eta musika-doiñuak lurralde bestelakoetaraiño eroan al ebezan. Garai baten, nun-nai, bidez ibillirik, geienen aurkitzen ziranak salerosle, praille, ikasle ta bertsolariak genduzan; eta oneik guztiok, edozein eskualde edo erritako albiste ta barriak jakin naiz eroateko goki ta adiutuak ziran» (O. c, 64).

Ondasunik ez eban bertsolaria bere kabuz ta oiñez ebillen beti be, iñoiz zaldiren baten jabe izanagaitik. Mundu zabala eukan aurrez aurre ta ezeukia bidaide. Eta aldean zer? Arrabita ta bertso-liburuí. Arrabita zan, bertsolariak sarrien erabillitako soiñu-tresna; liburuá, barriz, eskuz idatzia, kantatzeko ekazan bertso ta poemakaz betea, paper-zati ezbarðiñez arretatsu apaindua. Oneikaz naikoturik, iñor be artekotzat artu bage, or doakigu patxara ta jasik ederrenean. Kerkamon dogu Pro-

bentza'ko bertsolaririk aspaldikoena, eta berau zakuto bat lepoan ta oínez marratzen dauskue prantses txiki-margozki-zaleak.

Egia, aberatsagoak be ba-ziran, diruz orniduagoak, batez be Erdi-aroan, zaldizko ibiltaunak. Baiña, euren ogibideari jarrai, plaza ta azokaetan ebiltzan entzule-billa; jentea zoratuaz, euren jakitea saltzen; errege ta andikiak alaitzen, antxiñakoen egite arrigarriak zabaltzen.

Besteak beste, kondairak diñoskunez, etziran beti txeratsu artuak. Iñoiz bizkarra berotzeraiñoakoak be izaten ei ziran; naiz markets samar t? gatz-pipermin barik abesten ebelako, naiz garai aretan bide-lapur askotxo bazterretan ebillelako, bertsolariak txarto artu, zigorrez astindu ta iñoizkoren baten aldean eroienetik erantziak izan ziranekoa irakurten dogu kondairarrietan. *Cantigas de Santa María* poeman datorren bertsolaria taiu ontan agertzen yaku; jaun andiki baten atarian, zalditik jatsi, soin-gaiñeko edo kapa andia erantzirik, zaldi-bastan ekarri dauan arrabita zorrotik atera ondoren, berau joteko gertu dakusgu. Bertsolaria ikusiaz beste barik, pozarren dira jauregitar guztiak; etxeko jaun-andreak, barriz, oso arrera ona dagitsoe. Zar ta gazte, gaualdi zoragarria izan dabe danak, bertsolariari entzun ta txalo. Urrengo goizean, ekin eutsan oster a bere bideari. Baiña ostatua eskiñi eutson jauntxua zeken izan nunbait. Doillorkeri au egin eban, beintzat: antza danez, arrabitaria bidean joialarik, morroiak bialdu ebazan ari zaldia ta jantzia ostuteko esanik.

Urriñago bage, Naparroíñ bertan jazona. Giraut prantses bertsolaria, Alfonso VHI'garrenak eta beste bakal-jauregiko andiki askok emondako bezuza ta esku-erakutsiz beterik, barrero bere etxerantza joiala, napartar erregearen otseñiak lepoa berotu ta ezer barik itxi ei eben bidean. Onela beste toki askotan: zer-jana ukatu, txakurrak xaxa ta olangoak. Alderai bizi-bearrak dakazan bitxi joriak.

Ara-ona ebiltzanak ez-ezik, erregeen jauregietan egonez bizi ziranak be ikusten ziran erriz-erri ta **mugaz andik**, bai **gazte-zarrak** bai garerdiko gizonak. Eta etzan euron egitekoa iñoren bertso-barriak bota edo norberak egiñak esan; **gorago** aitaturik

itxi dogunez, gaurko idazki-banatzailleen antzera, sarri efoan-ekarri oi ebezan beste bertsolari naiz zaidunen maitezko, aginduzko eskutitzak; jaun batek, errege batek bere adiskide miñari bialdurikoak nunbait. Onein artean, gero, olango eztabaida ta gudaketak, bertsozkoak alegia, aldarte ta umore onekoak, zirti-zartak sortzen ziran noizik bein. Ez ori bakarrik; bertso-barri ta ipuin-zale oneik, euren artean, bakotzak eukezan bertsolariak aldatzeko oitura eben, zeñiek obeagoka jardunik; bai ta, adiskide batek besteari, eztegu naiz senitarteko jai bat zioztat arturik, emoitzat lez bere bertsolaria bialtzen eutson.

Gisa onetan, aintzat artuak eta zernai mailletako lagunartean sartuak aurkitzen doguz. Oraintsu, XV'garren gizaldian bertan, Gaztela'ko Juan II'garrenaren bertsolariak, gizonezko ta emakumezko, Aragoi, Naparru, Prantzi, Mantua ta Milan'en barna ebiitzan. Aragoi'ko erregeak ba-eukien onakorik, lo ta jan euren pentzutan egozanak, eta sarri askotan, aloger billa, Naparru'ra ta Gaztela'ra bialtzen ebezanak. Naparru'koenak, barriz, ainbatetan joan oi ziran erbesteetara be, Prantzi'ra, Alemani'ra ta Flandes'era baitikbat. Naparru'ko errege-jauregian ba-ziran, agiri danez, euskal bertsolariak be: *Urtsua*, ustaidun arrabitari yaioa; gorago aipatu *Ettxaleku*, lauta joten trebe; ta *Gartzia Txurri*, kondairatik dakigunez, 1228'an, Aragoi'ko erregeñagandík sari bikaiña jaso ebana.

Bertsolariak bere ezpala, bere etorria, bere jasa bear eban, jenteari begi-biotz betegarri izan ekion. Ta ikusiz ta entzunez asko ikasten. Ortik, ibiltau ta lur-ikerle etziran bertsolariak ez jakintzat jo eroiezan. Ortik, bai, eguzkipe-zale, Probentza'ko kantariak ez bakarrik oc ízkuntzako lurraldetan, Itali'n, Espaiñi'n ta abar be ibiJten ziran, Gaztela, Leon ta Aragoi'ko uriburuetan oso ezagun ziralarik. Foix'ko kondearen bertsolariak sarritan abestu eben Naparrua'ko Karlos «Gaiztoaren» aurrean. Orrela, gorengo esalari ta abesle onei millesker, Prantzi'ko ta enparau errialdeetako ainbat edesti-gertaera ta egite arrigarriren jabe ziran garai aretan Espaiñi'ko bazterretan be; maitezko lai ta poemak orobat, bala-bala erabilli ebezan. Orreaga-Iruña'tik, Leon-Astorga'rik zear Konpostela'ra joian Santiago-bidea be ondo ekien gizon kantari izar-soegille oneik.

Arabiatarrak, euren aldetik, ez yakuzan atzera geratu zori-miñezko ibil-bear etengabe onetan. Arein eragin-indarra, bada, erri-eleiz izkuntzan, andi-andia dogu Kristauak eurak pozik entzuten ebezan arein oi-abestiak, naita bear bestean ulertu ez. F.spaiñi'ko ta Sikili'ko erregeen jauregietan, gaiñera, kistarra ta musulmana ederto alkar lotzen ziran euren bertsozko jardunetan. Geroago, 1322'an, Valladolid'eko eliz-batzarrak zearo debekatu eban eleiz gau-beletan arabiatar bertsolariak esku artzea. Olakorik asko eukiezan Jativa'ko moru-errian, eta ango moruak joan ziran Naparru'ra 1439'an be, Olite'n ospatu ziran Biana'ko erregegaiaren ezteguetan jo ta abestu egien. Iruña'n be baziran judutar bertsolari bi, Bonafos ta onen seme Sento, napartar errege Karlos II'garrenak etxez ta emoiz lagundu ta jaurriak.

Errege ra jauntxoen artean, beste gai egoki biotz-zuzpergarri bat be ba-eben. Ordukoak buruz gaiñetik gudazale amorratu genduzan, beti liskar-burruketan sarturik ebiltzanak; ortik, guda-egite garaiak, arerio azpiratze lazgarriak eta bako txaren adore-erakutsi biziak lau aizetara ateratea baizen barrenkiligarri ez tben ezer. Bertsolariak ba-ekian alderdi makal orren barri, ortatik bizi zan, eta arretaz jokatu oi eban entzuleen gorago-nai ta biotz-irrikarri loxinga egiñik. Oar-ikasiz jasotako igi-ezten guztiok bere biziko txairotasunez erabillirik, elezar, ipuin, guda-egintsari arrigarriak abots zoli abesturik, entzu'een barren-muiñak birloratu ta iñundiko txalorik beroenak beraganatzen ebazan sarri. Urrinagotu barik ementxe geure inguruan, Iruña'n, Aragoi'n, Bartzelona'n, Mallorca'n, Galizia'n, nainun eukazan txalo-ereti aukerakoak. Bizkai onetan berton, Diego Lopez (1215) aitor-semeak be begiko ebezan bertso-kantariok.

4. *Bertsolariak literaturan*

Asierari so ezkeru, gizona etzan itzetik ortzera jakitun. Goiz-argia lez, pizkaka zabaldu ziran bere gaitasunak, gizadiaren jakintzedestia lekuko. Auxe eban lege; azi, geitu. zar-barritu.

Giza-talde bakoaren literatura be taiu orretan joian azí, ératu ta ugarituaz. Gizonak, Jaunak sortzean emoniko gaitasun askoren arcean, ortxe eban bere soin barruan ertilanerakoa be; izkera ta barren-sen berezkoa alkar eundurik, antze-lanik zoragarriena, literatura dagi. Orrelaxe jarduna dogu aertu barik, bai ta jardungo be, munduavi garai bakoarean bere aparteko izaera ta sena crantsirik. Auxe besterik ezta literatura: giza-semeak, an nai emen, buru-biotz korapilloz, mintzoz egiñikko antze-lan berezia, ele ederra.

Errialde guztiak daukie euren, oneik geiago areik gitxiago, baiña guztiak apurren bat. Antze (arte) ederretariko bat dogu berau, ta bitan banakatu gengike erabat: itz-lauzko ta bertsozko. Emen bertsozkoa aitatzen dogu bakarrik; eta au be bitan lerrotu daik^gu : bertso jantzi edo olerkia ta erri-kutsuzko bertsoa. Oneik biok, baiña, zelan berezi? Auzi zailla. Gauzak itxulastu ezik, gaiñera, banaketa onek ezin lei gora andirik izan, bion arteko muga-lerroa garbiro ipintea ez baita errez. Erritik jasotako bertso ?ar bat eta lege-barru egiñiko olerki jantzi bat, eziri doguz mugarritu askotan, bear bestean beintzat. Naiz gure literaturan naiz erbestekoetan ba-da bertsozik, erria sortoe dabenak. Orrez beste, erri antze uts garbian be, egillearen asmoan ba-da olango apaiñago-naia, ertilarik sakon jakintsu batek aiñako egazkada jagia erabilli ez arren. Emen, dana dala, neur-titz dotore yaukala ezkertera itxirik, erri-olerki apalagoari gagokioz.

Enda ta izkuntza askotarikoak doguz lurbira zabalean, euren bein bateko sorburua guretako illunxea izanda bc. Izkuntzetan beintzat, izkera ta izkelgi, milla batzuk ba-dazauguz guztira. *Asiera* derirxogun Liburu santuak (11,1) «garai aretan, lur osoan, ezpan bat bakarrik, izkera bat bakarrik zala» diñosku. Gerora, alan be, uriol andi ostean, lurbira osoaz jabetu zan gízona; ta orrela, belaunez belaun, endak lez izkerak ugaritu egin yakuzan. Zein lenengo izkuntza? Eberkera, ebreotarrena? Ez dakigu. Gure euskera zala iñoenak be izan dira. Dana dalarik, izkuntza guzti oneik, edo geienak, dakarre oindiño be lenengoaren *zer* bat, itz joskeran; ondar-sokorra —*snbstratum*— nunbait. Izkerazaleak diñoenez, errez aurkitu gengike gaur

izkuntzarik ezagunenetan, olako kideasuna, sustraietan batez be.

Aurreko mendean, izkerazaleak, lenengo Europa'ko izkuntzak ezagutu ta saillez-sail jarten alegindu ziran, gero Asia'ko ezagunenakaz beste ainbeste egiñik. Zer aurkitu ete eben? Ango ta emengoak alkarren antza ebela. Ta guztion artean erroialdi bat osoturik, *indi-europear* sendia deitu eutsoen. Sendi eta talde oneitako guztiak, barriz, beñiola India'n bizitako ariotar erraza ta onen izkuntza dabe oiñarri. Adar oneikaz: 1) *Kelt'arra*, Irlanda'n, Eskozi'n, Gales-errian eta Breiz'en oindiño be dirauna; 2) *Griegoa*, bere eoliar, doritar eta jonitar iru izkelgigaz; 3) *Latiña*, bere sustraitik datozen espaiñera, italera, prantsesera, errumano, portugaleria ta onetariko izkelgi edo dialektoakaz; 4) *Jermamarra*, alemana, inglesa, olandesa, gotarrena, noruegarrena ta beste batzuk; 5) *Eslaboa*, bere sustraitiko erruso, polakera, bulgariera, serbiera, txekera, bendiera, eslabera ta abairegaz; 6) antxiñako *Borusiera*, eta onen errotik datoz gero lituera ta letikera. Eta Asia'n, onein antza dabenak: 1) *Sanskrit*, izkuntzarik zarrena, baiña gaur mintzatzen eztana, bere eundaku izkelgigaz; 2) *Zenda*, edo irnniera, ta 3) *Armeniar* taldea.

Orrez gaiñera, beste talde batzuk be ba-dira Aprika'n, Amerikeriketan, Okeania'n ets abar. Oneik be sendi batekoak lez ete? Ba al dabe antzik euren artean? Eta Europa'koakaz? Gauza illuna oraindik, naiz-ta jakitunak buru-auste galantak erabilli auzi orretan sartuta. Beste aldetik, Europa'ko izkuntzarik geienak indi-europear sendi ortakoak izanik be, Europa ontan ba-dagoz, tarteka, beste izkera bakan batzuk, finesa ta ungaroa, adibidez, ta gure *euskera* zarra. Askok diardue gaur onen suster billa, baiña saiatu arren, oindiño beintzat ez dautsoe esateko kidekorik aurkitu. Umezurtz, bakar, «ugarte» ta olangoak erantziten dautsoez: iñauستان bal^{ar} geratu adarra dogu, beraz, izkuntzaen tantaian.

Izkuntzok, bizi ta il, euren literatura dabe. Izkuntza, ziur asko, giza-gogoaren arnas; ta ortikakoa dogu gaur munduan daukagun literatura. Erraza guztiak, andi ta txki, ekarri dauskuez euren gogo-arnasaren kimu txanbeliñak. Bai ta gure euskerak be. Au olan dala, oraingoz, gain begitu bat besterik ez

dautsegu egingo, txori egazlariaren guztizko begi-klixka alakoa. Au be, munduan ezagunen **diran** izkuntzetan gizaldiak zear izandako bertsolariari loturik soilki, lur lanbarri eztana baketan lagata.

a) *Eçiplo'n, Txina'n, Japonien, India'n...*

Aspaldi zar atako Egipto, Asiri ta Babiloni'k, 3.000 urte Jesukristo aurretik, euren kanta ta esaerak ebezan, idazkera asmau arte aorik ao iraun-azoak. *Illen idazti*, J. K. aurretik XV Tgarren mendean osatua da, beste bizitzako mitologiz, poemaz ta lillura-eraz beterik. Zerbait geroago daurkigu himno-sail bat, Faraondarren garaipenak goratuz. Egiptoarra da izenez ezagun dogun olerkaririk zarrena: Echnaton, J. K. aurretiko 1420'garren urteruntz bizia. Babiloniar ta asiriarrak be ordukoak dabez euren epopei edo olerki garaiak.

Txinarrak legun ta piñ genduzan oldozkun, biotz-isuh ta egikeretan. Oso ugaria aren literatura. Kondairazko bertso-bilduma bat, *Chi-King*, J. K. aurreko 2.200'garren urtean antolatua dogu zarrena; ix.onl'uzi'k (J. K. aurretik 551-479) liburu santutzat etsi eban. Sorta ortako poemetan gudea ta maitasuna, edana ta dantzea, eta antxiñako txiñarren ekandu on ta gaiztoak dira kantagai. Ondorengo bertsolari ta oierkari danak, liburu ori izan eben emoille.

Japondarren literaturak, ain zarra eztala, ba-dau kimu ederrik. Txit jasoak dira *Tanka* bildumak, bai ta *Hai-Kai'zkoak* be. Izadiaren aldaketak, urte-giroak abesten dira bietan, orreik bertsolariari ariman ezarri daroatsoen eragiña adierazorik. Lenagoko erri zar danak lez, oso leun ta zorrotz ditugu japondarrak, ikaskizunez ta sentimentuz ugariak. Esakerak eztabez osoro azaltzen, erdi-dizdizera laga baizen. Txiyo neurtizlari emakumeak, bere seme iilari onela diñotsa:

*ÍNUV etc daffo gaui
marib-urduntzien
ristiiri tzkia?»*

Makiña bar ipuin-sorta, jolas-olerki, kondaira ta nobela aldartetsu, umorc oncko ba-da jopardarren literaturan.

India'ko libururik zarrenak, antza dagoanez, J. K. aurretiko XV'garren gizaldikoak dira, Sanskrit izkeran idatziak. Uzurtz edo erlejiño-gaia darabille aspaldi aretako ele ederrik geienak lez. *Vedak* da arein len-idatzia, jainkoen bizitz, egite ta gaiñerako zertzeladuna. Lau aro dauz: 1) *Txandak* edo eresiena; 2) *Mamra* edo bertsoena; 3) *Brahmana* edo esakunena, ta 4) *Sutra* edo hakaskizunena. Sakon ta bikain beti. *Mahabharata*, edo *Bharaten* kondaira, bertsoan egiñiko nobela ikaragarria, gure *Garoa* baiño ogetamar bider andiagoo; *Ramayana* be sanskriteraz idatzitako beste epopei mardula, Valmiki'rena aurki. Aolku ta esakune zorrotzez gaiñezkako beste olerki-sorta miresgairi batzuk be ba-dabez, erriak aoz ao íraunazo ta andik jasorikoak, eta antxiñate aretan bertsolarien bitartez mundura zabalduak, ipuin-alegi ta onako lenen-lenengoak India'tik bait-yatorkez. Gaur be, ezagunak dira an, R. Tagore gaurko inditar olerkari bikaiñak diñoskuneez, olango bertsohriak, *beolak*, eskeko itxuran bertso biziak abesten dabezanak.

b) *Ebreolarren artean: Idazteuna*

Baiña, sarkaldeko literaturari gagokiozala, eguzki aideko izkuntzetatik ebreotarrenak dauka zer-ikusi ta gorarik geiena, guretako beintzat. «Idazkera asmatu zanetik, ebertainrek aiñeko edertasunik, leen aldiatako erri bakar batek ere guganaño ez du luzetu. Erritar esakun zarrak, eresiak eta olerki mamitsuak, bikaiñaren bikaiñez goienetako maillan daude: ez, noski, arro; bai, ordea, usai berexi jainkoti bat edatuz» (Olabide, *Idazteuna*, Bilbao, 1958, 846 orr.) LTsain iainkoti au, egia esaterako, aspaldi zar aretako izkuntz errikoi guztiena zan; baiña guztien artean ebertainrena gaillen.

Batez be bertsoz idatzitako zazpi liburuetatik iru, Job, Eresiak eta Itzurak, eder-ederrak dira. Eresi edo salmuak, danak ez baiña, geienak bai, Dabid erregeak abestuak, mamin-gun bizi-bizidunak; munduko literaturetan eder jorienak nunbait,

barae-intziri ta biotz-jario ikaragarriz kuin-kuin. Azal-jantzian **ba-dabe**, oindiño, beste izkuntzetan agiri eztan olako zerbait. **Gure** euskerak emon leikegu bakarrik zer orren argitasun **pizkat**; euskal bertso zarretan auxe dakusgu, lenen apaingarri **lez** antz-iduri bat, ta gero esskuna, burutapena. Onela edo:

*uEperrak kantatzen du goizean in'zetau:
Ez ú-aileke jirtain mutilen itzetan».*

(Azkue. *Kantutegia*, III. 91 orr.)

Eta ebertarrak onela:

*úOdeirik ez euririk gabeko aizea,
Adiguri ut&alc? arro ibittea.»*

(*Itzurak*, 25, 14.)

Liburu santuak darakuskuenez, ebieotarren artean ezagunak ziran bertsolariak, bertso-doaia eben gizaseme trebeak. Moise'k eta onen arreba Mari'k Itxas gorria oin-legor igaro ondoren, poz-oiuzko kantari ekin eutsoen. Job eta onen adiskideak, miñaren susterra, gaiztoen gaillenkeria ta zintzoen lotsa-oiñazea aztertu nairik, bertsoa jardunak doguz. Orrela Zakari apaizak, **bere** seme Jon'en jaiotzan; orrelaxe Simeon zarrak Jerusalem'go **eleizan**, Jesus Umea besoetan arturik, kanta kantari diño:

*uOrain, Jaunn, itz emon zeutsanez,
Zure oiscin au itxi eizu bakez;
Zure osasuna begiok dabe ikusia,
Erri guztien aurrean Zeuk jarria:
Argizuzi atzerriak argitzeko,
Ta zure erri Israel'en aintzarako.»*

(*Lk.*, 2, 29-32.)

Eta orrelaxe Andra Mari'k, bere lengusiña ikusterakoan. Bertsorako doe ta etorriaren jabe izan ez ba'litz, ezin leikean **iñolaz** be orren bizi berc barnetiko poza adierazo. Goi-doez jantzia, igarle zan ta igarleen erregiña; ta, bein beintzat, **Magnificat** abesti bikaiñean, argi ta garbi agertu euskun bere bertsolaritzarako doe arrigarria. «Begira —dirausku Augustin deunak—, zelan abesten dauan gure zaldabe (tympanistria) **jotzailleak**».

Alan be, erri zar ^ren poesiak ez eban ezagutzen bertso-rik, au da, neurri-molderik: au gogoan jaso bearra dogu. Ezta aren olerkian, gure inguruko izkuntzetan lez, mintzorrez (azentuz), igiera (ritmuz) edo-ta azken-itz bardiñez (rimaz) gogai ta buru-tapenen indar olerkitsua adierazi oi: jantzia ta esakuna, biki antzera, aren baten dabiltz biak. Eta auxe da, ain zuzen, bertsoak itxiriko utsunearen ordaingarri. (R. Esquerria, *Iniciación a la Literaiura universal*, 40 orr.)

d) *Griegoen arlean: aedak, rapsodak*

Grezia dogula, autortu bear, beren-beregiko kultura **baten** jabe, beste enderri guztien aurretik: mamin ezilkorra barneratu eutson bere izkuntzari, eder ta garbal beste oroen gaiñez jasorik: giar ta indartsu, lenen erri-arnasaz adoretua ta, gero enparau Hreraturen ama lez goi-goi jarria. Gerkerak ba-dau euskeraren antza, itz-erakera ta joskeran beñik-bein.

Izkuntz lerdan orren altzoan iru izkelgi ebezan: eoliera, doriera ta joniera. Irurok, alan be, txairo alkartu ebezan areik literatura jantzian, bat bera zapustu barik. Zelako gaitan idarzi, alako izkelgiari esku ezarri oi eutsoen; Lesbos'ko eoliarrak izkelgi samur piña eukien, írikarako egoki-egokia, ta Teokrit'ek naiz-ta sikilitar sortzez, eoliera darabil bere maite bertsoetan; trajedi ta antzerki itsetarako egin-egiña aurki PeloponesoTco doritarren izkelgia, ta Atenai'n be orixe yakie atsegiñen; Asia Txiki'ko jonitarren izketa-gisa, azkenez, txit eroso datorrena dogu epopei ta il-eresietarako, ta Hesiodo'k, izkelgiz eoliar izanda be, joniera artzen dau bere idaz-Ianetarako. Euskeraz be, onako zerbait ez cte letorke ondo?

Omer askotaz be, gerkarren olerkaririk gorenena: *Ilías'ena* ta *Odis'ena* idatzi ebazan. A baiño lenago ba-ziran orraitíño, bertsolari txikiagoak, jaingo kaskarretakoak noski, Lin, Orpeu, Museu ta abar. Eta Elade iparraldea da olerkiaren sorleku. Eoliar ta jonitarrak, doritarrak bultz-egiñik, Asia Txiki'ra baztertu. ziranean, antxe sortu zan gerkar olerkia, orduko gudari ta gizuren oldartsuen egite arrigarriakaz poema bikaiñik naiko

ondu ta antolamrik. *Aedak* ziran, geien bat, onein egille; ta, kitaraz lagundurik, bertso-kantari ibiltan ziran printze, andiki ta olakoen jauregi-etxeetan. Batzuen eritxiz, Omer bera be *aeda* (kantari) itsu bat izan zan.

Orretakoz, gerkar erria txit kantaria genduan; jauretxeetan, ezteguetan, illetetan, eskerrak egitean, guda-ibilketetan, apari-bazkarietan eder yakon kantuaren soñu gozoa. Nagusi ta erregegaiak be kanrari ziran askotan: gizon argien egin txauak liran abestuz^ Akileu zangarrak arindu oi eban bere oiñazemiña. «Kantariak, barriz, bat-bateko kantak eta iñok egiñak abesten ebezan; eta ontzen ebazana txeratsuago artua zan, beresalea baiño. Abeslariak kitara erabilli oi eban, eta onen arietan jotan eban doiñu egokia abotsari emoteko; ondoren, kantu garaia esatan eban ozenkiro, geldiuneak musikaz ornidurik. Onako abeslariari, naiz bat-bateko bertsoak bota naiz ikasiak *rapsoda* izenez deitzen eutsoen». Hexametro edo sei oiñeko bertsoa zan geien erabilten ebena. (J. B. Weiss, *Historia Universal*, II, 356 orr.)

e) *Erromalarren arieen: Bergili*

Antxiñako Lati ta Erroma'ri gagokiozala, ostera, auxe azpillerrotu bear naitaez: arek zazpi alegiñak egin arren bere agintaritzat aspajdi aretako ia mundu guztia besarkatzeko, egundo ez ebala sortu bere-beretiko iiteratura jatorrik: geienetan, guda-zigorrez azpiratzen ebazan errien kultura beragandu oi eban, eta Grezicz jabetu zanean, ango uriisten ederra, ona ta taiua aintzakotzat artzen ez zan muker ibilli. Latiña txit latz zan lenengoz; gero, gerkemz nastaurik, zorrotz labur esaera aberatsezko biurtu eben erromatar ertilariak. Guk dazaugun latiña ezta, orduko erriak erabilia. Ta, ain zuzen be, erriaren latin aretatik erre ziran gero erromantze izkuntzak.

Gerkarra baiño geroago, jakiña, olertian, irri zuri ta satiripoesian batez be, maisu maijlan agertzen yakuz latin-bertsolari banaka batzuk. Kint Eni'k (J. K. aurean, 239-169) erromatarren kondaira osorik idatzi euskun bere 30.000 bertsozko

poeman. Ziri-olerkia Lukil'ek ondu eban berariz; Likin, **Kina**, Bibakul, Katul, Tit Lukrezi Karo ta abar olerkari trebe **ditu**-gu; eta, geroago, August agintariaren garaian, Bergili, Orati, Tibul, Propertzi, Obidi, Marzial, Jubenal, Ausoni ta **gaiñc**-rakoak. Gzution artean Bergili ta Orati buru. Orati'k **103 oda**, abesti bat, **17** epode, **13** ziri-olerki ta **23** idazki idatzi **ebazan** bc-rtsotan; Bergili'k, barriz, *Artzain-kantak*, *Nekazarietak* **eta** poema andi *Enearena*.

Bertsolari-moldea ezagun ete eben Erroma'ko olerkariak? Baiezkoan gagoz, naiz-ta agerbide trinkorik izan ez ori **egiz**-tako. Bergili'ren amar Artzain-kanta edo bukoliketatik bost (1, 3, 5, 7, 9) alkar izketa ta bertsolari ariketan dagozala ondurik, egi argia dogu. Ona irugarrenaren gaia: gazte bi, Menalk **eta** Dameta, ardizain dabiltz mendian, eta uste barik alkarganatu dira muna apaleko bide-ertzean; autuan diarduela, **ezebcza** zio, asarratu yakuz biak, etn bertsotan asarratu be; MenahVck diñotsanez, eztau bere etsaiak ez ;;atzik ez goi-jariorik bertso-tarako; Dameta'k baietz, arek beste ba-dauala. Or leiaka **bizia**. Orduantxe, egin-egiñcan, bere solo-Iandak ureztatzera **doan** Palemon etxejauna eltzen yake; **ta** auxe jarten dabe bitarteko, euren norgeiagoka onetan ebazle. Palemon epaikariak **diñots**:

*nEklñ kantaz, bedar malguan
Apaz gayozan ezkeru.
Uz'uz blai dakusgvz sotoak^
zugaizak fgaliz oro.
Ostotsu dagoz gaur oianak,
gaur ederren urte-aro.
Asi zaitez beingoz. Dameta,
ta zu, Menalk, ondorengo.
Txandan dabe Muse'k ederren,
Olan dot.ue jardungo.n*

Makur egin bildurrez, leialki jokatu ziran kontrako **biak**; batak eta bestcak, maitaie-maiteak aitatu **ta** goratzen dauz, **as**-pertz barik: bai ta, zorrotz asko, bakotxak bere auntz-ardi **la** larre-zelaiak edrretsi be. Azkenean, Palemon'ek ez daki **zer** egin, ez daki biotan zein dan sarigarri. «Ez dagokit niri, **zucn** arteko auzia ebaztea», diño.

g) *Kell'arrer. artean: Bmdoak, eskopak*

Europa-sarkakl& ontan, gaur lau mintzaira —alemana, inglesa, prantsesa ta espaiñola— baiño ezagutu ez arren, antxiñako lurraide oneitan ba-ziran beste batzuk be, keltarra buru zalarik. Erroma'k, azpiratu ondoren, Espaiña'ri ta Prantzia'ri bere izferra, latiña, ar-azo eutsien; Alemani'n ta Inglattera'n, ostera, jermanerak zapaldu ebazan besteak. Eta oneik doguz gaur lau izkera arrunt edo ofizialak.

Keltera, indieuropar deritxagun sendi andiko kide bat da. Antxiña-antxiñatik izkuntz onetan mintzatzen ziran Espaiña'n, Galia'n, Bretaiña Andian eta Irlanda'n egonez bizi ziran keltarrak: gaur Irlanda'n, Kornuel'en, Gales-errian eta Prantzi'ko Bretaiña'n egiten da bakarrik. Arein literatura, beraz, irlanderak, kornuelerak, gaelerak eta breizerak osotzen dabe.

Keltar guztiok genduzan edertzale ?morratu, idurimen garbat ta biotz-jario mindurikoak. Irlandarrak berariz beti aiputan. Etsaiz esiturik euren buruak ikustean, bizi-naiak eraginda, armetara jo bear nai ta nai ez; ortik, erri guduzale oneik, poesi lirikurako trebe izanik be, poema epikuetan batez be gaillurtu ziran. Tankera biotako olerkia, barriz, bertsolariak, ots, *bardook* —au baita euren izen apartekoa— ao-miñez zabaldu ta irau-azo eben gizaldiz gizaldi. Auxe euren egitekoa: jainkoak eta gizurenak goraldiz eliz jaietan; gerrarakoan, gudarien aurretik joanik, onein biotzak bertsoz sutarazi. Bardo oneik baitzuan, au da. alkartasun andiak egiñik, bizi ziran geienez, irriaren bizitz-arazo danetan sarturik.

Eskopak eritxen erri basatien bertsolari aberkoiai, au da, Europa zarra beñola darda gaiñean ipiñirik, zearka ta goitik bera zabaldu ta emen kokatu ziran erri arrotzak euki ebezan kantari zoliai. Anglosajoi artean asko ziran onetarikoak, erri-gertaeretan eta itz-il!un nastuetan sustraituriko bertso-esaleak.

i) *Jermaniarr/m artean: eskaidak*

Erroma'ko aginpide sendo zabala ankaz gora jaurti ta zuzitu eben erri basatiak, edestiaren laiño artean estalrzen dart

garaitik alan be, ezin ukatu geinke euren olerti egin-egiñekoa ebenik. Mitoloji 13 guda-odola almaiz baten zeaturik, oraingo Alemani'n ta Ingletefra'n ezeze, Eskandinabi-eskualdetan eta Islandi'n baitik bat, jermaniar literatura lora-pinportetan daukagu. Arein *sagak*, itz-lauz ta neurtuz idatziriko poemak, izen zabala izan dabe aldioro. Egia, oneik etziran beti jermarieraz idatziak, iparraldeko beste izkuntzetan baizen.

Edda deitu poemak alderdi goi areitako errien elezar, ipuin, esakun ta asmakizun zorrotzak jaso ta batzen dabez; ortik barenben areik arnasa ta gatza ta oler-zentzua gauzak ertz ederrez ikusi ta aitzen emoteko. Noruega ta Islandi'ko andiki-etxe ta bakal-jauregietan kantari ebiltzan *eskaldak*, euren poema ta "bertso-sail jatorrak ondu oi ebezan, errege, buruzagi ta aberri-jazokun aintzagarriak goretsiaz. Geroagoko *Nibelungen* epopei andii, jermaniarrei egoki be egoki datorkioena da, gordin, sarkor, guda-kirats.

i) *Pramzia'ko elezar kantariak*

Aldiaren obenari ezin eutsiz, latin errikoa ba-joian apurka berein zatitan puskaturik; emendik sortu zan gero,Erroma'rtin agintaritza bitartean be bai, probintzi ta lurralde bakoitzak bere izkelgi berezia aotan erabiltea. Erri basatiak gain-beratzean, are geiago nabari zan bereizkunde au; ta gisa orretan, laster jagi ziran izkera barriak, latin sustraitzat ebenak, baiña agandik gero ta urriñago egozanak. Bost izkuntza aparteko dira, batez be, orrela eratu ta gaillenduak: prantsesa, espanyola, portugesa, italiera ta errumanoa. Eta guzti onei *erromantze* edo erromatikoak deritxe.

Prantses izkera bitan zatitzen dala esan gengike: *oc* izkera ta *oil* izkera; garai baten danok mintzatzen ziran, bai ta gaur be; azkenez, *prantses* deituari indar emon yakon, eta gaur auxedozu Laterriaren izkuntz arrunta, beste izkelgi gisako guztiak erdi azpiraturik dagozan bitartean. Dana dala, izkelgi guztiok dabe euren gora ta inportantzia Erdi-aroko prankotar literaturan.

Prantses erromantzerik zarrena, idatzietan beintzat, *Estrasburgo'ko Ziña* da, 842'garrenean egiña. Geroago datoz *Eulalia deunaren Leloa*, *Alexis deunaren Bizitza* ta abar; bai ta laster edesti-jazokun eta guda-gertaera poemak (*gesia* eresiak) agertu yakuzan, gaztelu-jauntxu ta gudalari azkarrak goretsiaz egiñak, baiña azal ta mamin olango balio andi bakoak. Eresi oneitatiek bikaiñena, ezbaierik bage, *Chanson de Roland* (Errolan'en eresia) dogu. prankotar bertsolari batek, idurimenez ta orduko errigiroz, guda-gertakizunetik irureun bat urtera ondua. Karloman'ek, 778'garren urtean, Espaiña'ko moruen kontra Zaragoza aldera egiñiko ostera bat dau kantagai. Etxerakoah, Orreaga gaiñean, Ibañeta bizkarrean daukaz zain euskaldunak, andik igarotzean egin eutsoezan iraiñen ordain-eske; gezi,azkon, arri ta gaiñerakoz zigorraldi galanta emon eutsoen prankotar nagusiaren gudarozteari; bai ta Errolan bretoiñar kondea bertan eran, illerazo be. Euskal Pastoral bat ba-da onetzaz, *La Pastorale de Roland*, J. Saroihandi'k ederto azaldu ta argitara emona.

Garai aretan ba-zan Prantzia'n barna, batez be Probenzta'koak lurralde guztira, ara ta ona, zabaldu ziran ezketiño, bertsolari ta elezar kantaririk. Adur-zale genduzan ordukoak, zalduntasunari ta krist.au siñismenari berea emoten ekienak: iñoizka gordin ra zakar lez agertzen ba'yakuz be, mende areitako gizarte-pentsakerari dagokiozanak baiño ez ditugu. Or *Fabliaux* deritxen bertso-ipuñ errikoiak, bertsolariak (trouvés) egin ta zabalduak.

k) *Probenztdko trobadorak : Prantzidn eta Itali'n*

Esquerra'k diñoanez, X'garren mendera ezkerro, kultura-lorate jori bat daukagu begi-aurrean, Prantzi ego-alderantza, Probenzta'n bereziki; eta, XIII'garren mende azkeneraiño luzetuko dan kultur-garatze onek, Europa osoko gero-zibilizaziñoari buruz, zer-ikusit ta ondoren ziur erabagitsua izango dau naitaez. Ango maizter andikien artean, auzoetakoak baiño buruz jantziago baitziran, olerkera berarizko bat agiri da: *trobadoriena*; eta, ondorioz, oneitatiek dario gero europar lirika guztia. Probenzta izan zan bertsolaritzaaren abi emokor. Izkuntzaz, proben-

arabiarrek bertoratu yakozanean; baiña, izkuntzari buruz, Europa'ko beste errialdeak baiño zori obeak laztan-erazi eballa esan gengike. Erdi-aroko europar literatura guztietatik zerbait artuagaitik, sendo ta indartsu agertzen yaku **XH'**garren gizardirako, urrengo menderavte olako erri-agiri ta dokumentuetan idatzirik agiri ezta be. Gero, pizkundeari eskerrak, aberats zaillu egin zan.

Horago esan dogunez, bertsolariak, orduko antze-zabaltzailleak, ez egozan geldi, ez ebiltzan nagi. Euren ogibidea zan bertsolaritza, ta orren onaz besterik ez eben begirutzen. Ortik, areik aldatu ta Auñamendiz andik ekarriak dira Espaiña'ko lenkantarik geienak. Nundik? Prantzi'tik, Probentza'tik ala Alemani'tik? Irurotatik poxi bat. Laster azaldu ziran, beintzat, gudaegite latz, zaldunen maite-lelo ta arrigarrizko kontakizunak. Bazan antxiña-antxiñatik olako erri epopeia be, kanta zarras osotua (*mester de joglaría*); gero, ondorenez, ortik sortuak ziran (*mester de clerecía*) gai askotariko poemak, edestia, eliza ta gizarteko oitura onak goratzen ebezanak. Ortik sortua, baita, XIFgarren mende erdirantza idatziriko *Mío Cid* poema. Ez dakigu norena danik; baiña, Errolan'en eresíak lez, kondairan ezagun dogun iazokun bat dau oiñarri, gaztelar arnasa bizi-bizi dariolarik.

Bertsolariok, gaiñera, «purpur-soiñekoz jantzita, erriz-erri, ara ta ona ibilliak ziran ipurdantzariok», lur aukerakoa idoro eben Espaiña'ko uriburu ta erririk geienetan euren gaitasuna ta ederrerako sena erakutsi ta zabaldu al izateko. Ziran bestean zabalik eukezan Gaztela'ko, Aragoi'ko, Leon'go, Naparrua'ko, Kataluña'ko, Galizia'ko naiz Portugal'go errege-jauregiak. Palea bertsolaria agertzen yaku (1136) Alfonso VIFgarrenaren aldian; errege onen idazkaria oso begiratu bait-zan, izpar ta barririk asko damoskuz orduko bertsolariai, naiz kanpokoai naiz etzekoai buruz. Makabré gaskoiña ta beste ospetsu zenbait emetik ibilliak genduzan.

Katalana ta probentzera, besoz beso dabiltzan izkuntza bi. Jatorriz bat diran ezkerre ta alkarregandik urre bizi, ar-emon andia euki eben Probentza'ko ta Kataluña'ko bertsolariak; probentzarrak, gaiñera, Kataluña'tik zear eben Espaiña'rako igar-

obidea, Dana dala, XII'garren gizaldirako guztiz edatua zan katalandarren bertsolaritza. **Iñungo** goretuenak ziran erdi katalan, erdi probentzar oneik: **Palol'go** Berenguer (1136-1170), **Bergadá'ko** Gillen (XH'garren amairantza), **Besalú'ko** Erramun Vidal (1210'an illa) ta **Girona'ko** Cerverí (1250-1280). Erriaren irakasle oneik, taldeka be sarri ebiltzazan, eta aparteko eskola bat eukien euren irakatsietan alkar berotu ta sakonagotzeko. Erramun **Lull** (1232-1315) dogu, gero, jakinlari, mistiku ta olerkari, katalan izkuntza mendi kukutzeraiño jaso ebana.

Galizia'n, ostera, Probentzaz landa, beste iñun baiño indar geiago euki eban beren-berengizko bertsolaritzak. Ango errege **Mirón** suebotarrak, VI'garren mendean, mimi ta txerpolaríak eukazan bere jauregian, jaiburu ta egun zuri jenteari atsegin emon egioen. Atzerriko kantariak be, Konpostela'ra sarri joiazalako, berein saioaldi egin eroiezan angó lurraldeetan: Galizia'n zein Portugai'en. Biotako kantutegiak (*cancioneiros*) oso aberatsak dira.

5. *Bertsolariak erri-izkuntzen azkortzaille*

Bertsolariak literatura ezagunenetan izan daben alde ederra iradu samar ikusi ondoren, ikus dagigun labur, ardura andikoa yaku-ta, lurralde bako txeko erri-izkuntzak sortzean oneik ipiñi eben barren-adore ezin-bestekoa. Zuzentasunari yagoko bako txari berea emotea; beraz, bertsolariak be bear dabe zor yaken esker ona ta goratzarre aintzagarria, literatura-zelaian ain egoki egin euskuen lanaren ordaiñez.

Arein zernaitarako lana gogotik aztertu ta jakiñerazo euskun **Menéndez Pidal'ek** onela diño: «Bertsolariak, asi-asieratik, musikaz ta bertsoz jolastu oi eban guztiekiko gizartea, andi ta txiki, jakintsu ta ez-jakin. Au lortu al izateko, Erroma'ko kokozantzezlarri, kiñuti ta barre-eragilleen ona ondorenez artuta be, erentzi ori eten barik aldatu bearrean aurkituko zan, ausaz, aoxuri aldakor dan jenteari atsegin izan ekion. Egunean-egune-ango oitura ta ekandueri egokitze ori, barriz, bertsolariaren alderdirik bereizgarriena dogu: entzun ta beingoan alde egian

detik onuntz, baiña, etziran aintzat artuak; «**kopla** zahar lez» —**diño** Garibai'k—, aurretikoekandik arturiko gauza zarrak lez gorde bai, baiña ez yaken siñisten. Onek, barriz, ez siñistu ez jaramon, berez ekarren bertsolarien destaiña, nortasuna galtzea. Ta taiu orretan, len aspalditik, jai ta aste erriz erri kantari ibilliriko bertsolaria, erregeen olerkariak eta kondaira idazle zorrotzak agerretzerakoan, eguzki aurean izariak iduri, utsaren urrengo geratu zan literaturarik geienetan. Zoriaren gurgpilblastada, urrean.

6. *Euskera, gure izkuntza zarra*

Euskaldunok, enda ta izkuntza, erri berezi bat dagigu. Erri oneri eutsi dautsona, zalantza-izki bage indartu ta gizaldiak zear oiñean iraunazo dauana bere izkuntza, gure euskera izan da; augaitik izan ez ba'litz, antxiña zan lur emona euskal crria, bai enda lez b[^]i alkartnsun eratj lcz; albretakoak curenera erakarri ta euren odolaz nastau ta irabiaturik, gurearen lorratz pitiñik be ez eben onezkero itxiko. Orrelaxe jazo da munduan aspaldi bateko erraza askogaz.

Jakitunen eritxiz, euskera dozu gure erriari zutunik eutsi dautsona; zugatz makalak euskaia bear. Eta, izan be, euskerak ba-dau bere barren-kemena, bere burua zutik erabilli ta, uiol gaiñezka lez, ber-bere diran beste zer guztiai be eskua emonik bear dabenaz laguntzeko. Geiegi esatea ete? Gauzak susterretik aztertu ezkeru, ez dirudi. Gaur berton be, izkera-zaleentzat izkuntza onena da auzirik zaillena: Ierrenak egiñik, ezín dabe berezi ta sailkatu munduan diran beste izkuntzen artean. Europa'koen artean txit bakana aurkitzen dabe, ezin berezia. Bai ta ao batez autortzera beartu be: «Munduan ez dala euskera baizen eder aberatsik».

Euska) idazle batek: «Euskera aberatsa al da? Izkuntza baten aberastasuna ta edertasuna bi eratakoa da, bat berezkoa, sustraikoa, itzak sortzeko egokitasuna, ta bestea izkuntza landurik ematen zafona, itz aberastasuna; au adierazteko adibide bat esango dizuet. Alkarren ondoan ipiñi itzazute, urre koskor bat, traketsa ta zikiña aldean, eta zillarrezko bitxi bat lan fiñez

landua, egofci antolatua, garbia ta iñork gutxik egin dezakean erakoa. Zein da aberatsena ta ederrena? Urreak bcrez geiago balio du zillarrak baiño, berez aberatsagoa da; baiña landu gabe dago, ta zillarak, ain aberatsa ez izan arren, lan fiña daukalako, urre koskor zikiñak baiño geiago balio du askotan. Euskera ere berez aberatsago ta ederrago da beste izkuntzak baiño, ala diote jakintsu guziak; baiña landu gabe dago, lan fiñik gutxi dauka, gaurko eguneango gauzak adierazteko bear ainbat itzik ez dauka, arlote dago. Beste izkuntzak ere arloteak izan ziran asieran; asko idatziaz, asko irakurriaz eta asko erabili-az sortzen dira itzak, eta utsune ori dauka euskerak, naiz berez oso aberatsa ta ederra izan».

Era onetan mintzatzen ziran orain berrogei urte. Gaur, oster, ezin geinke —euskera eder ta aberats kontuan beintzat— oJakorik esan. Ordutik ona lan ikaragarria egin dogu euskal literaturan; gaur, gure euskera, ez bakarrik aberatsa ta ederra, edozein gai oso trebe erabilteko lain be ba-dogu; gizaldi ontako euskal idazle zaintsu ta euskaltzale porrokatueri eskerrak, naiz literatura-arloan naiz beste edozein jakintza-maillan zernaitako gaiak eta gauzak ederto azaldu ta adierazteko beste dogu. Gaur ezta arlote gure izkera, urre-pitxi landua baiño; ezta baserriko amama zarra, uri ederretako neskatx liraiña baiño. Gakiozan lanari, ta emetik berrogei urtera esan dagiela gure ondorengoak: «Txalogarri, ziñez, gure aurretikoen lana!»

Nozkoa dogu? Jatorriz kondaira aurreko laiño artean dauka-gu murgil. Gure izkuntzalariak, gaur iñozkorik gogotsuen diardue lanean, kondaira aurre aren ezkutua askatu nairik. Ezer jadetsiko ete? Aro illun areitatik arri-aroan beintzat euskera zan euskaldunen izkuntza. Lur ontara etorri ziran lenen-lenengo gizonak —Asia'tik, Aprika'tik, Atlantida ugartetik?— euskaldunak zirala esatea, ziur-ziurra izan ezta be, egitzat jo daiegu, Ibai ertzetan bizi izan ziran geienez, bai ta aitz eta arkaitz zulo ta lezetan be; eizez ta arrantzuz janaritzen ziran. Illen izenean gomutagarriak jaso oi ebezan: dolmenak, mai antzera ipiñitako arri zabalak, eta *menirak*, lurrean sartuta zutik ipiñiriko arri bakarrak, edo-ta *kronlek* deritxoan arri jagi saillean jarritakoak naiz bakankakoak. Geroago, artzaintzari ta nekazahtzari ekin

eutsoen. Eta arriz egin ebezan eizarako, arrantzurako, artzain-zarako naiz nekazaritzarako bear zituen tresna ta tramankuiu guztiak: arrizko aizkorak, arrizko azkonak, arrizko atxurak, arrizko mailluak, arrizko artaziak, arrizko aiztoak, arrizko izkiliuak, arrizko azpillak, arrizko zulakaitzak eukiezan euren zeregiñetarako. Eta tresna onein izenak *aitz* edo *arkaitz* dabe oiñarri. Beraz, Kanpion'ek onela: «Euskoak, euskaldun izanez, au da, euskeraz mintzatuz, igaro eben arri-aroa alderik alde. Kondaira aurreko garaietatik Europa'n egotez aurkitzen doguz, kondaira aldiari etorri ziraneke lorratzik eztogu-ta. Beraz, Euskalerriaren jatorria oso antxiñakotzat jo bear». (*Los Orígenes del Pueblo Euskaldun*, III, 159 orr.)

Sukarrizko aizkorak, ostera, len-gizon landuaren aztarnarik zarrenak dira, gure biran aurkitu gengikezan lorratzik lenengoenak; eta oneik laugarren arokoak, ots, be-paleolitokoak dira arri landu arokoak. Onek darakuskuna: be-paleolitokoaren asieratik gizona bizi dala euskal lurrian, eta gizon zahar onen izkuntza, ziurren euskera zala. Erri baten izkuntza, barriz, bere gizaldiz gizaldizko aurrerapen utsa dogu; ez gizonetik gizonerako pentsamentuaren ekarri soilla bakar-bakarrik, bere esaera ta aoz-aozko elezarretan, bere atsotitz eta iztegiari erri orren gogoia ta kondaira egoki baizen tinko zaintzen dauana be bai. Euskerak ortik bere kautan daroaz euskal edestiaren zatirik bikaiñenak, urrepitxirik aberatsenak. Ona J. M. Barandiaran'ek: «Gaurko gure gogaiak, erdi-aroako asmo ta egikerak, euskal-erromatarren garaiko oitura ta ekanduak, ariotar lengogolantzearen ipuiñak, arri-aroako siñeskera ta ekiñak, euskal iztegiako itz, mintzaera ta esakunetan itxi ebezan euren atz nabarmengarriak».

Gai oneri geiago ekiñik, jakitunen artean au esan oi da: «Izkuntzetan ba-dira itz batzuk, an eta emen, antza dabenak». Egia, izkuntza guztien barne-zokoan da txitxapur bat, zelanbait guztien antzeko jatorria iragarten dauskuna. Baiña, gero, nok nori emon dautsoz itzak? Lateraz, espaiñeraz, alemaneraz naiz kelteraz euskal sustrai zarrak idoro eta euskerak izkuntz oneitattik artu dabezala esan? *Aizkora*, esaterako, espaiñeraz *hacha* da, prantseraz *hache*, alemanez *axen* ta ingelesez *ax*. Danok sustrái

.nonak al dira? Nok nori, baiña? Andik eta emen-
 < ete? Alkar-bizitez artuak, ala errien beñolako ara-
 o\ . ^iltean alkarri ostuak? Alabear utsez? Itaun guztiok aintzat
 artzekoak doguz, gai oneri buruz oso-osoko baietza emon aurretik.
 Indieuroparrak Europa'ra eldu baiño len sarkalde ontan itz egiten
 ziran izkuntzetatik, euskera dogu gaur arte iraun dauar.a; beste
 guztiak sur.tsitu yakuzan betiko. Ondoren izkuntza askoz inguratuta
 bizi izan da euskerea, keltera, latera ta onetik sorturiko erromantzeak
 baitik-bat. Beraz, onein artean antzeko zerbait izatea, ezta arrigarri.
 Baiña ortik euskerak euneko ainbat lateratik artuta daukala esatera,
 arlo lar edatua dogu. Azter begi bakotzak aitaturiko izkuntzon
 suster-iztegia ta gurea, ta laster ikusiko dau nor dan egiaren jabe.

Dana dala, euskalariak euren arazoari kobru emonik, euske-
 rearen aide kutsuak jarrugi nairik izardiak bota dabez; alan be,
 oraiñarte beintzat, esatekorik aurreratu bage. Aurkitutakorik
 geienez be itz antzekoren batzuk, esanguraz sarri bat ez datozanak;
 gramatikan aurkitzen dabez eragozpen andienak. Gaur sekulakorik
 gcienen Kaukaso aldeko izkuntzak ikasten saiatu dira euskeragaz
 idetuteko; berrogei ta amar bat izkuntza d'ra bertan. Kaukas-
 iparraldean, txerkese, abkhaz, ubykh, txetxen, daghestandarra;
 ta egoaldean, georgiarra, svanoa, kartvelesa, mingreli-lazikoarra
 ta abar. Onein eta gure euskareren artean aidetasunik ete? Itz
 batzuetan, bai; euska! *gu* izenordea, adibidez, georgieraz ta
 svanoeraz *gw* da; gure *zu* txerkesez o abkhazez eta ubykh-
 eraz *sw* dogu; gure *guraso* itza be georgieraz *gvari* (sendia) da.

Bai ta ikasi dabez Kam ta Sem'tarren izkuntzak: bereber,
etiopiera, egiptarrena, koptarrena, akadiarrena, kutxitarrena,
 arabiera, iberkera, siriera, abisiniera, feniziera, asiriera, babilo-
 niera; Siberia'koak, txuktxe, koriako, ta kantxalad batez be; bai
 ta Amerikakoak be, Peru'ko ketxua ta aimara, Kanada'ko algon-
kin, Txile'ko araukera ta Kolonbia'ko katio; bai ta Jesukristo-
 ren aurretik bi edo iru milla urte euskaldunen inguruan bizi
diran indieuropar edo ariotarren izkerak be, keltena, gerkera,
 latera, jermaniarra, cslabarra, ta talde otakoa dan sanskrit
asiarra, eurokandiko beste taldeekin. Eta jakitunok zer diño?

Euskera **eztala** indieuroparra, ta **sarkaldean** beintzat, orreik **baño zarragoa** dala. **Tovar'**ek onela: «Indieuroparrak **Europa'n** zabaldu baño iru bat milla urte aurretik, euskera **emen** zala baieztu geinko. (£1 *Euskera y sus parientes*, Madrid, 1959, 62 orr.)

Ondorik, ba, au aldarrikatu gengike: antxiñatean izan zan izkuntza ondatze atatik euskereak bakarrik onez urten eبالا. Europar sarkaldean, izkuntza-mundu baten ondamenti osteko mutxikiña dogu, antza; beste guztiak, indieuroparrak agertu aurretik inguruan ebazan aizta danak ostendu ziran betiko. Euskera dogu soilki itxas-zirimol asarrekor ortatik burua zangar atera euskuna. Euskera ta Euskalerrria, munduko jakitunak zoratzen dozuzana! Argentina'ko edestilari Gandia'k onela: «Euskalerrria da Europa'ko erririk zarrena. Bere izkuntza dogu, paleolitiko-neolitiko garaian, Kaukaso'tik Atlantiko'raiño ta Aprika iparraldetik Europa iparralderaiño mintzatzen zana. Ariotarrak edo indieuroparrak, etruskarrak, iberotarrak eta beste antxiñako erriak euskaldunen ostekoak dira». (B. Estornés Lasa, *Los VascoS*; 245 orr.)

Aitaturiko suntsi-ondamen onetatik, euskerak zelan urten ete eban onez? Auzi zailla. Urteak joan urteak etorri, erririk asko ibilli yakuzan ingurumari; Euskalerrriari euren lege, oitura ta izkuntzak indarrez arrazo naiean be bai sarri; baiña, euskal adoreari eskerrak, zai goseti antzo biran ebilkiozan erri indartsu orreik osoan ez eben iñoiz be menderatu. Erroma bera ementxe koldartu zan, gudarozteak eta gudarozteak bialdu arren, Napparroa, Errioxa ta Araba doi-doi bait-zitun igaro: etzan Lzan iñoiz be Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko mendien jabe. Euskaldunari ez eutson bere izkuntzarik ezarri: euskaldunak euskeraz mintzatu ziran orduan eta geroago, eta orain, arrezkero bi milla urte ta geiago igaroak izan arren. Labairu'k ederto: «Igaro ziran keltarrak, feniziarrak, gerakarrak, kartagotarrak, erromatarrak eta erri basatiak; euskerak, ostera, tinko ta sendo dirau aldaketa barik, Auñamendi ta inguruetako mendi-kate zakarrak zainduta, belaunaldi bulartsu ta agurgarri askotako asabaen izkuntzari zirkinge eutsirik». (*Historia de Vizcaya*, 640 orr.)

Erromatarrak, alan be, zati andiak kendu euskuezan. Edesti-

aurretik, oindiño be aurkitzen diran ondar-mondarrak diños-kuenez, Aragoi'tik Garona ibaira ta Auñamendi-tontorrez tontor Mediterrane itxasoraiño, gitxi-asko euskeraz mintzatzen ziran; Sarkalderuntz, barriz, indieuroparraren aurretik batez be, Santander ta Asturias'ko mendi-ibarretan euskal mintzoera erabiliak ziran; naiz-ta gero, keltarren garaian, Santoña-Karrantza, Mena-Bureba-Errioxa lerrora baztertua izan. Erromatarren lapurreta ontaz ederto jarduna dogu Orixe.; Dante'k bere *Jainkozko Antzerkia'n* geiegi itz egin eban, antza, gure izkuntzaren esitzeaz; eta Orixe'k: «Ez, Dante, ez; Naparroa Bureba'ko Ata'iaño zan; euskeraz itzegin oi zan. Zuek, bai, besteren errietan ukalondoa sartzen duzute; zazpigarrenik ez duzute ezagutu. Gure errege Santz zugur seigarrenak, Ata'ko mugara iritxi zanean, zugatz batcn gerrian sastatu zun ezpata, au esanez: «oneraño da nere iaurerria». Aren gudariek orobat, lantzak lurrean sartu zituten. Lekuko da Bizkaian Malastu zugatz ere. Guk ez genun besteren erririk maiztatu, ez aien utzi-kondorik artu, ez emazterik eraman». (E. G., *Quito'n arreba-rekin*, 1954, 60 orr.)

Euskera, itxas-erdiko izaro lez dogu; izaro ta euskera, biak inguratuak noski: izaroa urez, euskera etsaiz. Gizaldiak zear, etenbako burrukan ekiña. Baiña, bere bizitza luzean, azken lau milla urteotan batez be, erasoaldi guztiak gorabera, Bizkaia'n, Gipuzkoa'n, Napar goialdean eta mugaz andiko Lapurdi'n eta Zuberoa'n, naikoa zintzo eutsi dautso bereari. Eta aurrerantzean? Iñoizkorik gogorren diardu biziko ez biziko burrukari gordiñ. Egia: lengo gizaldietan baiño askoz arrisku andiagoan daukagu gaur. Euskal lurra ezta orain lur zeken, urri, ezta urriñeko zokondo be. Bizikera osoan aldatu yaku; len mendibaso tringuz egozan lekuak bide zabalez bete dira; erririk kasarrenak be industri, azoka ta salerosketa-zulo; erdeldun jentez ase yakuz bazterrak; gudaritza, gizarteko ibil-zaletasuna, ikastola, eguneroko, aldizkari, irrati, urruti-ikuskin ta abar, tresna egikoak benetan izkuntza bat ondatzeko.

7. Euskal gogo zarra la bertsolariak

Zabal dakilkigu gaur bakotzak —eta guk euskaldunok batez be— gogo bi, arima bi, ezpiritu bi daukaguzala esateko oitura. Barrukoa bata, geure-geurea, len-sortzetikoa; artua bestea, kanpokoa, geugaz edo geure inguru bizi izan ziran kelt'arrakandik edo gerkar-latitarrekandik jasoa. Edestia osotzean, beraz, gogo bi oneik aintzat artu bearra daukagu. Eta biotan zein dogu beñena, geure-geurea? Barrukoa, ziur asko. Eta nun daukagu, nun agertzen yaku berori?

Ona, oraingo arloari ekiñik, zerbait beintzat azaltzea gura geunkena. Gora ta garrantzi andiko gaia danik, ezin leiskegu iñok ukatu. Gure ari zarra nun daukagun, edo-ta nun dabilen jakitea, beti be eder. Ortarako *aro* bi doguz, aldi-zati bi: ixtori aurrekoa ta ondorengoa. Bigarren au, tresnazko ta idatzizko argibide naikoa dagozaiako, lenengoa baiño errezago da. Lur-sail kolokaz ez jarduteko, gurean gai oneri buruz egiazko maixu doguzan Barandiaran, Arantzadi ta Eguren euskaldun jakitunai jarraitu bear. Ona, laburto, Barandiaran'ek *Euskalerrri'ko Leengizona* bere liburu mamintsuan edesti-aurreatzaz diñoana. Erle egalari antzean, jakingarrienari ikutu besterik ez dot egingo.

Guk geure jatorri ta bizikera oso bereziak doguz. Augaitik edo, Euskalerrria, beste erri guztien artean, garbi nabarmendua agertzen yaku beti. Berezitasun orren sustrai ta kimuak antxin-antxiñatik datorkiguz, urrundik dakarkigue euren asiera. Kimu ta sustrai orreik, danak alkaturik, egin eta eraldu dabe euskal edesti gutzia. Lenengo aroak, ots, Jesukristo'ren siñismena gure a'derdian sartu baiño lenagokoak azaltzeko, Arkeoloji ta Etnografia'ri berea eskatu bear; antxiñako idazti zarrik ez baita. Orrela, gure edestia maillaz mailla eraldua agertzen yaku. Ta mailla orreitako b.itzuek Pirene-mendietan euren sortze ta aurrerapenak, Jesukristo baiño lenagoko aroetan, izan ebezan.

Antxiñako gizonak idazten ez ekien, eta ezin euren gertakari ta bizikerak, orain lez, idazrietan aitatu. Auxe bera jazo zan Euskalerrria'n ienengotik asi ta erromatarren zabal-aldiraxte. Bitarte oni «Edesti-aurrea» deritxogu. Edesti-aurrea, ostera, lau garaitan banatu gengikc: 1) *Paleoñitos*, au da, arri-I^ndy

garaia; 2) *Mesolitos* edo *Epipaleolilos*; 3) *Neolilos*, au da, ariaban-garaia, ta 4) *Mmasta* edo metal-garaia. Paleolitos-garaiak mailla bi ditu: 1) Le'en-paleolitos ta 2) *Geroztiko* paleolitos-aroa. Leen-paleolitos-aroko aldiak lau dira: 1) *Cheles-aurrekoa*; 2) *Cheleskoa*; 3) *Acheulkoa*, ta 4) Moustier'koa. Lenengo iru aldi orreitan gizonen aztarna garbirik ezta gurean; alan be, aldi areitan Euskalerrrian gizonak bizi izan ziranik ezin geinke ukatu. Moustier aldiko langintzaen agiriak Olha'ko arrillorpe baten, Isturitz'en eta Zuñiga'n aurkitu dira; zakar samar taiuturiko aizkorak, marruxkak eta abar, orduko gizonen bizikera eizetikakoa ondo adierazten dauskuenak. Giro aldaketa andiak izan ziralako, leza ta artzuloetan bizi izan ziran. Leen-paleolitos aroan giza-enda bi ebikzan Europa'ko lurretan, bata bestearen ondolik, arein azurretatik dakusgunez: *Homo heidelbergensis* ta *Homo neanderthalensis*.

Geroztiko Paleolitos aroko edesti-gaiak lengo aldikoak baiño ugariago aurkitzen dira Euskalerrrian. Aro orrek iru aldi ditu: 1) *Aurignac*; 2) *Solutré*, ta 3) *Madaleine* atdiak. Aun'grTac-aldiko aztarnak Santimamiñe'n, Bolinkoba'n eta Isturitz'en badira. Sofutré-aldikoak, barriz, Santimamiñe'n, Boiinkoba'n, Isturitz'en eta Ermitia'n. Eta, azkenik, Moda/eme-aldikoak galanki agertu dira orain aitatu ditugun toki orreitan, eta gaiñera Aitzbitarte'n, Urtiaga'n, Lumentxa'n, Armiña'n, Baltzola'n eta Laperra'n. Euskaldunen edesti-aurrean dan garairik izendatuenetako bat dogu Goien-paleolitos au. Gauzak itxura dabenez, orduan emen ebiltzan gizonak euskaldun jatorrak ziran. Zelan, baiña, jakin ete leiteke ori? Gaurko euskaldunok daukagun lurzari au aldi areitako pranko-kantauritar erriaren erdi-aldeko lur-arlo bat zan. Alderdi onetako gizonak bizikera edo gogolarjzte (kultura) oso berezi eta bakarreko bat erabillen. Bereztasun au, aldaketa baizuk gorabera, geroztik be ondo zaindu eben, alik eta gerkar ta erromatar edeslariak euskaldunen (vasconum") izena aitatzen asi ziran arte. Au argi adierazten deusku Arkeclojiak.

Eta onela darrai Barandiaran jaunak: «Goien-paleolitos'-lotik asi ta gaurdaño Euskaferria'n euskaldunak bizi izan dirana uste dezakegu, beraz. Eta, zenbat urte ote dira Goien-paleolitos'ko ori igaro zala? Fz da erantzuten erre. Alaz ere, gauza

oeri al dan egokiena neurriak artuta, esan gentzake Goien-paleolitos'ko orren azken-aldetik (Madeleine'kotik alegia) asita orainarte 14.000 urte igaroak dirala. O. Menghin'ek dionez, berriz, 7.000 urte (agian 6.000) bakarrik igaro dira. Noiz eta nondik sortu ete ziran euskaldunak Europa'ko bazter onetara? Ez dakigu. Gai onetan iritzi asko erabilli izan dira; baiña gauzari egiaz igartzeko lain indar eta agiririk izan ez dute. Orregatik, nere ustez, euskaldunen edesti-aurrea Goien-paleolitos'kotik asten da, Aurignac'kotik noskiro. Euskaldunen aztarnarik antziñagokoenak, ordufik datoztela deritzot». (Ikus *Euskalerrri'ko Leen-gizona*, Donosti, 1934, 25 orr.)

Pireneetarrak, euren kultura apartekoaz, Auñamendi mendietan iraun eben, aldakuntza andi barik, luzaroan. Gero, edestigaraietan, lau taldetan 3gertzen yakuz: baskonak, barduloak, karistioak eta autrigonak; eta azkenean, danak batera, euskaldunen izena artu eben. Eneolitos-garaia ezkerro, ezta Euskalerrian erri-aldaketarik izan. Iberotarrak, pireneetarren ondoan bizi ziran; J. K. aurreko IH'gizaldi inguruan goiko Aragoi'n Prantzi-aldetik sartuak ziran antza, baiña ez eutsoen ego-aldetik Ebro'ko ibar-zelaiari gainez egin. Sartaldetik, barriz, Santander'ko lurretan eta Asturias'ko sortaldean (*cantabri*) egon ziran. NE aldetik Akitania beretu eben; baiña lenagotik an egoan eusko-gogolantzea etzan orregaitik erabat galdu. Ango toki askoren euskal izenetan iraunerazo eutson bere kutsuari. Keltarrak, gero,- J. K. baiño 600 urte lenago Orreaga'tik igaro ziran arren, Euskalerrian ez eben aintzat artzeko aztarrenik itxi. Eta, atzenez, erromatarrak eldu yakuzan gu menderatu naian; lenengo eunkitik laugarreneraíño bitartean, erromatar gogolantzearen ainbat ondakin daukaguz Euskalerrian, batez be bide, iturri, ur-bide, urberotegi, illobi, eleiza, etxe ta erti-lanetan; landa ta lurralde agiritan au, lurbarru ta itxasaldera ez baita ainbesterik agertzen.

Lurralde bikaiña, ziñez, Jainkoak guri emona. Izadi osoa eder-min dala dirudi bizitoki zoragarri ontan. Lur, mendi, zelai, ibai, itxaso, abere, egazti ta zero ez ete ditugu orrelaxe? Adimen-bageak orrela ba'dira, inguruko guztia ederrez gainezka ba'daukagu, bertoko biztanle dan euskaldunak ez ete dau ede-

rrerako senik? Ez ete dau asmamenik, ez gorago-nairik? Ez ete dau iraun-ardurarik? Itz batean, euskaldunak ez ete dau erri-antzerik, erri-ertirik itxi? Eta zer da erri-ertia? Ona ederto Lizardi zanak: «Erri bakoitzak, odoletiko zalearen, bere bearraren, bere bizieraren, zeru argi ala laiñoaren antzo ta arabera sortu-ertiera, ta ertiera orren arauz sortutako erti-lanak: orra *em-ertia* zer. Lan ertitsu erritar dituzu, adibidez: noiz ala nork egiña eztakigun abesti zaarra; olerkari auen, erri-olerkari-rien neurritz edo bertsoak; pozaldiak yaitezko erriak asmatu ditun dantzak; yazkera; makillan, kutxan, argizai-olan erabili izan duan zur-apainkera; bizi-tokiari, etxeari, urteak eta mendeak zear, azaletik eta barrendik itsatsi dion tankera... Itz batez esanda: zenxo apurrenak ere, erriak, oldezko ta ez-landuzko edermiñak eraginda, apaintze-ikutu batez edertu baititu; or dezu erri-ertia». (*Itz-lauz*, .126 orr.) Bai, auxe dogu erri-ertia. Ta onako asko dogu Euskalerrian. Euskaldunak, beraz, zer askotan erakusten dauku bere arnasa, bere gogo illezkorra; ta kondaira aurretik asi ta gaurdaiño, seaskatik illobiraiño erakutsi be: euskal ume-abestiak ei dira munduko ederrenak. Eta gure mendi-muiñoetan dagozan antxiñateko trego-arriak, menirak eta kronlek'ak? Orreik be, euren ein eta neurrian, euskal gogoaren zer zar bat darakuskue.

Geure len-jatorriaz czer ez dakigun arren, itzaren ondren-goak gareana ba-dakigu beintzat; euskera da gure itza, ez dogu beste izketarik izan. Euskerak ludiaren asierara garoaz. Euskotalde edo erriak bere izkuntza, euskera sortu eban, jakintsu sortu be, ta gero gizaldiak zear beti euskeraz mintzatu da. Itz egitean arnasa emon daroagu, aizean kulunkak igituaz; euskeraz dagigu arnasa. Geure barnea ustu, geure oldozkun eta gogakizunak besteai adierazo, egiteko oneik itzaren bidez, izkera bide2, guk euskera bidez egin oi doguz. Euskera dogu arnasbide.

Ortik nun daukagu gaur gure gogo zarra, gure izpiritua? Gure antxiñakoen arnasa? Argi ta garbi autortu daikegu: geure abesti, bertso, elezar, ipuin ta antzekoetan batez be. Euskaldunak, naiz-ta berez edozein erti-Ianerako gai ta trebe izan, kantuz eta dantzaz eta bertsoz utsitu dau geien bat bere biotz-iturria, artzaiñak mendi-muiñoetan, nekazariak landa-zelaietan

eta arrantzaleak itxas-gain urdin-bareetan. Izadi-zale dogu, gaiñera, oso; ta or ditu artzaiñak zenbait edergaillu, mendi, zelai, txori, laiño, zeru, eguzki, illargi; or ditu nekazariak solo, sagasti, beresi, arizti, arkaitz sotiltasunez aserik; or ditu arrantzaleak ainbat goi-arnaskai kresalaren bizkar egon-eziñean. Gaiok, len eta orain, beti izan dira, eta izango, giza-olermenaren arrotzaille lerdin. Makiña bat bertso abestutakoa dogu edesti-aurreko artzaiña; makiña bat agur gozo eguzkiari egiña, bere txabola ertzean jesarrita, a sartaldean sartzen ikustean. Gaur be oitzen da olango agurra:

*tiEguzki amandrex ba
doa bere amangana;
biar et-orriko da,
denpora ona badu.vi*

Ez len ez orain, edestilariak ez dabe dana esaten. Oteiza'k onela: «Gurc kondaira-zaleak jazo yakuzan gauzak jalgi oi dabez, jazo bako alderdia aitzurik; au da barriz bizi-biziena ta, beraz, bestea baiño ixtori egitiagoa euskal egikera, cstiloa, gure barne-biziaren ixilla; guk estalgetu ez doguna ta gaur ulertu bear doguna. Euskal egikera gure aurretikoen ele, ipuin ta gauzetan datorrena da». (*Quousqne tandem...!*, 7 orr.) Eta gure arnasa, izakera ta estiloaren zaintzaille egiazko, lenengo arpe-lezazuloetan eta gero txabola ondoetako kronlek edo arrespilletan, euskal bertsolaria dogu. «Bertsolaria da —diño— gure artean estilorik garbi ta argitasunik ernegarrienekoa... Geiago esan dagiket oraindik: bertsolaria dan zerbait bere barrenean sumatzen ez dauan euskalduna, gizon kaskar bat dala». Bertsolariak, izan be, argi ta garbi daroa bere barrua, kanpotiko zabar ta kutsu bagarik; latitarren zibilizaziñoak ez dausto orbanik itsatsi

Orain amar urte, erri-olerkiak aztertzean, onela idatzi neban nik: «Olerkari jantziak azken urteotara arte, iru edo lau atera ezkerro, mugaz andikoak Prantzi'ko elertiar ta emengoak Gaztela'koari lotuegi ari izan dira, ta ortik datorkie daukien erdel kutsua. Erri-olerkiak bestera dira, ez dabe olako akatsik. Erria eder-zale da, nor bakoitza Iez. Baiña au ezta naikoa: ederra dan giñoan ikusí, entzun eta adierazo edo erakutsi bear da. Ta

gure erriak goiarnas zindo ta eder-sen meez, orrela dagi geiennan: eder-gaia, iduri ta oldozkun bikaiñez, bertso sotilletan borobilduta, adierazo ta opatu. Ikus egizu gure edozein erritar olerki Euskaldun begiz ikusi ta erri-biotzez maitatutako gaiak, bai jori ta aberats erakutsi euskuzala! Ta eder ikuste ta erakuste orreik bai ditula bere-bereak, euskal olerki-kera berezia dagienak!» (*Milla Olerki*, 33 orr.) Gaur be, beste orrenbeste autortu bear.

Gure bertsolaria orixe dogu, erri-ertilari. Gizaldiak zear, orrelaxe abestu eban mendian, itxasoan eta soloan. Ez, dana ez dogu idatzita; ez, gure bertsolariaren biotz-oiu sutsuak ez dagoz ídatzita. Kantari bizi zan, alan be; kantari arpean, kantari kronlek ondoan, kantari olatu-gain, kantari etxean. Estrabon'ek diñoanez, euskaldunak musika-soiñuz lagunduta egin oi ebezan euren bazkal-apariak. Ulargi erdi antzera atunduriko mai luze baten inguruan jarten ziran bazkaldarrak. Zarrak, erri-agintaiiak, gudari nabarmenduenak lenengo jarlekuak artzen ebezan. Neskatzak ziran mai-zerbitzari, ta onein atzean, olezko zelai-une baten agiri ziran soiñu-jotzailleak eta abeslariak. Bertsolarien batbateko jardunez ta dantzaz amaitzen zan oturuntza. An ziran, ba, gure bertsolariak.

8. *Euskal kanta zarrak*

Kanta zarrak! Literatura guztietan arduraz jaso oi dabezan urre-pitxiak! Eurok bai dira, batez beste, gure literatura baratzean be lenengotik aurkitzen doguzan idatz-kimuek, gizaldiz gizaldi geureganaiño etdu yakuzan zar-arnas ufadak. Puska oneik, geure gogoaren berezitasunik bikaiñenak doguzan ezketiño, eztoguz bertanbera itxi bear, arretaz aztertu, ikasi ta gorde baiño.

Gure erria, beti be, kantari izan da. Bat-bateko kantari, askotan. Azkue'k iñoan: «Musikaren bitartez bizi dira gure erri-olerkiak». Eta musika bakorik, gitxi, ezagutzen dogu. Besteají beste, azken urteotako euskaltzaleok, musika ta itz, kanta zar oneik batu ta, gal ez daitezcan, geure ta geure ondorengoan

ikasbiderako, gauza zarren altxortegietan sailkatu ta txeraz zain-
tzen arduratu gara. Lan txalogarri on«tan gaillendu diranak
J. K. Gerra, Azkue, Aita Donosti, Aita Riezu ta abar.

«Gizona zenbait eta zarrago, gauza zarren zaleago», iñoan
gure kanta zarrak iñungorik edertoen azaldu euskuzan Juan
Karlos Gerra'k, jaiotzez donostiar gendtin arren, Udalaitez azpiko
Arrasate'n bizi izan zan euskaltzale jatorrak; «ez bada niri
gaurko gauzaen berririk galdetu. Nere irudimena antxiñako
egunetan daukadala ari naiz beti lanean». (*Gure olerki zar-
zarrak*, 1922, 116 orr.) Eta, egiaz, zenbat antxiñako gauza eder,
bai euskal mazmarroiztian bai olerki zarretan, susterréz aztertu
ta naikoa argi ipiñi euskuzan! Arin-aringako olerki zar azter-
keta ontan, euskaltzale jakitun ari jarraituko dautsagu batez be.

Eusko-gogoari bete-betean dagokiozan makiñatxo bat gauza
eder pillotu ta argitara emon ebazan Azkue'k *Euskalerrriaren
Yakintza* deritxon bere lau ale marduletan. Laugarrenean, *erri-
olerkiak* eta *aur-iolasak* dakaz bereziki. Lenago be, bere *Euskal
erri-kantutegia'n* millatik gora argitaratuak ebazan musika ta
guzti; beste ontan, barriz, 267 daka?., amaika pillotan banan-
duta: 1) *aldartezkoak*, edo umore onekoak; 2) *dantzarakoak*;
3) *edáleenak*; 4) *elizarakoak*; 5) *eskelarietak*; 6) *ezteielakoak*;
7) *gertaridunak*; 8) *illetak*; 9) *ipváñak*; 10) *oneritxizkoak*; 11)
seasha-ondokoak. Nik, osterá, orain amar urte *Milla euskal
Olerki eder* bilduma osotzerakoan, sei zatitan banandu nebazan
kanta zar oneik: 1) *gerla-olerkiak*; 2) *maite-leloak*; 3) *irri
ta negar*; 4) *ardo-kanlak*; 5) *jainkotiak*, eta 6) *pastoralak*. Orain-
goan, arazo berari bitan ez ekitearren, emen ez ditut an dato-
zanak aitatu besterik egingo, zein orrialdetan dagozan adiera-
zorik.

Euskeraz idatziriko lenengo Siburua, Etxepare'n *Linguae
Vasconum Primitiae*, 1545'garren urtean agertu zan. Aurretik
be ba-doguz or-emenka euskal itzak eta textu txikiren batzuk;
Bertzeo'tar Gonzalo (1180-1246) errotxarrak ba-ditu *kirol, bil-
dur* ta antzeko euskal itzak bere liburuetan; eta garai artakoak
gitxi gorabera beste batzuk be. Gero, amaseigarren mendeko
len-zatian agertzen yakuz, Luki M. StkuPen (1533), Rabelais'-
en (1533) ta Gaspar Gómez'en (153-6). textu luzeago batzuk.

Rabelais'ek bere *Pantagruel* idazti ospe andiko bederatzigarren atalean euskerazko **amar krro** dakaz, ta Gaspar Gómez'ek bere *Tercera parte de la Celestina'n* (Toledo, 1536), iru ahapaldiko olerkitxo bat. (*Milla eushal Olerki eder*, Zarautz, 1954, 39 orr.)

a) *Gerta-olerkiak*

Zelai ontan sailkatu bear, naitaez, gure aspaldi bateko guda-kantu, eresi ta gertaridunak. Eurotatik banaka batzuk aitatu daiguzan.

Beotibar'ko gudia. •— Tolosa'tik urre, Beotibar'ko zelaian gogor burrukatu ziran giputz-naparrak, 1321'ko agorraren 19'an; Gipuzkoa'z jabetu tíáífik etorri ziran naparrak, baiña sekulako astiñaldia artu eben zelai orretan. Antxe jausi zan ilda, napar gudari taldeko bura zan Martin Aibar, bertso bi oneik diñoskuenez:

«Beottf>a>, ai! Beotibar!
!c itui!ak ñiartin Aibar.h)

Garibai'k damosku beste au be:

«Jliiita uiie igarota,
urn bere b-idean...
Gipvzkonrra!c sartu dira
Gazlelu'ko etxean;
*faJarra⁷:in bildu dira
Bpct-il'.'.r'en pelcan...»

(Tkus Milln Olerki, 37 orr.)

Oiñatz-Ganboarren eresiak.—Ba-zan damurik, gure artean, Erdi-aroan beintzat, eraso ta liskarra nasai. Oiñaztarrak eta Ganboarrak alderdi ikaragarri bi osotzen ebezan; biak eukezan andiki-etxe ta jauregk. bai Bizkaia'n bai Gipuzkoa'n bai Araba'n. Butron ta Muxika'ko jaun eta Oiñaztarren buru zan Gomis Gonzalez'ek, 144.3'garren urtean, bere aideakaz batera, Ganboarrak Bizkaia'n eukezan ainbat gaztelu ta jauregi. erre etuozezan. LegutianoTco jaun eta Ganboarren nagusi zan Peru

Abendaño'k, barriz, beretarrak baturik, Gomiz Gonzalez'ek Otxandio'n, Abadiano'n eta Aramaio'n eukazan etxeak kiskaldu eutsozan. Orduko naste ta ixil-gordeetakoak doguz ahapaldi oneik:

*'iltzarraga'lik goru, eitzian joxaía
jaun Peru Abendaño'k hesala:
—Oñetako lur au jabilt ikara,
gorpuizeko lau aragiok bezala.
Oi, aldi oneri al ba'negi enpara!
Berriz enenlorke Aramaio kontrara
Mendiola, il deustak Gaxto Apala,
bere laguntzat beste asko átubala.»*

144S'an be, batetik Guraia oiñaztarra ta bestetik Bañetz ganboarra, Arrasate'ko erriagintari biak, bakotxak bere alderdikoai deiturik, odol-bero ta basatiar burrukatu ziran. An zan Gomiz Gonzalcz oiñaztarra bere seme bi Juanikote ta Presebal'ekin; an ziran Belaz Gebara ta Peru Abendaño ganboarrak be. Gomiz ta bereak gogor jokatu arren, ganboarrak su emon eutsoen erriari, Juanikote ta Presebal errete ortan illik. Onela eresiak:

*«Gomiz'ek nsko lagunik,
éabat arabaarrlik,
giput.; ondo eáerrik,
bi?:kaítar urdvri gogorrik,
ez 'liazo bakarrik,
**e an clok Presebal'ik
Jinnr':ote'go.z tagundurik,
tzibuluén ospe bagerik,
e? urrvn Maala'ganik.D*

Andík urte bira ezkontza bat izan zan leikide bion artean. Arrasate'ko burruka aurretik, Gomiz Gonzalez'ek, Olaso'ko jaun .Martin Ruiz'i bere alabeagaz ezkontzeko itza emonda eukan; Gomiz Gonzalez'en emazte alargunak, baiña, ez eban olakorik nai, Olaso'ko jaun ori Arraste'ko gudaldian oiñaztarrakaz ibilli zalako nunbait. Aiabeak, orraitíño, arekin ezkondu gura; onela abestu oi eban, bertsolari zurrian:

*uBerba orren berba gazia!
berbo orri nai ez dakiola balia;
dardoak egiñarren bere alçlia,
Olaso da ene egoteko aulkia.vi
' .Ikus Milla Olerki, 36 onO*

Goiago esan dogunez, Diego Lopez Haro'koa, Bizkai'ko jauna, oso bertsolari zalea zan, eta bere iltea (1215) zoritxar eskeratzat jo eben orduko kantariak. Beste harotar batek, Diego Díaz kondeak, illeta-egun baten bizkaitarrak ildakoaren gorapenez kantak abesten ebezala ikusirik, bere eriotzan be, Bizkai'ko oituraren araura, kantak oiukatzeke eskatu eban. Ona jaun aren omenez egiñiko bat.

*ujann Diaz Itaro'koa,
zaldun andi España'koa!
F.zer ezer ezin egion,
eçian Jounak baraa.ii*

Íviartin Joanes, Labieru'ko zalduna, anai-arokoak il egin eban; bizkaitarrak illartitz au jarri eutsoen obi gaiñean :

*«Martin Joanes Labieru'ko zalduna,
Búkaí'ko kontsejua la zenluna!
Nor ele zan zuri lotta igorrotsi egizuna?»*

Lelo'ren kanta.—*Lelo* itzari, euskeraz ahapaldi baten azken bira lez izan arren, emen nor izena ezarten dautsagu. Ibarguen-Cachopin'eri jarraituz Mogel'ek eta Humboldt'ek erromatarren garaikotzat eukien guda-eresi au, 1529 ingurukoa dogu J. K. Gerra'ren eritxiz. Euskaltzale onek, gaiñera, kantu au zearo aztertu ondoren, Anton Bedia, arratiar zaldun Karlos V'garrenaren gela-morroia ioten dau egilletzat; Arrati'ko seme au, Itali'n, Alemani'n, Beljika'n eta Bretaña'n ibillia dogu erregearen taldeko. *Tratado de las cosas de Vizcaya* idatzi eban ezker, ezta arritzekoa *Lelo'ren* kantu onen egille izatea be. Dana dala, eresi onek ba-dau zar-sunda, ta egoki egiñik dago:

*uLeLo i' lelo, Lelo il lelo,
LcAoa, Zara'k il leloa!
Oktabiano munduko jauna,
Lekobidi Bizkai'koa.v*
itkus Milla Olerki, 35 or.)

Milia Lastur'ena. — Espaiñi'ko lenengo edestia ta Euskal-erriko ainbat gauza eder idatzi ebazan Garibai (1533-1599) arrasatetarrak damcsku antxiñako eresi au be. Milia Lastur,

Deba'koa, Peru Gartzia'gaz ezkondu ta Arrasate'ra joan zan bizitzen; baiña gazterik il zan, sein izatean. Peru Gartzia ajar-gunak barriro ezkontzeko gogoia erakutsi eban, lendik be alkarren zale ziran Marina Arrazola'gaz. Uleta egun berean, bazkaltzerakoan, illaren aizteak kantari ekin eutson, aren zoria adierazorik:

*«Zer ele da andra erdiaen zauria?
---Sagar errea eta ardac gorria.
Alabaia, kontrario da Milia!
Azpian lur otza, gainean arriaf»*

Bigarren ezkontza ori dala-ta, arerioen itzalpean lez ikusten dau bertsolariak bere aiztearen gorpua ta gurasoen aterpera joateko diñotsa:

*«Lasiur'era bear dozu, Milia:
Aita-jaunak eresten dau elia,
Ama-andreak apainketan obia;
Ara bear dozu, Andra MUia.hi*

Alargunaren arreba Santxa'ren erantzunak be ba-dau lillurarik:

*«Gizon ixiki sotil baten andra zan,
Ate-arte zabalean oi zan,
Giltza-porra andiaren jabe zan,
Onra andi asko kumplitu yakan.v*

Milia'ren aizteak, arzenez, Arrasate'ko uriaren aurka abesten dau, arrera zitala egin bai dautsoe onek Gipuzkoa'ko iru andra andikiri:

*nMondragoe'ri artu dcusat gorroto;
CAputz-andraok artu diiu gaixtoto:
liurriotz-kalean andra Maria Balda'ko,
Arte-kalean andra Otxanda Gabiola'ko,
Erribalean andra Milia Lastur'ko.n*

II eresi au XV'garren mendeko len-erdi aldekoa dogu nunbait, J. K. Gerra'ren eritxiz; 1429'an ii zan, ba, Gabiola'ko andra Otxanda, geroago, 1464'ko maietz-arratsalde baten, Ibareta'tik Arrasate'ra joiala Oñaztarrak i! egin eben Martin

Baiñetz Artazubiaga'ren ama. (Ikus *Los Cantares antiguos del Euskera*, 53 orr.)

Alostorrea'ko eresia. — Aurreko eresian dakusgunez, emakume bi daukaguz bertsotan. Oraingoan be emakume bat, Deba'ko Usoa, Beltran Alos-torreko nagusiaren alaba. Beltran alargundu ta bigarrenez ezkondu zan Azpeiti'ko alaba Otxanda'gaz, eta onek, senarra Naparru'ko erregearen babesean moruaurka gudan dalarik, izorkeriz semea izan eta Usoa'ri egotzi eutson errua. Usoa'k, il gaeuz, Otxanda'ren likiskeria aza'tzen dau. Ona eresiaren lenengo ahapaldia:

«Alos-torrea bai, Alos-torrea;
Alos-torreko zurubi luzeal
Alos-torrean nengoanean
Goruetan, bela beltzak
Kna! kua! kua! leioetan,yt
fikus Milla Olerki, 41 OIT.)

Altabizkar'ko kantua. — 778'garreneko urtean euskaldunak Orreaga inguruetan prankotarrakaz izan eben burrukea dakarsku gogora. Karol Andia ba-etorren Zaragoza'tik itzuliz, bere gudara-saillakaz; euskaldunak Ibañeta ta Altabizkar gailluretan egozan gordeta, zugatz eta arkaitz artean; iñundiko astiñaldia emon eutsien prankotarra. Antxe jausi zan beste askoren artean, Erro'dan Bretaiñatar Marka'ren buruzagia. Kondaira-gertal<i>zun au gaitzat arturik idatzia dogu, geroago, *Erroldan'en Eresia* piantses literaturan batez be entzute andikoa.

Gure guda-kantu au ez da ain antxiñakoa; naiz-ta luzero bestera uste izan, ezta ezpan-belarri gizaldietan bizi izana. Garai Monglave'k prantzeraz egin ta *Journal de l'Institut historique* berak sortu ta berak zuzenduan argitara emon eban, 1845'an, Louis Duhalde bere adiskideak euskeratuta. Oierkiz ezta txarra, ba-dau goi-arnasa; alan be, neurri barik eta baldan samar itzulita dago. Ona, adibidez, baso-edertasun orren txatal batzuk:

«Oiu bat aditua izan da
evskaldunen mendien arletik.

*Li, a/lcia'ren lepoan harrabots bat agertzen da,
urbilt-ea da, arrokak: ezker eta eskuin jotzen dituelank:
hori da urrutitik heldu den armada baten burruna.*

*-Zenhat dira? Haurra, kondatzak ongi.
— Bal, biga, hirur, laur, bortz, sei, zazpi...
Hogoi eta millaka oraino;
heim kondatzea úenboraren galtzea Titeke.*

*Baiaan arrokak biribil-kolika erortzen dira;
Iropak tehortzen diúu.te.
Odola- xurrutan ba-doa; haragi-puskak dardaran daude
O, zcnbat hezur karraskatuak! Zer odolczko itsasoa!*

*—Zeubat dira? flaurra. kondatzak ongi.
—hlogoi, hemeretzi, hemezortzi, hamazazpi,...
zazpi, sei, bortz, laur, hirur, bida, bat
- Bat; ez úa bízirik agertzen gehiago.»*

Arranoak joan ziran gero aragi-zati lertu areik jatera. Etxekojauna, bere txakurragaz, emaztea ta umcak besarkatzera; adar ta azkonak garbitu ondoren, lo gozoa. Labur: *Erroldan'ev. Eresiak* baiño be bizitasun geiago dauala esan genginek.

Bereterreixe'n kanioria. — Bidaso'z emendik Ganboa ta Oiñatz jauntxo sendien artean ainbat burruka izan ziran lez, euskal sortaldean be bazíran Agramunt eta Beaumont izeneko taldeak, beti alkarri eraso bearrez; XV'garren gizaldian oso asarre ziran alderdi biok: Bereterretxe agramuntarra zan, eta Lerin'go len-kontia, Naparru'ko Juana, Karlos Zintzoaren ixil-alabakin 1424'an ezkondua, Maule'ko gazteluko agintari. Jaurgain'en eritxiz, konde onek aginduta il eben Bereterretxe, 1434 ta 1449 bitarteko erasoaldi baten.

Gure kanta zarrík gciénak, aoz-ao emonak diralako aurki, motz eta utsunez beteak dira. Eresi au be ez yaku, ziur asko, osorik eldu; kondaira-albaitari zerbait palta yakola emoten dau beintzat. Amabost ahapaldi dira guztiz guk ezagutzen doguzanak; lenengo bertso biak zazpi-zortzi silabakoak dira, irugarrena osterá amazapi-amazortzikoa. Ona asiera:

*uAltzak eztu bihotzik,
ez gazianberak ezurrik...
Enian uste ciraiten ziela ailunen sernek gc-vrrik.v*

Zar-sundaz egiñik dagoz bertso guztiak, eta, irakurri-ala, olako biotz-ikutu barrenkoa daragiskue. Entzun eresi zar oneik susterrez aztertu ebazan Etxaide'tar Jon'ek diñoana: «Bertsuok, ernegarriak ez-ekiz, zirrara garriak dira eta sarritan unkigarriak. Ama baten larria bere semea galetsi dularik eta jaun kuntiaren kinismu dollorra amaren biotz zaurtuari iseka egiñaz, goiarnas aberatsenaz edetsita dagoz. Ba-dugu, bai, euskal eresi zaharretan mintzogun eder ta baliosa. Xurga dezagim beroien jario gozotik, kanta zahar auetan baitugu iraulirik, eundaka ta millaka urtetan mamitutako euskaldun erriaren sena, mintzaira eder, zauli ta giartsu biurtuta». (E. G., *Euskal eresi zaharrak*, 1956, Orrila-Garagarrila, 51 orr.)

Urrulia'ko elxanderearena. — Zuberoa'n, Urrutia jauregiko zaldun Altzuruku'ko Mcnanton eta Ahetze'ko Domenja ezkondu ziran 1422'garren urtean. Menanton susmoti ta espatsua; emaztea, barriz, biotz-zabala, batez be inguruko txiro ta bear-tsuekin. Seta ezbardin augaitik, senarrak askotan erabilli oi eban zakar ta adeibako bere andrea. Bein, urrengo ahapaldíok dirauskuenez, pekatuan atzemon nairik, maite-egikizunik bika-iñenean ídoro eban:

*«Goiian goizik jeikirik,
 ogi-op'lak. crinik,
 Ahef-j.e'ko ancleria,
 tehia clun andia
 zareta bat burian
 kanporat jalkitsiau,
 iMusde Urrutio'k zian
 baratu, bai, bidian.*

*Xun iabiliza ain goizik,
 jaurema uUurik?
 oa!det*e>! dio Urruti'k,
 bcgia< olc!a'turik*

*—janna, ikusiren duzu,
 nahi balin ba'dv'ju,
 nurit nrai vabilan,
 zarefa au burian*

—*Jenle eske.liari
emaite.ko solcorri,
Madama Vrruia'H
arlu zutian bídiaJí».*

Azkenez, emaztearen zintzotasuna ikusirik, parkeske dauka senarra.

Atarratze'ko jauregitarrarena. — Ona emen elezar eder bat. Karol, Lukeze ta Atarratze'ko zaldun ospetsua, berrogetamar urteko, alargun eta bost seme-alaben aita, Mayi Jaugain eritxon amazpi urteko neskatxa emaztetzat artu nairik ibilli zan; au, baiña, Sala jauregiko gazte batez maiteminduta egoan. Jaugain'eko etxeko andreak alaba bi eukazan ezkongai ta Mayi estu samar erabili eban Karol alargunagaz ezkondu zeiten. Ona Atarratze'ko jaunak, Mayi'ren eskea egiterakoan, artu eban erantzuna:

*(Ozazc-Jaugaiñian bi zitroin dora.tu,
Atarratze'ko jaunak bata du galdata;
uken du arraposto ez direla huntu,
hunturik direnian bato ukenen du».*

Etxaide'k erantsi: «Mayi'k Aizeari ots egíten dio bere auzia erabakitzeko esku-jabe egiñaz. Iparretik ba'datorkio, maitabidean murgilduko eta Egotik ba'datorkio, osterá, diru-zorroan». Onela dirautoo bere aizta Klara'ri:

*«Klara, zuaza orai salako leihora,
ipar ala hegua denez jakitera:
iparra balin bada, goraintzi Sala'ri,
ene korpilzaren xerka jin dadila sarriit.*

Egoak jo eban, eta Mayi'k Atarratze'ko jaunagaz ezkondu bear. 1584'an ezkon-jaiak andikiro egin ostean, Maule'ko jauregira aldatu ziran biziten. Kalbinotar hugonoteak, alan be, Nappar-Biarño'ko erreñuaz jabeturik, katolikuen aurka jagi ziran gogor be gogor; Atarratze'ko ezkonbarriak, katoliku zintzoak ziralako, euren toki ederra itxi ta mugaz onuntz Otxagabia'ra iges egin bear. Ordukoak dira azken ahapaldiko bertso oneik:

«—Ama, saldu naizti biga bat besala,
bai etu deslerratu, oi, Españtiala;
aita bi?i uken banu, ama, zu bezala,
cnunduzun e-ikunturen Atarrátze salala*.

1593'an, alan be, erlejiño-nasteak zerbait baketurik, barriro itzuli ziran Maule'ko euren jauregi maitera.

Egun bereko alarguntsa. — Erri-kantarik ederrenak Zuberoa aldekoak dirala autortu bear dogu; bai ta au be. Peru Irigarai, Altzai ta Mendikota etxeetako jauna, Gabriele Loitegi, Aintzile ta Ipartze jauregietako zaldunaren alabeagaz ezkondu zan, 1633'ko garagarrillaren 8'an. Eta eztegu-jai dirdaitsuan bertan, il ta zerraldc jausi zan gaixoa. Andra errukarriak, emazte ta alargun egun berean, eriotz atan ezin etsirik, etxean euki nai gorpua alik eta luzaroen. Ona ezin-etsi au arrigarriro agerzen dauskuen ahapaldi bi:

«Goizian goizlk jeiki nunduzun, ezkuntu nintzan goizian,
bai eta ere zetaz bezítu ekia jelki zenian.
Etxek'andere zabal nunáuzun eguerdl erditan,
bai eta ere alarguntsa gazte ekia sartu zenian.

Zazvi urtez eixeki dizui gizona hilik kanberan,
egunaz lur otzian eta gaiáz bi besuen artian;
zitru hurez ukuzten nizun astían egun batian,
astian egun batian, eta ostirale goizian».

(Ikus Milla Olerki, 46 orr.)

Unduraingo Anderiaren kanta. — Joana, Hauze'ko Peru Undurain ta Mayi Ziborotz'en alaba, 1701'ko azillaren 6'an, jaioa, aberatsa zan ondorez; eta ezkongai zalarik, Mikel Laruntza-Barretxe'ko seme leiñargi ta legegizon argiari emon eutsan ezkon-itza. Au etzan, baiña, aitaren begiko; ta alabea asmu ortatik aldentzeko, lekaime-komentu baten sar-azo eban. Orduan mutillak zurbil:

«Maitia, nun zira?
Níc etzutut ikusten,
ez berririk jakiten;
nurat galdu zira?»

*Ala, kanbiatu ila zure deseña?
Hitz eman zeneraitan,
62 behin, bai berrilan,
enia ?Anelan.*

Eta maiteak, komentuko burdin-sarc ostetik, gozoro erantzun:

—«*Ohikua nuzu,
cnuzu kanbiatu,
birtotzian beinin hartu,
eta z-u mailatu.*

*Aila jeloskor batek dizu kausai,
zure ikustetik,
gehiago ntinlzaizelik
hark n\?:u pribatu».*

Azkenez, aitik parkatu eutson, eta maitale biak ezkondu ziran, 1727'garrenean. Nok eztau entzun edo kantatu abesti eder onen doiñua?

Musde Sarri'rena. — Sarri zalduna, Iruri'ko jaunaren seme ixilla dogu. Eresi asmotsua. Neskatx batek, uso zurraren iduripean, lilluratu ez dagien, iñundiko atxaki ta akiakulluak dakaz gogora. Lenengo bertso bíak zonzi silabakoak dira, ta beste biak amazapi-amazortzikoak; zortzi ahapaldi guztiz. **Ona** lenengoa ta azkena:

*«Urzo ivvia grís gaxua,
ore bidajiu bahua,
gertatzen bataik Musde Sarri, jaun apetitu hun hura,
bepí ikusten balin bahai, Petiriña'lat bahua,*

*—Jauna, zuaza etxerat,
Maule'tik Petiriña'lat,
xor: ela biligarro gizcn zunbalten jatera;
urzo hegal azkarto hoiek estira zure biandan.*

Unma'n illarena. — Lantaina'ko alaba andikía, Baztan **iba-**rrcko Arizkun eta Azpilkueta bitartean datzan Urtsua jauregiko semeagaz ezkondu zan; izor antza. Senarrak, au jakiñik, eukazan jantzirik ederrenak jazteko esan eutson emazteari, «**zazpi** errota berri, zortzi jauregi xuri» bereak ebazan ondasunak **era-**

kustera joiala-ta; orduan, mendi gorrian, eriotza emon eutsan,
eta ixillean mugaz aruntz igesi. Eresiak onela:

*uUrtsua'n zazjii leio,
zazpiak lerro-lerro
Lantaina'ko alaba
Urtsua'n defuntu dagoit.*

(Ikus *Milla Olerki*, 54 orr.)

Onenbestez, arakatu doguz gerta-eresietatik batzuk. Mamin ta azal, zein baiña zein ederragoak. Alan be, gogotan artu bear R. Gallop jaunak diñoan au: «Euskal poema zarrenak, antza dagoanez, gaurkoak baiño ederragoak ziran; eresirik luzeenak, ba, egoki asi arren, gero alkarrizketa nasi ta arruntez orniduten doaz, eta ahapaldien artcan be sarri olako batasun andirik ez dirudi. Daitekena da ontakoetan eresi jatorreko lenen ahapaldia besterik gureganaiño ez eltzea, eta enparauak beste abestiren batzuetatik atera edo lcn-zatiak aztutean gomutamen argalak egiñiko zuloak bete al izateko, beren-beregi asmauak izatea». (*A Book of the Basques*, London, 1930, 98 orr.) Zetan esan be ez, ingeles jakintsu onen oarra aintzat artzekoa dala.

b) *Maiie-leloak*

Erri-olerkiak oro antxiña arnasaz oreturik dagoz. Au dala-ta, eurok arretaz jaso ra zaindu bearra daukagu. Zer kaskarrak dirala? Ezta egia; baiña, orrela ba'litz be, ortxe ez al dago antzearen, artearen izana? «Gauza txikiak andikiro adierazo bear dira —iñoan Boileau prantses irizle zorrotzak—; andiak, bada, berez dabe euren nagusitasuna».

Egia esan, ba-dira gure artean lelo au sarri aizatu dabenak: urri samar daukagula euskaldunok geure maite-olerki barrutia. Ez leuskigue olakorik esango euskal abestiak ondoz ondo aztertu ta sailletan lerrotu euskuezan Charles Bordes'ek, J. D. J. Sallaberry'k, Azkue'k, Aita Donosti'k, Aita Riezu'k eta gaiñera-koak. Askotan au gertatu oi da euskal gauzakaz: iñoren aoz mintzatu, iñoren eskuz idatzi. Au da: naiz geuretar naiz kanpotar izan, euskal auzi ta gauzaen erdi-jakitun batek —serioski,

jakiña— zerbait ba'diño, axe siñiskaitzat artu ta, karkar, lau aizetara edatu. Jokabide illuna, nunbait; askatasun osoz gaiak ikasi ta nobere eritxia emon bearrean, iñoren morroi zurbil izatea baita.

Gure maite-kantai buruz, ona zer dirauskun len aitaturiko Gallop jaunak: «Arritzekoa da, olerki-lanik jakingarrienak toki guztietan maitasimak eraginda izanik, gai onek euskaldunen artean erri-kanta baldan gazi-geza bagako batzuk baiño ez sortzea. Onetariko gitxik adierazten dau maitasunaren goi-arnasa». Onen antzeko eritxiak sarri emon daroetz. Irizpidean al dagoz? Ez ete dogu maitasunak eragindako abestirik? Ez ete dogu barranean nabari, ez ete dogu maitasunik izan? Ez ete dogu maite-olerki goi-arnasazkorik burutu? Beste izkuntzetan bai, ta gurean ez? Nik neure olerti-bilduma egitean, eundaka ta eundaka idoro ta aldatu nebazan olakoak; *Milla Olerki* bildumak 1.200 orrialde ditu ta izki xea, 55 maite-lelo sartu nebazan bertan, baiña guztiak batu ta argitaratzera ezkeru, bilduma ori baizen liburu mardoa egin daike maite-kantakaz bakarrik. Nire eritxi argalez, amabost-amaseigarren gizaldiko beste literaturak aiñako maite-leloak ba-ditugu guk geure erri-kanta saillean.

Ba-leiteke iñoiz, obeto bearrean, era ortan itz egitea: gure olertiaren guna, barne-sena ulertzen ez dabelako; ez dakie geien ez gure iduri ta gogapenen alkar joku bedegarra. Olako naste bat dakuse euskal olerki ta poemetan, erri-eresi ta leloetan batez be; geroago ekingo dautsagun gure olerkiaren. berezitasunik bikaiñena, euskal gogo zarraren arnaskera oi ez lakoa.

Zeru, izar ta lur, tautik ez dabela ulertzen esan leike urrengo onen tankeratik:

*«GoUelan jclkitzen da izar bat ederrik,
hura dela diote zelian ederrenik.
Lurrian ikusten dii bat ederragorik,
zelietan ere ezpeitu harek bere parerik».*
(Ikus *Milla Olerki*, 70 or.)

Bederatzi ahapaldikoa da zuberotar kanta garbala. Maitasunik ez dauala euskaJdunak? Ez dakiala zelan adierazo? Iiakur Dertso orreik, eta gero zuek ebatzi.

Beste au obeto aitzen dabe:

«Aforifua, nurat hua bi hegalez airian?
España'lai juaiteko elurra duk bortian;
juanen gutuk alkarreki hura hurtu denian,

Sayi Josef'en eremita desertian gora da;
España'lat juaitian han da ene pausada:
gibelilai so'gin eta hasperena ardura!

Hasperena, habilua maitanaren bortala:
habil eta erran izok nik igorten haidala;
biholzian sar hakio hura eni bezala».

(Ikus A. Riezu, *Flor de Canciones Populares*
Vascas, Buenos Aires, 1948, 108. or.)

Urrengo au, ostera, zoragarri yake:

«Argizagiak zelutik
argitzen dizu eijerki;
ene maite polita eztuzu ageri.
Zeluko Jinko Jauna.', zer egiñen dut nik?
Zer egiñen dut nik?

Fiatik batere eztuzu,
mundia erriz ari zaizu;
batu orotaz agrada zira zu,
bat har ezazu, hura aski dukezu,
horrez segur nuzu..

Urzo apalaren malurra,
galduz geroztik laguna!
Triste da beti bere bihotzetik,
zeren epeitu maitatu bat baizik,
maitatu bat baizik.

Amodio berriak
sendotzen tizu eriak;
zure begiak ain dira eztiak,
zeren befitra eniak zuriak,
zuriak eniak».

(Ikus Milia Olerki, 68 or.)

Arrotz-literaturetan eredugarri dituela maite-olerkiak? Bai ta au be, arraiea! Ta ba-da oraindiño argibiderik goian aitatua-
ren antzeko kalakari ezezkorrak asetzeko. Guk geure ederkera
berezia dogu, edozein gaitan, baiña ederra bertsoz adierazten
dogunean batez be; erri-olerkariak bere iduri ta asmoa ditu,

eredua ta amesa, ta izadiko gauzak erabilli oi ditu iduri-gai: lore, landara, zugatz, mendi, txori, egazti, abere, zeru ta abar, inguruan ditun gauza guztiak. Eder-gai oneik era guztietako olerkiena diran arren, maite-kantetan erabilli oi dogu geienik iduri-gogapenen joskera au. Apraiz'tar Odon eder-irizleak onela: «Ikusten danez Euskel-erki guztietako eta mailla askotako olerkietan aurkitzen da nik aipatu dodan bikotasuna. Baiña batez be biotzeko alaitasuna ta mintasuna agertzeko diran olerkietan artzen dira izadiaren irudi ta margotasunak... Maitasuna eta mintasuna eta olako gaiak, bigunak eta guperak dira. Gure gizonak, barriz, lotsatiak; bere barrukoa azahzeko gaitzak. Orre-gaitik barreneko gauzak esan baiño lenago asten dira beste ariñaogotzaz mintzatzan; arnasa artu bear edo, gogoak irudi ederraz gertau bear edo, bide ziorretatik joan bear edo toki zailletara eltzeko». (Ikus *Homenaje a D. Carmelo Echegaray*, Donosti, 1928, 607 orr.) Bestealde, antxiñako erri-poesi guztietan daukagu onako zerbait, India'n, Japon'en, Persi'n ta Arabia'n baitik-bat. Tzadira iduri-billa jote au, beraz, geure zartasunaren ezaugarri bat baiño ez dogu. Ta, euren literaturan onakorik ez dabenak, naspil ta ulergaitzat daukie berezkoa dan jokabide au.

d) *Irri la negar*

Miscens gaudia fletibus: irri ta malko giza-semblearen zori. Ta euskaldunok be, barreka ta negarka, sarrí ustu dogu geuxe biotza; entzute andikoa da gure aldarte ona, izakera umoretsua. Ta beste argibide askoren artean, gure olerki zar txatalak be orixe derakuse. Ona erakusmeneko ahapaldi batzuk.

Otxandiano aldean artua da urrengoko au:

*uAgura zarra bal-din ba'neuko senartza-í,
boiako neuke bentanarean kostalteafc;
tñok gura ez ba'riau, beço í-eretzat.*

*Emongo dausadala apari galant bat:
xardiña buru bi ta garagar-opil boí;
axek jan gura ez ba'auz, atara begi bal.*

*Agura zirkin-zarkin begiok lopura,
ikus-ten ba'nok bere, e.non ire guran.*

Eta andra afperrentzat beste au, Gabika'n barua:

*uAndra eder bat etxean dogu,
goburnu ona auzoan;
zortzirak edo bederatzia
ogean lotxo gozoan;
eztau pentsetan zer esango
ete daoen auzoan».*

Beste au, barriz, neskentzat:

*uAsiak egiña dirudi,
egiñak urre gorria;
milla neska baiño gurago neuke
etxean zorro andia».*

Arin irrikoiak baita «Atso zaharrak», «Baserritarra», «Betirí Santz'en zaldia», «Ezkondu nintzanean», «Gure etxea la-karrez», «Ikusi nuenean», ta abar.

Baiña irri ondoren, bertatik, mintasunak burua atera; illar-gi-izpia baizen ixilla sartu oi yaku atsekabea biotzaren gelarik ezkutuenean. Eta euskaldunak olerki ta kanta sentikorrak atera eragin dautsoz gai egoki oneri; gure bertso zarrik geienak olako negar kutsu biguna bait-daroe euren kautan.

Emen diñodana egiztatzeko, ona Azkue'k bere *Euskalerrira-ren Yakimzcrn* dakazan ogeitairu illetetatik iru. Bozate'n ikas-ia au:

*\\Arna, eldu nais dolorez,
riskuak bete odolez,
ffizon bat ilik amurru otzez,
tii', neure e&ku zitalez.*

*Nork niffar minki egin ez,
Jaiñkoaren ordea baita?
Jalnko maitearen ordea eta
gure arima-zaiña ta aifa».*

Bigsrren au, ostera, Zornotza'n kantetan dana:

*nAu da urkamendi/co aizearen otzal
Jaunaren aurrerako nik daukadan lolsa!
Zerren egin dodazan zazpi eriatza,
zazpi eriotza ta, non dot neuk blotza?*

Atzo etorri yatan agindu barria,
laster kenduko ostela gose t'egarria.
Bai ta etorri yaian **arriba gaztea**:
iamal artzen ebalá ní olan ikustea*.

Azken au be, Arizkun'goa, ederra musikaz ta izkiz:

«Mendiak bete elurrez, begitartea nigarrez,
lan eginez urriki dut, bainan atsegin bat ere ez.
Orai emen bizi naiz biotzeko minez.

Oianean zein den eder zuraritz gazte lerdena!
Zu zira mundu unetan nilc maitatzen zaitudana:
ikuskaturcn zaitut alikan maizena.

Mutiko gazte arina, urguluz gáindi egina,
eztuka konsideratzen ihaurrek dukan adina?
Ik ere ukan dezakek oraino xangrina.

Abenduko gau luzeetan ardua liorma bortetan:
mutiko gazte arinak ibiltzen neskatiletan:
ka~.u cgin beza'e bere aúJieian»,

(Ikus O. c, 160 orr.)

e) *Ardao-kantak*

Edan-etxerik ba-da gure errietan. Aurretikoak sagardoaz ta txakoliñaz busti oi eben eztarria, orain napar ta errioxar gorriaz, Eta, jakiña, gizonak eurrez zirkillu orreitara joera daben ezkerro, bertsolariak be ara doakiguz euren bat-bateko berrso-ekiñak egiten: sarri dakusguz ardangela-zuloko maiaren aurrean, mahats-jario gozoz asetako ontzia eskumean ta urretx-makilla ezkerrean. Zirikadatxo bat besterik ez dabe bear, beingoan bertsotan asi ta etorri naroko neurtitzik ederrenetariakoak boro-bikzeko. Ardaia gertu dago, su emon bear.

Ardao-kanta ugari doguz euskal poesi baratzean, eta ez baldarrak be, Orixe'ren eritxiz, «euskal olertiaren bikaiñenak». Amaika onako entzuten da eguneroko kantaldietan! Nok ez dazauz «Matsaren orpotik dator», «A, a, a ardo gorri naparra», «Andre bat ikusi det» eta olangoak? 13ertso orreik. ots, trabena zulokoak, ez doguz beti ontzat artzekoak, lizun narrasak be

asko izan oi dirata. Orixe moral-zale amorratua genduan, eta ez yakozan atsegin literaturan sarri argitaratzen diran «gordin-keri, urdekeri ta ustelkeriak». Argitara emoteko duin etziran; ezta «sagardotegi zokoan mozkorturik ematen diran neurtitzak» be, diño berak.

Agor-eziña eusko bertsolariak noiztikoa dauan ez dakigun ziri-iturria. Errez ta gogatsu ekiten dautso gizon bakotiar bati naiz emakume txurrun-planplin-zale bati. Ba-dau orduan itz-jario ta gatza. Ubidea aldekoa dogu, biren artean abestuta, sari entzuten dan au:

*»Ai, Mari-Migel!
num don senargei ori?
Ai, Mari-Migel!
noiz don eztegua?
Ai, Mari-Migel!*

*Zapi ta zapi esanagaiti
ezin dot kendu katua.
Sekula bere eztoz ikusi
onela neure burua.*

*Ai, Mari-Migel!
katu ori kentzeko,
ai, Mari-MigeU,
ken eln zaragia.*

*—Aslo andiok, niri zirika
zetan agertzen zarie?
Itzungi al da ordi-alderron
lantegiko sutegie?
Ai, Mari-Migel!*

Elizondo'n baturiko au be ezta ezkur-urri.

*KAÍZO zen igandea, egun astelena;
egia erraitea izain da oberena.
Goan den igande arratsean zer zaidan gertatu,
soberaxko edan eta burua berotu.*

*Goizean jaiki eta emazteari nion
buruan min riuela. Aunitz arrigarri!
.Jardespena eman zidan labur ta mingarri:
pultsua artzera nindoakiola tabernariari.*

*Jainkoak eman dio emazte neureari
matel-ezurru legor ta mingaina zauli;
zenbait bezala izan ba'litz apez predikari,
gargoitik zerttan zitién zenbait tabernari».*

Ondorengo onek ez eban nai negarrik bere proguegunean.

*«Mertxikaren lorearen ederra!
barrenean du ezurra gogorra
Nik ez dut maierik
besterik
alerik:
arnoak naduka n\
lilluraturik.
Ni ilten nuzizanean.
ez çgin negarrik,
ez artu dolurik:
bi bonbilkada arno
eman burukelan,
edan ditçadan
gogoz b'.ak zeruetan»*

Besre au, atenez, errioxarren bonbil be-zabal goi-estuko ardo zurruta baizen mee ariña:

*KpU.: pio!
Kz egon kanpoan,
illunbezokoan!
Zatoz gizonen artera
ardo edatera!
Pio!. pio!*

*Aizea olza da;
barnean bero da;
zatoz, ba, supazterrera
i/aua pasatzera*
Pio', pio!*

g) *Jainkozko kantak*

Euskaldunok izatez gara Jainko-zale. Gure asaba ta aurretikoak Jesukristoren jaiotza aurretik millaka urteetan, Jainko bakar-zale ziran, eta *Urtzi* izenez dei egiten eutsoen ari zuzentzen eutsoezan euren gurtza, kanta ta eskariak; onezaz gaiñera.

erri zar guztien oitura zanez, izadiko gauzak be —izarkiak, sua ta iilak baitik-bat— jainko kutsuz gantzuturik eukiezan. Beste erriak baiño garbiago ta Iatzago bizi ziran, alan be, ta gertuago egozan Kristo'ren siñismena ta irakaspenak artzeko, urriñago bizi ziraiako ta euren ekandu ta oitura zarrai erantsi ta lotuago egozalako, Aren siñismena osoan artzeko eragozpen beiñagoak izan arren. Prantzi'ko Tolosa aldetik etorkuzan kristauargiakaz, lenengo ta bigarren gizaldiruntz, laster kristautu ziran Zuberoa, Lapurdi, Naparroa ta Araba; ta, gerotxoago, Bizkaia'n ta Gipuzkoa'n erein zan Barri Onaren azia, ta, seigarren gizaldirako beintzat, Euskalerrri guztia genduan oso-osorik kistar irakatsiaren jarraile zindo.

Euskalduna ezta aldakor bere fede-gauzetan. Orixegaitik, gure literafura zarreko kanta, otoitz eta eskarien artean eguzkiari, illargiari ta abarrerri zuzenduriko kanta ta otoiak iñoiz aurkitzea ezta arrigarri. Jentillen kanta ta otoiak deritxe onakoai. Kanta ta musika zahar billa erriz erri joran anditan ibilli yakun Aita Donosti kaputxiñoak, Euskaltzaindi'ko solas-aldi baten, antxiña bateko otoitzak aztertu ebazan Donosti'n, 1956'an. Iru sailletan banatu euskuzan, orduan, berak or-emenka idorotako otoitz zarrak: 1) Jesukristo agertu baiño lenagokoak edo *jentil-otoitzak*; 2) *otoitz okerrak*, edo siñiskeraz nastuak, eta 3) *oloitz zuzenak*.

Lenengo saillekoak, au da, jentil otoitzak, zelakoak ete dira? Antxiñakoak ala oraingoak? Millaka urteetako sundaz egiñak dirudienez, gauza ziurrik ezin atera. Euskaldun izadi-zaleak, goindarpean lilluraturik bizi izan ziran euskaldunak asmau ta gureganaiño irauazitakoak doguz. Eguzkia ta iretargia amandre ta emaztekitzat eukiezan eta arei zuzendua da otoitz-mordoska bat. Gaur bc mugaz andik, Zuberoa'n berariz, eguzkiari *ekx saindua* esan oi dautsoe; mugaz emendik, ostera, *amandria* nai eguzkiari nai illargiari. Egun-sentian, eguzkia agertzerakoan, onan esaten dautsoe Naparroa'ko Larraun'en:

*nAgur, eguzkx ederra,
jetxirik zerutik lurrera,
iltuna desterratzera,
ta gu argíten paratzera»*,

Eta Luzaide'n, lurrari agur egiñik, ftxaspera sartzean, onela:

KO *truzkl saindia,*
einaguzn illeko
ta biziko argia».

Usurbil'en, illargi betea danean iru bider esaten ei dautsoe
otoitz au:

«Illargi begi zabala!
Jaungoikuak bedeinka zaitzala.
Zu ikusten zaitun guztiak
orixe esan dezalax.

Otoitz oker edo «batzuetan gauza pollitak, bestetan itzak
zentzu gabe» dakarrezanak be naikoa dira. Ona *Ave Maria xuria*
deritxonaren lenengo ahapaldia:

uAve Maria xuria.
bost penitentzia,
lurrak dakar ogia,
xoruk ardan gorria.
Illargia lukarla,
Parabi.iu'ko giltzaria.
Parabisua'n zenbat ale?
Zazpi ate».

Eta azkenez *Uso zuri eder bat* deritxana, Lekeitio'n ikasia;
au ez dogu ain aldrebesa:

«Uso zuri eder bat, oiHetan ortozik,
aldatzean gora doa, egoak zabalik.
Áldatzen goieneko zetai eder baten
Btrjiiiea topau neban atsedean egiten.
Kristo'ren Birjiñea. or zer eiten dozu?
—Kristo billatzen nabil, ikusi ba'dozu.
Kristo zeruan dago Mezea esaten,
Aingeru San Oabriel Mezea erasoten.
Zeruko aingeruak orgañua joten,
amabi apostoluak Mezea entzuten,
•Iesus'en jardineko lorearen argiat
Bera la Santa Klara dontzella garbia.
Amaren erraiten zenduan grazia,
munduan ibilteko ejenplu andla».

(Ikus Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza*, 110 orr.)

Zer darakusku onek? Oitura zarrak gure artean indar berebizikoa izan dabela. Entzun Aita Donosti'ri: «Gure erria, orain jainkotiarra dela baitakigu. Bere siñismena, barru-barruan sartua, otoitzetan za.baltzen danian, batzuetan naasi xamar da. Gogamen batzuek zuzenak dira; bestiak ez. Naaste au atzetik dator, asabak emana .. Euskaldunak beste Europa'ko biztanleak bezela, siñeskehak ba-dakizkite: ez gutxiago, ez geiago. Nundik nurat ekarriak? Nork jakin... Erriak, edozein errik, otoitz onak eta siñeskeriak naasten ditu. Batzuetan siñeskeri oiek erc pertsu pollitak dituzte. Gorde ditzagun, bildu ditzagun ale oiek». {*Egan*, 1956, 2, 34 orr.)

Baiña erri-olerki zar onein artean ba-da beste sail berezi bat, ikasiagoa, egiazko kantaena, batzuk zein aldikoak diran ez dakigun bertsolariak onduta, beste batzuk —ereserki-goratzarre ta onakoak— eleiz-gizon ikasiak eginda. Margo ta gai guztietakoak daukaguz: Jaungoikoari, Jesukristori, Andra Mari'ri ta santuai zuzenduak; siñismeneko ezkutapen, azken-azaga, zeru, suleza, garbitegi, arima, gorputz, Jainkoaren agindu, giza-lege ta olango gaiak eurrez darabillezanak, eta edozein ele ederretan baizen sakon ta gartsuki erabilli be. Or doguz euskal erki guztietan eliz-kanta liburuak eresi zarrez orniduta. Nok ez ditu ezagun *Kantika Ezpiritualák* (Baiona, 1829), Aita Lertxundi'ren *Kantikak* (Baiona, 1946), Argia'ren *Eliz-Abestiak* (Amorebieta, 1925), Bizkai'ko *Elex-abestijak* (Durango, 1905) ta abar? Nozkoak ete dira sorta orreitan datozen kantu asko ta asko?

Eta liburu oneik eztira noraezean antolatu ta argitara emonak. Euskal eleizetan zar ta gazte, gizezko ta emakume, kantuz Kristoren fedea gero ta geiago sustraitu ta indartzeko dira ainbat erri abesti eder. Izan be, kantuz irazeki ta biztuazo daroagu biotza, siñismenean be errotuagoturik. Kanta-sail onetan asko dira txit ernegarriak, biotz-barrena pilpilarazten dauskuenak; onetarikoak noski *Milla Olerki'n* sartu nebazan «Oi Egu-berri gaua», «Kanta zangun guziek», «O Jesus gurutzera», «Zc-ren bilha zabiltza», «Orriak aidez aidez», «Kristau gazte mai-tea», «A, gizona», «Itsasoaren pareko» ta a. Ona «Zer dire gure egunak» asten danaren bigarren ahapaldia:

*aHobira gare hurbiltzen, sortzen garen ordutik,
Herioak, gure bortxa, garamatza mundutik.
Baralzetako loreak histen diren bezala,
Hola da gure bizia suntsitzen berehala».*
Ukus Milla Olerki, 148 orr.)

I) Pastoralak

Aitatu daiguzan oindiño beste abesti mueta batzuk be: Gabonkantak, Agate deunarenak, Olentzero, Toberak, Erregiñeta edo maiak, Zuberoa'ko Asto lasterrak eta Pastoralak. Oitura oneitako bertsoak zar-zarrak dira, iñok ez daki noiztikoak. Erdi-aroan, eta aurretik be bai., nainun ziran olango ekandu ta abestiak; gaur, ostera, asko beintzat, Euskalerrian soilki dazauguz. Eskelarien kantak gero aitatuko doguz-ta, orain Zuberoa'ko *Aslo laster la Pastoralai* buruz esango dogu zerbait.

Oraindik antxiña eztala antzeztu oi ebezan *Asto lasterrak*, egiazko antzez-lan motzak genduzan; oitura antzerkiak geienez, ~burruka, dantza, deabruaren zapokeri ta abar, euren matasa apartekoa ebenak: gordiñak irutik bat; arein bertsozko izkiak zakar loiak bait-ziran, banakaen batzuk besterik eztira gaur ezagun; amabost bat guztira be. Areitako zatirik asko, barriz, oindiño dirauen trajeri betegarri lez daukaguz: XIX'garren mendean galazo egin ebezan onango antzezkizunak, gordin-motze-giak ziralako; baiña npperreko debekatzea. Euskaldunak, bada, beti trebe eurai dagokiezanak aurrera eroateko, elezar eta santuen antzezkizun garbiak iragarri ta egiten ebezan, debekatuok garbiagoen artean sarturik. Beraz, *Asto lasierra* be oso-osorik emon oi eben oial artean, itzalgaizka ta zurikeri andiz. Trajerien barne izukorrean bananduta egozanak, gaiñera, begirale-oiu batzuk izan ezik, ez ebezan igarten. (Philippe Veyrin, *Les Basques*, 291, orr.)

Bidaso'z andik gaur be antzeztu oi dabezan Pastoralok nundik norakoak, antxiñakoak ala oraingoak, jatorrak ala artuak diran jakiteko, inguruko literaturak —prantsesa ta espainiarra batez be— Erdi-aroaren azkeneruntz zelan aurkitzen zan ikustea, ez letovkigu txarto. Arrigarri da, alan be, gisa ortako antzerkiak Zuberoa aldean bakarrik aurkitzea: beste euskal er-

kietan ezta olango erraztenik. Eta ba-leiteke antxiña bateko oitura izatea, belanez belauñ eskualde ortan sustraitua; ainbat kanta, dantza ta ekandu doguz tokikoak, asiera noiz izan ebenik ez dakigunak.

Erdi-arogan, naiz Prantzi'n naiz Espaiña'n, antzezen ebezan **olango** pastoralak, garai artakoak be aurreragokoak ziran lez, guzur-joku, atzipegarri ta ixil-gorde-ekzutapenen zale genduzalako; labur, iskanbil ta jostazale. Gure Pastoralak ez dakigu **nok** ez noz idatziak diran, baiña ziurren ikastetxetako ikasle, irakasle ta eleiz-gizonak ei doguz olangoen egijle. Dana dala, **gero**, XVI'garren gizaldiaren asieraruntz, Gizatiar edo **humanistak** oro zar-barritu naian agertu yakuzanean, antzerki-arogan be aurrerapen andiak egin ziran, eta orduantxe bazter-azo ebezan geienbat Pastoralak deritxogun komeri-mueta zarrok.

Artzaintzatik ete yatorke izen au? Ez dakigu. Inguruko literaturetan bai, ia beti, artzaintza edo olango maite-biziera eroien neska-mutillen gorabera ta egikizunak edestu, kantau ta **antzezen** ziran. Sannazaro'ren (1458-1530) Arcaditíkin Italia'n asi ta Prantzi'tik, Espaiña'tik Portugal'eraíño zabal ebiltzan artzain-kutsuzko eleberri, liburu ta komeriak. Zuberoa'n, baiña, ez daukie artzain-antzik, komerigilleak eurak izan ezik. Beraz, Erdi-aroko ondakiña izango dogu Zuberoa'n oraindik dirauana. Gaiñera, gure Pastoralak kantuz ta soiñuz ta dantzaz antzeztu **oi** dira, ta opera antzeko onei, ots, gorapen, artzain-lelo ta alegi onei, ienago, operaren asieran, andiki ta jauregitarrak zuritzea **baiño** beste asmorik ez eben jostaketa onei *Pastoralak* eritxen. Garai atan ba-ziran Prantzi'n, batez be Bretaiña'n, oiako misterio antzerkiak. Andik artuak ete? Arinkeri litzake baietz esatea. Bestalde, naiz-ta gaiak, ixtori-jazokunak, santuen bizitza ta gaiñerakoak andik nai emcndik mamíñez artu, pizkaka pizkaka geuretu egín daroaguz ta, urteak joan urteak etorri, nok esan leiskigu orreik geureak ez diranik?

Antzeztu, barriz, lenago Grezia'n lez antzezen ebezan: larraín, zelai edo atari bat eben antzoki, zurezko asto ta upelño gaiñean lurretik oin batzuk jasoriko oltza; ona igoteko, iru edo lau mailla. Agaki luzeak lau egaletan ikurrin ta abar ezez apaindurik, eta lora-txortazko zintzilika ta ingizko apaingailuak agaki

batetik besteraino; aurrez aurre izaraz egiñiko errezel zabala, antzezlarien sar-urtenerako zirrikitu bigaz. Atzean, gorago, kantari ta musikarientzat leku berezia. Gaur be, India'n, orrelaxe atontzen ebazan R. Tagore'k bere komeri asko egiteko lekuak.

Giza-emakume nasterik ezta pastoral oneitan, gizonezkoak edo andrazkoak, naste barik. Ogeita amar bat izaten dira geienik. Eta gazteak, artzain, nekazari, kaletar. Gaur mutillak antolatzen dabe jaia, biar neskak; eta sarri olango norgeiagoka txalogarriak sortu oi dira, bakotxak bere antze ta trebetasuna erakutsirik. Antzerki egunean, jaia astera orduko, kalejira egiten da, oso andikiro, gaur erri-jaietan Erraldoi ta Burumotzakaz lez. Etsai dira askotan pastorala antzeztu bear dabenak, «gorriak», «urdiñak», «deabruak»; oneik guztiok euren eun margozko jantzi bakan, tresna ta abereakaz kokoturik dabiltz kalerik kale.

Olakoetan oi dan zarata itzal ondoren, antzerkilari bakotxa bere lekura da. Eta euretan batek, ikurriña eskuan, antzoki erdian loturik, abots zoliz, gergoriar kantu antzeko doiñuan len-itzaldia, «lehen pheredikia» dagi, au da, komeri edo trajeri osoaren laburpena. Azkenean orobat egingo dau, ots, «azken pheredikia», zillegi-legezko aterakizuna, entzule-ikusleai eskerrak emon ta zorionak opatu. Trajeri batzuk, asi ta amaitu, ia egun osoa bear izaten dabe, ta gibel ta egonarri andiak bear areik osoan antzeztu arte begira irauteko. Musika, kanta ta dantza, lenengotik azkeneraino, arat-onat dabiltz antzerkilariak, iñoiz esatekorik gelditu bage. Gogaikarri ete? Ezta. Eder yakunak ez dausku gogait eragiten: orrelaxe zuberotarrak be, atsegin yakez antzerki orreik eta, eztira nekatu oi. Amaikeran, antzerki antolatzailleak zuzenduta. esker-ereserkia.

Pastoral oneik 83 bat dira guztiz, eskuz idatziriko ingurraztiak —cahiers—. Argitaratu, barriz, iru besterik ezta egin oindiño: *Antioki'ko san Julian*, Vinson eta Stempf jaunak 1891'an argitara emona; *Uskcdunak Ibañetan*, Baiona'ko *Eskuddun ona* kasetak ataratakoa, ta *Konstantinoplako Helene*, Albert Leon'ek 1909'an Paris'en argitaratua. G. Hérelle jaunak Pastoral guztiok gaietan onela banandu ebazan: I. Antxiña aroa (gei bi); II. Itun Zar aroa (8 gei); III. Itun Barri aroa (9 gei);

IV. Santuen Bizitzak (18 gei); V. Gudu-abestiak (5 gci); VI. Adur-eleberriak (11 gei); VII. Ipuin-edesti aroa (13 gei); VIII. Aratuzte- antzerkiak (gei bi), ta IX. Zintsarrots (16 gei) (Ikus *Les Pastorâtes basques*, Bayonne, 1903). Pastoral esku- idatzi geienok gaur, galdu ez daitezana, Bordel'eko erri-liburute- gian daukaguz.

Albert Leon'ek, zeaztasun danak maixu antzera azalduta, ale ederrean argitaratu eban Konstantinopla'ko Santa Helena pas- torala. Zazpi esku-idatzi, aldaki edo kopia euki ebazan begi aurrean argitalpen ori osotzerakoan. Guztiz, 1258 lauko (aha- paldi) ta 5032 bertso daukoz, ta azkenengo Sorhueta'n antzettu zan 1908'ko apriltaren 26'an eta maiatzaren 10'an. Ona asierako len-ahapaldi biak:

*nEgun houn souhetatzen deiziet,
kounpaHa oithotirafia.
Jinkouak eman dizaziela
osagarri eta bakia.*

*Trageria baten egitia
egun dugu deliberatu,
gouri behatzeko pena
plazer baduzie hartun.*

Ondoren Santa Elena'ren bizitz-laburpena, 73 bertsoan. Au amaituaz, bertatik asten da antzezkizuna, Satan eta Bulgifer aurrera datozala. Ta orrelaxe sartu ta urten, dantzatu ta abestu, Santa Elena'ren bizitzako gorabera danak, min-pozak batean oreturik. Azken estrofa onela:

*uSanta Helena'ren bizitzia
egun representalu zaizie,
zouiñen bertuU: handiak zutian
orok ikousi duzie.*

*Hainbeste pena eta dolore
sojritu beitzian,
bena rekounpentsa ere
gero uken zian.*

*Ezia arrosarik batere
i'iou'i ezian bere eiorria,
ordenariozki plazerak ere
cdtziñian edo oundouan die tristezia»
(Ikus *Une Puslorale basque*, 206 orr.)*

II ZATIA

BUSKAL BERTSOLARITZA

*«Bertsolaricn tiicfa ezta beinere
zartzen.Y)*

OR-IXE

Iñoiz ienago esana aitatu daigun barriro: erne-min larri bat daroagu guztiok izate barrenean; ar gozo aren atximurka ezta beti argitara agertzen dana, alan be bakotxak daroa bere zoko ixillean. Guztiok gara, bakotxa bere neurrian, eder-zale porrokatu. Griña au erakusteko edozer gauza da naikoa; lora bat, mendi-gaillur bat, edozein biotz-kezka, edozein gertaera naikoa yaku barren-osiña nastu ta biztuazoteko.

Erabat leiartu oi yako bertsolariari bere adimen-izpia, biotza zirkindu oso; itxas-olatu iduri yatorkoz asmamen-bitxiak, bizi ta atarako gogaiak, areitz-osto antzera dabilkioz barren-eragin ieratiak Or zelan eratu dauan bertso-mordo txanbeliña, zorabio ta gunez betea. Orrela izan da, gízaldiak zear, euskal bertsolaritasuna, euskal zentzuna, jeniua, izatea gorde, biztuazo ta indarrean eutsi dautsona.

Bertsolariok, barriz, zelan jokatu eben euren lanean? Ete eben lege-biderik? Itsuan ibiiliak ete doguz? Eta, legeak ba'ebezan, jatorrak ete ebezan oneik, ala auzotik artuak? Era bateko erantzunik ezin emon. Ez litzake zentzunez jokatzeara, asko ikasi ta aratu barik. Gure inguruko izkuntza bietan, prantsesez ta espaiñeraz, ba-dira antzeko lege ta arauak, bertso-neurkeran atan be. Guk, baiña, ori orrela dala, ezin gengike osoan esan bertsolaritzan daukaguzan lege ta arauak iñorenetik artuak diranik. Banakaren batzuek, gure musika ta illarrien antzera, ango ta emengoen antza ta itxura pizkat ba-dabela, bai, esan gengike; iñundik be ez geure-geure eztiranik.

Euskal bertsolaritzak bere lege, arau, egikera ta jokabideak ditu, guk bertsogintzan jardutean batez be aintzat artu bearrekoak.

1.—*Bearrezko legtvk*

Ederra geienik munduko gauzetan, izadian daukagu. Ederto esana norbaitek: «Jaungoikoak izadi gainez isuritako itzala dogu ederra». Izadian edo begiz dakusguzan gauza guztietan eurrez ta ibaika dogu edertasunaren izpi joria. Eta guk geuganatu geinke eder ori, ta besteai jakin-azo. Onezaz gainera, ludiko izakietan aurkitzen dan eder-izpi orren antzekoa geuk be, geure barrenadorea irabiatuz, ñirñirtu daikegu. Erti-Ianak ez dira besterik Ertilariak inguruko izakietatik arturikoak naiz bere asmamenak sorturiko gaiak alkartu ta nortasun bereziz gantzopildu oi dauz.

Gizona dogu bertsolaria. adimenez ta oarmenez ornidua; sorkai ta beste zer guztien ederra ezetariko neke barik jaso daroa; bai ta gai atsegingarriak ikusterakoan biotz-zauskada samurrak barnean igarri be. Beste aldetik, naitaezko lege yako barruan daukazan pentsamentu ta eder-zauskadok zelanbait besteai adieraztea. Bertsolaria, beraz, egiazko ertilari dogu bertsoak jarri ta esatean: barruan sentidu ta oartzen dauana itzez agertzen dau gartsuki, gaur trabena baten biar erri-plazan.

Onela, ertilari lez diarduanean, bere lege ta arauak zaindu bear ditu ta zaintzen ditu, naiz kanta-doiñuari naiz bertsoesanari begiratuz. Egia, bertsolariak, gauza onik esateko ta entzuleai eder izateko, naf ta ez bear dau etorria, berezko sena, iturri ugaria. Ori barik nekez ezer egingo. Bakotxak dau bere deia, Jainkoak emona; ori bage, ez asi ezertan: alperrik litzake. Arotzerako leia ta makurra dauana, beste ogibide baten sar ba'dagizu, a beti araxe nairik; itxasoak darakarrena, alor-lanetan arazotu ba'dagizu, ez dautzu arek ezer onik egingo.

Izatezko dei ta etorri onen ostean, norbere oso-lana bear da. Gaitasun askoren jabe gara. Gaitasunok obetu leikeguz geure ekin lanaren bitartez, ikasiz, irakurriz ta idatziz batez be. Bertsolariak, beraz, egundo be ez dabe eskolatzte au ezetsi bear, berezko etorria naiko dala esanaz: tentelkeria litzake. Jainkoak emona norbere jardunaren jardunez apaiñagotu bear da. Ona gai oneri buruz Lafitte jaunak diñoana: «Bi hitzez erran diteke koblakari bati baitazpadako zaizkola jeinua ta jakitatea.

Jeinua, jiteak ematen du, beraz Jainkoaren ganik heldu da. Jakitatea, parte jitetik, parte ikastetik» (Ikus *Koblakarien Legea*, 1 orr.)

Sortzetiko doaia azkartu, lagundu ta alik obeenean erabilteko alegiñak egitea egoki da, ziur asko. Ortarako dira ondo-rengo legeok, bertsolari zarren lanak arakatur jaso ta aukeratuak. Gaiari, ederrari, izkerari, neurriari, igierari ta azken oskidetzari dagokiezanak geienbat.

2.—*Bertso-gaiak*

Zerbait egikeran, zetara goazan jakin bear. Mendira doanak asmo berezi bat darabil, soloan azia ereiten dauanak orobat. Bertso-egilleak be, bardin; ortara orduko nundik eta zelan iokatu jakitea bidezkoa yako. Bat-bateko bertsotan daragoionak askoz geiago, jentearen aurrean bere antzea erre bear dau-ta. Bertsoka asi baiño len, pentsau ta irabiatu bei gaia, ots, ausnartu ta borobildu. Ezta iñoiz datorrena datorrela, «jiten dena jin», biderik artzen, ondo ertzak artu ondoren baiño. Bat-bateko bertso-saiioetan, txapelketa ta antzeko batzaldietan atan be, maikoak ipiñiriko gai ta puntuari jarraitu bearra izaten da askotan. Ortik esan oi dogu, nunbait, gure bertsolariak asko ol-doztu ta ausnartu bear dabela. Ederra da, eup-ordua datorke-nerako, gai asko ausnartuz adimen-mandioa polito ornidurik eukitea.

Bertso-gaiak askotarikoak dira, baiña ez danak bardiñak. Batzuk, jakiña, iagiagoak, beste batzuk txiki-kaskarragoak. Adimen ta naimen dogu gizona, ta adimenari egia dagokio, naimenari ona; eta gure Orixe'k diñoskunez, «oituralegen mende dago» au. Bai ta almen biok dagiena be, naimenak dagiana, antze-lana bereziki. Antze-lana gizonaren atsegiñerako egíña dogu, ta atsegiña naimenean artzen. Ez dogu iñoíz gai zikin loirik erabilli bear kantari; geure biotzaren atsegiñerako dan antze-lana egiz ta onez jantzia bedi, ta iñolaz bere ez guzurrez ta gaiztoz. Egiarí berea emonik, guk be izan doguzala lokatz artean narrastu diran bertsolariak, autortu bear. Baiña au geure izatezko griña ta foeraren aurka jardutea da.

Bertsolariak darabiUezan gaiak beitez, ba, **jagi** aratz gar-denak. Ezta, ez dira zillegi **ta** bidezko lar **beekoak**, bada-ezpa-dakoak, arruntegiak, entzuleen gogo-biotzai ezer ez diñotse-nak. Beti ta nainun lotsa, dedu **ta** gizalegea zor **yako entzu**-leari, gure errietan lez entzule-mordo andiak diranean batez be. **Ta** gordinkeriz kutsuturiko bertso traketsak ardangela ta tra-bena-zuloetan txarto artuak baldin ba'dira, askoz txartoago ta motzago emon daroe agirian, erriaren aurrean esanak diranean: onelango jardunaldietan garaitasuna ta goiegazkada leuna eska-tzen da. Onek erakarriko ditu entzuleen txalozarta ozenak. Ona beti on, ederra beti eder: aizta biok bebiltz txairo.

Gai nagusi batzuk ba-dira bertsolariak sarri erabilten da-bezanak; lau batez be: Jaungoikoa, mundua, eriotza ta maita-suna. Lafitte'k onela: «Eta erran diteke nolazpait sartzen ez diren kobla moltxo batek ez duela balio deusik. Ez dugu errai-ten lauak sartu behar direla, ez; bainan bat ala bertzea. Horren eskasean, neurtitza murrizta-murrizta dago, batere hedadurari<gabe, hertsu eta soil» (*Koblakarien Legea*, 3 orr.). Lau gai nagu-siok, izan be, oso zabalak dituzu, berein ertzbegi ta zeaztasun barrenean dabezalarik.

1) *Jaungoikoa*, egiaz, gai aberatsik aberatsena dogu, aztertu ta sakongaitzak baitira Aren tasun guztiak. Aren al-izatea, an-ditasuna, ontasuna, beti-izatea, zuzentasuna ta olango doe ta egokitasunak, lerrenak eginda be, ez doguz sekula naiko goratu ta ederretsi al izango. Artez Dabid erregeak: «Jaun, Jauna!, zure izena bai sñdi lur osoan!» (*Eres.*, 8, 2).

2) *Mundua* bardin, sorburu jori bertsolarientzat. Goi ta be, zenbat kantagai eder! Lurrean makiña bat mendi ta aran, zu-gatz ta landara, abere ta pizti, egazti ta txori: gizonak ortxe, gaur gogor biar leun, lanari lotu ta ekin bear. Or itxasoa be, orain ezti, gero izukoi. Zeru azpia, barriz, zenbatu ezin alean izar ta izarkiz josia, gau ta egun zoragarri.

3) *Eriotza*, nok ukatuko? Jaio, bizi ta il, or gure zori. Lur gaiña eder yaku, egiaz; bai ta bizia be; eriotzak, ostera, gurea egin oi dau: bizia ito ta lurraz murriztu. Biotz lurkoientzat batez be, bildurgarria izan au; zeru-zaleentzat, ez ainbeste:

zerua ederrago, lur-azala baiño. Eriotza, beraz, gure bizi-urrazaillea, onek **negartzen** dau, arek goratzen.

4) **Maitasuna** da, azkenez, gizaldietan geienen kantatu dana. Maitasunak bai darabil oro goian eta beian. Zugatz bikaiña dogu, adarrez jantzia: Jainko-maitasuna, etxe-maitasuna, erri-maitasuna, ezkongaien maitasun, senar-emazteen maitasuná. Nainundik begitu, beti dogu eder. Naiz negarrez naiz irrikoi., aldioro da atsegíngarri aren kanta ezta.

Lau gai zabal onein barruan ibilli ta egokitu ziran gure aspaldiko bertsolariak. Iñoizka beste zerbaitera jo bear ta be, laster etozan osterá lege jakiñon barrutira. Bertso zarretan zerbait murgilduaz, fc>ertatik agir: da arein egilleen xalo-izate garbala.

3.—*Gaitasunak*

Egiatzko bertsolari danak, bape arazotu barik, gogai ta iduriz neurtitzik bikaiñenak biribildu oi ditu. Barne-legeari erantzuki, ba-dakiz eder-erak, ba-daki biotzean oartzen dauanaz entzuleen errai-zokoak zelan iñarrosi. Ori ba-daki, ta orrela jokatu oi da. Nainoz berari dagokion neurriko gaia aukeratu ta ortaz baliatzen da, ta geienez, entzuleei on yakena autu daroa, arei atsegin izateko nundik nora ibiUi bearra dauan ba-daki. Bein edo bein, berak jardun-ala, aditzailleak zabar antzera edo gogait egiñik lez oartzen baldin ba'ditu, beingoan artzen dau beste bide bat; edo-ta gaiaren iturria agortu ba'yako be, ateraldi zorrotz batez amaitu oi dau bertatik bere saioa. Iñoiz motelen batzuk be agertu arren, gure plaza-gizonak geienik beintzat zur-erneak doguz.

Atzena ondo biribiitzera jo bear dau bertsolari itxurazkoak, ortxe bai dago egon untzea. Egoki ta erara asi ta bidez ondo ibiltea, txalogarri da, baiña eroso amaitzeak damotsa batez be neurtitzari olangG jagitasun berebizikoa: atzenaldi zorrotza b'eti yaku eder. Jatorduetan be orrela dagigu: azkenerako itxi oi dira edari ta jatekrik emegarrienak. Bedi, bai, bertsolariareri ekiña dotore txukuna: sskoren begi aurre, ispillu antzo, dagoanak

dau bertso-gaietan be. Egia, euskeraz idatzi arren, erdel gogo arauz jokatu daikegu sarri, gure gogorapen eta iduriak erderatikoak izan daitekez, geure gogo-lantze edo kulturarik geiena erderatik artua dogulako. Alan eta guzti be, gure euskereak ba-dau bere kera berezi-berezia. Auzi ontan txit jakituna genduan Aitzol'ek: «F.uskalerriak olerti gaietan ba-du bere ederkera, ba-du bere estetika. Olerkari izan baitzaigu euskalduna: yatorriz baidatorkio gure sorterriari oierkari izatea. Beraz, olerkari yatorra izanik, eder-zale ez ezik edertasunari soegiten eta edertasuna erakusten ere ba-lezake. Eder ikuste eta erakuste onek berekin darama eder-oitura eta ede'r-legea sortzea. Nor bakoitzak bezela, erri osoaren atsemenak ere bere kerara yasozten du edertasuna. Erri-atsemen tankera berezi auxe bere-berekoiki estetikaren iturburu da. Beraz, euskeldun erria edertzale izanik edertasun ori berari dagokion eran ikusi, eta bere irudimenak agintzen dion eran, iduri moltoaz apainduta, agertzen du... Errikoi olerkiak, sakonkiro euskefdun begiak ikusi eta biotz errikoiak maita izan dituzten gaiak, edertasunez aberastuta erakutsi dizkigute. Maite-minduen antziak, guraso-senideen ar eman etxekoia, eztai-jaiak, ezkontza arazoak, aurren kantzea, adizkidetasuna, gorrotoa, maitasuna, bertsoetan erriak kantagai artu dituanean alako dotoretasun bikain batekin yantzita aurkeztu dizkigu.» (Ikus *Yakintza*, 1934, 10'go zenbakia, 343 orr.)

Iduri, eredu ta ames-asmu, zein ete zan edertasun jantzi ori? Ona idazle berberak: «Izadiko gauz guziak bertso irudien gai. Baiña, olerkariak sorterrian ikusi zezazkean gauzak; artzaingoan, nekazariak soro-basoetan, eiztariak zelai mendi-malkarretan, arrantzaleak legor-ertz eta itxasoan, egunero, orduero ikusi eta esku artean ibil zezazketen gáuzak olerkari errikoiak poesietarako eder-gai zerabilzkiten. Gure bertsolari errikoiak ez dute beñere ez irudi eta ereduen gai, ez edertasuna sortzeko erabili arteko ezitzaian gauzik».

Erri-bertsoetan daukaguz, .beraz, ainbat eta ainbat iduri, eder-eredu ta ames-asmu euskai kutsuz beterik. Egille berak, an-emen . nabaituriko eder-credu gaiak sei saiiletari banatu ebazan:

t1'ngo: *Lore-kmdareian*: briona, illarra, zhroina, mertxika, mahatsa, otea, sasia, arrosa, sagarra, baba, udare..

»2'garren: *Zuaitzelan*: aritza, ametza, pagoa, lizarra, sarratsa...

»3'garren: *Txori-egaztietan*: eperra, kaila, erretxiñoia, pagogorria, usoa, belea, arranoa, oillarra, erbia, erlea, sagua, katua...

i>4'garren: *Abereetan*: oreina, antxumea, zaldia, txakurra, beorra, beia, zirikoa..

»5'garren: *Nekazari gaietan*: goldea, arto yorratzeta, ogi loratzeta, itzulketa, itzaiketa, artzaintza, eiza...

»6'garren: *Izadi-gaietan*: bortietako elur, erreka izotz, artizarra, illsrgi-laiñu, eguzki itzal, baso, oian, zelai, aran, ibar, muño-egi...

yOiekin, edo oien kideko diran beste gauzeekin, olerkari errikoiak naiko du bere olerkiak apaintzeko. Ez darabilkio irudipena Asia'ko bitxi, Ganges ibaiko ertzen, edo Arabi'ko basamortuen igesi. Gure lur eta izadi puska onetxen aberastasuna aski du olerkariak asmaketa aratzak, goi-argi atsak erainda, adierazteko.» (Loc. c.)

Eder-gai arlote ta ezerezak ete? Ba-leiteke norbaiteri orrela eriste, gaurkoan batez be. Gure antxiñako bertsolarialc, baiña, neurtitz zoragarriak sortzeko ez eben izan beste ezeren bearrrik. «Giza biotzak naiko lukeen poztasun edo naigabea agertzeko, naimenak gura leukena adierazteko eta atsemenak edozein mailletako edertasuna irizteko, gaitxo oiekin pranko izan dute eusko olerti baratzen.» Gaur, oster, aurrera goaz bertsogintzan eta olerti arazoan, munduko literaturari ondotoxotik jarraitu naiean; eta era barriak, bide barriak be artu bear. Baiña beti, geurea, geure arimaren arnas zarra, osoan beintzat, albora itxi barik. Barria zarrez igurdi ta oretu, or jokabiderik obeena.

Gure bertso zarretan ba-da gauza berezi bat: iduri-oldozkunen arteko zer-ikusi apartekoa. Iduria doa lenen, iragarle bai'litz; oldozkuná, gero: «Eredu eta amets asmaketak irudipenaren seme arroen antzera; Oldozpena, berriz, p.dimenak sortutako ondorengo nagusi ba'iitzaiguke». Olerki zar gi'ztiak one-I'xe eratuak dagoz. Ona adibide' batzuk.

1) *Maile kantelan*: Erriak abesten dauan *Txori erresinold-*
ren zazpigarren ahapaldiak onela dau:

*!iBortiafc xuri áira elur dientan,
sasiafc ere ulun osto dianian.
— Aia n \ male.ru.sa! zeren han sartu uintzan?
Jun pa'nintz ailzina,
?skapatzen nintzan.'h
frkus Milla Olerki eder, 82 orr.)*

Eta beste au:

*iMendio.n zoin den eder eper xango gorri!
Ez da bea' tidatu itxv.r'ecler hori.
— Ene maiiak ere bertziak iduri:
eni hitz ernat: ela gibeletz itzuli.a
(Ikus Milla Olerki eder, 83 orr.)*

Iduri-oldozkunen alkar bear au, bikotasun au, maite-bertso-
etan agertzen da bereziki; baiña bai ta, ainbestean ez arren,
eskale-kanta, dantza-kanta, ogibide-kanta ta olangoetan be.

2) *Eskale-berlsoetan*:

*KZeruan ecter izaria,
crrekaldian lizaria;
--etxe ontako nagusi iaunak
urre gorrizko bisarra.»*

Eta beste au:

*vAmetzak eder azala,
uñtz oazteak bezala;
—zu etxekn andre zarra,
etxe vi:tan ba-da zure beana.»*

3) *Dantza-kantetan*: Lenago, geienetan, kantu izkidunez
laguntzen zan dantzea; gaur ez ainbeste. Gure artean ba-ziran
dantza abesti mordoak, gaur erdi galduak tamalez. Orreitariko
olerki-bertsoetan be iduri-oldozkunen bikotasuna agiri yaku.
Ona ale bat, askoren artean aukeratua:

«Sugarra lore-lore
ienbora danean;
--pazteak anak arin
xoiñva (lanean.n

4) *Ogibide-kantetan*: Euskalduna ezta kantaz aspertzekoa; jardunean naiz egonean, beti daragoio abeska. «Abenda gutxi **gere**a bezin abeslari —diño Aitzol jaunak—; zeudela ere, **arbasoak** mara-mara kantuz aritzen ziran. Artazuriketan zala, liñuaren lana zala, eueiak oiaia euntzen ari zirala, ola-gizonak burnia guritzen, gorulariak ardatza dantzatzan, itzai-mutiltxoa itzulketan. —nor ez Euskalerrian?— oparotsu, naro abestiak itur gardenetik antzo eztarrietatik iges ziyoazkioten.» (Loc. c.) Ogibide kantak ditugu onakoak. Eta oneitan be alkar ezkontza au ezta gaitzen.

«Arrosa-lilia lorç;
—?0?V bear du se?iarrik?
Bat ere. bat ere ez dut.
bat ⁷>ear nuke nik.»

Ta:

EtOr, goiti ortan zuyatz bai
fleitzen zaiona lizarra;
--orra Gloria laguv. arteko
papar auzia zilarra.n

Iduri-oldozkunok ba ete dabe alkarregaz zer ikusirik? Zati **biok** ez dago zetan nasturik, bakotxak bai dau «berari dagokion berekoitasuna; irudiak irudiari dagokiona, oldozkunak oldozkunarena». Ez dira, alan be, gai biok oso azke diranak; ba-dabe **alkarren** artean olango lokarri meia, «ederti-arazoak eskatzen **duan** bezelako ariña».

Ahpaldiak eurak **be** bikotasun orren mende dagoz askotan. Ona auzi onen aztertzaile garbalak diñoana: «Irudi-asmu **bikotasuna** errailetan daramaten ahapaldiak bere kera berekoia dute. Beste bertso taldeak bezela taiutuak **ez dira** izaten. Apaldi **oiek bi** zati ezagunak dituzte, dakigunez. Lenengo neurtitzetan, **beti** ia, irudia azaltzen zaigu. Aizkenekoetan, berriz, oldozkuna.

Noizik bein, oso soil eta bakanka, ordea, irudia aizken tokian dagerkigu. Apaldia laukoa ba'da, lenengo bi bertsoak irudi-ere-
duarentzako dira; zortziko ba'da, asierako lau neurtitzak. Iruko
apaldietan bat, edo geienean bi bertso, bear izaten ditu irudiak
bere izakeraren eder erakusteko. Bertso talde oiek ez dute, ordea,
oierkian toki yakiñik; asieran, amaian edo olerki muiñetan ber-
din dioazte irudi berezi oiek sabelean dituzten apaldiak. Oler-
kariaren goi-arnasak iraultzen ditun tokian, bertan gozo egiten
dute apaldi oiek. Ez dira olerki zarrak oparotsuegik eredu-as-
modun apaldiak sakabanatzen. Bikotasun ori olerki geienetan
bein edo bi, goiti yota geienen bizpairuren bat aldiz agertzen
zaigu. Ezin uka, ala ere, ba-dirala «Amorraina ñimiño» antze-
koak lauretaiño ere dakaizkitenak. Onelako mailla irizten dute-
nak, egiz, dira gai-ederrez, irudi aratzez eta eredu sotillez abe-
ratsenak. Oetan olerkariak buruan darabilzkin asmoak eten gabe
arrigarritzko irudiz yantzitako bidetik amaiara daramazki»
(Loc. c, 352 orr.)

Arlo au amaitzeko, autor dagigun emen: geure-geure dogun
olerkera au ez dogula bazterturik itxi bear. Egoki da cusko
kutsua daroen nsmo-iduri oneik aintzat artu ta, geiegitan ezta
be, noizik beinka eurok erabiltea. Bertsoari bizitasuna, sotil-
tasuna dakartso onek.

5.—*Euskal neurtitzak*

Bertsoen azalari gagokiozala, neurkera edo itzak neurtzeko
ekandu au ez dakigu nundikoa dogun. Itzak berez batzuk lu-
zeago, beste batzuk motzago dira; oneik onako amaiera, areik
arakoak; baiña ezelan be ez dabe bárdin-amaitzea ta olakorik. Iz-
kuntzarena ezta, beraz, bertsoetan darabilgun itz-neurtze ori;
beste nunbaitetik dator. Batzuen eritxiz, kantak eskatzen dauana
dogu; baiña neurri bagako itzetan be abestu al daiteke, eliz-
kantetan sarri egin oi danez. Antxiñako erri'zarretan, gáñiera
—gurean bere ez?—, ez ei eben olango neurtitz estuan abesten.
Dantzeak eskatzen dau geien bat neurri estuagoa, ta ortik ei
dator lerro bardintze ori.

Bertso ta neurri bage be izan daiteke poesi bikaiñik. Bertsoa ezpaita naitaezkoa olerkian. Ezetariko neurkera barik be izan daiteke, bai, poesi jaso; bestera diñoana egiari bekoz-beko dabil, ainbat eleberri ta itz-lauzko antzerki, arrotz-izkeretatik itz askatuan itzulitako ainbat antze-lan eder saiets iztea litzake-ta. Bertsoen neurkera, bada, olerkiaren laguntzaille ta osotzaille besterik ezta; olerti-izkeraren askatasunak be ortara bultz daragisku, ta gogaiak adierazteko indar arakoa ezarri oi dau neurkerak. Kantuaz egokiago dator, ta dantzeaz askoz obeto. Beraz, bertso lerrotua berez olerki ezpada be, onen jantzi panpots txanbeliña, bai. Beleak egazteko egoak bear, olertiak bertsoa.

Lerro-mordoska batek neurkera asko artu daikez. Eta euskeran, beste izkuntzetan lez, neurkera askodun bertsoak ezagutzen dira. Erromantzeai jarrairuz, aokaldi edo silabaz, itz atalez dagigu guk be, oraiñarte beintzat, bertso neurtzea. Gerkar eta latitarren artean epea zan bertsoen neurri-eredu: silabak oguzten edo esaten emon oi dan aldi edo epea aintzat artzen. Silaba astun luzea oguzteko, labur ariña esateko baiño birritan epe geiago irauñ oi da; laburrak eta luzeak nastaurik, neurri-oiñak eratzen ziran, eta oneik, alkarregaz korapilloturik, bertsoa osotzen eben. Euskereak be ba-eban, antza, olango zerbait lenago, baiña gaur ez dakigu zelangoa zan; gaur dazauguzan euskal atsoitiz, kanta zar ta olerki guztiak, geure birako erromantze antzera daukaguz, silaba dauela neurri-eredu.

Euskeraz, silaba batekotik amazortziraiñoako bertsoak ezagutzen doguz. Etena, gero ikusiko dogunez, erdiko geldiuena da; ta auxe bear dabe erdian beberatzi silabadunetatik gorakoak, andik berakoak ez. Silaba batekoak be egin daikeguz, baiña bakarrik ez da erabili oi, bikoaz edo irukoaz nasian izan ezik. Adibidez, ona zelan eiotzen dauan Muxika'k bere *Pilota saioa* deritxon olerki ariña:

*nAilindu
gor.
Sskuiira
joz'*

Or^l *crh*

ats!

Sakena

oti'

Ir'esku

í.rc'x,

baietz fin

pc! '»

(Ikus *Oleri*. 1961, UrtarriIIa-Epailla, 18 orr.)

Eta beste biko-iruko au, Loidi'ren *Arraunketa'tik* jaso:

viAupa,

mutillak!

F.giK

ateññak!

Mikel,

entzuink!

Vste

guztiak,

igan

dizkiat!

Ala

dok ta

irc

ifiSOioA:/:':?

(Iku.'i *Euskñ Olerkiak*, 1930, 92 orr.)

Irukoak lirain darabiltz Loidi'tar Paben'ek *Orio'ko Umezur-tza* olerkian. Ahapaldi bi, V'garren Eusko-Oleri-egunean, **eusfo** Poemetan lenen.eo saria irabazitakotik :

uBai gora, *albaiak*

bai bera, *alai-alí*

baltzia *atzean*

urduri; *bipil;*

batera *mendiaJc*

bestera *zelaiaik*

mbea *leizean*

'irudi». *amil.))*

(Ikus *Yakintza*, 10'go zenbakia, 260 orr.)

Irukoak eta laukoak, geienez, beste neurri batzukoekaz **naste** erabilten dira. Ona bosteko bat irukoaz **nastean**. Gisa **ontako**

asko ondu ebazan Zornotza'ko seme Ormaetxea'tar Lontzi karmeldar oiñutsak.

*<iLo egoan aur
guriak
gotzon tfeiaii
begiak
jarri eutsozan
argiak,
eta ezpantxo
aorriak
irri barreaz
jantziak.vt*

(Ikus *Elerli*, Col. Zabalkundea.
Donosti, 1935, 126 orr.)

Lizardi'k, ostera, laukoa zazpikoagaz naste erabilli eban.

*«Oi, lur. oi, lur!
Oi. ene lur nerea'...
Oi. goiz eme,
parre gozoz ernea!...»*

(Ikus *Biolz-begietan*, Bilbao, 1932, 63 orr.)

Egieder'ek bostekoa ta laukoa darabiltz •

*Begi niniak.
zabal nitun.
ta aurralde oro
iañoz berun;
aure Gcrnka
zoriondun,
sem.e maitien
oroimendun.'i)*

Ikus *Vrrebilsa*, Bilbao, 1933, 100 orr.1

Eta Kerexeta'k onela nastetan ditu bostekoak:

*aZortzi egunez
ei'in eutsen andrak
otoiari;
ta iortzi egunes
.iddak —samurki—
negarrari.i:*

(Ikus *Bitargi*, Donosti, 1960, 42 orr.1

Bi, iru ta lau silabako bertsoak, orrelaxe nasteen izan ezik, garrantzi gitxikoak dozuz, ta sarri itz-joku bitxi besterik ez. Geienetan neurri andiagoko bertsoakaz irauli oi dira, ta orduan, bai, ederto datoz. Bost, sei ta zazpi silabadunak geiago aurkitzen doguz gure bertsolari zarren lan ariñetan: biotzaldi ta zirrada ezti biziak iragarteko ta, erabilten dira nareen.

Neurtitz-eretan Oihenart dogu nunbait aukerarik aundiena itxi euskuna. Taiu askotarikoak erabilli ebazan bere gaztaroa bertsoz idaztean. Orixe'k onela: «Ordudandik onera ez da ezer aundirik azaldu neurri kontu orretan. Detxepare'k, Oihenart'ek eta Adema-Zaldubi'k egin dituztenak irakurri ezker, gaiñerakoak ikusirik daudela esan diteke». Azken urteotan, alan be, neurtizkera barri ta egokirik ba-daurkigu gure olerkari ta bertsolari gazteetan.

Irakur ahapaldi au, oso ariña, lauko bi ta zazpikoaz naste Oihenart'ek ondua:

*v.Margarita,
ba'daidita
ote huts zln egilez,
begiz hurdin
bezain gordin
zarera zure egitez.n
(Ikus Milla Olerki eder, 202 orr.)*

Eta Zamarripa'k:

*KO Maria,
neure argia,
neure poza, neure Ama,
zeure eguna
dala-ta, ona
kantuz nator zugana.x*

Bosnako ahapaldia, Oihenart'ena au be:

*uNahíz ezpegi
gauz ilhargi
ni zure begi
ederrez argi;
heien gordatzen
czpazina hari
beti miratzen*

*dagotenari,
zuk hori egiten
bezanbatean,
eri etziien naiz
bihozm.inelan.ft*

Bai ta Bilbao'tar Alesander (Maruri)'k be, Andra Maria'ri opaturiko olerkitxo baten:

*«Krabelin gorri
lerden-lerdena,
bardin bakoa,
Jainko'k maitena.»*

(Ikus *Oleri*, 1961, 52'garren orr.)

Eta Lauaxeta'k *GoxaJdeko Oloia* deritxoneko lotots arin do-toreetan:

*'iOrra tarrosak
urrezko erlez;
danlzan mertzikak
latsaen azez.n*

(Ikus *Arrais-beran*, Bilbao, 1935, 39 orr.)

Zortziko nagusi antzera be idatzi daikeguz bosnako iru olerki oneik, baiña dagozan lez errezago ta gozatsuago doguz irakurteko. Arindu egiten onelaxe zortziko orrek berez dauan bardin-ots lo-enzlea, Orixe'ri ain gogaikarri yakona.

Bizkai aldean txit ugaria izan yatzun Enbeita oleskaria, Mu-xika'ko Urretxindorra noski, olango neurtitz-era berezi ta bana-koetan. Ogeita amarretik gora ebazan arek kanta-doiñu ezbar-diñak, eta oneik geienok ezbar-diña eben neurkera be. Sei-ñako bat:

*«Nigandik igesi
ez dakit, maitea,
zegaitik zoazan
loisari z belea.n*

Gna seiñako bat irugarrena amarreko batekin naste, Biz-kaia'n beintzat erri-abesti aspaldikoa:

*uZure amak neuri
ez agur eiteko
zer palazio dauko, maitia,
zvri emoteko?»*

OríxeTc J. S. Bach'i eskiñitako *Ixil organua* deritxonean:

*uAsia da, ari da
imlen, ariltzen,
ekin eta yarrai
bilba-izen, eioteen.
ATi-albtñua
sei notak atontzen:
aiek itzul, iraul,
iñoiz ez aspertzen
itokin antzera
biotz au xulatzén.*

(Ikus *Euzko-Goyoa*, 1950, Orrilla-
Garagarrilla, 4 orr.)

Seikoa bostekoaz naste ez da bakana. Ibarrangelu'n eta Bizkai'ko beste erri batzuetan, gaur be, abesten dabe gurutz-bidean Bartolome Olaetxea'k, Laukaritz'ko abade jaunak, bere *Kristinauben Dotrinia* (Bilbao, 1846) liburuan dakarrenez. Ona bigarren egonaldiko sei-bost silabadun ahapaldia:

*«Orain arizen ditu
kurutz batian
gure pekatuak
bere ganian.»*

Zazpi ta bost, zazpi ta sei, zazpi ta zazpi doiñu diferenteakaz erabillí oi ebazan Enbeita'tar Kepa'k. Ona zazpiñako bat:

*«Egizko maitasuvak
sortzen dau batasna;
batahunak ináarra,
indarrak osasunc.n*

Eta Kírikiño'k:

*uS'eure semian sem.e,
neure illoba lazto-na:
e.z eik aiziu aitonak
irakasten dauskona.yi*

Nastekoak barriz, ots, zazpi ta bost, zazpi ta sei ta abar,
aurrezean darabiltz Kepa'k. Zazpi ta bostekoa:

*uUrtiok daun egunik.
ospetauena,
Euskalerrian beintzat
Gabon eguna:
Oklozmenez beterik
jarten gaituna,
sorioneko Gabon,
Gabon JcutunaN*

Zízpí ta seikoa., edo zortziko txikia:

*«Susko baratz maiteko
loretxu bikaiña:
orren zoragarri, nok
egin zaituz, baña?»*

Zortziñakoak be atsegin yakoan. Ona bat, aren danak lez,
n?amin ta azalez eder:

*ÍÍO/SÚ taldiak or dira;
bagira zaitez, begira!
Amurruz agin zorrotzak,
jan ?iáirik ardi, bildoisak:
arf.aldien ur-ur, baña,
zoin úago gure artzafia.ti*

Eta beste zortziko ahapaldi ;ui, laugarrenean amarrekoa
daula:

*(íArgi guztien argia,
lore guztien loria,
usaintsu bardin bagia,
jakiturien oxn sakona,
ona baño be obia,
eskar guztxen jabia
zarian Míren garbia,
jaboixu Euskelesia.¹)»*

Doiñu sentikorrez abestu oi ebazan onako ahapaldi antzez:
egiñak. Ba-ditu zortziñakoak arako Beotibar'ko kantuaren an-
tzera osotuak:

*aZeií- gel(Vtzc". da at?ian
Oñaz ikusita aurrian?
7.11 zera nere nagusi,
zvrekin il cdo bizi.n*

Zortzi-seiko bat, gogo-alaigarri:

*«Ene txori pollt ori,
zeri adi ago,
ez abestcho kaiolan
alai ta geiago?
Zer gura ta axe duata
beti baldín ba'ago,
zentzunbako mizke orrek
zer nai dok geiago.n*

Zortzi silabadunakaz egiñiko naste oneitatik, baiña, ospetsuena zortziko nagusia deitzen dautsaguna dogu; gero esango dogunez, guere-geurea ta bertso-lanetan sarri erabillia. Zortzi bertso ditu; lenengoak, irugarrénak, boskarrenak eta zazpigarrenak amar itz-atal edo silaba dabez, beste laurak zortziña bakotxak. Gaiñera, bederatzi silabatik gorakoak diran ezkerro, etena bear dabe tartean amar silabako laurak beintzat; beste laurak, egoki dan arren, naitaezkoa ez dabe.

Txasta Enbeita'ren zortziko nagusi eder bat, mendiko alai-tasunari opatua:

*nMendi ganetik / ikusten díra
Zugazí, landa, / zelaiak,
Basetxe zurí / baratza eder,
Errekak eta / ibaiak.
Mendían dagoz / eguzki argi
T'etxe osasungarriak,
Birlak garbi / erabilieko
Inun baño be / obiak.y*

Zortziñakoakaz naiko nasterik egin daikegu. Baiña giartsu ta dotoreena Elizanburu'k bere «Ikusten duzu goizean» poeman darabillena. Orixe'ri txit begiko yakon olerki au, naiz itzez, naiz ahapaldiz, naiz musikaz euskaldur» baita. Berak diño: «Ez nuke salduko ori ere», ots, ain sarri oiukatu oi dogun goizsundazko bertso-talde ori. Irakur bere amarretatik lenengoa:

*«Ikusten duzu goizean
arřia hasten denean,
mendito baten geñean
etee ípito aintzín xuri bat,
tau haiz ondoren erdian,
iturriño bat aldean,
xakur xiiri bat atean?
Han bizi naiz ni bakean.»
(Ikus Milla Olerki eder, 537 orr.)*

Lenengo iru bertsoak zortziñakoak dira; gero amarreko bat, erdian etena dauala; eta, azkenez, beste lau zortziñako, oneik eta lenengo irurak alkarrekin rima edo azken-oskidetza izanik.

«Xori berriketaria» deritxona, barriz, zortziñakoa izanik, one-la neurtuta dago: lenengo laurak zortzi silabadak dira, bos-karrena ta zazpigarrena bederatzikoak, eta seigarrena ta zortzi-garrena, zortziñakoak.

*nSor-lefcua utziz geroz,
ondikotz hala beharrez!
Jaingo ona urrikaldu
da beti nere nigarrez.
Primaderan hasi orduko
arbolak estaltzen lorez,
xorito bat heldu zaut beti
nere herritlk hegalez.it*

Naparroa'n be ba-da onako aire zar bat, soka-dantza deritxona, melodi ta guzti. Zortziñakoa da au be, baiña laugarren bertsoak amar sibala ditu.

*nAi, ori begl ederra,
iduritzen zait eperra;
gauza oberikan zer da!
Ointxo polita, zapata eder,
txorkatila guziz pifia,
jantzi ederki egiña,
tella modako piña...
Al, neretzako ba'ziña!»*

Orixe'k, bertso-era au aztertu ondoren, onan amaitzen dau: «Soka-dantza asko ta asko dira Euskalerrian bi lenengo bertso piko berdiñekin asten diranak, eta irugarrena amar silabakoa:

«Aizak, Manuel mañontzi», «Sartu giñaden Ziburu'n», «Altzak ez du bihotzik» eta abar. Uste izateko da, beraz, ahapaldi ori gure dugula. Nik ez dut aski ezaguna Praintzi'ko literatura, baiña neke egiten zait siñestea ahapaldi ori prantsesa danik. Au da lenbizi aztertu bear genukena» (*Euzko-Gogoa*, 1954, Uztaila-urrilla, 150 orr.) Eta ondoan, zentzunezko aolku au damosku: ahapaldi edo koplá bat, itzez naiz musikaz, atzerritar sunda dauala baitu aurretik, «bata bestegandik bakandu gabe» musikea aztertu bear dala batez be. Errez egotzi daikegu: «Onek aren kutsua dau». Baiña nor lenago? Nor ete ama ta nor alaba? Or untzea!

Bederatzíñakoa iñoiz erabillia dozu, ez askorik. Oihenart'ek baditu olango batzuk, bai ta geroago bertsolariak be. Geienetan. alan be, beste txikiago batzukaz naste aurkitzen da. Agiri bat, Aezkoa aldean gaur be abestu oi dana:

*«Gizona, non duk zuhurtzia?
Zer, ez dakik
ez dela deus ere bizla,
fcea baizifc?
Iguin zak bihotzez mundua
orai-danik;
herioa duk hurbildua
ire ganik,yt
Ukus Miila Olerki eder, 153 orr.1*

Amarnakoak ugariagoak doguz, naiz-ta tar-tean ebagia dabeh bosnakoan antzekoak izan. Enbeita'k, *Dollorkeriak itxi* deritxor. poemako ahapaldi untsuak, gisa orretan eundu zitun.

*'xKkatx malmuizak / erábillirik
iximistia lez / atzera aurrera,
'orabiauta / jarri ondoren,
botaten ditu / goitik lurrera
galdu-gordian / bilinbolaka
baso ta mendi / arruak bera;
ibaietatik / barrero duaz
basa? be'erik / itxas crtzera..M*

Amaikanakoak be ez dira eskas urriak, sei ta bostekoar antzeko izan arren. Etena bear dabe erdian; eta bitara izan

daiteke: naiz sei ta bost, naiz bost eta sei. Ona seigarrenarer.
ostean etena dauan bat:

*uOna nun daukazun / Jesus bitlosik,
bvrurik biatzera / zauriz beterik:
oñak. et'eskuak / untzez josirik,
emen riapo Kristo / penaz beterik.i)*

Bost-sei danean, au da, bost eta seiren tartean ebagia daí-
orrenean, latitarren antzeko Aikaiu edo Sapo'ren b«rtso taiua ar-
tzen dau. Oratik onela:

ulam satis terris / nivis atae dirae.i

Amabiñakoak be erdian etena bear dabe, sei ta sei egiñik.
Ez dira bertso itsusiak. Mugaz andik, Zaldubi'k batez be, neur-
titz ederrak borobildu ebazan neurri onetan; bai ta gure egun-
etan Zaitegi olerkari trebeak be. «Tori nire edontzia», V'garren
eusko-olerti egunean Zarautz'en 1934'go garagarillaren 10'an
ospaturiko sariketan ienengo saria irabazi ebana, neurri ortan
dago. Ona bat bere azken liburu *Berriz ere goldaketan* deri-
xonetik artua:

*Anbolo mer-dia / elurrtan zuri,
oian orle.giak / burua beluri:
errekaldian izotza,
ta kezkatu dut biotza.n*
(Tkus *Neguz* poema, 1962, Guatemala, 56 orr.)

Eta Bizkai'ko eleiz kanta zar batek:

*«Agur, Izar eder, / Birjiña maitia;
Agur, Ama gozo / zeruko atia.
Lotuak askatu, /itsuak aroitu
on guztiak emon, / gatx guztiak kendu.»*
(Ikus *Elex-abestijak*, Durango, 1909, 27 orr.1

Bertso-mueta onei buruz au diño Orixe'k: «Amabinako auek
oso ariñak dirudite, baiño auek ere egiz edo idurituz lau indar-
mintzara edo azentu indardun ditutc bertso bakoitzean, iruga-
rren silaba'kal banatuak. Edo azentu indardunik ematen ez ba'-

zaie ere, dutelazko iduritua kentzea ez da erraz. Zaldien laugaiña gogoratzen dute».

Amairunakoak, sei ta zazpi nastean irauliz sortzen dira. Orixe'k bere olerki liriku *Orañaldia* onakoxe ahapaldietan egin eban. Agerbide bat:

*itOrain aldi? Ez aldi, / ez une, ez tini.
Orain, esan baño len, / gero da oraindi;
esan eta berela, / len: iun zan igesi:
ifiork ez duke neurtu, / ez geldierazi-o
ilkus Euzko-Gogoa, 1951, Orrilla-gara-
garrilla, 1 orr.)*

Amalaunakoak, ostera, zazpi ta zazpi nastean dira, erdian etena dabela. Enbeita'k doiñu atsegarriz erabilli oi ebazan.

Eta amalaunkoa aitatu dogun ezkeru, bego emen erdel sone-toaz zerbait. Egia esan, euskal amalaurkunak ez ditu geienez amalau silabako bertsoak, amabikoak baiño. Oihenart'ek ama-biñako biz ta zortziñako biz osotu eban, askelepiade antzera, Gure egunotan, barriz, Irisarri'k ainbat amalauko eder anto-latu dauz. Seitik seira etena dabe oneik. Irakur au, gogo-poz-garri, *Jesus'en Zazpi azken* /tzafe'etik aldatua:

*«Zeru-lur artean Jesus jaso dute,
iti gero berari azpitik begira
irriz ari zaizco guziak batera,
cupaka, ixeka zernai badarauste.*

*«Jainkoa du Axta (berak ala ustet),
ongi naí badio, hel bekto Bera.
Raldin Israel'go errege ba'zera,
eup! abe ortatik jautsi egin zaite.*

*Baldin Jauretxea urratu ta berriz
iru egunetan gora ba'daizezu,
eupf zeure burua aska zazu lenenín*

*Jesus'ek guzia entzun ta errukiz
Aitari otoiztu: «Oi, barka zaiezu!
Aita, ezakite zer ari diraden.n*

Ba-dira amabosnakoak be, zortzi ta zazpi nastean, zortzi

silabakoaren ondoren ixil-unea dabelarik. Erakutsi bat, Orixe'-ren *Getsemani* poematik artua:

«Baratz eder, bakar, ixil; / etxea dut *ingv.ru*.
Bost zugatz mardul, arnariz / beierik adaburu,
txarkata, landare xume, / denak lorez mukuru:
smen deramat eguna / nere baitan ekuru.n

(Ikus *Euzko-G-ogoa*, 1951, Irailla-urrilla, 1 orr.)

Amaseiñakorik ete dogu? Zortziñakoak alkartu ezker, bai: zortzi ta zortzi, amasei baitira. Enbeita'k kanta-doiñu bí ebazan onelangoentzat. Ortik landa, ez dogu gisa ortako bertso-saillik ezagutzen. Orixe'k, alan be., tankera barriko neurtitzak ontzen asi zanean, antzeko zerbait erabillen asmotan. Era barriko bertsuok ez ebazan kanturako egin, irakurteko baiño; bertso azke samarra, neurkeran beintzat. Onela berak: «Ele-zati edo silaba bakoitzari etzaio oinbeste yara eman bear. Lerroan berean dagon utsarte edo etenak egiten du neurtitza. Lerro auek bina eten ditute, naiz sei aldioro, naiz bost aldioro. Bi etenen tartean sartu diteke Iau zatiko elea ere. Onela, musikan bezala, lau beltz, naiz iru beltz bi kakodunekin, naiz bi beltz lau kakodunekin; beraz, lerro-etena, erderaz *cesura*, sei aldioro naiz bostaldioro, naiz laualdioro, beti seikoarekin naste, ta seikoz bukatzen dala. Gerko-latiñek ba-zuten taiu ontako itz neurkera, 1) Askelepíad'ena eta 2) Alkaiu-rena:

1) *Mecenas, attavís (B) edíte regíbus (6)*

2) *Vidcs ut alta (5) stet nive candidum (S/a)*

Eta adibidetzat bere poema *Baru-mendian* antolatu euskun gisa orretan.

«Emen natorkizu / Baru-mendira / Zure oiñetara,
Ezi ezazu bein / aur ezigaitz au / Zerorren gogara.
Ez ulz eskutik / egin nauzum au; / nere griñetara.j)

(Ikus *Euzko-Gogoa*, 1950, Uztailla-Dagonilla, 1 orr.)

Amazazpiñakoak be ba-dira, bederatzikoa ta zortzikoa korapillotu ezker; ixil-unea bear dau bederatzí sflaba ostean. Onela, 9/8.

Eta, atzenez, amazortziñakoa. Au be naste erabilli oi da; ta zortziko nagusia bera dogu, amar ta zortzi silabakoak, bertso biak lerro baten idatzita. Orain ogeita amasei urte onelango ahapaldietan emon euskun tolosar olerkari erne Arrese'tar Emeteri'k bere *Mendi-mendiyan* deritxon poema.

«Ardizai emen ' bakar bizi naiz / nere txabola / zarrean,
bakarti, bañan / zoruntsu goiko / sarot eder ixillean;
;x>zaren bii/ez / iriñlz-oiuka / nabillen aldi / berean
meii'.i-kolKoak / erantzuten dit / ots alai bete / betean.n
(Ikus *Txináot*, Donosti, 1928, 8 orr.)

Bai ta Satarka gure olerkari yaukalak be:

<«Ez dezu maite ' zu jaio ziñan / elxeko gela / samurra,
Eio txikitan I an egon ziñan / sukalde bero / ederra?
Es dezu maie / ama zarraren I muxu ta laztan / beroa,
Eta amonatzok / abesten duen / seaska abesti / gozoa?»
Ukus *Gure Herria*, 1924, 55 orr.)

Aitaturiko onexek dira euskeraz daukaguzan neurkera b«ingo ta arruntenak. Aldaketa ta nasterik naiko egin daikegu oneikaz batean, eta ortik ahapaldi txairo ederrak sortu. Bertsolari bakotxaren aosabai ta antzeari dagokiona dogu au. Gaur arte, neurkera ezbarðiñak nastuz, zenbait bertso-lerro bitxi osotu dira, ta aurrerantzean be gero ta geiago aberastuko dabe nunhait gure olerzale erneak euskal olerti barrutia.

Neurkera batzuk, jakiña, errezago dira irakurteko, beste batzuk kantatzeko: au gogoan izatea egoki yaku. Entzun Orixe'ri: «Nere belarrientzat, erabat seinakoak, edo erabat zortzinakoak —bakarrik erabiltzekotan—, edo erabat zazpinakoak edo erabat amabinakoak, irakurgarri dira. Naste ere erabilli ditezke, baiño ez biz batean: batzuk aurrena, erabatekoak, eta gero hestekoak, jokera oso okerra ez ba'dute bata bestearengandik, edo alde askotakoak ez ba'dira. Ez det esan nai luzegoak edo laburragoak; oso berdiñezak izanda ere, joera bera edo ritmo "bera izan bai dezakete .. Lenengo bertsoa baiño bigarrena agokaldi batez motxagoa ba'da, kantatzeko artu diteke zortzikoetan bezela: ez irakurtzeko. Zergatik ote? Erderazko indar-azentuat bi itzatal balio ditu bertso azkenean, edo bertso erdian.

etenduna baldin ba'da. Euskeran ez da olakorik berez gertatzen, orain erdera antzera oiturik baldin ba'gaude ere. Itz-atai guziak berdlñiak ditugu: iratue berdiña dute ta indar berdiña; gorabera edo tonua dute berdiñeza. Beaz, irakurtzeko, bertso silaba berdindunak egokiagoak dirala esan diteke: neurria egiñago dutekela» (Ikus *Oraindaño*ko *euskal neurtitzak*).

6.—*Zenbail zeaztasun: zortzikoak, bederatzi puntukoak eta abar.*

Sari txibitape erabilia da gure zortziko: geure-geure, erderatiko kutsubagea izan arren, ez dautsagu parkatu. Dakargun emen gogora Orixe'ren zearresan au: «Nere bizi guzian bertsoen etsai izan naiz, ozenki esateko beintzat, ez kantatzeko . Nik bertsoan gaitzesten dudana, mintzoa bakarra da; bestela, neurtitza geiago lantzen da ideiari dagokionez, eta orregatik, bertsoan gauza asko daude obeki esanik izketa askatuan baiño. Alde ontatik ez naiz bertsoen etsai; baiña zail da bi gauza auek eikartzen: esan-bearra ta doiñua. Ez ote ditezke elkartu oraindiño baiño geiago, euskeraz beintzat?» Egia esan, min emoten eutson, txit aspergarri yakon gure zortziko nagusia; txikia ez ainbeste. «Zortziko aundi ori —diño—, lo-argari ori sartu zaigu ezurretariño, kantan euskaldunena baldin ba'da ere.» Kanturako eder dana, irakurteko bolu-txalapat yaku, antza. **Bebil** leun emen egillearen antze egokitasuna. Bertsolariak makiñatxo bat doiñutan erabili izan dabe zortziko bizkor au, entzuleen belarriak eguno be mingostu barik. Bizkai'ko urretxindorrak zonziko nagusitan ondu ebazan bere poemarik gartsuenak.

Dana dala, neurkera au txit zabala ta asko erabilia dozu. ta berari buruz zerbait aítatzea ez dau iñok txartzat artuko.

Iru zortziko mueta dazauguz: nagusia, txikia ta erdikoa.

a) *Zortziko rtagusia*

Arrasate'ko seme argi J. K. Gerra'k azaldu euskun au geienbat, 1922.garrenean, *Euskaleniaren Alde* illerokoan *Euskal*

Kanta Zarrak argitaratu ebazanean. Gero, 1951'garren urtean, askoz argi ta egokiago, Vinson'en, Orixe'ren eta J. K. Gerra'ren lorratzez ibillirik, J. M. Leizaola jaunak, bere lan eder euskal poesiari buruzkoetan.

Zortziko onek, gorago esan dogunez, zortzi puntu edo bertso ditu. Lenengoak, irugarrenak, bostgarrenak eta zazpigarrenak, au da, bakoitiak, bakotzak amar itz-atal dabez, 5/5; bigarrenak, laugarrenak, seigarrenak eta zortzigarrenak, au da, batoiak, zortzi, 5/3. 1917'garrenean gure Enbeita'k bestez gain nai eban gure izkuntza, ahapaldia au abestuz:

*c.Zer balío dau / úri, baltz, gorri
edo nabar izatiak,
baldin ezpa-dau / zer ikusirik
orraz euskera / maitiak?
Alde batera / itxirik, bada,
politika ia / nastiak,
vuskereari / danok zabaldu
bíar dautsoгуz / atiak.n*

Zortziko andi onek geienez zortzi puntu dauz; baiña izan daitezke gitxiago edo geiagokoak be, au da, Iau puntukoak, sei puntukoak edo amar puntukoak. Ona Lelo'ren kantuaren lenbertso-sailla:

*uLeor zelaiak / bereak díra,
mendi tantaíak / leusoa.
Le.ku ironian / gagozarian
nok berak sendo / gogoa.n*

Zortziko auxe dogu, Bizkai aldean beñik-bein, kantarik zarena; 1529'garreneruntz egiña nunbait, eta Iburguen Zornotza'ko eskribauaren paper zar artean Markiña'ko Mugartegi'n liburutegian Humboldt'ek aurkitu ta 1817'an argitara emona. Zazpi lotots ditu.

Aita Agustin Bastarretxea lekeitiarrak, 1750'garrenean, sei puntuko zortzikoetan idatzi eban bere *Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasiñoa*. Irurogei ahapaldi ditu giztira. Ikus ogeita seigarrena:

«Aita eternuen • jakluria
dauko munduak zorotzat;
agaiti diño / errege orrek:
«JarUzi iunika / zuri bat».
Ezvabe zelan I zeruko estola
eronko zan / gureztat?n

Amar puntukoak be eztira urri gure bertsolarietan.

uBiderdi oso / egin orduko,
illundu ziran / bazlerrak;
burriketak be / urratu biar
aixe gogorren / indarrak.
Mendiak lako / бага andiak,
ausirik euren / gangarrak,
joten ebezan / txalupak eta
baita gizonen / bizkarrak...
Jixasaldeko / erri askolan
ba-ziran zol'i / negarrak.ii

(Ikus Neurtitzak, Durango, 1913, 26 orr.)

Onela dabes Etxeita'tar J. ímanol'ek arrantzalíen bizikera: goizean goizik, arrain-min kresal azalez, zantzo ta barre nekeak albora jaurti; baiña, zeru ta ur eztiak egunabarrak erakutsi arren, zenbatetan laiñoak artzen ditu arratsalderako mendiak, eta, ekaitz gordiña bertátik jagiz, laster garrazten dira arein biotz-erraiak zearo.

Bizkaia'n ez-ezik, Gipuzkoa'n, Nafarroa'n eta mugaz andik be orrela, zortziko nagusitan taiututa daukaguz maite-kanta ta osterantzekorik naiko. Iparfagirre'k zortzikotan egin ebazan erriari ain atsegintsu yakozan «Ume eder bat / ikusi nuen», eta «Ara nun diran / mendi maiteak». Elizanburu'k Lapurdi'n, «Solferino'ko itsua» ta «Harmen hartzera / deim ninduen» asten dana; orrelaxe Zuberoa'n «Goizian goizik / jeiki nunduzun» eta «Ene maitea, / barda nun zinen».

Ezin ukatu, ba, geurea ez dogunik, irakurteko zerbait aspergarri ba'yaku be, kanturako ain egoki ta durundutsu dan zortziko arrai au.

b) *Zortziko txikia*

Txikia deritxogun au nagusitik dator; nagusiarⁿ ideko da, baiña bost silabako bertsoak laudun biurtzen ditu, onela: 4, 4, 4, 3. Au be zarra naitaez: Beotibar'ko gudu-kanta, 1564'garren-eruntz idatzia, neurri orretan landua da.

uMitla urte / igařota
ura bere l birtean;
Gipuzkoa-rrak / sartu dira
Gaztelu'ko / etxean,
Naparro'kin / batu dira
Beotibar'en / pelean.yi

Au be, gorago aipa dogunez, zazpikoa ta seikoa naste bes-terik ezta. Era askotara idatzi daikegu, erdikoa ta nagusia lez. Ta erabat agertzen da bertsolari ta olerkarietan.

Euskal poesiaren zirkurik geienak sustraiz aratzen saiatu zan Vi'nson jaunak au diño, zortziko txiki oni buruz: «Amabost oi-ñeko bertsoan dagoz XVI ta XVII'garren mendean idatzirik olerkiak, iru eten —laugarrenean, zortzigarrenean eta amabi-garrenean— dabezala. Neurkera auxe erabilli eben EtxepareTt (1545). Etxeberri'k (1627), Harizmendi'k (1660) eta Argaiñaratz'ek (1665)». Oihenart'en eta Gazteluzar'en bertso-lanetan, alan *be*, beste neurkera asko aurkiu daikeguz. Ondoren darrai: «Pastoralak be neurri berberau darabile». Ezta au egia, Zube-ro'ko antzerki-sail marduletan ez baita olakorik agiri iñoizkoren baten baiño. Bai ta ba-diño *Ptmge lingtia* eleiz-abestiagaz zer ikusia ba-dauala be. Egia ete? Ez, antza. Leizaola'k onan: «Eus-kal poetikan oso-osoan egokitzen yaku zortziko txiki au, ez daigun ba beste iñon billatu beronen jatorria» (*Estudios sobre la Poesía Vasca*, Buenos Aires, 1951, 89 orr.)

d) *Zortziko barria*

Liburu mardul bitan euskal olerkia maixuki aztertu dauan J. M. Leizaola iaunak erantsia da izen au. Ba-leiteke gorago aitaturiko zazpi-seiko bertso mordoa besterik ez izatea berau; gure bertsolariak lekeda antzo moztu ta luzetu egin oi dabez

bertso-lerroak, eta ez dakigu ziur ahapaldi bat noiz dan legezko ta noiz naierara luzatua. Leizaola'k: «Zortziko oni neronek deritxot barria. Zortzi bertso dauz ahapaldiak, zazpi silabadun rimarik ez darocn bakoitiak eta sei silabadun rima edo azkenoskidea daroen batoiak». Adibidetzat Aita Domingo Meagher (1713-1772) donostiarraren *Matsarcn zumua* deritxon ardao-bertsoaren bigarren ahapaldia dakar.

«E2 da filoso/OTik,
ez teologorik,
arduari neurria
artutzen dionik;
gizon aundiak ere
ifcuzt ditut nik
bere moskorra ezln
disimulaturtk.Yt

(Ikus Milla Olerki eder, 246 orr.)

Zazpi ta seiko ahapaldí au txit erabillia izan yatzu, naiz an naiz emen. Iparragirre'k, *Gemikdko Arbola* ta beste kantarik asko neurkera ortan abestu ebazan; bardin, batez be XIX'garren mendean, Azkue'k, Etxeita'k, Iturriaga'k, Bilintz'ek, Baroja% Artolatarrak, Otaegi'k, Ibarrart'ek eta gaiñetikoak.

e) *Zazpi ta seikoa barrero*

Bertsolariak iñoizka doiñuak eskatu baiño itz geiágo sartu oi dabez euren kanta-neurtitzetan. Orain bost bat urte, Bilbao'ko Arenal'ertn bertsolarien lenengozko txapelketa zala-ta, maiko nintzan. Batzuk, euren jardunaldian, doiñuak eskatu baiño itz geiágo sartzen ebezan, maian epaikari giñenon belarrientzat beiñik-bein. Bai ta guk iñoiz okertzat jaso be egin genduan bear baiño itz-atal geiágo sartze ori. Alan be, eurak esan euskuenez, ori ezta uts, ezta akats, zillegi baiño.

Eta izpidean dagoz nunbait. Orixe'k euskal bertsoen alderdi oni be ekin eutson beiñolako itzaldi baten. Au diño: «Itz-atal edo silaba bakoitzari bere nota ematen ba'diogu ere, notak ez baitira iraute berdindunak —beltxak, esaterako, bi kakoxdun balio baititu— bai ordea euskeran itz-atalak, euskerazko itz-atal bakoitzari nota kakotxaren iraute ematen ba'diogu, bi ka-

kotx-erdik bi itzatal bearko ditue. Ona emen lerro oiek neur-
tzeko bi bide: lelotarako edo kantatzeko egin diranena, ta esa-
teko edo irakurtzeko egin diranena. Begira ikusburu bat. Bedi
zortziko au:

*Gorriti'ko mutillak
Uitzi'n galdetzen
ia lizar gazteak
no (la) diran aldatzen...*

Irakurtzeko, mintzatzeko, laugarren lerroka ori oker egiñp
dago, itzatal bat gaiñez baitu; baiño kantatzeko ez dago gaizki,
«nola» orri nota beltzaren irautea erdizkatzen ba'zaio». Beraz,
ba-dabe gure bertsolariak zixkun-zarkunetan non azaskatu.

Beste bein, Orixe'ri berari arpegira bota eutsoen olaxigc balz-
keri bat, bere poema garai «Euskaldunak» zala-ta. Zaitegi'k ao
betean iñoan poema ori «noiz-naiko ta non-naiko» ederrena
zala ta kritikulari batzuk, bape lotsa barik, bertso asko erren
ta guntzurrun bageak eukazala. Poema orren bigarren kantua,
ots, *Artazuriketa*, orrela egiña da noski, erren samar. Baiña las-
ter erantzun eban Orixe'k bere burua zurituz, tankera ori, batez
be gure bertsolarien artean, antxiñako oitura dala esanik. Ira-
kur bere itzak: «Bigarren kantu onetan, gure bertsolariak aldia
dala erabillitako ahapaldia artu dot; ahapaldi ontan beltz baten
ordez kortxea bi darabilguz musikaz, eta onek ahapaldi berean
silaba geiago edo gitxiago sartzen. Onela, erdian etena dauan
zazpi-sei silabadun bertsoan, beltz aldagarria zati bakoitzeko
lenena dozu, au da, bertsoaren asierakoa ta bigarren erdikiaren
asierakoa. Ortaz zazpi-sei neurria zortzi-zazpian biurtu daiteke,
naiz bertso berean, naiz ahapaldi bereko bestelakoetan. Ona
Asto baten saltzetik artutako ahapaldi bi:

nBi urtez idukitu dut (S) astoa sallzeko (7).

Txomiñ etorri zaít aurtan (S) erosten asteko (6).

Berela konpondu giñan (8) bigarren Itzeko (6).

Beta gabe nedukan (7) larrua kentzeko (6).

*Txomiñ'ek eitarri dío (8) andreari astoa (7).
Ez dakit eglñ dion (7) gaurkoan gustoa (6).
Probarik eman gabeko (5) ganadu preskoa (6).
han puskat eglteko (7) ez dakar gaiztoa (6).v*

Eta darrai: «Etena egin ezker, edozein zati luzatu dai-
teke. Ahapaldia zail-ezagoa da, ederragoa, bai ta errezagoa be
egillearentzat». Orrela dator poemaen musika sortako XIV'ga-
rren kanta-doiñuan be. (Ikus *Gernika*, 1951, 16'gn. zenbakia,
41 orr.)

g) *Bederatzi puntukoák*

Bertsolariak ez ditu iñoiz bat-banatzen lerroetako silabak
ez azentuak: kanta-doiñuak daroa, ibai-bera ur gaiñez doian
ostoaren antzera. Azkeneskide edo rima daroien ahapaldiko kon-
sonanteak, *puntuak* bai, ostera, orreik zenbatzen ditu, eta arre-
taz zenbatu be. Zer dira, bada, bederatzi puntuko bertsoak?
Erriarentzat *bertsoa* ezta, erderaz lez, lerro neurtua, ahapaldia
baiño. Beraz, bederatzi puntuko bertsoa, bederatzi konsnan-
teko ahapaldia besterik ezta. Onetxek dira gure olerti sailleko
gatxenak, eta bertsolari baten trebetasuna noraiño eltzen dan
argi ta garbi erakusten dabenak.

Zail izanik be, gure bertsolariak etziran koldar agertu bede-
ratzi puntuko bertso orreitan. Bilintx'ek bere *Zaldi baten bizi-
tza* orrelaxe ondu eban; Xenpelar'ek *Betroiaren tratua*; J. Otxal-
de'k be bai, mugaz andik. Ona bere bat, *Gaztetasuna ta zahar-
tasuna* deritxon olerkitik aldatua:

*«Aspaldi dut naizela / etorri mundura,
geroztik pasatu da / haintz denbora,
atsegin batendako / frango arrangura,
miseria kantatuz / bizi naiz ardural
Cteroko mentura
nik ba'nu segura,
egin nio hura
hainitzen gostura,
zaharren gaztetzeko / ba'ginu moda!»*
(Ikus Miño *Olerki eder*, 509 orr.)

Argi dakusgunez, bederatziko onen lenengo lerroa zazpi-seikoa da, bigarrena zazpi-bostekoa, irugarrena ta laugarrena zazpi-seikoak; gero, lau seiko, ta azkenez zazpi-bosteko bat. Zaila dalako, alegia, bertsolari guztiak ez dabez bardin neur-tzen, baiña aztertu dodazan amar-amabitik auxe atera daikegu.

Berez barrenean dauan gaiztasun ori, gaiñera, ezta mende-ratu eziña. Lenagoko bertsolariak sarriago leiatzen ziran onan eta erreztasun geiago eben. Ona beiñola Oiartzun'go plazan ja-soa. Bederatzi bertsolari batu ziran an, Xenpelar ta Larraburu, orduko onenak, buru; Xenpelar'ek aurkeztu bear ebazan beste zortzirak. Zelan egin? Bakotxaren izakera berezia adierazorik, bederatzi puntuko abapaldi batean.

Gaur, tamalez, ez dautsagu orrenbeste jaiamon egiten. Baiña ez geuskio galtzen itxi bear, euskal bertso-saillean utsune andia litzakelako. Bertsoetan «gaitzena —diño J. San Martin'ek— bederatzi puntukoa da, eta an probatzen dira bertsolari onak. Lengo bertsolariak oituagoak ziran nunbait. Aiek etzuten izaten bederatzi puntukoetan ostopurik cta aintzinako txapelketetan sarri eskatzen zuten neurri ori. Gaurkoak, lasaitasunari emanak nunbait, ez dute nai bederatzi puntukoetan kantatzerik; baiña, ez dakit norañoko eskubidea izango duten orretarako. Bedera-tzi puntukoa baztertzean, galzorian jartzen durc, eta neurri orren oiura galtzeak bertsolaritasuna txirotuko du ta orrek ez dio iñori mesederik ekarriko. Bertsolari gazteak ori landu bea-rrean dira, eta plazetan entzuten ez dugun artean, gure ber-tsolaritasuna mailla bat berago irudituko zaigu... Gaur bedera-tzikoa galtzen ba'dugu, urrengo zortzikoa edo izango da; ta, poliki poiiki, orduantxc bai Grezia'ko *rapsoden* antzerakoak edo Erdi Aroko koblariak bezela izango dirana; buruz ikasi-takoak bakarrik kantatzen» (*Oleri*, 1960, Garagarilla-Irailla, 185 orr.)

Au onela, Basarri oraindik oraintsu gai onetaz mintzatua dogu. «Besteak beste dirala —diño berak—, orain txapelkete-tarako mai-gizonak artu duten oiutra da berriz ortik onerakoa. Gaiak ezarri ta bederatzi puntuko bertsoak aurrez aurre kan-tarzera beartu bertsolariak. Bertsolariak keldotzeko, larriak ug-al-fzeko, ta jaialdhk moteltzeko ezteke xixtima oberik autatu.

Bederatzi puntuko bertsoak berekin ditun neke ta estuasunak ezagutzeko norberak bear du bertsolari; ofizioak daki ondoen ori zer dan. Oso doñu berezia dute bertso oiek eta guziz sail laburreko doñua. Eztago pentsamenturik bear bezela agertzerik. Puntuak pillatu puntuen gañean, eta bukaeran ezer gutxi esateko. Bederatzi puntuko bertsoak, patxadan, denborarekin, paperean jartzeko. Paperean ere asitako guziak eztute asmatu bederatzi puntuko bertso onak jartzen» (*Zeritfeo Argia*, 1963, urri-láak 6).

Basarri'k ba-dau errazoirik auzi onetan. Otoz-otoan egin bear dan saio batean, bertso txikietan pentsamentu bat edo bi dotore sartu ta albatanez erosoen egokitzeko trebetasun ikaragarria bear da; eztau edozeiñek jadetsiko. Beraz, ulertzekoa da Basarri'k bertso txiki orri dautson ezin-ikusia. Gure Aresti'k be bereak erre zituan auzi onetan, eta onela jarki yakon Basarri'ri: «Sobera probaturik dago galleneko bertsolariék galleneko okasioetan bertso orretara jotzen dutela. Konforme nago Basarri jaunarekin oso gaitza dala bertso ori, baña gaitzasunean ezagutzen da trebetasuna, ez erraztasunean. Ori baita trebetasuna: Gaitzasunak erraz egiteko birtutea. Bi bertsolari, gañerako beste proba guzti-guztietan berdín atera badira, eta gero nor dan ohea esateko, bederatzi puntuko bertsoaren proba jartzen ba'zaie, uste det nik munduan eztagoala arrazoirik, portatera ori zillegi ez tala esateko» (*Zeruko Argia*, 1963, abendua 29).

Ortik, bada, iru eritxiok daukien ona jasorik, auxe esan giñaike: bederatzi puntuko bertsoak, oso zaillak izan arren, ez doguzala baztertu bear; txapelketetan batez be, iñoiz erabilli leikela edo mai-burukoak azterbidetzat eskatu leikiela, beste proba guztiak egiñik, bertsolari bi ala iruren artean nor geiago dan jakiteko. Ortxe baita erakusten trebetasuna, gauzak labor ta errez bertso txiki orrein altoan sartu ta gailentzean.

7.—*Euskal poeúaren jantzia*

Alderdi askotatik soegin geinkeo euskal bertsolariari; baña bere egitekorik beñena, plaza-gizon danean batez be, entzuleen

gogo-biotzak ederrez asetzea dala esango genduke. Ortarako ezta edozelan jokatu bear, bere idurimen bizia, biotzondo be-roa ta eder-sena oparo erakutsirik baiño. Gaur atan be bertsolariak, edo bertsolaritzak, indar andia artuaz doia; gogoz entzuten yako, gogoz txalotzen yako. Erri aurrera ez dabe, ba, urten bear «kirtenkeriak esateko, ziriak sartzeko ta olerki kutsuz kantatzeko baizik», J. San Martin'ek diñoskunez.

Ortarako, olerki kutsuz jardun izateko, noberaren etorri bezkoa landu ta bideztu ondoren, poesiaren azur-mamiñen gorabera ta zeaztasunak ondo jakitea bear-bearrezkoa da. Bide-arloari lotutean, zein bidez gabiltzan jakitea, beti egoki: bertsolariak, mugonez ezarteko, bertso-legeak zan ta mun jakin bear. Osterantzean, aizea ukabillez iñarrosi besterik ez leuke egingo.

Geure pentsamentuak, biozkadak eta eretxiak lagun urkoari edo inguruan bizi diranai adierazteko, izkera laua edo itz neurrua erabilli oi dogu. Itz lauz, ezetariko eragozpen eta zoztor barik, datorren moduan, parra-parra ari gara; bigarren erara diardugunean, oso txairo ta bikain emon oi doguz geure gogakizun eta ideiak, bertsoei yagoken neurria, erdiko etena ta azken oskidea zaindurik. Xeetasun oneik gordeaz idatzi naiz bat-bateko bertsoketan daragoionari, bertsolari deritxogu. Esan dogunez, bertso ta neurritan idatzi ezta be, olerti-zale izan daiteke, itz askatuan jardunik be poesi ederrak egin daikeguz-ta. Baiña, geienik, pentsamentu ta biozkadak, olertitsu diranean, itz neurturen esi-barruan egokitzen doguz.

Gaur gurean ainbat bertsolari ta olerti-zale dira, zar ta gazte, goi-gaillur zear dabiltzanak; oneik eguzki antzo ditugu, eta ez dabe gure onu ta bertso-legeen zaiñean tinkotu bearrik. Onein biran, ostera, sarri jazo oi danez, izarbel pitiñik asko dabiltz; eta txiki onei be zillegi yake nundik nora dabiltzan jakitea. Oneintzat dira, ba, batez be emengo zeaztasunok, txikiño oneik be jakin dagien ondo zeim bidez jokatu euren olerti-saillean. Orrei lana erreztutearren dira lerro oneik euskal poesi neurkeran edo metrikan erabilten diran arau ta legeak, naiz-ta azal samarretik, gogora ekarriaz. Literatura guztiak dabez euren lege ta arauak, olerkigintzan bereziki; euskeran be naitaez izan bear.

Lau gauza oneik, befntzat, gogotan artu bearrak doguz: 1) Ber~
tsoaren *igikera* ta *azentua*; 2) *neurria*; 3) *etena*, ta 4) *oskidi*
edo azken-amaitze bardiña (rima).

a) *Bertsoaren igikera ta azentua*

Poesi geienak, euskeraz be, bertsoan idatzita daukaguz. Zer
dogu berau? Aldez aldezko lerro bat, ritmu baten esipean
itxia. Izkuntzan igikerak zeazten ditu esaerak, gitxi-asko neu-
rrituak edo taiutuak, eta oneik bertso izena daroe; bi, lau, sei
edo geiago aldez aldezko lerro diranean, *ahapaldia* deritxogu.

Eta zetako bertso-lerrotze au? Ondo ete datorkigu? Begien-
tzat, bai; eta belarrientzat? Giza-zentzun bi oneitatik, zeñiek
dau esku geiago bertsoari buruz? Ona Orixe'k: «Oraiñarteko
bertsoak begientzat egiñak dirudite, ez belarrientzat. Zertako
beti, bertso oinbeste silaba, koplak oinbeste bertso, ta osoak
oinbeste koplak? F.ta zertako lerro laburrean ipiñi? Ez al litzake
obeki, prosa bezala eman, aurrenean mugimentua nola dan adie-
razi ta, aldatu bear baldin ba'da, aldian aldian deitu, musikan
egiñ oi danez? Belarriak iritzi bear dio mûgimentuari; ez be-
giak». Eta berak orrelaxe ondu ebazan azken orduko olerkiak.
Eun oberenak idazten ari zan bitartean eroan eban Jaunak be-
tiko atsedenera, eta ez dakigu osorik zer asmo erabillen. Bere
poemarik geienak kanturako egiñak dira, ta beti egoki ta antzez
neurtu ta azken-oskidetu ebazan. Azken-orduko oneik ez ziran
kantarako, eta beste bide batetik jo nai eban nunbait. Eun obe-
ren orrein itzaurrean onela amaitzen dau: «Nik lerro laburreri
agur egin diet, eta prosa bezala emango ditut. Ebangelio'tik
artu ditudan gogorakizunok, irakurleak naierara irakurri betza:
nai dunak prosa antzera, nai dunak bertso antzera». *Oleri'n*
1961, UrriUa-lotazilla) daukazu, irakurle, olango bat, *Beti-dantza*
deritxona; bere azkenengoa nunbait, goi-mezulari ortzi zear
igorritako Pioner V'garren dalakoaren gorapenez egiña.

Dana da'a, naiz onetara naiz aretara idatzi, olerkiak igikera,
ritmua eskatzen dau naitaez. Eta onek, naiz-ta sarri aintzat ez
artu bear aiñean, garrantzi andia dau bertsoetan; ainbarik, ez
baitogu bertso ganorazkorik, ereskidetasunez apaindutakorik

gingo. Zer dogu, ostera, apainki ori? Olerkia geienbat kantatzeko edo dantzarako egindakoa ei da; bai kantuak bai dantzak euren zeaztasun bereziak dabezan ezker, bietan daurkiguz doiñua ta igikera, melodi ta ritmua, batera lez dabiltzanak, baiña bat ez diranak. Ots ezbardiñak osotzen dabe doiñua; igikera, barriz, mugimentu oskidetsuaren eratze bizia dozu. Eta auxe da doiñuaren giltza, benetako bizitasuna damotsona. Etxe bat jasoteko arri asko daukaguz; arriok doiñua lez dira, ta arriok batu, eratu ta bakoitza bere lekuan jarririk etxe ederra, au da, melodi doiñutsua dagiana ritmua dogu. Ondo igitzeko antzea, *ars bene movendi*, Platon'ek iñoanez.

Ritmua, zirkiñaren erakundea, baita, esan oi da, antzeko doiñu askoren ondorena dala be. Doiñuok bi, iru, lau, bost edo geiagoko sailletan banakatzen dira, ta doiñu-sail baktotxean euratatik bateren bat gaillentzen da besteen artean, gaiñontzeko guztiak orren inguruan pilloturik. Antzeko soiñuak itzatal edo silabakaz doaz ondoz-ondo; eta silaba oneik launan launan, zortziñan zortziñan, eta abar, alkartzen dira. Itzatal orrein artean ba-da bat, edo geiago, besteen artean gaillentzen dana, igierazko mintzor edo azentua daroan silaba nunbait. Oni begiratzen dautsoe beste guztiak. Bertsoak, eurenaz, biñan biñan, seiñan seiñan, eta abar, pillotzen dira, onelantxe ahapaldiak buruturik; eta ahapaldiak eurenaz, erreskadaka ta mordoka, olerkia dagie, lan osoa.

Edozein bertso oskidetsu izateko bear dauan igiera, batez be mintzor edo azentuak dagi. Iru mintzor era dazauguz izkuntzetan: 1) *Idatz-mintzorra*, onelangorik ez daukagu euskeran, konkorduna izan ezik: ári, áte, bestén ta abar, *aa* ta *ee* biren ordez erabilli oi doguz. 2) *Esakuntzarena*, ots, mendiaren gaiñeon. Euskeraz itz edo izki guztiak indar bardiñez ebagiten doguzala uste da; baiña ez da egia, euskal belarri ona laster konturatzen da bai-dala or silaba baktotxean olango mintzor berezi bat. Azken urteotan, gai onetaz sakon jardunak doguz Altube, M. Lekuona, Orixe ta Gaztelu jaunak. 3) *Ritmikua*, arestian aitatu ta poesian erabilli oi dana, poesiar egin-egiñean be aparteko jasa ta jatortasuna bai dakartso. Egia, erderaz beste garrantzi ta gorabera euskeran daukonik ezin esan: espaiñeraz, esate baterako, zortziko edo arte nagusiko bertso-

etan susiraizkoa dozu mintzor au, silabak bat-banatzea baizen inportantzi andikoa. Ori barik ez dago egiazko ritmurik, ez itxurazko olerkirik; orrek, ostera, berebiziko indarra ezarten daurso eta sarri berau da naikoa bertsoari kidesun edo armoni ezin csan alakoa emoteko.

Eta euskeraz zer? Ba ete dogu olako azenturik? Edo erabiltea komeni ete yaku? Oraindik, egia esan, ia misteri bat dogu au; baiña euskerak dauan utsune ontan argia egiñaz doa. Ormaetxea jaunak (Orixe), Euskaltzaindian sartzerakoan, Leizta'n egindako itzaldia mintza-doiñuari buruz izan zan. Ona aren mamiña: «Oraindio bizirik irauten du bere beretasun ederrean gure euskeraren doiñuak; eta beste alderdi askotatik begirata arrigarria baldin ba'da gure izkuntza, doiñuarengatik arrigarriago esan diteke... Gure azentua eskurakoi da erabiltzeko, baiña beste ainbeste zail esamíñatzeko, igeskorra baita inguruko izkuntzena ez bezala. Gure onek, griego zarrak bezala, ez du indarrezko azentu nabarmenik; gora-bérako mintzor leguna du, ta ortatik eldu da (dator) kantarekin oztipo itsusirik ez egitea».

Ondoren iru azentu-mota bereizten ditu: silaba bakarrean dagoana, bitan eta irutan dagoanak. Silaba bakarrean dagoana, gerkarren antzeko goramintzorra ta béra-mintzorra da. Silaba biko itzetan biak ei dira bai-azentudunak; azentu bakarti bi ezagutzen dira, noski (,ta'); beste lau alkarkiak dira, bizkarduna ("), magalduna (V), gaingora ta gainbera. Iru silabako itzak^ bakarka arturik, azentu magalduna dabe geienak; baiña ba-dira gaingora dabenak be.

Eta gero, azentu alkarki orreitatik bertsorako neurri-oin bat artu daitekela diño griegoz ta latíñez legez, euskal bertso-mota jatorra egiñik. «Iru silaba dagokala azentua duten itzak —diño— artuko ditut oiñarri bertsorako, izanez ere euskerak iru silabako itz asko ta asko baítitu: *eraman, ekarri, etorri, ikusi..* eta, bi siiaba izanik ere, artikularekin iru artzen ditu: *gizona, etxea, andrea, neskatxa, mutilla*. Esan baititeke iru silabako au gertatzen dala geienik euskeran... Beti ere galdekizunak dakar beregana azenturik garaiena. Orregatik, aurretik jartzen danean, gaiñerakoaren mintzoa rnoteldu egiten da, komarik edo geldid-

unerik egiten ez ba'da. «Iru alaba ditu gure auzoko Joxepañaxik.» «Gure auzoko Joxepañaxik, iru alaba ditu.» Lenengo iokuan (komarik gabe) beratzi silaba erokeran daude, beraz motel gelditzen dira; bigarrenean, bai-azentuak ditu, ta biziago gelditzen da... Gauza oni ez diogu buru emaiten idazten ari geranean, eta bear genuke. Berez itzurren edo syntaxi iatorrago ta garbiagoa da lenbizitik galdekizuna ipintzen duna, komarik ere ez baitu bear argitasunerako.» Latiñez be bardin jazoten zan; gerkarrak, ostera, galdu egin eben urrean azentu au, ta origaitik euren itzurrena ez da ain jatorra, latiñaren aldean aula baiño.

Eta azkenez euskal bertsoak darda gaiñean darabiltz. «Bi makur ditute —diño— gure gaurko bertsoak: esateko, au da, mintzatzeko, erderara eramaten gaitutela; ez, kantatzeko. Bigaxrena, etenak geiegi edo urbillegi edo berdiñegi emaiten ditugula. Bi tatxa ok mintzoa doiñu zurrunera edo berdiñera daramate, *ál tono recto*... Ba-da gutartean gizon bat, aski ikasia, bost silaba oro etena dun bertsoa maiteen duna. Eta gaiñera, erderaz bezala irakurtzen du:

*Caltza pare bat / etxean ba-dut,
aitona zanak / emana...*

Azentu indartsurik ez emanda ere, au da euskerazko bertso-rik pisuena, lo-argarriena, etena bertanegi dulako. Etena bertago ta okerrago. Sei silaba oro etena ongi dator. Ontara egin dira bertso batzuk gure egunotan, Adetna-Zaldubi'ren «Jesus'en azken-afaria» til asita. Ta ia prosa bezala irakurri diteke; baiña luzean luzean, doiñu berdiña gogoratzen du. Obe genuke beste oin batez edo biez nási. Lau silabakoa ta bostekoa sarrerazi ditezke mugimentu berean, sei silabakoa nabarixago dela» (*Eus-kerá*, 1958, 29 orr.)

Euskal bertsolaritasuna iñok baizen ondo aztertu ta legepetu dauan M. Lekuona be jarduna dogu auzi onetaz: 1918'an, *La Métrica Vasca* idaztean eta 1936'an, *Literatura oral euskérica* argitaratzean. Lenengoan, igikerari, azentuari ta neu-riari ekiñik batez be, euskerazko bertso legeak oiñarritzen ditu

maixukiro, ta gure bertsolaritzari legeok erantsi bigarreanean. A nai au, lan bikaiñak ziñez gure bertsolarien bat-bateko jardunaz jabetzeko.

Bertsoari gagokiozala, ba-da itzatal, esakun, esaldi ta zirkinzati guztietan, olako zerbait ekai guztiok batasunera daroazana, ta atal guztiok gainezkatu ta alderik alde bizi-arnasaz zearkarurik izaki bakarrera dakazana. Igiera, ritmua dozu ori. Ikusburu bat. Ur-aska baten txorroka darion urak ots bardiña dagi beti., lezetan itoinka jausten danak be bai; lenengoak bertaegiko zarata dau, bigarreanean ez dago batasunik, beraz ritmurik bere ez. Zaldiaren lauoiñean, barriz, baldintza bi oneik ederto senideturik daukaguz; beraz, ritmu osozko igiera. Eta euskaldunak* bere izate barrutik eta izadi-legetik artuta, ritmu orixe darabil bere musika, dantza ta literaturan, koplaz zarretan batez be.

Itz azentudunak, latinetiko izkuntzetan besteen gain olango jauntxu lez dira, silaba azentu bageak jopu lez dabezala. Euskera orretan, bertsogintzan atan be, askoz egoki dedutsuago da; azentu ori gurean txit makur-errez, zabal-luzakorrago, bigunago dozu; griegoan, latinean, sanskritoan malgu, baiña euskeran malgu ta bigunago: igikera ta mintzor, ez dautsoe euskeran alkarri ozpotorik ipinten. «Onela —diño— koplariak, esakuntzaren azentu kezka barik, izkerak berak ia egiña damotson azken rima ta ritru-oiñen eralketa zur egokia gogotan izatea, naikoa dau» (*La Métrica vasca*, 16 orr.). Gogai bi ezbardin-erbardiñak izan arren, igikera ta azentua naste ta tarte dabil-tzanak doguz osoan. Euskerak bere azentua dau, baiña ez inñolaz be erromantzeak baizen gogorra. Azentu au, gitxi-asko, izkuntza guztiena dala be, gurea «ia gogozkoa». Eta augaitik, azke dabil olerki-ritmua, azke dabil musika ritmua.

Altube euskaltzaiñak bardin, zabal ta sakon ikasi eban euskal azentua bere *El Acento vasco* (Bermeo, 1932) deritxon 332 orrialdeko liburuan. Itz lau ta bertsoz, izen bakarretan, itzmordoskaetan eta gogai-sailletan dauan indar -ta balioa egoki aztertu ebazan. Beste izkuntzetan lez, euskeran eztago azentu bereziko itzik edo izenik, baiña bai lits eta gorabera nabarmen batzuk biotzondoak berak edo itzurren-lokarriak eskatzen dabezanak eta ezin ezetsi daikeguzanak. Azentuari buruz, bada

—diñosku— iru zelai ikertu bear ditugu : 1) Izen bakarrarena; 2) mintzo biozkorrena, ta 3) itzurren-taldeena. Izen bakarrean, itzatal guztiak erabat mintzortuak izanda be, oguzkeran, asierakoa ta azkena, geienez beintzat, erdikoak baiño gogorrago gertatzen dira. Lau silabatik gora, aldi gogor ta aulak aldizka dabilzalako igiera legeari erantzunik, asierako indar-azentua ez daroe len-si!aban, bigarrean baiño. Eta berebat galdekizunean, itz-jokuan, aditzean eta abar, ango ta emengo euskalkietan.

Amaitzeko, geigarri lez, euskal bertsoak dauan eta bear leukean indar azentuaz diardu. Zeaztasunetan sartzeko asti bage, ona laburki bere eritxia: iarritako legeak gogoratzuz, azentu gogorrera asierako silabaena da; beste silabak ondoz ondo makalago dira, naiz-ta bertso luzeetan erdiko azentuak zerbait gailendu al izan, azkenengoa barrero doiñu sendoagoz amaiturik. Lits eta erdizkako margo guztiok, alan be, leun illaun dira. Begira urrengo zortziko au, izki baltzez azentu sendoagoa adierazorik:

1. *UdA ederrA*
2. *Łaisi-Er yun da-tA*
3. *OrAin ba-datoR*
- i. *NE guA;*
5. *BErAgailik niK*
- ii. *AldE eain beaR*
7. *llzlik miieZ*
- S. *VsoA.*

Ondoren poesi asko aztertzen ditu. Baiña guretzat naikoa. Dana dala, ezta errez onetan lege ta arau mugatuak jarrea; gaurko tresnai eskerrak alan be, zerbait egin daikegu ta azentu au be lege ziur ta sendo batzuen esi-barru tinkatu.

Gai oneri lotu ta ekiña dogu Gaztelu apaiza be, oindiño asko ez daiarik. Jakingarri da berak diñoana: «Azentua, zirkiña ta pikoa (ictus) eztira gauza bera. Azentua, berenez, gutxi gorabera aztuna da; zirkiña, ibilleraren eragindura da; pikoa, berriz, igieraren irozkai edo euskai da, mugabide, naiz arsis'ean naiz tesis'ean. Ibilkerak, asteko, aurrera egiteko ala bukatzeko, iroso dan bakoitzean, pikoa dugu; beraz, bi edo iru unetik

unera nabari oi da. Pikoa beti bi unetik unera ala iru unetik **uri** unera nabari danean, igiera *berdiña* (isocrono) deritza; aitzitik, pikoa bi unetik iru unera, ala azpigain nasian, nabari dalarik, *askatua* deritza» *'Olerti*, 1961, Urrilla-Lotazilla, 245 orr.).

Eta ondoren euskeraren neurkera-legeak jarten dauz, bere eritxiari datxikiola. «Ar ditzagun —diño— bakarka itzak: (') ezaugarri onekin izki pikoetak mugatzen ditut; (-) onekin berriz pikodunak. 1) *Izki batekoak*.—Auek (an, or, zu, bat), une batekoak izanik, eztute beraz igierarik osatzen, eta pikoetak dira; beraz *atonak* dirala esan diteke. Auetatik bi ta geiago elkartzen diranean, bi ta iru izkindunen legeari darraizkio; bestela, aurreko ala atzeko itzari datxizkio. Adibidez: au da ('-), ni naiz ('-), ez naiz ni (" -), t. a.; gizon bot (" -), bi mutil (" -), or dago (" -), t. a. 2) *Bi la iru izkidunak*.—Auek, bai, igiera osarzen dute, eta azken-izkia aztuna dute; baiñan, geienetan beintzat, ez gaztel-itzak ainbat. Adibidez: bide ('-), emen ('-), aspaldt' (" -), zuzentzat (" -), t. a. 3) *Lau ta bost izkidunak*.—Geienak atzizkidun dira nunbait, eta azkeneko izkian ezezik, beste **piko** bat ere ba-daramate itz-barnean. Adibidez: orregatik ('-'), Ondarrabi ('-'), aspaldidanik ('-'), Errenderira ('-'), t. a. 4) *Sei ta zazpi izkidunak*.—Atzizkidun dira auek, eta azkeneko izkian ezezik, beste bi piko ere ba-dituzte itz-barnean. Adibidez: mutillarentzako ('-'-'), Berastegiraño ('-'-'), emakumearekm ('-' mutillarentzako ('-'-'), Berastegiraño ('-'-'), emakumearekin ('-'-'), Arrasateraño ('-'-'), t. a. 5) *Itz lotuak*.—Bakoitzak eztu bakarrik duen igiera galtzen, alegia: zuri-gorri ('-'), basa-loreak ('-'), seme-alabak ('-'), t. a.

Ondoren galdekizunetan, esakuntzetan eta neurtizketan zelan **dan** diño. «Izki bateko itza galdekizun danean, eta izena ixil doalarik, pikodun gerta oi da. Adibidez: Zenbat sagar dakorz-kizu? -Bost dakorzkit. Zein etorri da? -Au etorri da. Zu al zera? -Bai, nf. (Emen, izki pikoetzari dagokion unea ixil doa.) Len esan dogunez, izki bateko itza iru izkidunaren aurrean doaiarik, lau izkidun itzak bezela egiten du (bost zizonen = '--', or *dab'útza* = '--', t. a.); baña, izki bateko itza lau izkidunaren aurrean doanean, onek ez ditu berez ditun pikoak aldatzen. Adibidez: **ZLI** bezelako ("-'-), or dabillenok ("-'-), t. a. Itzak, geienetan beintzat, eztabiltza bakarka, gogamenaren erabera elkar-

tuak baizik; orrela sortzen dira esakuntzák. Orduan, igierak ere jarraian egiten du. Esakuntza baten pikoak ez dira guzirik jaso edo balio berdiñeko. Nun gertatzen da pikorik garaiena? -Galdekizunean, galdekizuna esakuntzaren giltzarri balitz bezela. Eta beste pikoak oro, aurretik ala atzetik ditunak, beroni lotzen zaizkio. Zoritxarrez aukera izan dogu neurkeratzen zorianeko izki-zenbaketa dalakoa. Neurtizketarako, pikoak **zen**-batu bear dira, ez silabak, Orrela mota askotako neurtitzak ondu ditezke. Bata da, izan ere, pikoa bi unetik bi unera jartze, **Orixe**'k bere «Barne-muinetan» dakarren olako au, alegia: «**Ur**razizun gorputz azal-ustelkorra» ('-'-'-'-'-'-); beste da, pikoak iru unetik iru unera ematea, **Orixe**'k ere liburu berean dakarren olako au, alegia: «Bil nadin barnera mintzo bat entzuki / argi bat izetuz, bihotza landuki» ("-"-"-" / "-"-"-"-). Neurtitz berdiñak (*isocronak*) dira olakoak. Aitzitik, nastu itzazu pikoak bi unetik iru unera, ala alderantziz, eta asma zenbat motako neurtitz ondu ditzakezun. Begiemazute zer gertatzen dan koplazarretan. Ar «Bereterretxen khantoria» deritzanaren lenbizikoa;

| | |
|----------------------------------|----------------------|
| <i>Haltzak eztu bihotzik,</i> | (7 izki = iru piko) |
| <i>ez gazlanberak ezurrik;</i> | (8 » - » » |
| <i>enian uste erraiten ziela</i> | (11 » = lau piko) |
| <i>. aitunen semek gezurrik.</i> | (5 » iru piko) |

Auek bezelako ale bitxi erruz arki ditezke koplazarretan. Koplari aiek, dirudenez, ez zebiltzan silabak kontatzen, **pikoak** baizik» (*Olerti*, 1961, Urrila-Lotazilla, 246 orr.).

Emen dozu, irakurle, lau jakitun oneik euskal igiera ta azentuaz diñoena. Lendik be — Larramendi'k (1690-1766) bere *Eziña egiña* deritxon eleztian, T. Navarro Tomas'ek bere *Pro-nunciación Guipuzcoana* (1925, Madrid), Azkue'k bere *Morfologia Vasccrn* (Bilbao, 1923) ta H. Gavel'ek bere *Elements de Phonetique Basque'n* (R. I. E. V., XH'garren alean) — naikoa saiatuak ziran gai onetaz. Guztion eritxi ta aburuak aztertu, alkartu ta irabiatuz, zerbait osotu leikelakoa nago ni. **Nok** oratu gogotsu sail astun oneri?

b) *Neurria*

Gerkar eta latiñak neurri-oñez osotzen ebezan euren olertilanak. Geroagoko izkuntzak ez dagie olan, geienez beiñik-bein, silabaen bitartez baiño: zenbat silaba edo izki, ainbat piku. Eta euskeraz, zelan neurtu oi doguz bertsoak? Silabak bat-banaturik, geienean. Baiña au be ez ei da geurea, iñonetik artua baiño. «Nere ustez, —diño Gaztelu'k— eta norberak berea iritzi, oker dabilta euskal olerkariak erderatik artutako zorioneko izki-zenbaketa ori neurkeratzat artu-ta. Euskera, beste izkuntza asko baño zarrago izanik, ez dirudi bidezko beste izkuntzetara jotzea neurkera-arau billa. Euskera baitatik atera bear degu dagokiona, elendarrak eta latindarrak berean egin zuten bezelaxe, eta ez besteengandik» (*Olerti*, 1960, Jorrailla-bagilla, 70 orr.). Eta egiaren jabe da idazle au, nik uste: gure beiñolako bertsoak, atsotitz naiz kopla zar, izango eben antza —eta gaur ez?— olango zer apartekoa euren kautan.

Lekuona'k, beste izkuntzetan izki guztiak aldi bardiñekoak diran arren, izki luzeak eta laburrak dakus euskeran; gure izkuntzan, itz bikoitiz (*au*, esaterako) ta konsonante bi jarraian daroazan silaba batek (*otz*) olango zertzelada bako ta bikoitiz ez diran silabak baiño luzeago dira. Euskal bertso neurtizketa-rako ezin geinke, beraz, silabea oiñarriztat artu: ez ditugu silabak zenbatu bear, beste zerbait baiño. Gure kantutegiko silabak eta bertsoak aztertuaz argi ta garbi dakusgu au. Izan be, musika ta aldi-neurri bardiñez abestu oi doguz ahapaldi biko edo bateko bertsoak, bat, bi ala iru silabakoak izan arren be; bertso orreik, ba, isokronoak dira, naiz-ta silaba geiago edo gitxiago euki. Eta ikusburutzat erritar kanta au damosku:

nUso xuria, errazu fS), norat joaiten zeran zii (8)
Espania'ko portuak oro (10) elhurrez betiak dituzu (9):
GnuTko zure ostatu (7) nere etxean baduzu (8)».

Errikoi olerki askotan agiri da, egiaz, antze ala maltzur-joku au; aldaketa bi bardin ez datoz sarri, ta ahapaldi berean be, silabak bat-banatzera ezker, bertso bi ozta-ozta idoro leikeguz bardiñekoak. Gogora, ontan, Orixe'ren nota beltzak eta Gaztelu'ren pikoak.

Dana dala, oraiñarte euskeraz egin diran bertsoak —bertso jantziak, beintzat— silabak bat-bantuaz egiñak dirala esan bear, Etxtpare'gandik asi ta gaur gure aldizkarietan agertzen diraneta-
 tarañoakoak: zenbat bokal ainbat silaba. Ots, bertso-lerro **batek**
 zortzi bokal ba'ditu, zortzi silabako oi dogu. Ta orrela **gai-**
 ñerako guztiak. Sinalefarik ez dagonean, erabateko lez zenbat-
 zen dira silaba guztiak. Eritxi ontakoak ziran Larramendi ta
 Arana-Goiri. Eta Leizaola'k: «Neurririk ezpa-dabe, ezta euskal
 bertsorik ez ahapaldirik. Bai, urrean, euskal abestiak». Au, alan
 be, kantuan melodi gauza bat eta neurria beste bat zirala **era-**
 kutsi nairik, iñoan.

Bertsoetan agots-bikiak gogoan artu bear dira; oneik, **ba**,
 bokal bi izanik, silaba bat besterik ez dabe egin oi. Euskeraz
 sei dira agots-bikiak (digtongoak): *ai, au, ei, eu, oi, u*. Ez dago
 besterik, ezta irukoitzik be. Bertsolariak erabilten dabe, bana-
 ketan, *oa* be; baiña au ezta bikoitz euskeraz, espainèraz izan
 arren.

Olerkigintza naiz oiñez naiz izkiñez egin, beti dogu neurketa,
 ta ezpai barik, ezin dana eín meatz egoki baten altzoan sartu,
 ezetarik uts eta akats bage. Ortik, bada, bertsolariak eta oler-
 k.iriak ba-dabez euren *eskubideak*, edo bat-bateko saioan ari
 diranean edo astitsu idurimenari askatasun neurribagea emonik,
 lan egitean, erabilli dagikeezanak. Iru dira oneik: 1) *Ikolpena*
 (sinalefa); 2) *alhartapena* (sinéresis), eta 3) *zatipena* (diéresis).

Bertso-lanari ekitean bidezko da *sinalefa* —naitaezkoa **izan**
 ezta be— kontuan izatea, bertso-eioketa asko erreztu ta lagun-
 tzen dauskulako. Onck aukeratzen dauskun eskubide bitartez,
 boka! biren ezkontza dagigu, itz baten amaia ta urrengoaren
 Lenena, itz jarraiko biren atzena ta asiera batu, buztartu egin
 oi doguz. Esaterako: «Ta aren semea»; «aita ta ama»: *aa* biga2
 bat dagigu. Bai ta biki mordoak diranean be: «Gau uzuan», ta
 abar. Ona lau sail *ikolpen* edo *sinalefa* bearrezkoa dana:

l'go saiHa: a-a; e-e; o-o; u-u; i-i.

2'garrena: a-au; a-ai; e-eu; e-ei; o-oi; u-ui

3' çarrena: au-u; ai-i; ei-i eu-u; oi-i; ui-i.

i'ga.rrena : au-ui; eu-ui.

Euskiran ez dogu itz-alkartzerik egiten, urregoa *h'egaz* asten batia edo *erdian* datorrenean: *soto hori*, esakun ontan ez dago batzerik egin bearrik, eta egingo ba'litz, txarto legoke; ezta *ahapaldi* ontan be. Silaba bakarra izateko, *aapaldi* idatzi bear. Kolpen au bear danean ez erabiltea, akats dozu. Beraz, bertsoketan gertatu leiken guztietan kontuan izan, izketan naiz kantuan diardugunean be, ia utsik bage, orrelaxe dagiguna dalako. Bai ta punru ala komak bitartean dirala be. Ezin daikezu, alan be, sinalefarik egin bertsolerro bateko azkenaren eta urrengoko lenenaren artean.

Alkartzapena, biki ez diran bokal gogor bi batean josi edo aikartzea dozu, izki bakarra lez zenbaturik; adibidez: *oa* (as-toa). Esan dogunez, bertsolarien artean, ots bateko lez iñoiz erabilli izanda be, euskeraz ezta iñundik be bikoitz, esanaldi bateko, silaba bi aikar buztartu eziñak baizen. *Zatpena*, barriz, silaba bat dana bi egitea dozu, agots-bikia deusezturik. Esate baterako: Aita, gaiñean ipiñitako kulatz biekaz *ai* silaba bat dana biko egin daroagu. Gure olerkariak, Oihenart'ek eta, iñoiz erabilli dabe, baiña ortara ez jo, oba.

Bertsolariak ba-dabe oraindik beste eskubide, nora-jo, betegari edo lizentzi bat *berezkatz* ('), apostrofo deritxoguna; eta izkiñen bati zer edo zer kendu edo, bokalen bat geienik, ixildu egin dogula esan nai dau; ots, *i'ardi*, *ta erdiren* orde; *ner'-alaba*, *nere alabaren* orde. Oba litzake, alan be, bokal ori ixilduko ez ba'litz. Edo onela esan: *ni-ama*, *zu-aita*. Asko erabilli ez arren, euskal senari obeto dagokiona ei da azken esan au.

Bertsoan areago erabilli daikeguz beste nora-jo batzuk be. Itz bat, bakarka artuta, autuan be moztu ba'daroagu, bertsoan laburtu daikegu; adibidez: *euzki*, *eguzki* orde; *nausi*, *naugusi* orde. Edozein euskalkiko itz naiz adizkiak be erabilli leitekez; bai ta iñoiz aditza ixildu be.

v.Lua, lua, seintxu laztarui,
lua, lua bildurka.
Goi-goian daukak eure amatxuba,
kulunoi, eure begira.
Lua, liitt'...»

Gallastegi'ren seaska abesti onetan, len-lerroan, *egin* aditza ixiltzen da: «lua, lua *egimi*. Bardin Dirauket (Etxebarria'tar Tuan Anjel) olerkari gaztearen laudun onetan be:

*nMendiko aizea baizen
garbi zure gogo-almen.
Izadia ez izan zure duin.
Ez, ez da maite-ilsumen.i>*
(Ikus *Olerti*, 1961, Garagarrilla-irailla,
180 orr.)

Edozein bertsolariri bere-berezko yakoz morrizte ta ixiltze oneik.

d) *Etena*

Idatzi bat irakurterakoan, abots zolitan ba'diardugu batez 'be, itz nai esaera batetik bestera olako geldíunea, etena egin oi dogu, bai arnas artzeko bai esakun bakotxaren zentzunak eskatuta. Idatzian puntu, koma ta puntu-komaz adierazo daro-agu zertzelada ori: andia, erdia edo txikia. Itz neurtuetako etena, barriz, bertsoen neurri ta ozentasunak eskatzen dauana da. Eta iru eratakoea daiteke: *txikia, erdia ta andia*. *Txikia*, bertso-lerro baten datorrena, bai irakurtean berezkoa, bai bertso zenbakiak eskatua dozu; *erdia*, bertso-lerro bakotxaren azkene-koa; ta *andia*, ahapaldi baten amaikeran egiten doguna.

Eten bat, ebagi bat ba-da bertsoak bere neurkeran naitaez eskatzen dauana. Gure bertsoak bakanak eta aĩkartuak dira; bakanak zati edo atal bat daukie, eta oneik dozuz bederatzi silabatik beerakoak, eta ez dabe bear, bertsoak eskatuta beintzat, clango eten apartekorik. Beste batzuk alkartuak dozuz, zati bi edo geiago daukiezanak; dagiezan zatiak bi ba'dira, *zatibikoak* deritxegu, eta zati bakotxaren bertso erdiari *etena* (hemistiquio). Eta gaiñerakoak. Bederatzi silabatik gorako bertsoak bi edo iru zati euki daukiez, eta naitaez geldíunea bear erdian. Amarre-koak bostetik bostera zatitzen dira, amaikakoak sei ta bostean geienez, amabikoak sei ta seian, amairukoak zazpi ta seian, amalaukoak zazpi ta zazpian; amabostekoak iru bostekotan, eta amaseikoak bederatzi ta zazpitan.

Bederatzikoak bear ete dabe etenik? Baietz diñoenak ba-dira. Alan be, nik ez neuke esango naitaezkoa danik. Leizaola'-ren eritxiz, bost eta laukoz osotua da ($5 \times 4 = 5 \times 4$). Eta «Ogi zerutik / etorria, / Zu zera gure / poz guztia»-ren ahapal-dian aurkitzen dana. Bederatzi silabako biñakoak antxiña-antxi-ñatik daukaguz euskeran, eta espaiñeraz erromantze dana eus-keraz $9 = 9$ 'koa ei da. Ikusburu bat:

*uJuan de Lazkano beltzerana,
Gipuzkoa'ko kapitana:
frantses osteak jakingo du
ura Ondarrabiyan zana.yt*

Kanta onek 1476'garren urteko jazoera bat gogora dakarsku, ta XVI'tik beintzat idatzirik dabiliena da. Lenengo iru bertsoak $5 + 4$ dabe etena, azkenak ez ostera. Zubero'ko pastoraletan be aurkitzen dira bederatziaño bertsoak, baiña barruko eten barik geienean.

Geiago: erdiko eten au bearrezko ete? Bederatzi silabadu-netatik gora nik baietz uste. Orixe onela mintzatu zan beñiola: «Azentu indarduna, gutxi edo asko bearra da bertsoak neur-tzeko edo irakurtzeko, edo ori gabe nekez irakurri ditezke gure bi zortzikoak... *Tarlean bear du bertsoak neurria, tartean*». Az-keneko silabaetan bardin amaitzea be tarte bat besterik ez ei dogu, askotan bertsoa zatitu leitekkelako andik edo emendik. Alan be, eten au sarriegi edo urregi edo bear ez dan lekuan egin ezkerro, ez yaku ain eder, belarriak bait-dauskuz mintzen doiñu bardin samarrak dakarskun kalaka gogaitgarriak.

e) *Amai bardiña*

Bertsoen bukaeran, bitik baten edo, oskidetza antzeko bar-din amaia bear da. Euskeraz ez dago erderaz lango asonantezko amaitzerik. Itz bardin erortze ori dabe azken bokal mintzordun edo soiñutik asita beñiik-bein; eta, esan dogunez, euskeran az-ken bokal geienak daroie euren azentu berezia. Alan be, beste izkuntzetan lez azken aurrekotik asita egin al ba'da, obeto. Adi-bidez: baratza, garratza ta abar; biotza ta ogia, ez letorkez

ondo, Belarria dozu onetan be araurik bikaiñena, lege jakin batzuen ostean.

Euskal rima txit mugatua dala dirausku Arana-Goiri'k, azken silaba bakarrak besterik ezpaitauka, kantuan musikeak beste zer-bait eskatu ezik beintzat. Eritxi au ezta osoan egi. Euskeraz, bada, iru rima edo azken oskide mota ezagutu daikeguz: 1) osoa; 2) erdikoa, ra 3) mugatua. Osoa da, esate baterako, *argia, illargia*; edo iru irudun zortziko onetan datorrena:

«An goien-goien
izarra,
errekondoan
lizarra:
eixe ontako
nagusi jaunak
urre gorricko
bizarra.v

Erdikoa, lerdena, *ms\|x.ena*; eta mugatua, biribil, dabií. Oihe-nart be iru silaba ta gaiñerako onein oskídetzaz míntzatu zan bere garaian.

Españar bertsoetan, ahapaldi bakotxean lau puntu oskidetu leikez bakarrik. Gurean, bertsolariak geienik lau erabilli arren, bost eta sei be iñoiz ba-dakarrez: Pello Mari Otaño'k, esate-rako, bere «Mutil koskor bat» olerkian bost darabiltz, eta Xen-pelar'ek sei bere «Aizak, Manuel mañontzi»-n. Aitatu bai ta gure bederatzi puntukoa be. Gure bertsolariak, beti be, arretaz, zaintzen dabez rima-legeak, eta sarri zaillen billa ibilli oi dira. Ezagun dot nik bat oskide-sail andia, gatxenakaz osoturikoa, beti sakelean daroana. Lekuona'k diñoanez, gure bertsolarien-rzat ez litzake rima ona izango burua ta begia, *a* mugitzaz amaitzen danean batez be. Oстера, *i* ala *o* azkena danean, gatxagoak diralako, olangoetan askatasun geiago euki oi dabe.

Ardura geiago dabe oindiño itz bera puntu baten birritan ez erabilteko. Erdal legeak be galazota dauko au, konsonantetzan beiñik-bein, eta gure plaza-gizonak ez dabiltz zabar orretan: oskide itza bera birritan erabilli ez ezik, ahapaldian bertan bi aldiz esan be eztabe egingo. Ori *poio* egitea, molokot egitea litzake, ta lotsagarri. Onetan ba-ditue, alan eta guzti be, olango eskubide batzuk; aditz-laguntzaillea —*da* ta *dau, du* batez be—

ta *bat* zenbakia atzizkitzat daukiez, eta bertso-atzenean bir-esanda be, ezta *poto*. Gaiñera, *gana* ta *ama* ta olako batzuk rima bidezkitzat daukiez.

Arana-Goiri ber'cso rima bagearen zale zan. «Doiñu-endar bardiña dabe —diño— silaba guztiak, eta bertsoak, eurenz, eliztiz bestelako dan azken silaban oskidetu ezkeru, naikoa dabe. Ortik bertso azkea, au da, konsonantzi oso naiz osoez bage, cuskerarentzat aukerakoena da» (*Orlografía del euskera bizkaino*, Bilbao, 1896, 189 orr.). Gaur batzuk ba-dira, eritxi oni loturik antza, bape traba ta zoztor barik, bertso ta olerkigintza arruntean nasai asko diarduenak. Bai ta egia da, izkuntza askotan, neurkeru berezi bat eredutzat artuta batez be, lan ederrak egin eta burutu dabezala. Baiña zer guztietan lez, zur jokatu bear unetan be; bertso azke ta jareu orrek osotasun geiagu eskatzen dau, enparau gaiari buruz kidetasun geiagu, goxotasun geiagu, bardin ez amaitze orrek izten dauan utsunea ornidu al izan dagian. Olerkari onak ba-daki nundik dabillen, kaskarrak ez osteru.

Ona arau batzuk rimari buruz: 1) Azken itzak edo izki-mordoak beitez, al dala, askotarikoak, ez bardin samarrak; bai ta al danik aberatsenak be, *-tza*, *-tsu*, *-ia*, *-ki* ta olango arruntak saiets itxirik. Ezbardintasun geiagu ta biotz zauskada obea. 2) Ezta azken-izki bardiñik sarri sartu bear, urrun samar ez ba'da; ahapaldi baten *-ai*, *-ai*, ta urrengoan orobat, motz emoten dau ta txirotasuna erakusten. Orraitiño lengoaren azken-otsa il baidin ba'da, erabilli gengike barriren barri. 3) Azken izki konsonanredunak ez begoz urriñegi, belarri onak ez artzeko modua. Sail baten bertso askotxo bitartean sartu ezkeru, rima atzena galdu egin oi da, edo ezereztu, ta orrela ritmuari bere oskide guztia murrizten yako. 4) Bertso berberaren barruan ez da egoki, ez legezko, belarri ernaiari min damotso-ta, azken rimagaz bat datorken itz kidekorik. 5) Bertso azke edo atzen bardinbageak by'dira, iñoiz be ezta rimarik egin bear. Orain bai ta gero ez, itsusi legoke. 6) Ezta egoki, ez aizu, itz bat erdibitzea; ots, erdia bertso-zerrendaren atzenean eta beste erdia urrengoaren asieran. 7) Izugarri motz litzake itz berberaz rima egin nai izatea; *aita*, *aitá*, esaterako. Bestelako adiera izan arren be, *oreña* (ba-

sauntz), *oreiña* (orban), oba ez erabiltea. 8) Eta, azkenean, *betegarri* edo ripioak aienatu bear dira. Zer ditugu betegaxri oneik? Edozein itz edo esakuntzan, beste barik, naiz bertso bateri bear dauan neurria emonik borobiltzeko, naiz azken bardia egoki dotore amaitzearren itsasten dan itza; onelakoak dira sarri bertsoetan agiri yakuzan berein itz, izen lagun, aditz-joku, toki izen eta asperen. Itz oneik: *bear bada, noski, alegia, beraz, ain, oso, txit, guztiz, bide batez* eta antzekoak, betegarri besterik ez dozuz. Naiz-ta erti-lana osotzerakoan izerdia bota, bertso-gille antzetsuak laster ostendu oi dau jardun orren nekea. Errez-tasun au, bertso-gaieri buruz olerkariak dauan jabetza osotik sortua da.

Neurtitzetako puntuari gagokiozala, gurean ba-dira bertso-puntua astun iduritzen yakenak, orrela baita izan be beti puntu barruan olerkariaren oldozkuna esitu bearra. Askatasun geiago gura leukie, buztarri neketsu ori urrin astinduaz. Egia, Orixe bera be etzan OGorik puntuzalea; baiña kantatzeko bertsoetan naitaekotzat joten eban. Kantuan neurria ta puntua bear dira. Basarri'k gai oni buruz oraintsu: «Kantatu bear dan bertsoa punturik gabe, iturria urik gabe bezela da. Bertsoa ta poesia bi gauz dirala konturatu degu. Bertso eder, biribillak, izan ditezke eta ba-dira poesi arrastorik gabeak; baita bertso-rik gabeko prosa lanak poesia dariotela daudenak ere. Poesia Lxurian dutela daude Charles Baudelaire'ren itz-lauzko, prosazko poematxoak, eta bertso biribillak izanarren, ezta poesia geiegirik Campoamor'en Ianetan. Euskaldun bertsolariok, oraingoz, eztegu geiegi ardura bear poesiarekin. Gure egitekoa besterik da. Sail berezia daukagu euskal literaturan. Gure bidea izendatua dago ta andik segi bear degu. Olerkariak, poetak, ba-dute beren bidea ta egitekoa; dabiltzala euren aldetik. Etxe bat zutituko bada, era guzitako gizonak egin bear dute lan: arkitetoak, igeltseroak, arotzak, peoiak» (*Zeruko Argia*, 1963, urriJJak 13).

Egia eresten yat Basarri'k emen diñoana. Olerkariak eta bertsolariak euren bide apartak dabez, bata besteagandik urrin ez dabiltz baiña. Gorago autortu dogu: bertsolaria eskolatzea korneni da, baiña geiegi eskolatuak, bere bide-ildo berezirik urtena

dabiilelako, igartzeke gañdu daroa dagokion jatorrasuna. Au go-goan izanik, baktotzak ditu gero bere barruti-legeak, al bait zearoen zaindu bear dauazanak. Bertsolariak bere jardunean, gozozgo, zaindu bear dauazanak bertsoen aria, neurri ta puntua dira.

Puntuatzaz geiago. Zelako puntua ete yaku egoki, estua ala nasaia? Basarri'ren eritxiz, mugaz gorakoak baiño estuago ari dira ontan Gipuzkoa'ko bertso'ariak. Eta ezta zoztor pitiña onek dakartsoena. «Emengo bertsolariak —diño— geien ondutzen gaituna puntu-legea da. Bertsoaren giar eta sentiduari baiño puntuak ondo uztartzeari arreta biziagoa eskeintzen diogu. Oso urreko puntuak izan ditezela; ots berdintsua atera dezatela, belarriak ondo goza ditzatela... Puntuak al danik urrenekoak izatea nai degu; senitasunik aundienekoak. Puntu bat, adibidez, «atean» esanaz bukatzen ba'degu, urrengoak derrior «katean», «kaltean», «batean», «artean» edo olatsu izan bear dutela uste degu. Lege onek bideak itxi ta trabak jarri besterik ez tigu egiten. Euskal bertsoak naitaezko du puntuen gozotasuna, kantatzeko bertsoak diranetan beintzat. Baña eztegu premizko ta bearreko ain urrean ibiltzea. Iñongo izkuntzetan ezta ain juxtu ta lotukor puntu legea. Azkenengo bi silabetan «ean» ori entzutea bearrezko da bertso tankerarik izango badu, baña «atean» itza ondo uztartua legoke emen dijoazen auek guziekin: «atean», «artzean», «zarrean», «kalean», «lanean», «astean», eta abar. Gure olerkariak, poetak, ala erabiltzen dituzte ta oso zuzen jokutzen dute» (Loc. cit.).

Ondoren, Bidaso'z aruzko kanta ta bertsoak dakarz gogora. Eta ortik agiri danez, lengoak oraingoan aldean apain-bikaiña-goak ziran, esan-nai zalabagokoak. Ar, esate baterako, Elizanburu'ren «Herriko besta biharamuna», ezti ta guntsu, gozo sartzen yakuz belarrietara aren puntu biribillak. Basarri'k: «Zein gozo ta ez titsu sartzen diran puntu oiek gipuzkoarron belarritan! Lenengo aapaldiaren puntuak onoko auek dira: «Bihar-munean», «batean», «itzalean», «trukean», «gañean». Emengo bertsolariok puntu bat «nean» esanaz bukatzen badegu, urrengoak ere «nean» ori bearko du. Adibidez: «biramonean», «egunean», «lanean», «onean», «danean», eta abar. Ixtura onek, juxtunai onek zer kalte egiten digun eztago adierazterik. Egoak

mozten dizkigu, ankamotz uzten gaitu. Esan bearreko erdirik eztegu esaten jokabide oni jarraituz. Gaztelera, au da, kastellan, «tendría», «hacia», «querría», «sabía», «manía» ta beste milla olako oso legezko puntuak dira. Azkenengo «ía» ori entzun ezker, ezin da obeto datoz belarritarako. Euskal bertsolariok bide au artu bearrak gaude ezer onik egin nai badegu. Guk artua daukagu gure aldetik. Sekula ez tira ondo sartuko «atean» eta «zeruan», naiz ta azkenengo «an» ori berdiña izan. Aurre-
ragotik asi bear da urreratzen; «uan» eta «ean» urruti, aparte daude. «Ean»-ek «ean» eskatzen du, ta «uan»-ek «uan».

Gai oni ez daiogun murriztu bere zera. Ta gauzak ondo esi-barruturik ipintea egoki da, gaur iñoizkorik bertsolari-pizkunde ederrenean gagozan garai ontan, alan be. Lar estutzeak iroa dakar, ustai tinkoegia eten; nasaiegi artu ezker, barriz, zabar-lezara errez jausten gara. Bitartekoa dogu biderik yaiोजना. Puntuan pizkat askatu ta oben-egin bearra dabe mugaz onunzko bertslariak, gauzak itxiegi artzea ez baita legezko. «Mugaz aruzkaldean —diño Basarri'k— gu baño burutsuago dabiltz ortan; emen (Gipuzkoa'n) estuegi bezela an zabalegi dabiltz. Bada an kantu zar bat erriak oso artua duna ta oraindik ere nunai kantatzen dana. Gure radioetan sarrri entzun izan degu:

*nLui bat ikusi. dut baratze batean,
desiratzeii bainuke nere sahetsean;
lorea ez du galtzen, udan ez neguan,
haren parerik ez da bertze bat munduan.»*
(Ikus Milla Olerki, 78 orr.)

Neurritz, iduripenez eta esanaiz oso txukunak izan arren, puntuz baldarñoak dira gure belarritarako. Azken silaba «an» essnaz bukatzen dala ta urrengo puntuari «an» erantsi ezker dana egiña dagonik ezta pentsatu bear. Azken-aurreko silabatik asi bear da itzak tolestetzen; «ean» eta «uan» sekula ez tira ondo ezkonduko.

Gu ezkagoz ortara oituak, eta iñor ba'lego be, gaizki legoke. Gure taberna-zuloetan bertso-kantari dabiltzanak olakorik ba'legie, entzuleen belearriak mindu besterik ez leukie egingo, nik uste. Entzun oraindik Basarri'ri: «Astigarraga, Ernani, Usurbil, Asturias ta Oiartzun aldeko sagardotegitan millaka bertso

zar entzun dituztenak eztiote esker aundirik emango olako bertsoari. Puntu traketseko bertsoa dala esango dute olakoagatik. Laburdi'ko, Benaparroa'ko ta Zubero'ko bertsotan olakoa erruz arkitzen degu. Etzaizkigu iñolako moduz sartzen. Guk alde baterako pekatur bezela, aiek besterakoa egiten dute».

Elizanburu'ren «Ikusten duzu goizean» dakar eredutzat, puntu guztiak bipil zaindurik landua. Irakur bigarren ahapaldia:

*uNahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sor-lekua,
aiten nitek hautatua.
Etxetik kanpo zait iduritzen
nonbeit naizela galdua;
nola han bai-naiz sortua,
han utziko dut mundua,
giltzen ez ba'dut zentzua.yt*

Ilkus Milla Olerki, 537 orr.1

Olerkari iator onek nekez uts egingo dausku puntuetan. Amar ahapaldi ditu olerki eder onek, zein baiño zein obeto biribilduak, «gozo, usnintsu ta ditzirakor» gure belarrientzat. Olantxe jokatu bear dogu, ba, mugaz onunzkoak be; puntua naitaez bear dau bertsoak, baiña ez gaitez an bide melarregiz ibílli: ez zabalegi, ez estuegi, bai erdikotik; «mendi-gaillurrean eta leiza zuíoan ibilli bage, erdian ba-dago toki amesgarria». Bederatzi puntukoak eta, noizik-bein erabilteko ederrak izanda be, batbateko saioetan, pentsamentua lerro gitxitan borobildu bear danerako, estuegiak dira nire eritxiz.

Gerakarrak eta latiñak ez eben olako lubanik; erromantzeak, bai. Prantzi'n, Alemani'n, Ingalaterra'n eta Itali'n gaur be puntu bako olerkirik gitxi baiño ezta. Azken urteotan, orraitíño, an nai emen bardin-amaitze barik be, lan ederrak egin dira. Guk, bertsolari-maiilan beintzat, puntua bear dogu derriore; bertsolarí3k, bertsolari baldin ba'da, kantatzeko edo kantuz lan dagi, ta knnturako bertsoak puntua bear dau beti.

III ZATIA

BERTSO - MUETAK

*«Bertsolaria gauz aundia da, gure monu-
menturik aundie-na.»*

F. ARTOLA

Itxaspera doan eguzkiak zauritutako lainoak konta-ezin ahiko margotan ditzikor jarten diran lez, gure poesiak be erabatean eundaka mueta erakusten ditu. Olerkia izan be amesa da, «begien aurrean agertzen zaiguna edertu ta laño ikusgarri batzuen artean bezela jarri naia»; «itzez ezin ospetu litekean ainbateko argitasuna»; «itzegiten duen margo-irudia, *ut pictura poesis*»; «irakiten dagoen biotz batetik ateratzen dan txinparta». Bai, guzti ori olerkia dogu. Giza-seeok, baiña, ezkara bardiñak: «gizon oien burutik edo biotzetik sortzen diran olerkiak ere, ez», diño K. Etxegarai'k 1920'ko jorraillaren 5'an, Txomin Agirre jaunaren omenez egindako itzaldian. Ortik, ba, euskal bertsoak era askotarikoak dira. Banaka batzuk aitatuko doguz emen.

1. *Ume-bensoak*

Azkue zanak, bere *Euskalerraren Yakintza* osatzean, 232 aur-jolas argitaldu ebazan, eurotatik 134 musikadunak. Zer dirausku onek? Euskaldunok umetatik gareala kantari ta kantazale. Umearen ikasía, etxean ikusia, ta egiaz, nok ez ditu abestu umezaroan gurasoekandik ikasitako koplaxo ederrak? Batzuk ez dabe zentzunik, edo beintzat ez dakigu zer esan nai daben. Erakusgarri bat:

*nTiki-rriki-tiki-tiki,
tiki-rriki-tona;
rriki-tiki-tiki-tiki,
rriki-tiki-tona.**

Zer esan nai dau koplara onek? «Itz jatorrik, itz garbirik ez du noski —diño M. Lekuona'k—; bañan biotzean, biotzeko txoko ezkutuan bai dio, ta asko esan ere, txikitandikako, seas-katikako oroipenez naasia ta orakaturia bait-dago neretzat. Biotzari mintzatzen zaiolako da guztia . Biotzarentzako bakarrik? Itz oiek biotzari ezik, buruari ere zer-edo-zer esaten diote. Ez dira itz jatorrak, eta itz jatorrak ez diralako, diotena ez diote garbi-gabi, illun baizik. Bañan buruari ere ba'diote zer-edo-zer. Ez bait-da errez «esan-naia» nun asten dan eta nun bukatzen dan erabakitzea» (ARGIA'ren Egutegia, 1936, 34 orr.)

Ona beste bat. Euskaldun ama bat bere umetxoa lokartu naiez dabil; kuman jarri dau lenengo, altzoan gero: eztau loak artzen. Ondoren, beso bietan goxo-goxo estuturik, onela diardu murmur ezian «kutun» diñotsala :

*«Tun-kurrun-kutun-kutun-ku,
tun-ku rrun-kutun-a.
Run-kutun-kutun-kutun-ku,
run-kutun-kutun-a.n*

Umetxoari itz egiteko, ba ete da era samurragorik? Itz orreik ez ete diño ezer?

Umea, alan be, ezin geldi-erazo, eztau lorik egin nai. Tira, i>arixto bat emongo dautsa lokartzen ba'da. Amak kantari:

*«Nere maitla, nik zuretzat
opil-sorta daukat;
erdi-erdia emango dizut,
beHe erdia neretzat.»*

Aurtxoak lo gozoa egin dau. Goizean, eguzkia gora da, ta ixoriak ari txinta-joka. Aurtxoaren anai txikiak, barriz, kuman datzanari jolas-kantu au eskintzen dautsoe:

*«Binbiti, bonbolo, sendal lo;
akerra Prantzia'n ba'lego,
akerrak kanta, idiak dantza,
auntzak danboliña jo.v*

Gero, andi ta txiki. zelaira urtenik, abots betean:

«Txintxiii-txirikitin, txoria,
txoritxo txilibitaria..
Erein nuen garia,
oso arlo andia;
uste nuen eu?i anega,
imiña bat zan guztia
Txintxin-txirikitin, txoria,
txoritxo txilibitaria,yi
(Azkue, *Euskalerraren Yakintza*, IV,
371 orr.)

Onakoxeak dira gure ume-kanta politak, munduko literatura gitxik daukazan langoak.

2. *Kirol-bertsoak*

Euskal idazianik askotan irakurten danez, burdin-bideak kaltegarri yakuzalako ustea zabala da; orrek bai-dakar erdera ta erderadunak barrurago gurean sartzeko erreztasuna. Bultzi-bide orretatik «errexkiago ta merkeago gabilzkela ezin uka dezakegu —diño batek—, bainan beldurtzeko da ere ez ote ditugun utziko utsaltzerat gure eskualdun azturak. Nolakoak garen arrotzeri erakastea, lan ona! gureaz ahalgerik ez dugulakotz. Bainan hoietarat joaitea gurea utziz edo hoiena gureari nahasiz, ez, agian!» Beraz, lan ona dogu geure dantza, joka, izkuntza ta abar, gure errira datozanai erakustea; baiña ez orrenbeste, edo ain ona, geurea aztu, itxi ala iñorenagaz nastutea; ona da zuzenak gareala, geure lur eta etxeari atxikiak, Jainko-zaleak, geure izkuntza ta oitura aldezeak, geure izenaren zaintzalleak gareala, beti ta nun-nai agertu ta zabaltzea.

Kirol-zaletasuna gaur mundu guztikoa dala esan geinke; bakotxak erakusten dau berea, nor nor dan, soin-jardun orren bitartez: ikusi urterik uite, an-emen, ospatu oi diran Olinpiada entzute andikoak. Euskaldunok ez gara izan, eta ez gara gaur be, atzera geratzekoak kirol-arazoan. Eta ba-doguz sail orretan geure-geureak, pelota-jokua esaterako. Gure joko batzuk, alan be, gaur arriskuan aurkitzen dira: kanpotik sartu yakuz beste jokaera asko, ta guk geureak itxirik arei oratu egin dautsegu.

Inglaterra'tik etorri yakun futbola edo ostiko jokua gure errie-
 an zabaltzen asi zanean, onela idatzi eban batek: «Zangoz **eta**
 eskuz airean ibiltzen da pilota larri hatsez hantu bat **pentze**
 batean, eta aintzineko herrestorat helarazten duenarentzat kin-
 tzea Basaxkoa iduritu zauku dela joko hori, dena ostiko, ero-
 riko, trumilka jokolariak elgarren gainerat, askotan beso edo
 azpiak hautsiz. Zonbategi ederrago eta ikusgarriago gure pilota.
 Ohartuak zaizkote hirietan ere gure jokoari, horri emanak ba-
 dire, laguntzea merezi dutenak, batasunak orobat hortakotz
 ezarriak, beren jokolariak, zoin gehienka, agertuz» *{Gure Herria,*
 1921, 583 orr.)

Noizkoa ete dogu euskafidunon artean joku-zaletasuna? Ba-
 tek ba-daki! Erriak asieratik izan dabe, nunbait, euren trebeta-
 suna erakutsi naiak sortu-azotako griña. Gerkarrak, gaiñerako
 erri zarrak lez, antxiña-antxiñakoak ebezan euren jokoak, *pen-*
talh'on eritxoenean sartzen ziranak —azpil-jaurtzea, jauzia,
 lasterketa, burruka ta balanka— ezezik, Pindar'ek orren gizonki
 abestu euskuzan zaldizko ta burdizko ariñeketak be bai. Euskal-
 dunok, arein maillara urrcratu ez ba'dira be, euren aizkolari,
 segalari, palankari, arraunlari, korrikalari, dantzari, probalari,
 pelotari trebeak izan doguz beti, eta azken urteotan ostikolari
 ta txirringulari ospetsu-ospetsuak. Areik Pindar bat, olerkari
 kementsu bat izan eben curen jokolarien lerdentasuna entzu-
 tearen erpiñeraiño jasoteko. Guk ez dogu —Orixe bere *Euskal-*
dunak'esm zerbait, bear bada— olango olerkaririk euki. Zer-
 gaitik? Atzera samar gabiltzalako, geure egite arrigarriak adie-
 raztean batez be. Pindar ainiako bertsolariak gaur bertan ba-
 ditugu guk, Loidi'tar Paben baitikbat, gure kirolzale ta joko-
 larien egintzak bertso bizi sutsuetan jarriko leukezanak. Egia da.
 Baiña alper-ontzi gara, ta or untzea: guk ez daukagu **arein**
 antzeko kirol-bertso sail bikaiñik.

Indarra beti be antze edo ertirako gai da; Grezia'n indar-
 keta antzegai, arte-iturri zan. Indarra bera ez dago zetan go-
 rraldu, baiña indarlariak eurak bai. Soin sendoan gogo sendoa,
 gorputzaren indarra gogoaren indar; orrek bai dakarz oitura
 garbiak, «baita antzegai jatorra ere». Pindar bat, Omer bat nai
 eban Orixe'k Euskal-erriko oiturak, ekanduak, azturak gof-
 maillara jasotzeko; indarlari orreine bitartez geure erria, geure

enda, siñeste, gurasoak, lurra ta euskal arima erabat eresi bipi-
lletan goratzeko. Ur nai lur nagusi diran indarlariak bertsoz
jasoteko, sariketa batzuk jarri bear litzakez urtero. Gisa onetan,
gure erriaren gauzak abestu ta goretsiz, poema ederrak egitea
iadetsiko genduke.

Egia esan, aillagiñako mesedea ez yatorkun bitartean be,
ezin geinke iñundik esan kirol-bertso eskasak ditugunik, dau-
kaguzan guztiak batu ta alkartzera ezker, liburu mardulfek
osotuko geunkez-ta. Labur-zurrian, banaka batzuk baiño ez
doguz emen aitatu. Geiago nai dauanak bekus batez be Orixe'-
ren *Euskaldunak*.

a) *Pelotariak*

Pelota-jokua, dudarik bage, gure jolasik ederrena. Ez iñoan
guzurrik au idatzi ebanak: «Gure izakerari, eusko izakerari,
orren eutsia dagoan oiturarengatik ajola aundia bear degu izan
euskaldunak. Noizbait pelota-jolasa sortu zan, jokatu genuan,
urte ta urtetan gurekin izan degu, gure bizitzaren zati bat pelot-
an igaro degu. Pelota-jolas ain gurea degularik, gu sendotu
gaitu, bizkortu gaitu; peiota aspaldi-aspalditik gurekin izan ez
ba'genu, gu geran bezelakoak ez giñan izango. Tira, Jainkoaz
batera, pelota-jolasak, batez ere, euskaldun egin gaituala esan
genezake. Ta, beraz, eusko zaleak pelota zaleak izan bear».

Jolaskera au ez dogu gaurkoa, ez gure artean ez munduko
beste errialdeetan. Estrabon'ek, Plini'k, Bergili'k, Orati'k eta
Katon'ek beintzat aitutzen daukue, Etiopi-mugaldeetako aspal-
diko erri getular, parusitar eta garamantarrak be olango joku
zerbair ba-ebe!a esanik. Omero'k be bai, bere Odisea'ko VI
kantuan, Nausikaa ta neskatxak, jan-galea ase ondoren, buru-
zapiak kendu ta ibai ondoan pelotaka darakuskuz. Grezi'ko
iakitun ta andí as&o be pelotazale ziran, Alesander, Likon,
Sopokel, Dunixi Zarra esate baterako. Zarra da, beraz, esku-
kaz naiz ofñiakaz gauza biribil bat artu ta bota jolasteko oitura.
Guk euskaldunok geurea dala diñogu pelota-joku au, eta izan
be bai, ezpairik bage, gaur jokutzen dan moduan beñik-bein.

Euskalerrri osoan guztiz antxiñatik jokatu izan da pelotan,

eta gaur mundu guztiko pelota-lekuetan euskaldunak dira jokalaritza ta txapeldun. Munduko bost aldeetan dira frontoi ederrak, eta oneitan jokatzen dabenak, eunetik larogei edo geiago, euskaldunak dira, naiz eskuz, naiz palaz, naiz txisteraz naiz errebotetz Euskaldunak, gaiñera, frontoi orreik jaso, zaindu ta eratzen dabezanak be. Lenagotik be, XV'garren mende azkeneruntz, Ingalaterra'raiño joanak yakuz emengo pelotariak, ango erregeak 100 liberaz sarituta agertzen bai-yaku izenik ez dakigun bizkaitar bat, errege ta andikien aurrean ain egoki pelotan jokatatu ebalako. Gerotxoago, 1629'garrenean, Donepalau ondoko Garroze'n pelotari ospetsu bat il zan, Gillen Diriar; Banka'n be agiri da illarri bat, pelotariaren tresna ta guzti, 1784'an egiña. Iztueta'k aitatzten ditu beste batzuk bere *Gipuzkoa'ko dantza ta iolasetan*.

Eta garai atakoak doguz bereziki, mugaz andik, Perkain, Azantza ta Kurutxef. oneitxek estalgetu ebezan ordurarte peloteak ebazan ezkutu-zapi nasiak. Perkain, batez be, gorenengo maillara eldu zan indarrean ta antze-jokuan. 1760'tik 1770'ra bitartean A'dude'n jaioa dogu, gaur be zutik dagoan Zamukei auzuneko Perkain-enean. Auxe dogu erritar asmamenak ango pelotari guztien erudutzat jarten dauskuna; onen ingurumari ba-ziran nunbait beste asko be jokolari trebeak, baiña auxe dogu danen artean argi-obo ederrez biratua diztikor agertzen yakuna. Bere garaikoak eta ondorengoak orobat gizagaiñeko arnasa eztukuz jantzi nai izan eben pelotari au, beste asko be aren ideko izan arren. Idazle ta bertsolariak, beiñola Donepalau'en eta Tolosa'n ak jokaturiko partiduak goratuaz atan be, bertso ta ahapaldi ozenak ondu ebezan. Adema-Zaldubi'k bere *Pilotariak* poeman aitatzten dau, eta Harispe'k bere Perfem'n (*Drama sous la Terreur et dans le Pays Basque*, Paris, 1903).

Azantza be, pelotari ernea, garai berekoa zan. J. Elizalde ta L. Dassance jaunak onela: «Kanboarra zen Azantza: aitoren seme bat, de Sorhiainde deituratzat zuena. Askoren arabera, tropetako aintzindari izana zen gaztean: kapitain naski. Orduko handiak beren buruez hartuak baitziren, behin batek Azantza'ri erran zion zertako hola bere heinetik jausten zen, pilotan artzeko. Eta Azantza'k pilota maiteago baitzuen bertze zer nahi baino, motz-motza ihardetsi zion»: «Ez naiz etzeko jaunekin baizik

sekulan ari». Eta hortan gelditu zen solasa. Behar ere: pilotak nihor ez du apaltzen». (*Gure Herria*, 1921, 481 orr.) Perkain'ek eta Azantza'k ondo alkar axtu oi eben, eta geienetan, Perkain alde batetik eta bestetik Azantza jarduten eben pelotan. Bien artean bein Donapaleo'n jokaturiko partiduen kantea oso zabal dabillena da. Ona:

«Norat -joalten zira zu, adiskidea?
—Donapaleo'ra dut ene segida;
Urreño bat deramat bertze baten bila,
Baldin Lapurtarrak jalgiten badira.

Lapurtarrak jin ziren trabesak dobleska,
Banitatearen orde bazuten nobleza.
Galdu duen gaixuak kontsidera beza
Ez dela egun oroz Lapurtarren besta.

Azantza'ko semea nik ez dut mendratzen,
Bere parerik ez du pilota botatzen,
Bainan Perkain hori etzuen lotsatzen,
Plaza guzlaentzat bera nski baitzen.

Zazpi joko zituzien, guk bederatzi,
Halere Lapurtarren plaza etzen aski.
Has berrian bezala irabeslan beti,
Urguluz nahi zuten partida irabazi.

Amikuze'ko duzu Donapaleo,
Hango ezpada ere hurbil darraiou;
Aldutiarrak eta hainitz gehiago
Handik hasi zeraizkon dihuru karralou.

Orai betetzen di'u bederatzi urte,
Baigorri'n truja hunik egin zin aukuten;
Gure gasnen sariak jua zin tuztzen,
Srebanyak baltia: hor konpon zilezte.

Lapurtar jaunak, orai zuer zer zaizue?
Monedako Etxea hurilsko duzue:
Eskasten bazaizue, hara jua zin zaizkete;
Ukainen baduzue, harturen duzue.

Ehun urte galdu tuzte gastuak bertze-alde,
Hek ere nere ustez zerbait badirade;
Gizon bat aberatsa izanikan ere,
Holako zlmikonk sendi'zen dirade.

anae biak, Zugarrri, Laba, Katua ta Pola ta beste asko pelotarien artean lenengoetarikoak izan dira. Uri onetako iokalariak, nai pelotariak direala, nai palankari nai osterantzekoak direala, eredutzat edo legetzat artuta dauke: iokalari onak iokoan bertan baiño iokoa bera ipinten geiago nekatu bear dabela». (*Euskalzale*, 1898, 25 orr.) Ementxe daukagu gaur pelota-ikas-tetxea, iñungorik ederrena; eta pelotariak ugari mundu guztira zabalduta, beñolako Erdotza anaien jarraile azkarrak nunbait. Nire buruan alan da.

Eta gaiñerakoak? Danak aitatzea txiñurriak kontatzea lez litzaken arren, batzuk beñik-bein beioaz emen. Eskuz: Txapasta, Azkoiti'ko zazpi anai Atanotarrak, Azpeiti'ko iru anai Fernandez Arregi, «Txikuri», Ulazia, iru Urtzelai, bederatzi Etxabetar, Zestua'ko iru Irureta, Salegi, Errezabal, Azkoiti'ko Txikia, «Sustarra» biak, Artamendi mallabiarra, Aulestia'ko iru anai Ubilla, «Baltasar», «Pitxirri», «Mallabiarra», «Artazotarrak», Azkarate Egaña (Mondragoiarra), Lekeitio'ko Zapaterito, Akarregi, Gallastegi, Kortabitarte. . Palaz: bost Gallartarrak, Deusta'ko lau anai Kintanak, bost Begoñatarrak, «Pasai», Arakistain markinarra, Izagirre elorriarra, Urbano Larruzea (Amorebieta II) zornotzarra, Azurmendi zeanuristarra. Sarez: «Anton» markinarra, Azpeiti'ko lau «Takolo», aita ta seme sei Kurutzeaga, iru Irigoien, iru anai Salazar, lau anai Kazalis, Amoroto, Zefaia, Donosti'ko lau anai Brau, aita ta seme lau Etxeberria, Pasai'ko Iriondo, Bega, Laka, Onaindia, Barrutia, Arriola, Laskurain, Elola, Olalkiaga... Erremontez: iru anai Abrego, iru Larrañaga, Orio'ko lau Salsamendi, Arano'ko iru anai Zabalak, Iruña'ko Plazabonak, Azpeiti'ko iru anai Utzin, Azkoiti'ko Etxaniztarrak...

Aspertzeko be: geiago oraindik? Baita, askoz geiago; kontaezin alako zerrenda egin gengike, danak aitatzerakoan. Nok goratu ditu, alan be, onein trebetasuna ta pelota-joku ikusgarriak? Zelan ez doguz bertsotan jarri? Zelan ez doguz neurtitez ondu gaurko pelotari gaillen askoren egite arrigarriak, batez be orain-oraingo Azkarate elorriotar eta Gartzia-Ariño axpetarrenak? Kimu antzera, zerbait ba-dogu ortaz egiña, baiña oso gitxi. Basarri'k, adibidez, *Atano III* (Zarautz, 1949), aren edestia bertsotan emon euskun, oso txanbeliña; eta orrela beste batzuk. Baiña, gure jokalari trebeai merezia emoteko, gauza

urria dogu au. **Azkenez**, begoz emen N. Etxaniz'ek oraintsu **Tapia** azkoitiarrari Bergara'n irabazi ebalako eskiñiriko bertsuok:

«*Au dekl Au dekl
euskaldun giroal
Tapia'k ebaki du
Bergara'n jokoa.
Trapela gora,
txapela bera,
ba-zun jendeak esana.
Txapela gora,
tiapela bera,
Tapia'k ausi du lana.n*

(*Zeruko Argia*, 1964, Epailalc 29, 6 orr.)

b) *Aizkolariak*

Orain, emen Bizkaia'n beintzat, mendiak piñu baltzez mear ta estu jantzirik dagozan lez, lenago areitz, gaztaiña ta pagotantai lerdenez egozan. Eta orreikaz ikatza egiten zan, eta ikatza egiteko naitaez egur ori zeatu bear, aizkorak eraz ta artoso erabillirik. Eta, jakiña, baso itsu orreitako zugatz mardul ostotsuak elkarren leian erasteen, batzuk izan oi dira nekegatxagoak, ego kiagoak, erneagoak. Ortik sortzen dira gero, uste-uste barik, euren arteko apostu ta demak; lenengo, baso bateko egurgin edo ikazkiñen artean, gero erriko kementsuenen artean, eta azkenik, albo-errietakoai be eupada egiñik, arein artean be bai. Era orretan aizkolari ospetsu asko izan da gurean.

Gaur Bizkaia'n ez dogu olako aizkolaririk, Zeanuri'ko Sur-Motza orrez berezi. Sasoia ta laztasuna bear ortarako, baita gaitasun orreik nun erakutsi be; eta gure mendietako ler baltza mizkeegia izan. Naparru alderuntz ba-dira orraitino, pagadi ederrak oraindik; eta an saiatzen dira, gaur be, gazte zangartsuak tantai-eraste lanean. Naparroa'k beti emon dauz aizkolari zaluak, eta egunokaz be izparringiak aupatzen dabez ango jokalaria, Gorriti'ko Berakoetxea baitikbat. Bai Donosti'n bai To-Iosa'n, edozein plazatan r.eurtu izan dabez euren indarrak, kanaerdiko enborrak eta ogei oin betekoak izerdi andi bsrik r>de bietakoak ebagiaz.

Onein indar-erakustea, onein beso-zangoen kirioa bertsoz jaso dabenak ba-dira gure literaturan. Orixe'k bere *Euskaldunak* poeman aizkora-jokua dakar, Leitza'k eta Uitz'i'k alkar bi-llatu ebenekoa. Antxiñatik da leia pizkat erri bi onein artean, gure erritxoetan sarri oi danez. Eta iztar-erdiraiño edurra izanda be, aurrera eroango dabe joku ori; amar urtez Larraun izan da txapeldun, baiña oraingoan Leitza'k ba-dau austeko itxaropena:

*üLarraun guzian gízou bizardunik 'oalitz...»
oiua bota dvte oi duen arrandiz.
Orren be.gira zegon Uilziarra, aldiz,
bera autsi dezakenik ez dagola iduriz.n*

Leitzarrak ba-dabe seme erraldoi bat, *Burubeltza*; «bi aldiz gizon dala berari deritza», eta arerioari begira beiñola Goliat'ek David'i lez diñotsa:

*K -Mutil gorrixka, ez aiz nere Leporaiño,
aizkorarik -ezin duk jaso zeruraiño.
Noizko sartuko ole duk enbor-erdiraiño?
Da'n;utzen bazaik. esak; beta duk oraiño.**

Erritarra ezta ainbeste, baiña ba-dau kozkorra; besaburu, ukalondo, belaun buruak bizkor, besoak luze ta lepoa gizenkor, indarrez leitzarrari ez dautso ezer zor. Asteko alkarri eskuak emon ondoren, or biak mokor gaiñean.

*uOr'n entzun da, ta biak bat-batean jeki;
batean aizkura sar, berriz berdin zuii;
ala dira ardatz batek dabiltzan kako irix*

Begiraleak ugari, oiua ta garrasi, bakotxak aldeztu ta txalotu nai berea. Ezta arritzekoa! Amabi kana-erdiko enbor zatitu bear dabez, eta zenbat biotz koloka azkena bota arte! Zantzulariak gogotik diardue Leitza'ren aldera. Alan be, bertsolariak:

*uAundia da leitzarra, baiña bizkar-uzkur:
aztu zaiio jekitzen, etsaiaren bildur;
ukondoaz zabaltzen da kidarra bele, ur;
eztn aizkora jaso uste bezin gaillur.n*

Larraun'en alde czta orrenbeste oiū ta ots, baiña gerri ta belau tinko, bereari loturik daragoio lanean. Bertsolariak:

*«Uitziarra, berriz, deno den luzatuz,
ohi mulurretan dabit, dun indarra bildiLz.H*

Burrukako zirti-zarta ta gorabera guztiak, ederto be ederto antzeturik, begi aurrean jarten dauskuz, ziñeko mintz zora-garri batean lez. Azken-ebagietan, ostera, Uitziko *Txiki'k* Leirza'ko *Tantai'xi* aurea artzen dautso agiri-agirian.

*nBere koskm ta geigoz If.n bota du Txiki'k;
orain zerueta oiua Uitzik.
Atde gutxi da, alare; baiña ter egiñik,
aun.ñak onezkeru, ez digu yauz onik.n*

Leitzarra oraindik be azken-egurrean, besteak amaitua dauala irribarre gozoz: egur edo enbor-erdiz galdu eban leitzarrak, eta birnrik emon bage, «Aundi» malkotan dago. Eta Leitza'koak, ekatxean dabilzan antzarrak lez etxera doazan bitartean, Uitzikoak poz-esnetan dabiltz alkarri zorianka.

Orain amabi bat urte zarata itzala jaso eban Luxia'k eta Gartziarena'k Donosti'n izandako aizkora-jokuak. Martin Gartziarena Leitza'ko semea zan, ango basoetan aizkora-tankati ibillia, ogeitalau urteko mutil egokia, azal gorri, gerri bigun, arrckeri bako burrukaria. Luxia, ostera, Azkoiti'ko semea, Juan Joxe Narbaiza, Eibar'ko Iturriño'k ondo gertatua; ogeita zortzi urte ebazan, metro bi luze, sendo ta zaildua, miru antzekoa oinpean menderatzeko pago mokor galanta. Euron eta onein lagunen arrear olango eupada gogor bat entzun zan bein; edo obeto : Luxia'k «nor-geigo» bota eutson bein Martin naparrari. Eta onek baietza emon bertatik. Plazaren eskari egin eutsoen Tolsa'ri baiña eztabaida askoren ondoren, Donosti'n jokatu zan oillarketa ori.

Onako eginkizun eta arazoetan maixu dogun Loidi'tar Paben'ek oso bikain abestu euskun apustu ori *Aizkolariak* deritxon bederatzi puntuko poeman. Ona ahapaldi batzuk:

*'iDonostia'n bildu zan Euskalerra dena.
Txalozetc) indartsu cxen kemena.*

*Plazan degu Luxia, naparra urrena,
Biok ekin diote proatzen aurrena...
Ura itxumena
Jokalariena!
Auxen da geiena
Autan dabillena:
«Txapeldun irten baitz Gartxiarena.»*

Enbor gaiñean jarri da naparra, oiUar kantari dirudiala; giputzak be orain dau bere zail ta giarra erakusteko ereti ederra. «Aitearen» egin ondoren, biak asi dabe lanketa. Bai ta batera, pesetea be, orbela baizen arin jokuan. Enbor bat ebagikoan bestearen billa, kementsu diardue biak aizkorari emonik gurpilla. Onein zixkin ta gorabera guztiak begitan ditun olerkariak:

*nOrpoz-orpo naparra, ez rfo eibarria;
Luxia'k arindu du bete-aldia.
Buru-belarri zutik da jende guzia
Aldatzen ikustean eskuko burnia.
Jo adar-begia,
Aizkorak nagia...
Munduak antsial
Vra zan larria!...
Etzuten nai baño len buka erdla.n*

Eskuak urratu yakoz naparrari, ta kirtena gorrigorri dau odollez. Egurrean be estuegi artu dau neurria. Azkenean, «negarrez baztertu da ezin etsia». Narbaiza tantala, barriz, saltoka ezpala; beronek irabazi dau ospe andiko jokua.

*«Gipuzkoa'n poza da; Naparroa'n mi-ña;
—Euskaldunak jokoan ba-degu gri-ña—.
Martín Gartziarena oraindik gordiña,
Iñork autsi gabeko aizkolari pifla:
Scndoo.n ariHa,
Artara egtf.a,
Eginda alegiña
Iritxi eziña...
Galduarren ba-zera Luxi'en diña.D*

An dabil Iturriño, aterkia zintzilik besuan daula, írribarretsu ta pozaren pozez, Luxia'ri zorion-agurka. Onek zeian eutsi pozari? Lagunak bizkarrean erabilli eben luzaro. (Ikus *Milla Euskal Olerki Eder*, 1011 orr.)

d) *Korrikalariak: mendigoizaleak*

Urliak eta sandiak beñola egindako markak ezetz erre baietz erre, zenbat erronka bota oi dan gure artean, lasterketari buruz be, Antxiñako gerkarren antzera, nunbait? Areik be geiágo ebela uste al dogu? Gizona beti gizon, eta an gizon zalluak eta zalak ba'ziran, gurean zergaitik ez arein antzekorik? Saltoka ta jauzika, antxintxika ta ariñeketan lauan naiz aldapan egin daikegu. Eta guk ba-ditugu lauak eta mendiak nun geure anka ta zangoak neurritu.

Euskalerrian beti izan doguz korrikalari bizkorrak. Begitu gaur be Arruiz'ko Txikia, Aldatz eta beste asko alkarri zirrika, marka bikaiñak orniduten. Danetariko korrikalariak izan be, plaza barrukoak, bideetakoak, mendietakoak. Niri, osterá, mendiz dabiltzanak yataz atsegin, eta orreik ditut emen goratuko.

Ederto Maragall'ek: «Zoriontsu, ziñez, alboan mendi bat daukan uria, onen tontorretik dana ikusí daikegu-ta». Gure iurra zoriontsua, beraz, bertoko mendi erpiñetatik ainbat zer lilluragarri dakuskulako. Gure erria, gaiñera, mendizale da, eta iñoizkorik geien gaur. Gizonak, egia, sarri oker-azo oi dauz Jainkoak onerako egin biotzak: kezka ta urduriz bizi da urian, bake ta ixil billa mendira egaz dagi. Eta, ortarako, beste sei erkiak bape gítxietsi barík, Bizkai onek amar-amabi bat gaillur eder ba-daukoz, beste muiño askoren bizkar gain jarririk. Onein gaiñetik dakusguz millakí baso, zelai, aran, uri, baserri, ibai ta erreka. Balendin Enbeita'k onela:

*(Gorbea, Anboto, Oiz, Illunzar,
Hollube eta Bizkargl,
Bizkai-gane ta Ganekogorta,
Sabigain ta Pagasarri;
euren artían zenbatu ala
ahibat eratako mendi:
Íñekaiak' mendiz apaindvriko
gaztrlv. zar bat dirudi.n*

Goi-argi printzen igurtzi leunetan, aize garbiz birika-auspoak asctzer. ba'doguz, an goian laño ezeagaz jolaska, bean ez dogun arako zerbaitek kilikatnko dausku biotza. Mendi goietan dira baselizak ugari, gure asabak siñismenaren ezaugarritzat jaso-

takoak; gure euskera zarrak mendian dauko bere len-jarlekoa. Mendizale gaitezan, bada, garbi jokatu nai ba'dogu.

Onako bat, oso ospetsua, Xebe Peña Albizu. Mendizale beti, ta an zirt eta zart egiteko gaztea. Eztogu, alan be, aupalari, erronkalari, Etxarri naparra, Muxika amezketarra, Aia'ko Txikia ta gorago aitaturikoen antzera; ez, Xebe ezta apustu-zale, «oinkari kirol-zale, buruz argi ta biotzez garbi» baiño: neurritz ̄p. jakitez dendatu (leiatu) ezkeru, gizon bat noraiño eldu daiteken argi darakusguna. Oínkari oni, gaiñera, zoriak irri egin dautso, bere egite arrigarriak bertsoz nok jaso izan baitau. Xebe'k ba-eban barruan griña bizia, Euskalerriari bira osoa emotekoa, urrean; mendigoizale trebea zanez, ibiliaren ibilliz, zearo ezagutzen ebazan gure mendi-txuntxurrak. Bira orretarako 7.953'ko loraillaren erdi aldea aukeratu eban; sasoi egokia gabaz ibilteko, egun areitan illargi bete-betea izango zala-ta.

Juan Basurko, Irun'go arotz bertsolaria izan zan oinkari onen barriemoille, bira atako zeaztasun guztiak bertsotan emonik, *Ibiltari bikain bai* izenez argitalduriko poeman. Xebe tolosarra dogu, ta berrogei ta bost urte ondo beteak ibilketa ori egite-rakoan.

*aNunc'ik noraño zeñek lagundu,
nun lo eglñ bear zuan,
neurri guziak alde z aurretik
uslez ariuak zituan,
zer jan, zer eda-n, nundik ibilli,
buru austerik etzuan,
'vrten baño len pauso guziak
garbi bai zeuzkan buruan.n*

diño bertsolariak. Orrela, maiatzaren 24'an, gabeko amabietan Bilbao'ko eliz nagusiaren ateetan urtenik, or doa Begoña, Larrabetzu, Zugaztieta, Arbaizegi, Markiña, Mendaro, Lastur, Arrona, Orío, Donosti, Ergobia, Iraola, Urepel, Tardoa, Arraras, Pellokaska'tik zear Iruña'ra, eta andik itzuliz, beti zal ta trebe, mendi-gaiUur jagienetatik Gazteiz'era: dudarik bage, amaituko dau onezkero bere bira latza, naiz-ta norbaitek bide-erdian luze geldituko dala belarri ondora jaurti izan maltzurkeriz. Laugarren eguna daroa.

*nAl zan bezela, beti uurrera
 azaldu zan illargia,
 bukatva ?an lora-illaren TI
 egun ogeila za-;pia;
 egun berrian sartuak giñan,
 igaro zan gau-erdia;
 Gazteiz bertara iritxitzean
 ?an ordu bata t'erdia.))*

An pozez gaiñezka egoan, Jaunarenean eskerka. Bertsolariak beretik:

*uPozaren pozez begietatik
 negar malkoak ugcri,
 gora begira tegoalarik
 antxe zitzi:ka>i ixuri.))*

Mendiguren, Gopegi, Murua, Azero, Gorbei-gane, Aldami-ñape, Arraba, Irumugarrieta, Zeberio'tik zear,

*«Bilbao barrengo kaleetara
 au inguralu íntan,
 antxe joav zan burua makur
 elizara zñzenxan;
 ain ibil-aldí arrigarria
 bukatv ondorenian,
 alako ezíu-esan dan poz bat.
 daramaki barrenian.fi*

Onelaxe, bertsolari argiari dagokionez abestu eban Basurko'k, 45 zortziko nagusi biribilletan, Xebe Peña tolosarrak Euskale-iriari egiñiko itzul-inguru osoa. Betoz onako asko gure ibilkari ta indarkari yai oak goretsiaz. Elitzake arazo zailla, iñundik be; bai, oster a, gure literaturarentzat guztiz onuragarri.

e) Arraunlariak

Gure arraunlariak beti ta nunai nagusi. Len gaur baiño be gei ago, íñoiz Bordele'n, Niza'n eta onako uri nagusietan be **iskanbil** andia ntaratakoak doguz-ta. Gure estropadak! Bizkai-Gipuzkoa'n batez be, sarri marka bikaiñak erre izan dabez eus-**kal** itxas-bazterretako mariñel kementsuak. Bizkaia'n, Sestao,

Pormgalete, Santurze, Bermeo, Lekeitio ta Ondarru, guztiz ospetsuak izan dira; makiña bat joko eder itxas-azalean dantzatuak, arraunlari-kontuan makiña bat goruzko ta beruzko ikusiak. Ingurukoak iñoiz, Santander aldekoak eta, bota izan dautsiez olako eupada gogorrek euren indarrak neurtu gurarik, Santander'en bertan, 1861'an, España'ko erregin-erregearen aurrean jokaturiko batel-estropadan, esate baterako. Baiña zantzo batzuk gorabera, ez egozan iñoren mende jausteko. Kantuari zabalean nagusi ziran bizkaitar arraunlariak, giputzak bakarrik jo oi ebezan euren kidekotzat. Orduko istillu ta zantzoai erantzunik, Eusebio Maria Azkue (1813-1873), lekeitiar olerkariak, onela:

*uAsko ta asko zagoze
 abaniari putzak;
 baiña geugaz berdiñak
 bakarrik giputzak.»*

Ondarrutarrak, batez be, trebe-trebeak izan dira treiñeru auzian; bai ta izan dabez euren egite arrigarriak abestuteko luma bizkorrek be: Tiburtzio Urrosolo, Jose Manuel Imaz, Jose Burgoa, Jose Brontx eta Berriatu'ko Ezkerra.

1886'an, Bilbao,n jokatu ziran estropadak, erregiña ta erregea bertan ziralarik. Ondarru'k beretu eban bandera. Urrosolo'k alaiki:

*«Abisa.ru digute gxire Bilbotarrak
 mutillak bear ziraja Ondarrutarrak;
 apartata dauáenak ez dirade txarrak,
 berez umillak cíá jenio azkarrak.*

*Abraketa pintauak, pantaloi zuriak,
 alkondara igualak ío botno gorriak;
 kokote ederrekuak, gorri belarriak,
 izarren antzekuak tiiuzten begiak.*

*Gregorio Zelaia, pctroi nonbratua,
 Enpania'n besle bat 83 bezelakua;
 :.arra izanagaiiik, orolndik bibua,
 argaitik jarri zuten guzien burua.*

*Aviasei gi-.cn gázte Uelopa batian,
 Erregiña ta Errege, i-irekií batian;*

*Gauza ederragorik uraren gañean
ezkenduan ikusi begien aurrean.
(Ikus OnUarru'ko Kantak, 1963, 126 orr.)*

1888-XI-25'an, Donosti'n arraunketak. Pasai'koak eta Ondarrutarrak neurtuko ebezan euren kirio-indarrak, Getari'tik Donosti'ra nor lenago eldu. Omela Urrosolo'k:

*«G-ipuzkoa'ko Getaria'ra
txalopan sarturik guatzen.
Pasaitarrakin probaiutzera
Ondarruatarrok Lenbailen;
bizkaitarrakin jokatutzeke
oiek desiotan zeuden:
ikusiko da Donostia'ra
nor allegaizen dan lenentt.*

Bai ta beste bein be, Bilbao'n, 1902'an, Espaiñi'ko errege Alfonso XIII «baporetik begira» za'a, andikiro ospatu ziran itxas-kirolok, ondarrutarrak txapeldun urtenik. Bertsolariak:

*«Santurze, Elantxobe, Zierbana'kuak,
Armintza ta Bermeo ta Oriu'kuak,
baïta ere ba-ziran Deserio'kuak,
baña bitorioso Ondarroa'kuak».*

Eta Gipuzkoa'n? Eta Lapurdi'n? Zaiñartsu goretsi ebazan Orixe'k, bein Donosti'n gipuzkoarrak ospatu eben arraun-dema gogoangarria; Donosti, Zumai, Getari ta Zarautz'ekoak ziran nor-geiagoka atan.

*«Ontziak ola, arraunak ala,
muti'Uek ez aundiegi,
zama aundiz lana bota ez dicn
gaiñez beren burwi.
Lerden, indartsu, besoak zaiñar,
gorputza, berri, giarri;
sabela serail, lepoa legun.
batez ere blguin gerri.n*

Eguna ederra. Eguzkiak ez dau rnakarrik; mendiak gori, odei-faiñoren liparrik ez. Itxas-kirolerako giro bikaiña! Jentea asi da, ikus-nai, ontziak dagozan lekurantz; eta laster, ango barbaro ta zaratí! Ezetz eta baietz, nok irabazi auziez! Diru-

poltsaren azkura be galanki. Ikus arraunlariak: donostiarrak go-
rri., getariarrak ubel, zumaiarrak ori ta zarauztarrak zuri.

*'i'fo':irik e<in artuz jendea,
tt/i zeukanetik bestera:
-<in arkr.Uzetik, zein gain gunetik,
obeki ikustcn ote da?
Ont.iiak lerro dauden ezkerro,
erabat bear aukera...
Arroun-jokuak, ; kuskarririk
\\kuskarren, ntera.m*

Patroiak kiñu. Neurri berean urtenik, lenengo txanpan alde
egin nai dabe. Or doaz, beso zangar arraunka, tximista baiñen
bizkor.

*iiZumai ta Zarauiz (mtxago cloaz,
batera, besteak utziz;
ontzi-crđi bat Getari baiño,
Donosti baiño bi ontziz.t)*

Itxastar erneak adoretzu jokatze bitartean, kaian, Urguil ta
ingumetan ba-da itz-otsik, apustuekaz naste.

*aOrain oiuaq, orain dirua,
begi erne, biotz itsu;
oker ikusten dutena bera
barnean biur zaie su.
Poltsa-dirua. ezpaiñen itza
berlan nai lukete ustü.
Gero kontuak; oraingoz, beinlat,
eçin dezaçun apustu.»*

Kezkaz, ur-ukaldika dabiltz etenbage ontzietakoak. Donosti¹k,
3lan be, txanpan egin dau galera; Zumai ta Zarautz'ek **bata**
bestearen itzala dirudie, esku bakarrak daukazan burdi-zaldi
biren ugelak; Getari dabilkigu danen azkarren bira ta rxanpa.

*«Azen txanpa du Getari'k. Ua
itsasoa jan bearra!
Zerura arraunak jaso diute,
erre dute lengo marra.
Getari ixillik lau aldetara
zabali du deadarra.
Amabost arraun-ukaldiz gero
sartu zaie zarauztarra.n*

Zumai, barriz, andik bitara; ta Donosti, andik seitara. Onek bear eban bandera, diñoenez, baiña kukuak oker jo egun atan. Olan mintzo dira dirurik egin ez dabenak (*Euskaldunak*, 513 orr.)

Loidi'tar Paben, gorago be aitatua, arraun-kirol goi-maillaz-zen ez yaku zabar ibillia. 1930'garrenean, oindiñokarren apaiz-ikasle Gazteiz'en zala, Errenderi'ko Olerti jaietara bialdu eban *Arraunkeia* poema etzan bada-ezpadakoa. Onan Aitzol'ek: «Neurtitz arin eta lirain-errexetan estropada joku bizia, bikain adierazten digu Loidi gaztetxoak». Orio, Pasai, Ondarrabia ta Donosti ziran treñeru-guduan Donosti'ko kai dotorean. Urteerako zunpatekoa entzunik, lau treñeruko talde bizia bat-batean doa, ekin ta ekin, arraunak bardintsu.

*uBarraz kanpora erten dirade
arrotu? itxas barea.
Alde bitatik turrun-ontziak
jarraiuz oien bidea.»*

Ezker-eskubi, egiñalean, dabiltz mutillak. «Aurretik gaituk», diño Orio'k, ugartera eltzean. Jaupa ta txistuz lurrun-ontziak, aspertu barik.

*«Gaztelupeko sarrero. da-ta,
uru. treñeriñ-gudua!
Orio, Pasai, Ondarrabia,
Donosti pixkat aitua...»*

*Kaia-gañeko ixkanbilita ta
diru-ixtil.la soñua!
Batzuentzako inpernua da,
besteentzako zerua.n*

(Ikus *Milla. euskal Olerki*, 1007 orr.)

Zazarik onenak ezkutuan egoten; bai ta bertsolarietan zuurrenak be. Or bat Orio'n, Joakin Aldabe, bere ixñl-zokoan ari ta ari bertsoak mordoka ondu dauazana. Euskal oituren maitale gartsu, Orio'ko arraunfariak be bertsotan aupatu ditu askotan. Oneik goi ikusteak emoten dautson poza, argi dirauskue urrengo ahapaldiak:

*iiGure Eitskalerriko eder ziran estropak
argal agerlzen ziran janlzita eñotz erropak.
Irinlsi eziji zltuzten porru-saldaren zopak.
Aurten bularisu altxa ta gogoz artu dituzte
oillo saida, okela, biña kafe ta kopak.n*

Orrela, iliunaldi ostean, naibage ta larri ondoren, barriro jagi dira kementsuki, Orio'ko erria gaillurreraiño jasorik. Urreak baiño geiago balio dau kemenak, eta sugar-kemena bizturik, etorkizunerako be txinpartatsu agertu da barri onein itxaropena. Oriorar estropalariak ba-dabe zuzendari azkar bat, omentzea merezi dauana.

*uZuretzat, Sarasua, nere omen apala.
Ongi dakizu, noski, naizela agitz argala.
Patrol izugarria, etzera ez makala.
Zure lagunarekiñ elkartu ta artzazu
bescirkaaa estua, ta diruz eska ala.n
(Karmel, 1960, Maiatza-Bagilla, 72 orr.)*

g) *Burrukalariak: ikubilkalariak*

Gaztetan nok eztau auska edo burruka egin? Bik alkarri oratu ta batak bestea lurrera bota, or Nilo inguruko Beni-Massan'en Kristo baiño 3.000 urte aurretiko orma-illobietan margoztuta agertzen dan burrukea. Omero'k be bere Iliaseneko XXIII'garren kantuan Aiaz eta Ulise'n artekoa dakar. Gerkar eta erromatarren artean, izan be, antxiña-antxiñatik oso ezaguna zan indar-neurketa au; bai ta India'n, Japon'en eta Europa'ko errialderik geienetan be. Oratu ta bera eratsi, grekorromarra deritxon onek indar andia artu eban bereziki joandako gizaldiaren azkenneruntz; orduko burrukalariak dira Pytlasinski, Rossigno!-Rollin, Damasso, Bernard; eta geroagokoak, Anglio, Pétersen, De Riaz, Gambien, Laurent, Raoul *el Carnicero* eta gure Otxoa napartarra, gutziz entzute andikoak danak.

Besteak beste, Urdiain'go seme Xabier Otxoa ez genduan izan burrukalari makala, gizaldi onen asikeran. Ba-ziran beste bi be bide ortatik ebiltzanak, Eltzekondo ta Zarandona; baiña Orxoia danetatik trebeena. Oindiño gazte, Etxarri-Aranaz'ko Martirt Arteaga'k lagunduta, Buenos Aires'era aldatu zan. Gazte

indartsua zalako, laster egin zan ospe andiko. Ona: bein, ango kaleetako tximist-burdi bat bidetik urten zala-ta, jentea jatsi zanean, Otxoa'k bere bizkarraz bultzata, bere lekuan jarri eban barriro. An zan batek, au ikusirik, nungoa zan itandu ondoren, txarteltxo bat emon eutson bere etxera joateko esanaz. Burrukalarien txapelketak eratzen ebazan izparringi batekoa zan: orduan ðe txapelketa andia eukien eta ortan sartu eben Otxoa. Irureun bat ziran guztiz, erraza ta toki danetakoak. Egunean bederatzi ta amarregaz burrukatu bear izaten eban. Illabian amaitu eben txapeiketa ta napartarra irabaztun; bigarren beste euskaldun bat, Irungo Juan Barrenetxea. Andik laster, Buenos Aires'en bertan, munduko txapeltza jokatu zan, lendik txapeldun zan Paul Pons eta beste burrukalari ospetsu asko tarteko zirala. Seigarren geraru zan jardunaldi artan.

Bertan ezagututako Idiazabal'go neska euskaldun bategaz ezkondu ondorik, Urdiain'go bere etxeruntz ostera bat egitea otu yakon. Vigo'ra eldu ta ango eguneroko baten Madrid'en be txapeltza jokatzekoak zirala irakurririk, ara zuzendu zan bertatik saio orretan be jokatzeko asmuz. 1912'garren urtea zan, eta an jokutzen ebenak De Riaz, Vance, Anglio, Vervet, Esson, Chevalier ta abar. De Riaz gelditu zan txapel-jabe, ta gure Otxoa bigarren. Urrengo urtean Praga'ra joan zan, omenezko txapelketa batera; an zan Frischteusky, garai aretan munduko txapelduna; gure napartarrak guztiak menderatu ebazan, txapeldun geraturik. Geroztik be, Ego-Amerika'n, Abana'n, Mexiko'n sarri izan zan, millaka burruka egin ta diru-mordo galantak irabazirik. Burrukaldirik latzena Mexiko'n izan ei eban, ordu bi ta zortzi miñutuan Raoul *el Carnicero* eratsi eziñik; ikusleen artean zan Obregon ango lendakaria be. Txapeltzarako burrukaldi atan, Raoul azpiratuaz, 4.000 peso urretan irabazi ebazan urdiaindarrak. Gero, etxeratu ta burrukalaritza itxirik, Iruña'tik Gazteiz'era dabillen tarranta-lagundia sortu eban.

Ango ta emengo izparringiak luzez txalotu eben. Eta gure bertsolariak? Ez egozan lo. Or Muxika'ko urretxindorra txiroliro gozoz. Zarandona ezagun dau, baita Otxoa be; ta lagun zintzo biok Ameriketara doiazala jakiñik, doistarren itxaspeko pizti ondagarri asko —munduko len-gerratean bait-zan— or dabiltzala dirautse, ta bada-ezpadan kontuz ibilteko.

v.Zarandona Otxoa'z
orra morrosko bi
Amerika'ra doiaz
itxirik lur oni.
Ondo ibiLli ortik,
bikoitz eder ori.»

Otxoa'ren trebetasuna goratzen dau ondoren; napar euskaldun jator, biotz onekoa da: «greko-romana»-n besterik ez lakoa.

uGurean, España'n ta
Eu'opa'n be nausi,
Pétersen ez besitiak
egin zitun ausi;
ta beraunek be orain,
eingo ba'litz asi,
Otxoa'ri gaur baña
zelan irabazi?))

(E., 1915-VI-7.)

Ikubilkarien artean be izango doguz ospetsu-ospetsu batzuk, Uzkudun errezildarra, «Fillo» Etxebarria, Ixidor Gaztañaga ta gaiñerakoak. Baiña au ezta, antza, euskaldunen joku jatorra.

i) *Ostikolariak*

Gizaldietan barrena, aro bakotxak bere deporte edo jolas-ketak euki ditu. Grezitarrak, esan dogunez, eurenak ebezan be-rezi-bereziak, ortik sortuak olinpiar Jokuak, eta oneik aitu ziranean, erri ospetsu aren indar-aginpideak be lur-jota geratu yakuzan. Erroma'k erabat, bere loratzerik bikaiñenean, kirola landurik —zirkuko liskar, zaldi-lasterka ta burdi-barailla— gudarozteak gertu ta azkartzeko, ortan izan ebazan eskolarik ederrenak. Orduko kirol-sua etzan moteldu Erdi-Aroan be, zaldizkoa, ezpatazkoa ta makozkoa bereziki. Joandako mendean, ostera, Inglaterra'ko ikastetxeak dira zaletasun ori aizatu ta gazteen artean aziera barri baten oiñarriztat jarten dabenak; emendik datoz gerora eraz antolaturiko kirolak, lege zeatzen azpian jolas-alkar-Lasunak nunai sorturik.

Gaurko mundua jolas-gríña dogu. Laterriak era batez dirutza galantak eralgi oi dabez gríña orri su emoteko, ta bidenabar

errear eusteko. Gaur ar-emon itzela daukagu alkarrekin, ibilpide barriai eskerrak, edonoraiño aldatu. Len etzan arkaitz ta leza-zaletasunik, ezta ainbeste mcndigoi-grifnarik; gaur, izadi-edertasunez lilluratuta, ainbat dira leza ta goialdeetan jolas-biderik jatorrena aurkitzen dabenak. Gizonak bere antze asmotsua ta kirol-zaletasuna batean korapilloturik, konta eziñala jolas-mueta ditu gaur bere gorputz-osasunerako ta bere trebetasuna adierazteko: itxasoan, igeria; edur gaiñean, eski ta txirrista; tenis, fubola, birlak, baloi-saski, rugby, zelai zabalean; era askotariko pelota jokua; ukabilka, burruka, judoa, leku itxian; beribil ta txirringuts-ariñeketak, bideetan; eta abar, eta abar, atleta-kiroletan sartzen diranakaz batean.

Fubola edo ostiko-jokua zarra da nunbait, Japon'en eta Aprika'n Jesukristo baiño milla bat urte lenago jokatzen zana. Gaurko eran, ostera, Ingalaterra'tik gureganatua dogu jatorriz, eta orain toki guztietan beste ezek baiño zaletasun geiago sor-azo dauana. Euskalerrian be bai. Ez gara iñundik be atzenengo arrotzjolasbide ontan; geure zelaietan eta kanpoan makiña bat joko eder irabazi dabez gure jokalaria-taldeak. Besteai ezer kentzeka, or Bilbao'ko *Atletik* beti adoretu, ainbat bider txapeldun izandakoa, ainbat marka eder oraindik iñok kendu bako egiña. Bera goratuaz, antxiña kanta eban Kepa Enbeita'k:

«Azletik *bazhunako*
gure *mutil gordiñ,*
euskotar *bulartsuak*
len *eta oragiñ*
erakutsi *dozue*
indar, *gogo ia adiñ*
abendarik *onena*
dagola *zuekiñ.»*

1914'garrenean, Irun'en ospatu zan España'ko nor-geiagoka. Eta gure bertsolariak txaloka aupatzen dauan Bilbao'ko *Atletik* nagusi.

uAzken fokaldirako
aulu eben Irun
eein jarri Espaiña
guztizko txapeldun.

*Euskotarrak dira, ba,
txapel orren aldun.
Aupa, mulillak, gora!
Gaur ospatu daigun!»*

(E.. 1914-V-U.)

j) *Txirringulariak*

Txirringutsa,, bzikletea. Kirol au **baizen** errikoirik **ba** ete da? Orain ia lurralde guztietan ezagun dana, jolas-tresna uts zenduan lenengoko bitxirringakoa, gaurko bizikleta gerotxoago agertu zan arte. Gu be ibil-tramankulu oneik egiten ez gara nagi ibilli: or Eibar'ko Orbea ta Beistegi etxeak, esaterako. Edo-xeiñentzat merke ta ibilteko ain egoki yakun txirringa biko au, beingoan ospetsu egiñik, kirol-saioetarako be laster gaitu zan. Dodds inglesak egin lensaioa, 1876'garren urtean, ordu betean 25 kilometro ta erdi dantzaturik. Gero, Prantzi'n, Alemani'n eta Ipar-Amerika'n batez be, txirringulari bazkunak sortu ziran. Eta gaur, urtero aiputan dabiltzanak doguz Prantzi'ko, Itali'ko ta Espaiña'ko jirabira ta bueltak.

Jolasbide au eder yakuruk ezin ukatu. Begira, bestelan, edo-zeñ errijai atxakitzat arturik, zelango jentetzat mordotzen diran bide ta kale-ertzetan arinlariak ikusi guraz. Onako asko ete ditugu? Ezin konta-ala guk be. Erri bakotxak ditu bi, lau edo zortzi; eta eztira aulak be, ez orixe! Gutarretan izan dan ospetsuena, urtean, Jesus Lcroño, Larrabetzu'ko seme azarria dogu. 1953'an, Prantzi'ko itzul-ingurukoan Mendiko errege izan zan; 1957'garrenean, berak irabazi eban Espaiña'koa, erbesteko ta etxekoen artean kukurrukulari. Ordukoak edo dira Loidi'tar Pabsn'en urrengo bertsuok. Italiar, prantses, beljekar eta emengokoakz naste, or dakus Madrid'etik urteanda, Kastilla'ko zelai austuakzear, zuri-gorri-urdin, errenka luzea, suge dantzaria iduri. Euskal tontorretara daneko, baiña, ezta talde jarraia, banakakoa baiño.

*«Saildu ta meetu dira, irudiz bakallau,
ez egin dutelako janarekin barau.
Orra Sollube'n gora datoz bat, bi, iru, lau...
Aurretik bakarra da, blzkaitarra berau.»*

Truña'ra ezkerro, igesi bakarrean dabil, Jaizkibel, Elgeta, Urkiola zear: mendigain ederrak oneik indar-neurketarako. Oneik eta onako bercin tontor bizkor igarorik, bueltea irabazi dau Loroño,k.

*«Marka bat jarri dezu egundaftiokua:
nuelta-España eta Kataluñaakua
irabazi, ta Frantz'n bosgarren sartua.
Vrte batean zeñek egin oiafcua?»*

(Olf.rti, 1961, UrfcariIIa-EpaiHa, 51 orr.)

Aitaru daigun ointliñoarren beste bat be, garai baten arrokero ibillia: Izpazter'ko Gabika dozue, ango bertsolari batek ereserkia be atera eutsona. Geienez, baserrian bertan, lanari gogoz lotuagaitik, tarteka marteka txirringari eragin eta zeingeia-goka askotan txapeldun.

*«Gabika zaitugu gazte adorelsu,
Bide barrietan zintzo ta bulartsu...
Aldatz gora, goicn, leunetan be buru.
Erriko kemena zeugaz daroiazu.*

*Txiringan jarrita begiak bidian,
Ontxe buru-lerden, ontxe buru-makur;
Ekatz ta tximista blde zabalían,
Zanak irakiten... Aupa, Gabika! AguT!!»*

Erriko semea ain azkar ikusirik, Izpazter guztia dago abeska; torregaiñeko kanpaiak be «Din, dan, dun —diñoé—, Gabika txapeldun».

* * *

Eta beste ixilleko jokuok? Ajedreza, kartak eta antzekoak? Gure artean, ajedrezean ainbeste ezta be, kartetan asko egin oi da. Andrazkoak, atan be, musari ta briskari txit emonak doguz. Kalean ezezik, baserri bazterretan be, nik ezagun ditut aste-bitane oroz kartaldi ederrak egin daroezanak.

Oindiño urte batzuk dirala, Mañari'n eta, Elizanburu lapurditarraren «Besta Biharamuna» abesten eben. Nundik nora ikasita? Garai baten, antza, Bizkai guztian zabal ebiltzenak zi-

ran bertsuok, bizkaitarren euskalkiz atan be. Zarrak gogoan da-
bez oraindik. Amalau bost puntuko dauz Orixe'ren gardiz eus-
kal bertso saillik ederren onek, eta lau andrazkoren arteko truk-
jokoa azaltzen dausku. Erriko jaiak, bestak amaiturik be, an
dira laurok zokondo baten, ixil-ixillik trukean.

*tilgaran be.sta biharamunian,
berek dakiten xoko batian,
lau andre hirur mutxurdin, bat alarguna, jarririk itzalian,
harri xabal bat belauenen gainiun
ari ziren, ari ziren trukian.n*

Zoli diardue laurak, iñoizka okerreko kiñuak alkarri egiñik.
Sarri sortzen dabe istillu Iarria be. Zegaitik? Eurak jakingo.
Urreratu yake olerkaria, begi-maltzur ta jakin-min. Eta, ui!,
zagi txikia dakus alboan.

*iZer ote duten nik jakin nahi
pitxarrarekin besie jaun hori;
zorroa du binbtle, moko mehea, lente xutik egoiti,
xahato bat ote den nago ni,
hanpatua, hanpatua ederki.»*

(Ikus *Milla euskal Olerki*, 540 orr.)

3. *Erlejiñozko bertsoak*

Euskalduna, edesti aurretiko garai itsuetan Urtzi, Lur ta onakoen altzoan auzpez jarria izan arren be, gerora Kristo'ren irakatsi-argiaz jabetu zan ezketiño, kistar fededun izan yaku, ta ez mokol uts atan be. Ta orduko garaian eguzkia, illargia ta abar, biotza ustutzerakoan, kantagai ba'ebazan be, Jainkoa ta uzkurtz-gaiak jalgi ebazan gero bere bertso zal biurrietan. Euskal bertslariak berez abestu dau kistar erlejiñoa: Jainkoa bere iru nortzuetan, Andra Mari, Josepe deuna ta beste arima onak.

Ez dagit iker-lanik, ez kritika arauzkorik. Lan au ezta orrei-tarikoa, gure bertsolarien nortasun eta jokabidea erakustekoa baiño. Sailtxo ontan be ez naz geiegi barrenduko. Au, ostera,

jakin-eragin bear dot: gai onetaz, ots, erlejiñozko sail onegaz bakar-bakarrik liburu mardula osotu geinkela. Antxiña bateko kanta zarrak albora itxirik be, gure literaturan, Etxepare buru daia, geien gai onetaz idatzi dala autortu bear dogu. Gizona berez da Jainkotiar ta Jainkozale, ta bertsolariak be naitaez aditzera emon bear barne-lera gorde-gaitz ori. Bere barren-giro ezkutu ori ain beroa baita, edozein gairi ekiñik be, araxe joko dau itxas-orratzak iparrera lez, ia konturatu bage.

Goiago esan genduaneez, koplakari onak lau gai nagusietatik batez beste nastu egiten ditu. Jainkoa ta arekiko gauzak ez gitxien. «Koblakari xaharrek ba-zekiten lege hori —diño Lafitte'k—: *Ura eta arnoa* goretzi behar zutenean, berehala bataioaz eta mezaz oroitzen ziren, Jainkoaren ganat nahi baitzuten urbildu beren koblakaldea. *Gerlaz* mintzatzeko, herio beltza heldu zitzaieten ezpainetarar eta gerlariiek etxen utzi esposaren amodioa». Baiña, orrezaz gaiñera, Eliz-urtearen barruan, ba-dau bertsolariak gairik naiko kristau-misterioetan: Kristo'ren Jaiotza, Kristoren nekaldi ta eriotza, Kristo'ren illen artetik biztutea, Kristo'ren zeruratzea, gure artean jan-edariz egotea; Iabur, Kristo'ren ezkutuki gurenak. Eta Andra Maria? Zenbat gai zoragarri! Gure mendi ta zokoak Andra Mari'ren babespe gozoan dagoz; or Begoña, Arantzazu, Arrate, Izaskun, Estibalitz... Orreik goraldtu dabez gure bertsolariak, aspertu barik, bertso gartsu biziz iñolaz be.

a) *Gabon kantak*

Aldi ta alde guztietakoak, alkarren leian noski, Gabon jaiak olango kutsu apartekoz ospatzen saiatu dirala esan bear. Urteak urte, jai onein edertasuna ezta munduan erdoitu iñoiz, eta ezta erdoituko be ziurrik asko. Gurean, gaiñera, ba-dabe olako sorgin-ikutu berezia. Nok eztau ori nabari izan? Gabon ta Egubari-jaien zoramena lurbira osokoa ba'da be, Euskalerrian berarizko lillurapena dau, dudarik bage. Zoriona opa guztiok; eta Gau argitsu atan, lur illunpean sorgor egoanari zoriona ekarri eutson Mesias sarritan aginduak. Eta alkarri zori ona erakustea nai izaten dogu aldi ikugarri ori eldukeran; andik eta

emendik, urte barruan bananduta egonak be gau eder ortarako
jaiotz-etxeke su-baztarrera jo oi dogu, biotz-dardar.

Ederto baiño edertoago erri-abestiak:

*«Ator, ator, mutu, elxera,
aaziña zimelak jaiera,
Gabon-gaba ospatuteko
aitaren ta araaren onduan.
Ikusko dok aita barreka,
ama be poz-atsegiftez.
Eragiok, mutil,
aurreko danbolin orri,
gaztaiñak erre artian,
gaztaiñak erre artian,
txipli-txapla, pun,
G-abon-gaba pozik
igaro daigun.ii*

Biotz-lokarriz zorionsu alkaturik, orra zelan igaro bear di-
tugun jaiok: alaitasun bardiñik ezean, alkar ta goi-maitasunezko
sutan biotzak murgil.

Poztasun orren sustraia ba-dakigu nundikoa dan: an Bel-
len'en dauko. Jainko Seme, aingeruak kantuz ta artzaiñak rxaloz
goratuak ekarria dogu. Beiñola tximistaz ta trumoi-otsez jatsi
oi zan Jainkoa; orain ez, Ume antzera datorkigu; gizadiaren
osabide dalarik, eriotz eta pekatutik gu askatzearren giza-estal-
giz apaindua, Gau-erdi ixillean lurrera yatorku. Agerpen zora-
garri au dala-ta, euskaldun bertsolariak kantari ibUliak doguz
gizaldiak zear; gure eliz-kantutegiak olako abestiz gaiñezka da-
goz. Noiztfeoa ete dogu, esaterako,

*«Oi Betleem!
a'a egun zure garaiak,
ni Betleem!
ongi boi du distirutzen;
iugandik eldu den argiak
hetetzen ditu bazter guztiak.
Oi Bctleem! Oi Betleem!?»*

Edo beste oneik: «Belen'en soitu zaigu Jainkoa», «Dan, dan,
dan», «Nun dago, amandrea?», «O, Eguberri gaua!», «Aurtxo
txiki», ta abar? Otzez dardar dago, seaska barruan: eguzkiak
iges, egiazkoa gau ontan jaio baita. Aren ñirñir eztiak eraka-

rrita, an-emendik, oíñez ta asto gain ara léiatzen dira guztiak. Gure eleizetan umetxoak, buztiñez ta egindako Jaiotz-idurien aurrean zutik, gozo baizen zoli abestu oi dabe:

*«Arre, arre, astotxoa,
arre, arre, kon kon.
Traka, traka, blxi, bixi,
bear dogu jon jon.yi*

Laster baten urriñak be arturik Belen'go argiaren barri, sortaldetiJk datoz iru errege Kristo'ri agur egin ta maite-erakutsiak opatzera.

*«Trafcatan-, trakatan, iru errege
Irakatan, irakatan Belen'era.
Belen'en jaiio (ian Jesus Aurtxoa
Irakatan, trakatan jaurestera.n*

*Belixorrek, tra.katan, zaldia beítza,
Kasparrek, trakatan, zaldi gorri;
trakaian, trakaian, Baldasak zarrak
zaldia, trakatan, txuri, txuri.»*

Ba ete da bertsofaririk Jesus Umearen kuma ertzean abestu ez dauanik? Nok ez ditu an ikusi, zoraturik, unai ta artzaiñak dantzari? Eta Umetxoaren irri-barre ezta ezpan-egalean pozdario? Euskaldunak beintzat, jazoera onez biotz-beraturik, beti gaurkotasunezko zoramen-miesan pentsapenaren albaiñuak eiorik, bertsorik lillurakorrenak gazpipertu dabez.

Gabon-kantetatik batzuk zar-zarrak dira, beste batzuk ez ainbeste, gizaldietan olango zar-barritze ta aldaketak izan dabean arren. Bertso zar kontuan maixu dogun M. Lekuona apaizak Gabon-kantak deritxon oraintsungo itzaldi baten, bertso zarrak al bait egokien aztert2eko asmuz, lau maillatan batu ebazan guztiak: 1) zaharrenak, *Gabon-agurrak* (diosalak); 2) barriagoak. *Misterio-kantak* (Marijesiak); 3) *anzain-kantak*, biliantziakoak, eta 4) barrien-barrienak, *gaurkoak*. Lau sail oneítaz bego emen zertxobait.

Lenengoak edo zarrenak, Gabon-agurrak dozuz, legezko kanta zarrak, Gabon bezperan —bai ta Donibanez ta Aratusteetan be— erriz erri jentea alaitzearren abestu eroiezan usariozko ko-

pla zarrak. Eta onetxek dira aspaldiko kantak, oso zarrak. «Orain bosteun urte ta geiagoko usai sendoa darioten koplak zaharrak», diño M. Lekuona'k. Gabonetan eta Urtebarriz kantatzen diranak izan arren, baiña, kantagai ez dabe Gabonetako ezkutapen edo misteriorik: «Gabonak diosaltzeko, Gabon-agurrak emateko kantatu oi dira». Etxerik etxe ibiltzen ziran kantari, gaur txistulariak lez antza; kantari egokion misterioa, aitatu doi-doi egiten eben asieran, gero agurtu kanta ta kanta etxeko jauna, etxeko imdrea, etxeko seme ta alabak, «bakoitzari loretxo bat edo beste egokitxo botarez».

Ona onako baten len-ahapaldia, txit errikoa ta antzez egiña:

*uAn aisearen epela!
airian dabil orbela...
Eixe ontako jande leialak
gabon Jainkuak diyela.»*

Amar-amabi gizaseme, koplari ta koro, izan oi ziran onela etxerik etxe, zorion-banatzaille ebiltzanak. Gaur Santa Agedaz lez, etxe baxotxean ez eben eskupeko jasote makala izaten, agurtze-truk eta ordaiñez.

Marijesiak edo misterio-kantak, oneitan agur orde, Gabonaldiko Misterioak, Kristo'ren gizon-egitea, jaiotza, erregena ta abar kantatzen diralako. Bizkaia,n, eta Gernika aldean batez be, dabe euren koka-leku. Ez dabe ainbeste erri-kutsu ta mugaz bestaldeko *Noelak* dakarskuez gogora. Adi M. Lekuona'ri: «Marijesiak Misterioa kantatzen dute. Ez dira Koplak Zaharrak bezela. Misterio-egunez kanta oi diran agurrak soillik. Misterioa bera dute kanta-gai. Eta aundikiro gañera. Bederatzi egun erreskadan, egunero-egunero, mutil-aldra etxerik etxe, erriko atondo guztietan kantari, lenengo lau egunetan kanta-sail bat bere eresi bereziarekin; eta urrengo lau egunetan beste sailla, bere eresiz ura ere; eta azkeneko egunean, Gabon-egunean, irugarren sailla, eresirik ariñenean .. Eta orduan, sari-jasotzea. Sari ederra. Baita merezi ere. Bederatziurren ederragorik! Amabi bat mutiko aurpegi-gorri biribil, kalerik kale, baserririk baseiri, bat bakarrik ere utzi gabe, Jaunaren Jaiotzako berri ona

kantari... Ohore aunditzat artzen bait-da bixita ori etxe guztietan. Eta pozik etxeokak eta pozik mutiko bipillak».

Orrelako txangoetan, Abendu-azkeneruntz, kanta oi dabezan koplak bakoitxak puntu bi dauz geienik, eta ondoren amai-lelo edo estribillu bat, ia beti. Amai-lelo au arrotz-sundazkoa dozu, ta «María y José» sarri darabillezalako, *Marijesi* deritxoe. Bada bez. koplazalari begitu ezker, erderakada ederrak be; baiña ori ezta ezer poesi oneik barnean daben edertasuna ezaintzeko. Auzi onetan neureak dagidaz M. Lekuona'ren eritxi ta itzok: «Beti uste izan det koplak oietako poesi-pitxiak biotz barruan eragiten diguten pilpira, erderakadak belarrietan ematen diguten miña baiño askotaz ere geiagotzat euki ta ixtimatu bear degula. Eta berdin poesi ez danean ere, itz lauaren «argitasuna», beste zenbait «garbitasun» baiño geiagotzat euki ta ixtimatu bear degula. Mariajesiak erderakada aretan, oitura eder-eder bat ekarri digute, oraín irureun, lareun urtetik asita gaur arteraño. Oitura eder bat, oitura euskaldun-euskaldun bat. Poesi-pitxiak eta guzti bere baitatik aldiz-aldiz dariozkian oitura benegarri. itzal aundiko bat. Ez degu zergatik muzin egiñik olako oitura jator bati, erderakada batzuek dituala ta beste gabe».

Erderazko itzak, estribillu antzera, abesti baten sartzeko ckandua asko zabaldua izan da gure artean, beste izkuntzetan lez nunbait. Zertarako? Ez dakigu; baiña orrela egin oi da. Gogora arako Sor Ines, euskaldun odoleko mexikotar emakume olerkaria: erderaz jardun arren, noizka euskerazko bertsoak sartzen ebazan bere ahapaldietan,

Gabon-misteri oneik iru erakoak dira noski: pozezkoak. atsekabezkoak eta aintzazkoak. Pozezkoetan, Belen'go estalpean daukagun Kristo ori nor dan adierazten da. Eguzki jainkotiarra gau-erdian etorri yaku mundura; irutasunean bigarren nortasuna dana giza-jantzitan agertu yaku Belen'en. Eta bertsolaria pozez bala-bala:

*uAu dala jaiio, jaiio,
au dala jaiotzia;
semia jaiio ta be,
ama da dontzellia.»*

Mari'k besoetan dauko argitara emon dauan Kristo altsua; arrats oztiña iduri, irri-lore guria dagiri jaiorearen ezpan-ertzean. Pozkario! Pozkario! Astoa ta idia, or aldamenean, Aurtxoaren soin-atalak arnasaz berotzeko. Josepe be ezkerretik, poz-tutubio. Mari'k begitarte eztiz dirautso:

«—Josepe, ?er ordu da?
—Maria, gaberdiñan;
zeruko l.a.r ederra
laster oogu pari-an.n

Egunak gaua lez, pozak atsekabea bidean. Kantu-sail oneitan beste batzuk illun-antza dakarre: itzak illak, tristeak, eta eresia be ituna, naibagetsua. Josepe ta Mari etxerik etxe dabiltz urduri, jaiotcko dan Seiñarentzat aterpe billa; an eta emen atreak jo daxoez. Baiña iñok zabaltzen? Gizonak leiorea nekez dira agertzen, eta ate-otsari erantzun: «Nor da ordu onetan geure atiak joten?» Ta, azkenez, uriaren azkeneko etxetxu zar batera bialtzen dabez, abereak ezik iñor ez dauan lekura. Jaio da Jesus. Eta olerkariak:

«Seirla biliosik dago
hir otzaren ganian;
Arp.ea, beleuniko
nc^arrez av, urrián.n

Irugarren saillekoak, ostera, danak doguz aintzazkoak: eresia ta itzak. Artzaiñak, izan be, poz-ikotika aratu ziran; an, Belen'en aurkitu eben Jesus Jainkoa; gau otza ta iñestasia izan arren, eguzki argia. Batek, andik aldentzean, onela iragarten bere atsegiña:

«—Beleren'go vriñan
Crñbon gábaren erdiñan
Ama Birjiñia topadu neban
kotsolaziño andiñan.

A7ken-leloa: Bai Belen'en eta ba-rt Belen'en
jaic da Jesus N&zarent»

Bizkai'ko Marijesiak eta mugaz andiko Noelak garai baten eta alkarregaz sortuak dirala esan gengike; bai ta sarri «buko-

lika-zati politak» baiño ez diran artzain-kanta edo billantzikoak be. Lekuona'k onela: «Marijesi ta billantziko, ba'litezke elkarrekin batean sortu izanak. Bañan mamia oso elkarregandik bes-telakoa bait-dute. Marijesi-noelak elizakoiak —kalean kantatzen diran arren, elizakoiak benetan—; eta billantzikoak elizan ere kantatu izan diran arren, kalekoak, oso kalekoak». Alan be, nire ustetan, Bizkaia'n beintzat, artzainkanta orreik geienez eleizetan kantetako egiñak izan dira eta eleizan kantatu izan dabez. Emen aurkitzen diran paper zarretatik ori atara daikegu beiniñ-bein.

Oneik, koplak zarrak baiño barriago doguz, baiña ez tira iñundik be gaur goizekoak. M. Lekuona'k XVIII gizaldi-asierako bat damosku bere itzaldian, Laurgain'go ganbara baten aurkítua. Ba-dot nik beste bat, oso polita, 1755'garren urtekoa, zeaztasun oneik idazterakoan begi aurrean dodana; urte orretan Kristo'ren Jaiotzako maitiñetan Bilbao'ko prantziskotarren komentuan abestuteko egiña da, Aita Martin Oarabeitia'k, ango organu-jotzailleak musikan ipiñia. Artzain kanta onek, sarrera lez, asiera-lelo bi ditu ta gero puntu biko zortzi koplak, 9 ta 8. Gernika aldeko Marijesien antza dauen arren, gipuzkeraz egiñak dagoz. Lau abotsetarako ta bioliñakin abestuteko da. Ona asierako leloaren iru ahapaldi:

*«Nal duen ezkeru Sein ederrak
Artzaien trajeati etorri,
Kanta dezagun, ortzai onak,
Tonadilla eder ori.
—Erdi, erdi, ene lagunak
Quazen, guazen Belen'era.
Izar eder bat dago an eta,
Utzi dezagun nagia...
—Aurraren bada konsolatzeko
Biolñak ditugu ekarri;
Aren soñuan kanta dezagun
Tonadilla eder ori.»*

Abesbatzak:

Urrengo zortzi koplak, kora ta bakar, ralde bitan lez abesten díra. Gisa onetan edo:

*Batzuk: aZentko Errege gaur yaio zaiku
Portale triste batean;*

Beste batzuk: —Zeruko Errege... fbarrtroj
Batzuk: *Humillik eta otzak illik*
Lasto utsaren gañean.
Eeste batzuk: —Humillik eta otzak... (*barriro*).

Gero bertsolariak idia ta astoa dakus, euren Jabea ezaguturik, Ari esker ona erakutsi naiean. Munduk, ostera, —ai, mundua!— naikoa zabar ta arreta barik itxi dau zeruko Lore zoragarri ori. Inguruko artzaiñak ara jo dabe iskanbilka, Seiña go-
 retsi ta Ama dedutzera.

«—Zer nai dezute, artzai onak,
 Portale vobre onetan?
 Noren billa zabilzate
 Gaubaren ordu onetan?
 —Aingeruak esan digute
 Or, or goian basoan,
 Gure Mesias dagoala
 Birjiña Avtaren besoan.»

Iru errege aztiak datoz ondoren; erregeen Erregea nai dabe auzpez gurtu, daukezan bezuzarik baliotsuenak Berari eskiniñirik.

«*Erregeak eldu dira*
Urrea ta mirrarekin,
InUensua ere ba-dakarte,
Adoratzeko bcrekin.»

Kopla ta musika, lan atsegiña nunbait. Bertsoak, lirain ta legun, badabe ordukotasunaren czti duiña; musikak, barriz, dardara giarrezko eragin bizia

Arlo onen barrena geiago atximurtuz, oraindiño ba-ditugu Bizkaia'n Gabon kantarik asko, ain zarrak ez ba'dira be, gizaldi batzuk dirala idatziak. «Gaboneko Kantia Santiago'ren elea nausijan kantauko dana Bilbo'ko uri linargijan 1832'garren ur-tian» da oneitariko bat, Bilboon, Eusebio Larumbeen sillute-gijnn argitara emona. Norenak ete dira kopla oneik? Bizenta Mogel'ek (Azkoiti 1782, Bilbao 1854), *Ipui onak* landa, zeinbat bertso bizkaieraz artolatu ebazala esan oi dogu, batez be *Gábon-kantak*. Jesus'en Jaiotz inguruko kanta onein su-emoille Yose Paulo Ulibarri, Okendo'ko seme argia izan zan, antza, Aita

Lino Akesolo'ren eretxiz (*Zortzikote*, 1962). Baiña idatzi, ziu-
rrik asko, Bizenta Mogel'ek idatzi ebazan. Beste urte batzuetan
be emagiime ori izan zan Bilbao'ko eleizetan kanta oi ziran
Gabon-kanta entzutetsuen ontzaille; baiña, lotsorra zanez, ez
eban jarri nai bere izenik; 1819'garrenekoetan, alan be, V. M. B.
agiri da: Vizenta Mogel Basozabal, nunbait, bigarren abizena
bere senarrarenari dagokiola edo.

Dana dalarik, *Gaboneko kanta* onek lenen iru puntuko sa-
rrera bat dau, ta gero amabi zortziko txiki, iru puntuko pozga-
rri bat danen ostean berresanik. Euskera ulerterrez ta atse-
giñean dagoz; bertsoak esku leunez osotuak, ia rima bete-
betean. Ona sarrerea:

*uZeruba dago argí,
ez dago lañorik,
soñu gozgarrijak
alde gustietatik;
ez dogu guk bere
biar naibagerik.»*

Zerutik yatorku bake-ekarlea. Ta guk zer esan giñaike ez-
pada bakea? Baiña orduan be ba-zan matxin ta arrabotsa, eus-
kal lur bazterretan. Bertsolari emakumeak bakea ikusi nai dau,
untze goriz josia, bai etxean bai auzokoakaz. Ori opa dau kan-
tagai, batez be Gabon-aldi zoragarri onetan; ez bedi esamesik
errictan, ez gorrotorik iñortxoren biotzean. Gudatik, ostera,
Kristok aldendu gaizala.

*«Guzttok bat-egiñik
deiogun eskatu
guda edo gerratik
guizala aldendu;
ta zabatdu dedilla
erreñu onetan
Ze.ruko iruntz ederra
bazter guztietan.»*

Oraindik be, abesti zar samur arein oiartzuna entzuten ga-
gozala begitantzen yaku, urtez urte geuganaiño eldurik. Errian
eskale kantari ta eleizan biotz-soiñulari, nainun aroari berea
emon naiean. Belen'go arkaizpeko argi xeak, izan be, olako sis-

tada beroa erantsi oi dautso gure izamenari. Ta gero, kantaxi gabiltz goiz ta arrats, barnean daroagun zeru-galea iñolaz be ezin gorderik.

Gure artxibu ta paper zarrak zeatz-meatz aratuko ba'genduz, neke andi barik, nik uste, olako kanta-sorta ederrik aurkituko geunke oindiño. Ba-da Aita Arana'k *Artzai-operatxoa* deritxon Azkoiti'ko Gabon-kanta mordo bat, *Gabonsariak* noski. Ez dakigu ziur nok egiñak diran, baiña lenengoz, 1762'an, argitaratu ziran, Azkoiti beratako Miserikordia etxeko irarkolan antza. Orrein egille dudazko Luisa Miserikordiakoak onela diño liburuaren itzaurrean: «Igazko Gabonetan ekusi nituan gure etxean makiña bat Gabon-kanta inprimitu: batzuek Bilbao'koak zirala, besteak Madril'koak, Kariz'koak eta eztakit nun ain urrutietako batzuek; ta, «adios» nun berealaje gogoak eman zidan: «Zer! Beste iñun diran Eleizeak inprimerazotzen ditue, ateratzen dituen kantaak (azkenik, Bilbao'ko San Praisku'ko Praile gaiotearaño), ta gure Azkoitiko Eliza ederrean kantatzen diranak, illunpean gelditu bear debe? Nundik nora? Ez debe beste erdera mordollosko abek ainbat merezi? Ez bada; Jaungokoak nai badeu, ta datorren urtean bizi banaiz, soñean daramadan gona au salduko badet ere, inprimitu bearko debe, demutxoetan. Orra bada, esan da egin, nun inprimierazo ditudan aurten, gure Azkoiti'ko musika aingeruzkoak kantatuko dituan iru kantaaldia» (M. Lekuona, *Egan*, 1956, 5-6, 33 orr.).

Iturritik ura lez, emendik auxe atera bear: argitaraturiko Gabonkantarik asko zirala garai atan, «makiña bat». Bilbao'koak aitatzen daukuz, eta egin-egíñean be an San Prantzisko komentukoak atera oi ebezanak. Guk aitatu doguna ta geiago be izango ziran, ziur baiño ziurrago, ango prailleak irarkolaratuak. Nundik ete dira? Aiztuak ala ezereztuak? Eta beste eleizetan, Santiago'n esaterako, abestuten ebezanak? Bat edo bi bakarrik aldi zorigaiztokoaren atximurretik onez urtenak?

b) *Andra Mari euskal kantetan*

Gai ta gaitasuna, ona itz bi ertian noraezekoak ditugunak.

Gaia bear dogu zerbait osotu ta antolatzeko: gai barik ezin ezer egin. Eta gaia errez, leun ala margozkoa dan giño ta neurrian izan oi da geienean erti-lanaren edertasuna be. Gaitasuna, egiUe edo ertilariaren trebetasuna da; eta trebetasun au barik be ezin daiteke ganorazko lanik sor-azo. Zer bi onek batean morapillotu ezkeru, orduan bai lan gozo, argi, errezak dagiguz.

Gaietatik bat ederra, eun margozko gorritz diztiratua oparo ta biotzerdiragarria, zeruko geure Ama dogu. Euskaldunak beti izan dabe maite, txerarik samurrenaz beti begiratu izan dabe. Eta biotz-maitasun ori erakusteko, bere lur bazter guztiak, ibar ta mendi, Andra Mari'ren iduriz jantzi dauz. Ao-gozo Aita Emiliano'k bere *Andre Mari Euskalerriko mendietan* liburua idaztean: «Edonun jaioa zerala, Jainkoak eman dizun zeure sorterritik urrutira gabe, euskal mendirik jaikienetako bat agirian dezu... Berorrek zauzka, bear bada, kabi ta guzti, bere magal biguñean goxoro ezarrita, amak semetxoa oi duan antzera. Atsegin zaizu, noski, mendia. Atsegin, an; eguzkiak oparo eskeñi oi dizun muñ bero eztigarria .., edo ego-aize epel gozatsuaren ikutu leuna. Baña, atsegiñago oraindik, an,.gorenengo tontorrean, zuaitez inguraturik agiri zaizun baselizatxoa. Ta atsegiñago, batez ere, baseiizatxo orren barnetik, bere zai-to-kirik egokie.netik bezela, gizaldietan eta gizaldietan, mendeko erri guztien zai ta zai dagoan Andre Mari ederraren *Í,ena*» (*Andre Mari Euskalerriko mendietan*, 1951, Bilbao, 7 orr.).

Euskal erri bakotxak dau berea; ez baselizatxoa bakarrik, bai ta eleiz nagusi apaiña be. Or Bizkaia'k Artagan gaiñean Begoña, eguzkia baizen dizditsu; or Gipuzkoa'k Arantzazu, mendarte zoragarrian kokatua; or Araba'k Estibalitz, mendi-muiño jagian lerdetik; or Nafarroa'k Orreaga'ko Ama sortaldetik eta Uxue'koa sarkaldetik; or Zubero ta Lapurdi Andra Mari eskiñitako «kaperaz» zeru urdiña baizen lirain. Eta onein inguruan, izarbel lez, dabilzan txikiagoak? Danon edertasuna abestu izan dau euskaldun bertsolariak.

Biotzak dardar ta begiak negar-malkotan, zenbat bider bizkaitar onak auzpaztu izan diran Begoña'ko Amaren oiñetan! Eurrez ta ibaika biotzak an batzen ikusirik, bertsoiariak ots:

uJaungoika altsuak egin zinduzan
Zeru-lurraren Erregiñ:
O, zure oñetan Bizkaitar onak
Gavr zeinbat dogun atsegiñl

Itxas-gizonak ela lurtarrak,
Nekezale ta aberatiak
Zure oñetara gaur danak datoz
Opaten euren biotzak,t

Bizkaia'n ba-dira iru erri —Orduña, Ondarru ta Lekeitio— beintzat, Antigua'ko Amari eskiñitako eleiz nagusi apaiñak da-bezanak. Au idazterakoan esku artean daukat 'engo gizaldian eskuz aldaturiko paper bat; Inazio Allona, orduan Amoroto'n arimazain egoan apaiz iaunaren bertso-lana. Lekeitio'ko Antigua'ko Amari opatu eutsozan amabi zortziko txiki dakaz paper orrek: polito egiñak danak. Antigua'ko Ama da Lekeitiarren pozgarri, aregan uste ona izanik biat-ditu gaitz guztietarik ondo atera. Bertsolariak:

uLekeitio'ko plazan,
- bai ordu onian'—
alba-izar ederra
agertu ziñiaiu:
sarri ikitsi neban
elorri ederra,
neguba izan arren,
beti primabera.

Fedea daukagunok
esan bear dogu:
«Antigua'ko Ama
beti geugaz dogu;
ba.ñan Lekeilioarrak
zori onekuak
iños itxko ez ditu
Avia Antiguakuak.»

Durango'k bere eleiza ederra dauko Uribarri'ko Amari eskiñia; Berriz'ek berea dau Andikona'ko Ama, an tontor gaiñ zoragarrian:

«Andikona'ko Ama maitia,
Gure erriaren Erregiñla;
izan zakiguz orain ta beti
Gure hiotzen atsegiña.))

Bermeo'k an dauko bere txokoa, Almike (Alboniga), mendimagaletik itxasora begira; Ondarru'k be an dauko berea, erri-gaiñetxoan, Andra Mari'ren iduri maitekorra, «soiñeko ederrez apain jantzia», Jesus Umetxoa ezkerreko beluan gaiñean daukalarik. Aita Emiliano'k bere liburuan: «Egia erri bakoitzak maitasunik sutsuenaz goraldtu oi duala bere Ama Birjiña. Baña, eztet uste iñork gaizki artuko duanik, zeingeiagoka ortan, gure iritiz, txapeldun azaltzen zaingun erria, Ondarru dala, esaten ba'degu» (*Andre Mari Euskalerriko mendietan*, 154 orr.) Markiña'k antxe dau, Bizkai'ko muga barruan oraindik, Erdotza'ko bere Ama, zaindári gozoa.

Eta Urko, Akondia ta Knlamu bizkarreruntz egaz egiñik, an agiri yaku Arrate'ko Ama, eguzkiaren goiz-bidea baizen urre-apartsu. Beiñola Arizmendi'ko artzain gazteari Andra Maria agertu ta eleizatxo bat eregiteko eskatu eutsen. Nun, ostera? Agertu yakon Arrate gaiñean. Etziran danak eritxi batekoak. Ta azkenez, Arrate'rako bide-aldapan egitea erabagi eben, beingoan lanari eldu ta ekiñik. Gau batez, alan be, etxe-gaiak aienatu ziran. Nora, baiña? An egoan dana Arrate'ko zelaian. Ez ekien zer egin. Asper-gaitzak izan gure baserritarrak, eta barriro lengo lekura eratsi ebezan etxe-gaiak; bai ta, oraingoan, zar siñisgogor bi gabaz zaintzaille jarri be. Gaberdiko ozkarbitan. zer dakuse? Bei bi, zuria ta baltza, burtagan eta gazte lerdan bat etxe-gaiak burdiratzen; gero, akullua arturik, ba-joian beiak goirantza zirikatuz. Zaintzailleen ondotik igarotzean, onela kanta:

*«Alda, txuri ta belio!
Zelatan dagonarl
oeçink urten bekio;
makurka dagoanari
nker geldtu beio.yi*

Arrezkerotik, an dago Arrate'ko gaiñean, «Euskalerriko mendi bazterrik atscgingarrienetakoan», Eibar'ko Zaindari dan Andra Mari ezta. Oso antxiñakoa da, X'garren gizaldi ingurukoa nunbait; kanta zarietan *Amandrea* deitzen yako askotan. Bai gogotsu kantatzen dabela eibartarrak eta an batzen diran euskaldun fedetsu guztiak:

«Arrate'ko Ama!
Gure Zaindari onena!
Gure erri dana
Artu ia zaindu, Ama!»

Eta Arantzazu'ko Ama? Au ei da Euskalerrian, zeruko izaretan eguzkia lez, Andra Mari'ren iduri ta zain-tokietan gailen zoragarriena. Onela diño kanta zarrak:

*KArri-maillatan altuan dago
Birjiña Begoña'koa.
Alata bere altuagoan
Birjiña Arrate'koa.
Birjin danetan ederrena Zu,
Ama ArantzazWkoa.il*

Izan be, 1469'garren urtean elorri gaiñeko miraria agertzen emon zan ezkeru, zeruan aingeruak eta lurtean gizaldíak oro Aloña maídako elorriaren lorea ta errurik bageko Birjiña ederra kantagairik sakon ikugarrienak izan dira. Antxiñako jentil-aroa, Mari-Gaizto'rena itzali ta erromes-bide biurtu baitzan ango ingurua oso. «Aldakuntza aundia ezagutu zuan —diño Aita Mitxelena'k— gure erriak Birjiña agenutakoan. Ordurarte, nunai gorrotoa, ikusi-eziña, siñeskeria, jauntxokeria. Agertutakoan, pakeak egin, gorrotoak itzali, sorginkeriak uxatu eta uriak beren buruaz jabetu... Eta gizaldi bat baño len, gure kristautasuna gallur-gallurrera igo zan. Iru santu aundirekin igo, alegia: Loiola, Xabier, San Martin. Uraxen bai gure Kondairaren egunsentia! Bertsolariak du emen eskubidea, beste iñork baño len ongetorria emateko Erri guziaren izenean. Esan bai-díteke: kanta zarrai zor diegula geien-geienik Arantzazu'ko Amaren izena ta zabalkundea» (*Arantzazu, euskal poema*, 1949, Oñate, 31 orr.) Beraz, kanta deiogun guk Berari, Aloña'peko arkaitz artean auLki usain zerukoz betea daukanari:

*nAgtir, zeruen edertasuna,
Arrosa zuri gorria,
Apaindurien lore-bikalñez
Javngoiko berak jantzla,
Arantza artean arantza gabe
Arantzan gora jaikta!
Agur. Amatxo graziazkoa,
Grazi beraren jargoia!»*

Oindiño ba-ditugu Gipuzkoa aldean, bai lur barru bai itxasalde, makiña bat Andra Mari'ren eleiza eder ta jagi —Gatzaga'n Dorleta'koa, Azkoiti'n Urrategi'koa, Deba'n Itziar'koa, Zumaia'n Arritokieta'koa, Donosti'n Koru'koa, Irun'en Junkal'ekoa, Tolosa'n Izaskun'goa—, eta onei egiñiko bertso ta kanta biziak be pílloka doguz, gorago aitatu doguzanai azur ta mamin bape zorrik ez dautsoenak. Alan be, laburtasunaren obe-ustez, Izaskun'go Amari bere Bureskunde-egunean (1949'ko IX-II'an) opaturikoak aldatuko doguz bakarrik; Luis Jauregi apaizarenaK dira eurok. Izaskungo Ama Tolosa'ko Zaindari ta ogeitamaika erriena da, X'garren gizalditik edo, ango eleizatxoan gurtua. Tolosa'k beti maitatu dau Ama ori, ta Izaskun'go Andra Mari'k Uzturre'ko egalean agertu zan ezkerero, irribarrez zaindu izan dau Tolosa.

*nLtn, sutegi ta oletan,
soro, mendl, sukaldetan
otoitz blurtua lana
igotzen zan Zuregarta
la zure atsegiñ-poza
izan zan beti Tolosa.*

*Zazpi gizaldí luzetan
egun alai, gau beltzetan
izan zaitugu eguzki,
poz-illargi ta Izar ezti:
iñoiz ez gaituzu laga,
beti izan zaitugu Ama.*

*Tolosa berriak ere
zarrak ainbat zaitu maite;
argatik zizun buruan,
r.gun aundi ospatsuan,
urrezko koroia jarri
maitasun-ezaugarri.t*

Goazen orain, egoak pizkat iñarrosirik, Auñamendi aldera; an daukagu Ibañeta bizkarra ta Ibañeta azpian Orreaga, gaur be izai ta pago-tantai zangarrez bardin bageko. Erri txikia nunbait, Naparru ta Prantzi bitarteko mendi goienen oiñean etzana; entzute andikoa, zio bigaitik: Andra Mari'k bere jarleku «eder eta antxiñenetako bat» antxe daukalako lenen, eta

Karlomaiñ arroaren gudarozte izukorra euskaldunak antxe itxi ebelako beti-betiko zapalduta, gero. Zapaltze au VIII'garren gizaldian izan zan. Fta noz ta zelan agertua dogu ango Amaren iduria? Ez dogu, antza, gauza argirik; baiña, edeslari batzuen ustez, VHI'garren gizaldi erdi-ingururairio aurreratu bear litzake. Orduko euskaldunak, izan be, aitaturiko gudaldiaren garaipena Orreaga'ko Amaren babesari ezarri eutsoen. Beste batzuk ge-roagokoa dala diñoe.

Zurezko iduria da, burutik oiñetaraño ederti-arauz egiña. Garai atako esku-lanetan baliotsuenetarikoa, jakitunak diños-kuenez; zidarrezko oiñari gainean, aulki apain baten jesarrita dago, goitik bera soiñeko ederrez jantziriko Jesus Umea altzoan daukala. «Ama-Semeak irriabar goxoz alkarri begira daude —di-ño Aita Emiliano'k—. Umetxoak eskuia Amaren bular gainean poliki ta leunkiro jarrita dauka. Ezkerreko eskuan, berriz, sagar antzeko zer borobiltxo bat dagerkio». (Loc. c, 60 orr.) Iduri au, Karlomaiñ berak, inguru areitan il yakozan gudarien illobitzak Ibañeta'n jaso-erazotako baselizatxoan egon zala, uste dabe batzuk.

Gaur eleiz eder bat dauko, Naparrua'ko errege Santxo In-dartsuak eregia. Maite eban onek Andra Maria, ta maitasun orren ezaupidetzat eta bere menpekoak ain leiatsu opa ebena betetearren, bere gain artu eban arazo au, gaur an dakusgun eleiz ierden segailla iasorik. Eta antxe dagoz gaur, illobi ederrean, erregé orren gomutagarri ta azurrak, bai ta aren emaztearenak eta ondorengo beste errege batzuenak be. Antxe, ainbat eleiz-jantzi bikain, eta beste Jiburu askoren artean, Ebangeli-liburu bai, zidarrezko azalduna, Naparrú'ko erregeak zin-egin bear ebenetan erabillia. Antxe, beste zenbatu-ezin alako gauza eder.

Antxiñako gizaldietan guttiz ospe ta entzute andikoak ziran Orreaga'ko eleiz, lekaretxe ta ostatuak. Gaiñera Itali'tik, Prantzit'ik eta Alemani'tik Konpostela'ra erremes etozan askoren igarobide be auxe zan. Erromes, bidazti edo sandulari orreik barneixuri gozotan auzpaztu oi ziran Andra Mari'ren iduri aurrean, araño lagundu ebazalako eskerrak egiñik eta aurrerantzean be erromes-bidea onez amaitu arterairiñoko laguntza eskaturik. Onako bat ikusi eban, nunbait, 1619'garrenean, ango kanonigu ta nagusi-ondoko zan Juan Huarte'k, eleizako Andra Maria'ren

iduri aurrean eskari bero, ango Edesti-liburuan aoz ao ebiltzan
bertso oneik idatzi ebazanean:

*uAingiruen Erregiña
Orierraiga'n xarririk,
Aingiruen konpañian
Gloria guztiz beterik*

*Zu zarade ederrena
Kreaturen ertean,
Gloria ere andiago
Zeru eta lurrean.*

*Sandulariak ekusi du
Gozo andxz beterik,
Jlis. Jainkoak eman dio
Bene&ictio ederrik.v*

Mugaz andik be ezin aitzu Andra Mariak beretzat auke-
raturiko iru toki zoragarri: Sokorri, Aínhoa ta Lurde. Sokorri'ko
gaiñetik an dago lerden itxas-mendiak eta euskal arima zaintzen;
eta Aita Xabier'ek loxingaka abestu ta eskatzen dautso:

*uZeru lurren a.rtean Sokorri'n bailzauie,
Egiozu Jaunari otoílz gure alde,
Ausarki dugun beti bake eta jede.*

*Zuri daude Vrruña, Hendaia, Azkaine,
Biriatu, Ziburu, Pausu, Donibane.
Eskuai-Herriaren zain egon beraz errief*

*Peko etxe horiek zureak baitire,
Izan denetan ama, denetan andere,
Aiten Sua beiratz, dene gatik ere.ii*

Ukus *Kantikak*, Bayonne, 1948, 260 orr.)

Ainhoa'ko Ama Birjiña be ots andikoa. Arantzeko Amak an
dauko bere kapera, kapera xuria; nainoz, baiña batez be ger-
takari txarretan ara jo oi dabe inguruko laborariak, otoizlari ta
ustetsu. Obendun garean ezkeru, aratzeko diñosku Harrazpi
olerkariak urrengo ahapaldiotan:

*vGoazen airoski denak Axulai aldera.
Hara mendi galnean Amaren kavera!*

*Guretzai otoiñzean maiz han dago bera!
Goazen, goazen harekin ototlz egitera!*

*Ede.r da Maria'ren zeruan sartzea,
Xoragarri lurrean haren agertzea!
Lurde'n hautatu zuen tronutzat harpea,
Ainhoarren artean, aldiz, arantzea.
Axulai bizkarrean, dohatsu larraina
Maria'k bere oinez hmikltu duenal
Han jalgi zen bei-betan urik garbiena,
Beilariari gaitza ken diozokena.»*

(Ikus *Kantikak*, 262 orr.)

Eta Lurdes? Nor ezta Lurdes'ko **Amaren** oiñetan auzpez jarri? Euskaldunak egiaz, bere lur-mugan agertu zalako edo, maite dau biotzez; eta Aren arpera **zenbat** ostera egiña dan! **Harrazpi** olerkariak kantari:

*i'Ama, Eskualáunak egun
Zure oiñetan daude;
Egon ditezin fcdedun,
Otoi, egizu galde.*

*Bernadeta gazteari
Zinenean ageriu,
Lotu zinen otoiñzari
Eta ongl zeinatu.*

*Haur utnila, zure manuz,
Etorri zen ardura;
Du, lur idorra hunkttuz,
Jalgi-arazi ura.*

*Geroztik ur harek zenbat
Eri ez du sendatu?
Zenbat errebes orobat
. Ga'-'bidetik aldatu?'i*

Gizonak ba-dau barrenean naspilla ta ezin-egona; griñazko laiñoan igeri dagi itsumustu. Alan eta guzti be, eder eta gailleen Jainko-aurrean belaunak bf.'.rtzen dauazanean dogu. Bertsolariak orrela egin daroa, agur egite ori bertso gartsuetan erakutsiaz.

4. *Neska ta mutil zarrenák*

Ezkurretik artea lez, senditik yatorku lagunartea; ta biotiko olerkiari gizartekoa deritxagu. Poesi-era au, antxiña ta gaur, beti barria, modakoa literatura guztietan izan dan arren, orain sekula baiño modakoago dala esan gengike. Gizarteko gorabera, oitura ta jazokunak nok ez ditu abestu? Senar-emazteen bertsoak, morroi-ugazabenak, neska-mutillanak, kirolbertsoak, guda-mutillanak, kronika ta edesti-neurtitzak, dantzari ta itsuenak, eskaleenak, zer dira besterik? Aspaldiko *gestak* eta gure arteko ipuinelezarrak, ilketak eta mugetako atxillo ta izukaiai buruzko bertsoak, olakoxeak dira danak, gizartean gaia ta sustraia daben neurtitzak. Baiña, emen, zelai-barruti zabal oni ertzak arturik, banaka batzuk soilki aitatuکو doguz.

Esaera, kontakizun ta bertso, pil'oka dira gure ele zarrean neska-mutillai erantsiak. Mendez mende ez da iñolaz be gai erkiña izan, ondo eregutua baiño: beste erri-izkuntzetan ez beste gurean. Bertso.lariak berariz, gatz-ozpintsu beti, ederto jipoia astindu dautse neska-mutil zarrari; bizibide au ezta, nunbait, Jainkoak ipiña, eta ainbat egi biribildu ebazan Aita Martin Uriarte zeanuristarrak egoki iñoan:

*«Mutil ta neska zar
galfiez beti giñar.<a*

Ezkontza biren alkartea, baiña neska mutil bik alkar artu ta ezkontza egokia antolatu orduko, zenbat buruko min eta istillu! Biotza aidakor dozuta, ez da arritzekoa; gaiñera, betiko buztarpetu bear. Ortarako zer asko, konturik asko, iskiilimiñarik asko jazoten dira; ogi ta mai lenengo, ta bertatik obeagoaren billa; bata nai bestea epel lenengo, otz-muker gero, ta azkenez, agur!, maitemin alorta ondatu. Jenteak ba-dau zer-esana, illabeteetako iakia. Bertsolariak be zur, mirua baizen begi-zoli ta uren gaiñeko bitsean. Nok ez ditu olango neurtitzen batzuk eiotu? Txirrita'k, gisa ortakoetan maixu, bertso zorrotzak dauz. Eta Enbeita'k, Muxika'ko urretxindor sotillak? Atsegin yako, baf, ezetarako gartora barik errietan bakar geratzen diran muti! zarrak darda gaiñean erabiltea, neska zarren ainbesteko arerio agertu ezta be.

Xenpelar'ek zagai damosku mutil zarraren gizantza. Errez da gaztetan ezkondu barik gelditzea, baiña gero, geroko aje ta akiakuilluak: «belaunak okertu», «pausoa baldartu», «bizkarra gaillurtu», «zentzuna agortu», «azala zimurtu», «biguna elkortu», «oituraz zabartu», «bizitzen aspertu» ta olangoak. «Mutilzarren bizitza» deritxonean onako bat agertzen da, anaiak mendian eukona, lan gogorrari eratsia, koñatak arrotz antzera «ua emendik» sarri diñotsona; dagian lana ezta eskertua, janari otza geienez, begiratuaren edukoa. Ezin ezetan be adoretu mutil-zarraren biotz-barrena; lenago erromerian, neskatzak lagun, amaika jirabira egin eban panparroikerian; orain, pipa ortz-ertzean, erdi-etsirik sutondoan.

*ItOrain galdu naiz ederki
 merezi baiño obeki;
 neskatzak ere ez dirate nai
 aterik irلكي;
 gazteagaak izaki
 ba-dute milla aitzaki.
 Istimazio txarra nola dan
 mutil zarrak daki,yt*

Ezkontza galdutakoenak be ezтира eskas-urri. Olakoetan, nok ez daki?, alkar beztu ta lotsa gorrian izterañoakoak egin daroez. Lenago eurak be iñoiz bertsolari izan oi ziran; baiña orrenbesteko doerik ez ebenean, bertsolari bategana jorik, oneri azaltzen eutsoezan euren triki-miki guztiak, onek bertsoan jarri ta argitara emon egiazan. Ona bertso-paper askoren sorburua. Oneik etxerik etxe zabaldu ta zer jazoten zan jakifnik, etxekoan artean sarri zelako eztabaida ta ezin-ikusiak, sortzen ziran! Onelako asko dirala esan dot; eta, ain zuzen be, *Auspoa* liburu-sortaren zuzendari dan Aita Zabala'k oraintxe urte bi argitara eban olako mordo bat, ezkontza galdutako bertsoakaz osoturiko sorta bat, gai orreri buruzko beste antzeko asko burutu leikezala itzaurrean esanaz. Geienetan, izen ta urte barik, argitaltzen ziran.

Mutil zintzo bat ba-ebillen ezkontzeko asmuz, baiña «andregai ustezkoak», ustel urtenik, azurretarano sartu eutson bil-durra: «gezur truke, bada, bete nai eban patrikara». Ezkontz-egiunea osotzerakoan, neskeak gura ebazan mutillaren diru, bei,

asto ta abarrak. Asarratu, ezkontza ausi ta neskea or dabil gero, aizeak arturik, bereak eta bost esaten.

*«Esaten omen din
mtzaz milla tatxa,
lenago bajua ba'naiz
ez nau gora altxa,
ez naizela ederra,
txikia eta beltza,
ez dagoala neretzat
alatco neskatxa.»*

Amaitzeko, beti dator aolku beren-beregikoa. Neskarak eztabe lotsarik bekokian, miña zoli ezkontza aurretik, zer atera dagon bitartean; olangoak, baiña, ziria sartzen uste-uste bagarik. Arretaz eraso.

*uBegira ezazute.
mirabe gazteuk,
zer dakarren ezkontza
maleziz asteak:
lotsa eman lezake
orrela ikusteak:
eskarmenta zailzte
gurekin besteak.n*

Neskato-mutiko ariñegi ezkontza auzian sartu nairik dabil-tzanenak be ba-dira beste batzuk. Oneik ez dira obeak, eta bertsolariak —zegaitik ez?— txibita biurriz dardarazten dabez euron arinkeriak. Graziano Anduaga Gezaltza'ko aitona bikain :

*KTxorakeririk ondutzen ditu
neskatxa gazte bikaiñak;
sasola berez etorri arle
soseguz bizi eziñak.
Neskatlletan artu nai die
neska eldueiri gaiñak.
Kolarezkuak jarriagcUik
azkazal eta ezpaifak,
trien baiño len galtzen ba'ditu
matralletan krabeliñak,
alperrik dira çiero ondoren
egindako alegiñak.*

*Lendik maitale ziran lagunak
jasotzen die polaiñak:
usie baiño len zapaltzen ditu
neskazarren usaiñak.»*

(Aitonaren Uza, 1961, Zarautz, 119 orr.)

Ezin emen, ezelan be, ixillik igaro urtez abaildutako neskak egin darcezan gazte-itxura politak. Jantzi-motz, papar zabal, beso-agiri, ule-moztu ta kokot apaindu ikusi ebazan beiñola Abarrategi bertsolariak.

*Neska zar bi zebiltzan
juan dan jaiean,
bereu kokota apaindu eta
gazte'u nalean.*

*Atzelik eman arren
gazliaren antza,
arpegiakv azala dute
zimurra ta latza.*

*Neskatx oick artutzen
ba'dute senarrik,
oien iUiak salduta ez du
artuko moskorrik,yi
(Ikus Bertso Berri ta Kanta
zar, I, 60 orr.)*

5. Ameriketara doazanenak

Egiari berea zor. Kolon'ek amerikar iurraldeak zapaldu eba-zanetik —bear bada aurreragotik— arako dei eutsi-eziña nabari izan dau euskaldunak bere izatearen ezkutuenean. Ego-alderuntz millaka ta millaka dira euskn! abizenak, Laterri areitako nagusi ta buruetan be bai sarri askotaii. Eta Ipar-aldera? Ango euska! a>;tzaiñakj len eta orain, entzute sndiko. Zerk eraginda aldatu ete ziran lurraldez? Ospeak ala diru-goseak? Gaurko pelotariak, zek aratu ditu? Dana dala, urre-mordo galantak ziskuratu ta beribil margotsukaz etxeratu diranak asko ezagutu doguz, «in-diano» esaten dautsegula, Eta onek beste askoren biotzean kili-kili guria egin. Sarri, alan be, gora geiegi emoten dautsegu; zarrak iñoen : «an nai emen txakurrak, ortosik», «nun-nai txoriak

bere mokoz jan bear». Ameriketan be ezta dirua zerutik euria lez jausitakoa, nobere izerdiz egiña baiño.

*«Irabaziak badire, bainan lanean bear da ari;
Niork deus ere ez du emaiten geldirik dagoenari.
Egun batean irabaz eta berlzean ostatuari,
Ez dadukagu agur eginik gisa horan Europari.»*

kantaizen dau M. Hirigoyen'ek andik bialduriko olerki baten. Nainun doguz buru-auste ta elorrioak; ango lurraldeetan urrea naiz zidarra eskukadaka lez batzen dala esanagaitik, eta gure anai euskaldunak dirua parra-parra egiteko iñoizka era galantak izan arren, tirri-tarra bizi izan diranak edo bizi diranak ez doguz gitxi. Artzaiñen artean ba-dira berrogetaz urteak mendian emonak diru pizkat aurreratu ta sorterrira patxadaz etorri al izateko. Nik sarri esan dodana: aldi guzti ori Oiz gaiñean artzain emon izan ba'lebe, askotaz aberatsago ziralta gaur, ziuurrik asko; orrenbeste buru-ukapen eta laztasunen truke, an aiña ezkur emen be egin zeikean. Gaur, zorionez, Bizkai ta Gipuzkoa'tik beintzat, iengo aidean gitxi doia Ameriketara; Lapurdi'tik, Baxenabarra'tik eta Zuberoa'tik griña geiago dabe arako. Euskal bizitzari kalte andia dakartso onek.

Bertsolariak ez dabilkiguz zabar Ameriketara osterea egin daben artzai apni naiz «indiano» lerdenaren gorabera ta zeatzasunak argi jarten. Eurak be bein baiñe sarriago an izan dira. Iparra-girre, euskal 'oohemi andia, Montebideo'n bizi zalarik, bere kitarra zarra lagun zeinbat bertso abestu ebazan. Pardeiean onek ez eban diru askorik erabilli, bizitz-guenean sorterrirako azkenitzulia be iñok ordaindu bearrean aurkitu zalako. An bizi izan zan Pelio Mari Otaño, Argentina'ko lurraideetan; ondo samar ebillen, baiña lurbira ontan zorion beterik ezin dogu egungo izan.

*«Kapea artuti'n det
egumen bi aldiz.
Baita pasiature
nai danean zatdiz.
.lan edanan paltik ez,
osasuna berriz..
A zer blzimodua
Donostian balltz!»*

Errimiñak jota egoan gaixoa; zimiko orrek jaten eutsozan barren-azpiak. Artzain ebillen ango panpetan, baiña jαιο zan lur-zoko maitean dardar biotza; baserri bat itxirik joan zan ara, itzal andiko intxaurra atarian eukon bere jaiotetxea itxirik; orain ba-dauka beste etxe bat intxaur a gogoratzen dautson onbu mardul ondoan dauala.

*«Denak ulzi ta etorri nintzan,
lur au ifcusi nai nuan!
Aritz tantaiak, pago lerdenak,
nola ez izan goguan!
Orain artzaintzan Ameriketan,
arrantxo baten onduan,
eguna igaro larrian efa
jiratzen naizen orduan,
nere begiak gozatzen. dira
aldameneko onbuan.»*

Eremu zabal, zugatz, mendi ta errekak palta diran zelai areitan míñez beteten yako barrena; eta, onbu zar aren zañetan jesarririk, biotz-miña arindu nai dau bere baserriko intxaur tantaia gomutara ekarriaz. Zelako sentipena darioen urrengo bertsuok!

*tiTxabol ondoko onbu lazтана,
maitatzen zaitut gogotik
eta biyotza erdibitzen zait
joatian zure ondotik,
nere burura ekartzen dezun
oroimen gozuagatik,
Zure itxura nai det ikusi,
ez dizut eskatzen fruitik:
ni emen bizi naizen artian,
arren, egon zaite zutikl-fí*

*Nere lagunik maitatuena,
onbu lazтана, zu zera;
argatik nator zure kolkora
ni malkuak ixurtzera,
iduriturik naramazula
atariko intxaurpera...
Beti izango zaitut goguan;
bañan joan nai del osterá,*

*Euskal-iurreko zuaítze artan
vere ezurak uzlera.vi
(Alkar, Donosti, 1930, 71 orr.1*

Iparragirre ta Otaño min bardiñak jota, bizitzaren azkene-
rantza batez be. Iparragirre euskal lurtean il zan; Otaño'k be
orrela gura eban. Baiña etzan alan Jaungoikoarena, eta Euskal-
erritik urrun, an banbu ondoan, Argentina'ko lurak estaltzen
ditu gure bertsolari azkarraren azurak. Euskal lurrari kantaka
ta Zizurkil'era begira emon eban, nunbait, bere azken arnasa.
Beste askok be ez ete?

Tolosa'ko seme Emeteri Arrese be Ameriketean izan zan. Be-
reai agur egiterakoan, «oroi ederren kabi gozoa» etorkion go-
gora; murmur-ots itxas-gain, kaoiak aruntz-onunzka, ta noral-
derik eztauan antxeta baizen larri dabilkio biotza, artega bere
gogoa.

*vEga leikorraz nere dardar-txorria
sorterriaren kolkora doa anitz urduri,
eta itxas-onlzi au, ke-moidoil usu
beltza botaka biziro zorrotz aurrera beft»*

Azkenez, mendatz bat be, nai arren, ezin, ezin ikusi! Begie-
tan, ai! gau illunaren illun sakona dau; oroitzez, baiña, argi
gogoa. Agur, txoko maite !... Geroztik, Kuba'ko ugarte baten
negar-tanto ixurika: bereak urrin, mutilzar soil, len idurimen-
txingar zolitan burua, orain txingarrik ez ta iduriak auts bi-
urtuta. Erle zuri leiarri batek ikutu eutson barrena; ikutze arek
ondoren ekarrena, ai!, listor baítzaren eztena !

*»Aldeqin bear ez nun garaiav
utzirik babes-tokia
torigaiztoan urrundu nítzan...
Emengo nere aldia
sarain, lat.z, izugarria.'...n*

Kezkaren mende an zalarik, ama il yakon bere galdezka;
amaren begiak itxi ziran betiko ta olerkariarenak malkoz estali;
ortan, bere antzera zurbil, bera baizen estu txantxangorri bat
dakus adar billuzi baten gaiñean txioka, negarrez bere kabí
soillaren aldamenean.

v.Txori gaxoa: etzaite ixildu,
bíyok erabat jardun galtean;
zu bezelaxe larri nago-ta
nere barrenpo negu beltzean
zorigaitzaren txanixangorñak
negar dario arantz arteanh)

F.z, etzan ixildu. Bere bititza zear, an ta emen, etenbako txio-soiñuan abestu eban ama illaren laztan iduri gozoa, geroaren larria, bakar izatearen nekea, gizarte aularen eziña, otoitz samurraren ezta.

Enbeita'tar Imanol, «Garbi-nai» izengoitiz edozenbat olerki idatzi euskuzana be Ameriketara egona zan. Argentina'ko Hale'tik 1915'ko urrillaren 6'an bere anai Kepa'ri bialdutakoan ondo edestu euskun ango euskaldunen bizimodua. Neskatz baten billa ebillen ezkontzeko asmuz, baiña angoak, eusko-kumak izan da be, arrotz antza eben, ez ekien euskeraz; bere biotzak eztau nai erbesteko usorik, euskaldun ego-nabar, papar-zuri bat baiño.

uEztau lorarik, ez baratzarik,
euskotar veskatxak baxen ederrik,
euren begi íuen, zaval-urdiñak,
eta matrailla gorri gordiñak,
lili zuriak;
diz-diz eraiten dautse eguzkiak
ta gure erriko udabarriak.a

Zio orrez bera iaster etxeratuko da ta enren idoro ematzsgai zintzoa. Gaur an be ez dago lengo konturik, eta eztau sakela urrez gonburu ekarriko; bíotza bai, osterara, len baizen zindo ta garbi.

«Gaur indijetan eztok crnetan
urrezko lorarik zelaf-landetan.
Emen be, Kepa, ortxe lez dabiz
txabur gosiak ortos-ortosik'...
Eta katurik
'ukainka-lokiz eztauz loiurik'.
Gaur etxauk emen lengo konturik»

diño piperintsu. Au be errimiñak joa ziur asko, ta txoriak abestuteko ez ei dau bear txindi-usaiñik. Amaikatxuk egin oi dau: dana estali, ezta ager.

Pello Errota Asteasu'ko bertsolari ospe andikoa be Ameriketari izan zan, ango euskaldimak deituta diñoenez. Ez dakigu zenbat denbora egin eban itxasoz andik; dana dala, bertsolari zan eta bertsolariak beti be diruz urri, tabakorako be ozta-ozta ebal. Gaztelu bertjolariak onela botatzen dautso:

*nAmerika'ra asko dijoaz
banaka edo biñaka.
Okupazio gabetandikan
bai omen daude miUaka
Pe.V.o au ere urte batzutan
an ibilia jiraka.
Tabokoñkan elzucnean,
pipa ulsari t.iraka.»*

Beste bertsolari batek, gaiñera, Txanton Pipirri antzera ikusi eban, tabernarik taberna kantari, iñoren pentsura. Barriro euskalerriratu zanean, ez ekarren askoren antzeko «indianu» taurik. Irakur:

*'iPcto Errota sartu gabeko
taherna edo fondikan,
agian izan diteke baña
extet pentsatzen damikan.
Ameriketari izan ziñala
gogoan det oraindikan,
diru gutxiko «indianoan
elorri ziñan andikan.»*

Au bertsolari zan eta, orduko bertsolariak batez be, olango ekanduak ebezan: ardangela-zuloko zirkin-zarkunezko bizitza eder yaken, ta napar gorriak goiak artu ezker, etorri oparoagoa ei da. Biziera ontan, orraitino, diru moltso andirik ezin ezelan be sakeieratu. Eta naiz oraintsu emendik joandakoak izan, naiz euskal odoletiko an jaioak, bide ortatik laban dagienak ez dira gitxi. Beraz, Pello Errota «indianu» dotore egiñik etorri ez ba'yakun be, ezta bape arritzekon: errukigarri, bai, oster.

6. *Trikitixak*

Ona beste sail bat, guztiz aparta, oraindik ondo aztertu bagea. Ez dira oneik, trikiti-bertsuok, gureak, lengo gizaldiaren

*

-

' -

.

.

• ' .

'

*

-

IV ZATIA

GURE BERTSOLARIAK

*uGure bertsolariak beste eáonorjc baiño
geiago egiten dute Euskeraren alde. Zilla-
rrezfco izkiz idatzíak euki bear genituzke
bertsolari guztlen izenak.n*

M. LEKVONA

zonak eta emakumeak ere? A gaixoa!, etxeko-andre ura, olen-
tzerolariak etorri direlarik ezpadu esku zabala erakusten arrau-
tzak eta lukainkak gogo onez emanik; arpegia gorrituko diote,
baita ere apezari ta alkateari erriko goraberetan esku estua ager-
tzen ba'dute. Itz-gai auek denak neurtu egiten ditu bertso-
tara gure bordariak, batzuetan zaarrak oroituz, bestetan berriak as-
matuz, lenagokcen antzerakuak. Eta eresi ori, gogo-argipen ori
laburra oi baita beti, erria adibideetan neuxri batera dabillalari
nonnai. Iya esango nuke umien antzekoa dala; jostallu txiki
batez poztutzen da».

Jainkoak, mundua sortzean, bere jakituria, maitasuna ta
ederraren ezaugarria erein eban bertan; euskal lur zoragarri on-
tan batez be, esan gengike. Euskaldunak, bertoiñ bizi ta lan,
bere ederraren, bere ásmoen eta bere adimen zorrotzaren azta-
rrenak bertotik artu ta bertan itxirik, etenbako arnasaize ira-
zekian diardu. Eta. jakiña, bere kantuen arnasa ingurutlk artua
da, an zein emen bardíña. Entzun oraíndik aita Donosti'ri.
«Eusk.3l eresiak —diño— baserritar euskalduna bizi den ingurua
gogoratzen digu. Beste izaterik ez da. Gizonen gogua bere bizi-
tokiak edo ikuskizunak eratzen du-ta. Euskal kantetan agertzen
zaizkigu gure sagastiak belardi orlegiaz ingurutuak; Laburdi'-
ko ikuskizuna bezela gozo-gozoa, baketsua da. Bizkai'koa az-
kartxoagoa oi da; a!, nola arritu zituen errusitar dantzariak
orain bi edo iru urte diraña ezpatadantza sendo arek! Goi-
Naparreko ibarretan gertatzen dan bezelaxe, gaztañadi ta paga-
diak marruskatu dituen erreka garbiaren okerruneak agertzen
dira ere. Baña euskal eresia mota askoetakoa izan arren, beti
berbera da. Emen, Laburdi'n bezeñakoa; naiz Bizkaia-n, naiz
Zuberoa'n; Goi-Naparra'n bezela, Be-Naparra'n ere; beti ber-
bera da. Euskal gogua guztietan orobat eta berdín: bere arnasa
ere ala izan bear». (*Itzaldiak*, Bigarren saila, Donosti, 1923,
11 orr.)

1. *Euskal bertso-laría*

Iñok guri bertso-zaletasuna ukatuko ba'leusku, guzur biri-
biJJa liñoke, ez lítzake siñisgarri. Zoaz erri-jai batera ta ikusi;

bertsolari izpirik an ba'da, naíz-ta kaskarra, arek agoa zabaldu aia or erritar guztiak, milla nai bost miLLa, begi-erne, belarri-zoli, ezpan-irritsu. Ezta ízlaririk, bikaiñenen artean be, entzuleak orrek bestean biotz-larritzen dituanik. Len, orain ta gero, nainoz, iñundiko garaipenak lortu ta sekulako esku-zartak jaritxi izan dabez.

Gure zana ta odola dan bertsolaria zer dan, beingo baten esatca, ezta arazo erreza, dan bestean beintzat adierazi eziña dof^u-ta. Ona zcr iñoan beiñola bertsolari trebeenetarikoa dogun Bas rri'k: «Bertsobria! Bertsolaria! Zer da bertsolaria,? Eusko oitura zar bat, irakurle, ta danetan ederren bikaiñena, aídean gero. Nik ala uste». Beraz, bertsolaritza ez dogu besterik geure ekandu zar bat baiño. Euskal ekandu, oitura csatean, barriz, gauza asko aitzen emon nai doguz: dantza, aurretiku, txistu, abesti, dema, aari-joku, arri-jasotze, idi proba, aizkorajoko, estropada ta gaiñerako kirol-jolas guztiak. Bertsolaritza be orreita-koren bat ete? Bai, antza.

Oraingoan arrotz-jolasez josi yakuz inguruak. Arrisku anditan dagoz gure oiturak. Eurok zaindu ta ortarako bide-ertzak artzea euskalduntasunari dagokio. Gaztetan berariz barri-zale izan oi gara, aurretikoen izerdiak oro alperrikotzat etsirik. Jokabide arteza? Ez dot uste. Gizaldi bakotxak dau bere alderdi aintzagarria, garai artakoak bizi ta emona. Gaurko aurrerapen ikaragarriak, norenak ete ditugu? Enda bakotxak eta garai bakotxak ditu, bai, obari ta irabaziak, guk edozelan arbuiatu bear ez doguzanak. Guk, euskaldunok, garai ontan bizi gareanok zaindu ta are geiago kemendu daigun aurretiko asabak itxi euskuen euskal gogo ezilkorra ta orrela geure egikizuna bete dogu. Zano-dolean dakargun berezitasun au lardaskatu ta galtzen itxi ez-kero, gureak egin dau. Eta zer ete gara, geure-geurea genduana barik gelditzean?

Gaur, egia esan, naikoa begirunez artzen doguz geure oiturren eusle berarizko diran bertsolariak. Besteak beste, oitura oní ez dagiogu txera eskasa; Basarri'k: «Euskeldun artean bertsolariari ainbateko arretik etzaio iñori jartzen. Edozein lagunartetan, danik eta zalapartarik aundiena egon, danik eta eztabaidik gogcrrrenak erabilli, danik eta beroaldi edo asarre paperak izan, guzia berdín da! Bertsolari tajuz antzeko bat asi dedilJa kantari

ta bereala ixilduko dira; ordutik ango pakeak egiñak daude. Eusko egarria asetzeko ezta bertsolaria ainbatekorik. Bertsolaria atsegin etzaion euskaldunik ezin gentzake arkitu, guziok gera zaleak eta». Autorpen ederra!

Gaur bai, ta len ez ete? Bai ta ez. Lenago be ba-ziran aidi-kada batzuk leia au uneraiño sarturik gendunak: bertsolaririk iñun ba'zan, araxe joko eban, gero esango dogunez, jentetza ikaragarriak. Garai baten etzan erromeri ez erriko jairik bertsolari bakorik, oneixek ziran dana girotzen ebenak. Zelan girotu gero! Gaur be, egiazki, ba-dogu olango giroa. Baiña ao-sabaia errez aldatu oi dogun ezkeru, kontuz ibilli bearrean gagoz. Gaur itxas-gaiñeko olatua baizen urdurikor gara, ta erri-jaiari ta antzeko billerai azala arrotzeko onenatarikoak bertsolariak izan arren, ba-dira oraindik olakorik ontzat amen ez dabenak be, erriko jai-antolarzailleen artean eta. Beraz, kontuz ibiltekoa da.

Igaz, San Martín egunez, Bizkai'ko Arrieta erritxoan nintzan Izfari. Meza nagusi ostean, naikoa gizaseme zan plazan ara ta ona; bardin ardangeletan be, zuriak edanez bazkaitzeko gertetan urrean. Naiz-ta belu samar, jenteari plaza inguruan eusteko asmuz edo, balkoi batetik asi ziran noizbait altabozak arrantza bizitan; ondoren, bertsolari batek bota ebazan bereak eta bost. Mordoka jentea ari entzuten; bertsolaria bera, baiña, etzan ikusten. Kanpora ez agertzeko, zer jazoten ete zan? Zar ta gazte kezka; azkenik, jakin-nai bizi ari ezin eutsirik, kanpokaldeko ate-burutik gora mutil koskor bat bialdu eben; egiñalak «giñik, eldu zan balkoi ertzeraíño, eta andik ederto ikusi al izan eban barruan jazoten zana: tresna bat eukien maitxo gaiñean, eta tresna orren bitarfez bialtzen ebezan bertso areik. An etzan agiri bertsolaririk.

Jokabide ona ala txarra? Ni ez nozue an egin ebenaren etsai; baiña ezin bestez bakarrik egingo ba'litz, oba. Erri atan "bertan, eurreko gaberako ta abar, twst, rock and roll ta olakoak eurrez jo ebazan orkestina bat eukien kanpotik ekarrita; onei ordaintzeko dirua ba'zan, zergaitik ez bertsolariai ordaintzeko? Gaur dana dagigu diru-truke; baiña geure ekandu zar ta gauzai eusteko emoten dana, ez dot uste erre kara botariko dirua danik. Gaiñera nik entzundako bertsolariarena bakarkakoa

zan₅ eta gure erriak gogo dauana biren edo geiagoren arteko zirti-zarta, dema, burrukea da. Ez yako ainbeste atsegin bakarreko jarduna. Begoz, ba, gure erriko jaietan bertsolariak biñaka edo launaka.

Noizkoa edo nundik sortua ete da gure enda zaxrak dauan aberastasun au? Oitura aspaldikoa dala dakigun arren₃ ezin erantzun ziurrik emon. Euskera euskera danetikoa dogu nunbait. Onela Jautarkorek: «Bertsolaritasuna ezta gurean atzo goizeko gauza. Euskera bera bezin antziñakoa degula esango nuke. Argatik, noski, gure guraso zarren aurrekoen aurrekoak ainbar maite zituzten bertsolariak: gu baiño euskaldunagoak bai-ziran. Egizko bertsolariak gorapen eta txaloak merezi dituzte. nun-nai eta beti, Euskal-Errian ez ezik, baita beste errietan ere. Aozko literaturaren ezagungarririk nabarmenenak, oietzek bai-ditugu. Erri ikasi gabearen, edo obeto, eskola gabeko erriaren poesi-kutsua dp.riotelako ez ezik, baita erri-biotzaren tanpadak beren bertsoetan iraultzen trebe diralako ere, aintzakotzat artzekoak ditugu bertsolariak. Errí-erraietan sortu, erri-magalean azi ta bizi, erritarrez inguratutik bertsoak asmatu ta bota kantari, nolaz. ba, erri-kutsurik aien bertsoak ez dute izango?» (*Xenpelar bertsolarm*, Zarautz, 1958, 13 orr.)

Erri-oitura onen sorburuaz jabetzeko, kondaira aurretiko laiñotza arakatu bear; au, oster, agerbide ziurrez beintzat, gauza txit zailla yaku, ustezko errazoiak saiJkatzea naikoa errez yakun arren. Erdi-Arotik datorkiguzan erri-kanta zarrak bertsolarien asmamenak sortuak dira, zalantzarik bage, baita gure atsoitiz eta izkirimiri bikote asko be. Gorago ikusi dogunez, emakumeak be etziran muker ibilli eresi orreitan: Butroe'ko Joana'ren laukoa ezagun dogu, bardin Ozaeta'ko Santxa Otxoa'ren seikoa. Eta gerta-eresi biok XV'garren gizaldi erdi aldekoak *afTL*.

Orrezaz gainera, zerbait lenagokoak ziran aitatu dogun Gilen Urtsua (1412), zitola ta uztaidun biboliñez kantari ebillena; Antxo Etxaleku naparra, laut-jotzaillea, ta Gartzia Txurri, 1428'3n AragoPko erreñiñaga^dik saria artu ebana. Menendez Pidal'ek «juglares vascos» izenez aitatzen ditu irurok. Baiña gure bertsobrien kideko ete ziran ala bertso-kantatzaLL.le bakarrik? Besi:e izkuntzetan edozelango musikagailuz lagunduta ibilli oi

ziran bertso-esale; gurean izki-jartzailleari bertso-jartzaille esan oi dautsagu, baiña oneik geienetan bertsolari izaten dira, bertsoak bat-batean botaten dakienak. Iru orreik bertsolari ala bertso-kantatzaille ete ziran soilki? Iparragirre'n antzeko, noski, gitarra zartxoia igun, euskaldun artista.

Dana dalarik, XVIIIgarren menderako ezagun-ezagunak ziran gure bertsolariak, zazpi probintzietan atan be. Gipuzkoa'n, Fernando amezketarraren (1764-1823) inguruan agiri dira Zabalala, Txabalategi ta Altamira, laurok alkarregez abestu bai eben Tolosa'ko Aratusteetan, 1802'an. Zuberoa'n Xalbat Mohno (1751-1821), Isturitze'ko semea, Beñat Mardo ta Piarre Topet «Etxahun» (1786-1862), eta gerotxoago Luzaide'ko Bordele (1792-1879), Otxaíde bidarraitarra ta Xenpelar errenderitarra (1835-1869). Eta gero, geroakoak.

2. *Bersolariaren nortasuna*

Nor nor dan jakiteko naitaez olakoaren barren-izatea ezagutu bear. Gizonaren barrena, geienik, osin itsu da. Bertsolariak, alan eta guzti be, naikoa ondo adierazo oi dausku bere gogo-barrua, berrisoka jardutean; bere nortasuna, tximur ta tolostura asko barik agertzen dausku. Eta bere doairik ederrere-tarikoa auxe: idurimen bizi ta biotz samurrez, gizartearen barne-taupadarik nabarmenenak bertso biribilletan abestu. Gai ontaz ederki asko idatzi dauskun Zeleta'k onela: «Bertsolaria ez degu edozein. Naigarri izatekoa aren berezko argitasuna eta, batez ere, bertsoa asma-alean egoki kantatuz, gertariaren esanaia ain arrigarriri adierazteko duen doaia. Azkartasun onek jazten du bertsolariaren nortasuna. Baiña, nortasun onen duintzateko bere baldintzak bete bear ditu. Nolako baldintzak? Enbeita'tar Balendin, bizkaitar bertsolarien txapeldun danak, guk itz-lauz adierazi geneakegun bezin egoki, edo egokiago, bertsoz adierazten digu. Entzun:

*«Bersolarink, ona izateko,
baldintz onek bear ditu:
buru argia, biotz zabala,
nai ba'dau ondo jarraitu.*

*Irugarrena ezarr'i ona,
neurriai ondo begitu;
bertsolaria ona izango da
baldiniza oneik ba'ditu.n*
(Oleri, 1960, 240 orr.)

Txori antzo kantari ari yaku berezko doe ta azkartasuna dauan koplaria; eta ez erri entzuleak ez berak ez dakie zearo zetan dagozan doe ta azkartasun orreik. Onetan-eta txit jakintsu dogun M. Lekuona'k: «Koplari baserritarra! Bertsolari gizagajoa! Txoria bezelaxe zera zu . Txoriak ba-daki kantari; baiñan ez daki noian kantatzen duan. Zuk ere ba-dakizu koplak botatzen. Baiñan koplak oien muiña, bertsu oien guna ta ezta zertan dagon, bii al dakizu? Aoa zabalik eta irria ezpañetan zuri entzuten egoten dan erri orrek berak ere, somatu bai, somatzen du zure koplak an barru-barruan egiten dion axkura goxoa; baiñan uste al dezu₅ axkuragarri ori zertan dagon badakianik? Beren buruak erri baiño zerbait aundiagotzat daukañen eskoladunak, berriz, ez da zer esanik; olakoak ez dute Jeremias aundiaren *trencak* eta Horatio txukunaren *odak* beste olerkirik. Gure baserrietan, berriz, Xenpelar eta Uarregi bai, baiño Virjilio ta Horatio ez bait-dira auzo ezagun...»

Eta berak be, andik ona asko ibiltirik, liburu zar askotan be rein bertso errikoñ irakurri ta aztertu ondoren, orren guna ez dauala ondo ulertzen dirausku argi ta garbi. Entzun: «Neronek al dakidan diozu? Olerki baserritarren ezti ori zertan dagon bai al dakidan? Obe bai neronek ere baneki... Egunero dagoñ Jaungoikoari eskerrik asko, baserritar egin nindualako; eskerrik asko bai, beste zenbaiti ez bezela, neri, koplak errikoñ baten jario garratxa murtxatzeko eman didan ao-gozaoren alde. Baiñon neronek ere —ibilli asko egin ondoren, neronek ere— ez al dakit noski ezertxo garbirik gai txoragarri onetaz». (*ARGIA,ren Egunteg'a*, 1933, 75 orr.)

Zoragarria da, izan be, bertsolari bi edo askoren arteko jarduna. Areik bai idurimen bizi ta etorri ugaria! Areik bai ahapaldi zorrotz eta irribarre eutsi-eziñez beteak! Areik bai zar-sundaz gainezkako esaera jori zirikalariak! Arein bardinbagako arteta ta urduri esan-gaitzak! Eta alderdi lilluragarri guztion batasunak damotsa inñolaz be baserritar deritxogun olerkiari on-k

berezko dauan gatz eragikorra. «Txoratzen nau, batez ere —diño Lekuona'k—, kopla zaar zenbaiten eten-iduriko ari, bide mako, ta andik onarako ibiiti bixi urduriak. Eta, ain xuxen, ibilli onen bizi au, etorriaren ausi-antzeko ari auxe uste ditut nik, batez ere, olerkari baserritarren zerarik jatorren, berezien eta iñon gutxitan berdiñik gabekoen», (Loc. c.) Ederto batean esanikoa.

AzaJdu daiguzan orain, M. Lekuona'ri gaiakozala, bertsolariaren buruzko bost gauza oneik: 1) eten-iduriko aria; 2) idurien bizkortasuna; 3) andik onako ibilli urduria; 4) gomutamen euskorra, ta 5) doiñuaren apaiña.

a) *Eten-iduriko aria*

Egazean autuxiko bertso-sail bat irakurtean, olango batasunik eza somatzen da bertatik, bertso ta ahapaldien aria eten antzeko zerbait lez dardar dagoala. Egiari berea emonik, erri-literaturak ez dautso iñoiz jaramon andirik egin oneri; gure bertsolariak be eztabe ezertan artu. Gogoan izan daigun au: batasuna lortzeko erea bear da, lekuarena, esaerena, gogaiena, iduripenena, biotz zirrarena; eta onek uts-emon ba'dagigu, guk greko-latiñaren esparruan azi ta ikasiok beintzat, dana naspiltsu ta azpikoz gora dagoala uste dogu. Egiz orrela ete? Euskaldunon iokabi-dea bestera baita.

Lekuona'k, bide naste, uste-itotze ta urdurikeri au pizkat argitzearren, Errenteri'ko Joxe Zapirain'ek bere emaztearen eriotzan farritako bertsoetako bigarren ahapaldia dakar, adibidez:

*vNere santimentuak biar ditut esan:
—Suerte txarrerako mundu ontan izan—
Gripek arrapatuta emazia il zan,
—Errezatutzen diyot al dedana elizan—;
Bederatzi semekin alargundu nínlan.»*

Emen, argi dakusgunez, lau-bost gogai daukaguz, deslai samar itxuran. Lenengo lerroan, bere atsekabeak diragariskuz. Barne-miñok, gero diñoanez, ta neurtitz osotik atara daikenez, bi dira: emaztearen eriotza ta ondorez semeen umezurtzasuna.

Baiña, au íragartera orduko, bertsolariak, bigarren lerroan bertan, lenengo marra-tartekoa tartateratzen dau, bere zoritxar bikotxa adierazteko urrean; «suerte txatrerako mundu ontan izam diño, ao biko bere ezbear latza aitzen emon nairik edo. Luzatu bage, bere lenengo atsekabea azaltzen dau, ots, gripesk eroan eutson emaztearen eriotza. Bigarrena iragar orduko, baiña, beste marra arteko bat dakar, len-miñaren gai zuzendari lez, au da, otoitz egin bearra, orrela baieutson eskatu emazteak il aurret-xoan. Amaitzeko, bigarren atsekabea iragarten dau azken puntuan, au da, bere bederatzi semeen soifitasun gorria. (Ikus *Li-teraturo oral euskérica*, 43 orr.)

Sarrera ontan pentssmentu ta gogaiai dagokienez atsekabe biak zenbatu doazan arren, kantu osoaren barruan alderantziz doakez bata besteari jarrai: umezurtzen soiltasuna lenen eta eriotza gero. Ez arritu, au garai guztietako ele ederretan nuntari aurkitzen dana da-ta; baiña ba-da emen beste zertxobait oso berezia, olerkiaren arira etorri-naia, etorri-nai eza etenbarik gogorá ekarriaz, leit-motiv edo aitaturiko zati bakotxaren gai adigarri lez diran sarrast-urradura biak. Bietan dago, egon be, pentsamentu oldarkor jarduntsu bat-bera, eresi osoaren mamiña lez noizpeinka bakarrik ber-esana. Lenengo zatian^ gai gaillena *alargun* geratzea da, iru aldiz beintzat gogora ekarria. Bigarren zatian, andreak eskaturiko *otoitza*; gogai ori lau bider agertzen da poema barrusn. Bigarren ahapaldian: «errezatutzen diyot al dedana elizan»; bideratzigarrenean: «errezat.utzen diyot aí dedan maizena»; amaikagarrenean: «nitaz errezatzia akordatu zaitez», eta amabigarrenean; «errezatu nezala artaz pentsatzian».

Egikera au ezta ezbesr eta eroankizunetakoa bakarrik, zerbait diran bertsolariak oro edozein gaitan dagierna baiño. Zergaitik ete da? Laster esango dogunez, guk albo-izkuntzetakoak ez lako arnasa ta egikera doguzalako, ala etorri ug3riegiaren bat-bateko gauzak eta gaiak ondo eratu eziñaren ondorio? Baleiteke bigarren au be: uriol baten ezta errez zer guztiak artez eratzen.

Ondiñokarren bada bertso-lan barruan aurkítzen dan beste gogai-erarik ez bat be: aozko olerkian banaketan idoro oi dogun erakeri antzekoa, M. Lekuona'rentzat «bide mako» dana. Jardunaren nri errazoizkoa okertuaz doa, oartzeka, gaiaren ertzetiko ar-emon urduri batek erakarrita lez, gero asi-bidera ostera

joteko bear bada, esparru aLn bestelakoetan zear ibilliriko entzulearen gogoá berezko ez-uste gozoan murgildurik. Agerburu bat gai argitzeko:

*i(Gu gera iru Probenzi...
lengo legeari eutsi;
ez oraindikan etsi,
naiz anka bana autsi;
jaioko dira berriak...
Gu gera Euskal-erriak.it*

Euskaldun bertsolariaren jokabide onetaz uste ta eritxi barriz agertzen yaku Jurki Oteitza, oraintsu argitara dauskun *Quousque tandem...* liburuan, batez be. Euskal egikera edo estiloari datxakiola, gure-gurea ta beiña dogula diño bertsolaria. Gogo bi, edesti bi, kultura bi ei doguz: bata barrukoa, geure-geurea, ta inguruko arima-lantzetik artua bestea. Gure eritxiz azken au bakarrik bizi da, baiña onek ez diñosku dana, barrukoa be oraindik bizí da-ta; oni be begitu ta dagokiona emon bear dautsagu. Ezin daikegu geugandik aldendu. Euskal oiturak, euskal ertiak, euskaldun bertsoiariak ezin daikeguz latin kulturari begira soilki adierazo; naitaez geure-geure dogun barren-edestia, barren-arnasa berezia, arduraz begiratu ondoren, aintzat artu bearra dog^i. Orduan gure azterketak egiazko ta onurakorrak izango dira; bestelan, cz.

Eskola bageak dira bertsolariak, geienak beintzat; ez dabe iñungo gogolantzerik izan, ez dabe kulturarik artu. Or gaur euskal bertsolarien txapelduna, Uztapide, Lrakurten ta idazten ozta-ozta dakiana; urteak urte, ingurukoak emonda jakituri pizkat itsatsiko yakon, baiña oso gitxi: bere-berea ta barrutikoa dau daukan guztía. Zelan orren bertso bikaiñak latin-kultura edo klasikoen neurrira aztertu? Beste neurkera bat beai dá or; gogo-lantze orren ikuturik be izan ez daben bertsolariok, beste zerbait benr dabe. Gauza argia. Gure bertsolarien lanik geien^k aztertzeko, goazen beste bide batetik, barren-edestiak marratzen dauskun bide zarretik, aspaldiko euskal gogoaren bidetik.

Gaurko literaturak danok eroan nai gaitu latindar bidetxigorielik, bat-itsaspenezko eredu azalkoitik. Ezta aizu, ezta bi-

dezko. OLakoak zelan aitua gure berarizko tankera? Ertigiñan ez doa gure bertsolaria plazara, jenteari bertsoz poza emotera bai-zen. Ez doa ertigiñan, baiña —Oteitza'k ederto dirauskunez—, bere berezkcan, barren-ituxrian azke itxi ezkeru, ertilaria dogu izatez plaza-gizon ori, ta ertitsua izan bear bere arima ertilaria erakutsiz berak damoskuna be. «Auxe oartu bear da gure bertsolariagan, bere tankera berezia, baiña ez berak asmotan dauanagaitik, urteten yakonagaitik baiño. Eta edozein bertsolariagan dago urteten yakon zerbaite, bestelan ez litzakio ezer urtengo». (Ikus *Homenaje a Don J. M. Barandiaran*, Donosti, 1963, 163 orr.)

Fu.skala bertsolariak ez ditu bere ahapaldia gaztelar olerkari batek lez ontzen, zera bestera baiño: bide bardiñez ez dabil, baiña batera jo oi dabe azken-tontorra. Askatasun orren bizkar, gauza geiago ikutu ta esaten ditu gure koplariak; eta, gaia eten-iduri begitandu arren, ba-da or batasuna ta alkar-itsaspen sendo baizen argia. Aldiz-urrengo era ta batasun ordez, zentzuzko itzurren eta joskerak benetako igi-batasuna ta gogai-giltza damotsa euskal poemari. Bertsolariak lenen gogora dakarrena bere oroimenaren ibaia nun itxasoratuko dan izan bear dau; gero, idurimenaren barne-ontzian doa egalari, aize gozoaren eragin leunean ezti.

Euskal egikera, bertsolariena batez be, ezin daiegegu ulertzen emon eze.lan gaztelarrena aldamenen jarrita. Bertsolariaren jardukera zearkako errazoiketa, silabak atez bat-banatu dagiazan olerkaria, íatin-ekarrian datozen begizko neurri ta izadi-aurreko kili-kolotasunaren urduriak emondako bildurra besterik ez dira. Euskalduna izadira begira jarten dau ertiak, eta aren antzekoa da bere egikera apartekoa be, zirrara ta askatasuna. Latindar tradiziño edo ekarrian begiz ikusi egin gengike soil-soillean; euskai ekarrian, ostera, begiz entzun be egin daiegegu, izadian entzmdurik begiak itxi daiegegu, egikera ustetsu, azke ta aldiko bategaz norberegana murgilduta geiago ikusteko.

Gure bertsolariak, naiz-ta gizarte andiaren begi aurean jardun, bere kautan sartu ta kantu bizi, jareí ta ertitsuak dagiz, asmoti ta patxara anditan. Itz bat ebagi ala, beste bati zentzuna emon dautso; gauza bat izendatu orduko, beste baten daukagu adi ta esan-naikor.

M. Lekuona'k, gorago aitaturiko liburu sakonean, gure bert-solarien nortasuna zeatz-meatz adierazten dauskuezan ertz-al-derdi askori ikuturik, aoz-aozko literaturan darabiitzan idurien igikera azkarra aztertzen dau. Guk be, emen beintzat, olerki errikoiak ain berezko dauan lits onetaz esan daigun zeezer.

Arri-egiñik ízten gaitue, itxi be, gure bertsolarien iduririkun sotillak, euren oldozkun eta pentsamentuak argi-mintzean lez guri aurkeztean. Ur ugariko iturritik lez txirrioz datorkiez bu-rura, eta ezin eutsi antzera eskiñi oi dauskuez: zaiapartari es-kolatik aringa doan mutiko taldea iduri. Maitxo aurrean nasai neurritzak landu daroezan olerkariak baiño askotaz azkarrago dira oneik euren bat-bateko jardunean; iduri bizi argiakoak ditue. Poetaen idurimena nagia goa dirudi: euliak ezti-lapLkoan lez naspildu oi dira euren sorpen-gozokietan. Kantatzen dauan koplaria, barriz, lora-gain egazka, emen txasta an mizta, batetik bestera artega dabillen erlearn antzeko dogu. «Idazten dauan olerkariak — M. Lekuona'ren aburuz— bera kokatu (geldi-azo) t2L bere iduriak be koka-azoten ditu. Kantatzen dauan poetak, barriz, dabiflela dagiz bere bat-batekoak.» (Op. c, 20 orr.)

Eta orrela jazo bear naitaez, poesi-mueta bi onei begitu ez-kero. Olerkariak gaur, irakurteko idatzi daroa, noizik-bein kan-turako; aren luze ta zeatta, orixegatik dozue. Etzan orrela as-paldiko bertsolaria, beingoan entzuteko bertsoak kantuz ontzen ebazana baiño. Aren ezpanetako itza, beraz, aizearen egoz doana baizen ariña dozue. Beste aldetik, kondaira aurreko koplariak abestuz sortzen eta kanrurako bakarrik ebazan bere sorpenak. Eta, elerti-arau ta legeak eskatzen dauenez, ereserki ta koruaJc eta kanturako dan oro, doiñu bizi, labur, arin aukeratu ta elkorra Lzan bear.

Antxiñako literaturari ezin gengikeo ukatu lits edo alderdi au. Ebertarren olerki geiena, idazkera asmatu aurretik, agoz-ago zabaldu ta iraunzaoa dogu, eta arein poesian, euskaldunonean lez, idurimen zorabiotsua ta jauzi dantzakorra daurkiguz ahapal-dietan eta ahapaldi-barruko lerro baktotxean sarri. Berebat ger-ka eta latindarren artean be; Bergili, esaterako, Omer baiño zurrun motelago yaku bere ahapaldietan. Zergaitik? Besteak

beste, ona egipide bat: Omero'k agoz-ago arturiko erri-gaiakaz antolatu ebazan bere poemak, Iliasena ta Odisena; Bergili'k, barriz, antz-artuaz egin eban bere Enearena, lantegi baten lez artetsu ta asmotsu. Bergili gogartu ta epetsuago da, Omér bizi bat-bateko ta errikoia. (Op. c, 20 orr.)

Eztogu, ortaz, ezegarri gure koplari ta bertsolarien iduri-azkartasun au. Izanetik datorkiena bai dabe. Oltza batera igonik erriaren aurrean itz egitean, geldi daukagu bera soñez, baiña aren barren-munduko begiak argazki-artzaille lez lanean daragoie bizkor. Azkartasun au ezta, iñundik iñora be, gaiertzik eza edo iduri-urritasuna; ez, ezta ori, geienetan idurikizun sail ugaria darabilda. Iradu ta arin bata bestearen jarrai dabiltzanak, bertso-saioan barra-barra iraultzen dituan idurikizun eta pent-samentuak dira. Jarraikako ibikze au oso bizia da. Irakur bi-denabar yatorkun Kepa Enbeita'ren *Urretxindorraren Eriotza* deritxon poemako len-ahapaldia:

*v.Zxigat': ta lorak itun dakusiaz,
Negrucz dago baratza;
Herc.n maiia galrtu daulako
ErdibituTik biotza.
Itxil, zaiteze, Ixuntxun-txistuak!
Saña ori, zer dala-ta?
ixildu eta negar eixue,
TJrretxin-dorra il data!»*

d) *Andik orwko ibilli urduria: bertso aldrebesak*

Gure bertsoak, zein zarrak zein barriak, bertsolarienak ba' dira beintzat barren-begiz ikuskatu ta barren-senez aztatu ezik, ez dautsegu ezelan be euren baitan daroen mamin-likurta gozoa iraziko. Kopla zarrak geienbat eskatzeko egiñak dira, Gabonetan. Urtebarriz, Aratustez, Donibanez, Agate deunez eta gaiñe-rakoetan eskale dabiltzanak kantetako. Koplok gaur buruz abes-ten diran arren, lenago kanta-ala asmauak ziran ziur asko. Kanta zarrak geien-geienetan motz-Jaburragoak dirala be, bai batzuk bai bestetzuk, biak dira egin-molde bardiñez taiutuak.

Kopla zarrotan, ba-dirudi, len aitatu doguzan batasunik-eza ta bertsolariaren idurimena ero antzean andik ona ibiltea. askoz

nabarmenago dala. Esaera ta puntuak alkarregaz izan bear leu-keen ar-emon estua, korapillo bidezkoa ezta sarri bear litzaken baizen argiro ikusten. Barriz diñot: bertsuok latinsenez aztertu edo murtxatu ezker, beintzat. Erri entzuleak, oster, bertso orreitan be idoro oi dau alako batasun eta alkar-morapilloa. Erriari, izan be, Lekuona'k dirauskunez, bardin dautso ar-cmon au adimen-maillakoa na.iz zentzun utsezkoa izan. Eta ontan ezta bape poesiaren izatetik urrintzen. Jakituria, ba, adimenaren lana baldin ba'da, olertia idurimenarena ta biotz-eragiñarena dogu batez be. Jakintzak bere Ianetan, silogísmuz, mugabidez ta bana-keta egokiakaz baliaturik, ondoren ziurrak oiñarrietatik ataraten ba'ditu, olertiak be bereetan bere artu-emonak dauz, eta oneik izan Leitekez suma-maillakoak naiz idurimenak eta zentzunak bakarrik artu leikeezanak. Alan be, olertia giza-lana da-ta, ezin daikeo osotoro beintzat goi-maillako adimen-eragiñari agurrik egin, jakintzak berak be, adimenaren sorpena izan arren, iduri-menaren laguntza zearo ukatzen ez dauan lez.

Euskal koplategian bertso asko dira gogai-batasun gitxikoak. Origaitik, baiña, ezin esan poesi edo barne-lillura bakoak diranik. M. Lekuona'k, agerbideztat, erritar erromantze au damosku:

*«Ama Birjiña eguna» da-ta
kav.ta dezagun kantia;
•nik knntauko dot kantia, baiña
ondo erantzun, jenLia.))*

Amabi ahapaldikoa dogn erdi bizkaieraz erdi gipuzkoçraz egiñiko erromantze au. Kantetan asi-ala, bertsolaria urduri dabil, eta Arantzazu'rako bidea erdi-aztu itxirik, zerurakoa artzen dau bertatik; lenera dator barriro, baiña epe laburrerako, beingoan bada Goigota'rako bide-zidorra arturik, an amaitzen dau kantua Jesus'ek eta Maria'k alkarregaz daukien autu samurrean. Bertsolariak ez dau, egia, Aloña'ko Andra Maria'ren magalpe biguna geiago gogora ekarriko, baiña entzulearen idurimena goi-ezkutuzko argi-obo dirdaitsutan blai-blai geratzen da nonbait. Erdi-Aroko erromes arek txit bat-egiñik iduritu ebazan iru zidorrok, Arantzazu'koa, Golgota'koa ta zerurakoa. Kantu onetan nastu egin ebazan irurak; andik ona ebilkion idurimena, mintxeleta

margoz jantzia baizen urduri. (Ikus *Lit eratura oral eusk rica*> 100 orr.)

Konta-ezin ai a ditugu gisa ontako neurtitzak, aspaldikoak asko eta asko. Labur-zurrian, ona bat erriak guztiz ezaguna. Bermiotar ama gaztea itxas-egalean dago, bere umetxo erdi Joak artua besoetan daukala. Miesa antzo lai o mea Kantauri zabalean, Baiona'ko ertza estaltzerai o. Udabarri da-ta, txan-xangorriak auzoko zugatz adar artean daukoz bere umiak, Aurtxoari begira, lai o leunez idurimena, amak samurkiro:

alixasoa *lai o dago*
Baiona'ko *barrarai o...*
Nik zu *zaitut maitiango*
Txorriak *bere umiak bai o.n*

Eder-eder onein artean i oiz ezagutu dira bertso barregarr  aldrebesak be. Bai a gure erriak ba-dau zentzunik naiko —gero esango dogunez— bertsoak noiz diran eder ta noiz diran trakets ezagutzeko. Jautarkol'ek onela: «Bertsolaxi-rizena, bVt-bajte^n bertsoak asmatu ta egoki esan edo kanta oi dituenari bakarrik ematen dio erriak. Bertso aldrebesak kanta oi dituztenei, etzaia eman oi». I oiz jazo da, orraitai o, bestera be; esaera ta bertso taiubako ta maker eta arloteak be i oiz txalotu ditu erriak.

Lekuona'k di oanez, Xenpelar'en denporan ba-ziran Erren-terri aldean bertsolari makur bi, Juxto ta Lonjinos, ospe andiko euren ustez bai a arto-mokol egiazki; jenteak txalotzen ebazan, eta gogoz txalotu be, euren ziri-bertso ganora bakoakaitik, eta Xenpelar bera bai o be geiago ziran, euren ustetan. Bein Juxto'k eupada ozena bota eutson errenteriarrari; Xenpelar'ek baietz, berak be erakutsiko ebala aldrebeskeri orreitarako doaia. Lagunarte ikaragarria batu zan Lezo'ko enparantzan, Santa-Kurutz egun arratsaldean. Nok aldrebeskeri geiago bota, arentzat txalorik beroenak. Ona Icikide biak orduan abestu ebezan azken-bertsoetatik bainn:

Xenpe Lir: *«TxavJxo.gorri batenak*
 sei libra tripaki:
txin rurri batek berriz
 z zpi arie-j ki.
Buiah iri a iyo

errotak *iralki,*
ganibetak *erre ta*
 labiak cbaki...
oien ma ria nun dan
Xenpelar'cl: daki.))

JUXLO: *Neguan otzak eta
uran txinguriyak:
orbela ta zipotza
denak ziyatuak:
subia ta ziraba*

*dauzkat inguruan...
beldur-beldurrak naço
sartzeko mblua.»*

Xenpelar'ek, bereak eta bost eginda be, ezin bota zentzunba-kokeririk, gauzak ziran lez egokL, egoki kantatu ebazan. Juxto'k, ordea, berezkoa eban joera ori. Ta txalorik sutsuenak Juxto'ri jo eutsoezan. (*La Poesía Popidar Vasca*, .1930, 25 orr.)

Arrotz-literaturak zerbait arakatu ta irauli ezkeru, onakoak aurkitu daikeguz areitan be, gizona taiu-bakokeriak egiten sarri leiatu da-ta. Gure bertolaríen andik onako ibilte ta idurimen-askatasuna eztira taiubakoak, euskal olerki zarrari dagokion zer berezi bat baiño.

e) *Gomntamen euskonra*

Besteak beste, geure gauzak ezer gitxian eztoguz iñoiz artii bear ta, euskaldunok beti ta berez eder-zale amorratuak gareala autortu bearrean gagoz. Eta, berezko leia ta arnas bizi orrezaz gain, gure bira ta inguru guztia be ederti-gaiz ase-ase egiñik daukagu; poema ederrik osotzeko, beraz, naikoa gai dogu berberton ezcren billa iñora abiatu barik. Imgurumari ainbeste erri-jakintza ta erri-[^]rti baldin ba'dogu, aok ukatu legioe benetako balorea gure ipuin, elezar, abesti, bferitso, kondaira, esaera ta onakoai?

Literatura guzti au, barriz, oraintsu arte idatzi barik euki dogu. Erriaren gomutamenean egonak dira langai guztiok, ez idatziz, aoz-ao baiño, gugana eldukeran. Kondaira aurretik be euskalduna etzan motela, argia baiño, ba-eban biotza, ba-eban jakituria; eta arein buru-biotzetako gogai ta taupada guztiok, aiten aitag gure aita-amai kontaturik, aotik aora artu doguz guk: orain sei milla naiz amar milla urte bizi ziran euskaldunen jakitc ta biotz-eragiñak orrelaxe artu doguz. Garai atako gizasemeak ez kien idazten, etzan idaz-tramankulurik, eta aoz-ozkoa zan euren gogai-bialketa bakarra.

Gomuta deritxogun gogo-aimenak, bada, garrantzi ta gora andia dau aoz-aozko literatura guztietan, eta batez be euskal-dunon ele-ederrcan. Ertilan bat dagigunean, geronek sortua da-ta, onek irautea nai dogu : ez daitela il. Antxiñakoak zelan irau-eragin bere bertso-lanai? Ez dauko beste biderik: bere goi-argizko sorpenak gomutamen-oltxo soillean idatzi lenen, eta gero, erea etorkonerako, bere arasa apalean zaindu ta gorde arduratsu. Orrelaxe, zarrak gazteai erakutsiaz zabaldu ta gizal-diak zear gureganaiño elduak dira millaka ta millaka ipuin, ira-kurgai, erri-olerki, kantu, esakera ta abar.

Mendez mende asabakandik arturikoari eusteko gomutamen ernea bear da, zalantzarik bage, bai bertsolariagan bai erriagan; kantatzen dauan koplariak eta entzule dagoan erriak, biak bear dabe barne-zentzun au ondo orekatua, endu onean jarria. Gaur, bear bada, ezta len bestekoa gure gomutaménaren eust-indarra, iraxta edo inprenta daukagun ezkeri; baiña lenengo oso zolia eben erririk geienak. Or, adibidez, Jesukristo'ren esanak ain zintzoro jaso ebezanena. Gaur, ezta arritzekoa, oitura ori galduaz goaz eta zentzun orrek eztau ainbesteko kemena. Gure litera-tura guztia, orraitino, oraintsu arte aoz-aozkoa izan da-ta, gi-zaldi egoz ainbat gauza iraultzeko naitaez oroimen ekarkorra bear.

Gure artean, esan dogu, erri ta bertsolari doai orrez ondo orniduak izan dira: erria geiago, bertsolaria baiño be. Ba-dira gure literaturan bein bakarrik entzunda, erriaren gomutapenean gelditu ta gero gizaldietan zear geuganaiño eldu diran bertso-mordo gaiantak. Orrelaxe doguz Pernando Amezketarraren ate-raidi ta bertso asko, orrelaxe Xenpelar'ek MusarroVen, Juxto'ren eta Lonjinos'eñ aurka botarikoak, orrelaxe Txirrita'ren zen-bair neurtitz bar-bateko, orrelaxe Aita Zabala'k egunokaz argi-tara dauan *Pello Errota'ren Bizitza'n* (Zarautz, 1%3), bertsolari beraren alaba Mikela'k kontaturikoan datozan jazoera ta bert-soak.

Oneitariko asko, tamalez, aldiaren indar lizunkoiak lardaz-katu ta orriuldurik eldu yaituz guri; asieran amar naiz ogei ahapaidi ziranetik, Iau-sei bakarrik, eta eurak erdi moztuta, al-daketa itzelak dituelarik. Kanta zar guztiz edatuak ezagutzen dira gure errian izkiz ta musikaz era askotara abesten diranak.

Zein da oneitan egiazko egilleaxena, aspaldi bateko bertsolari zarrarena? Jakin ez. *Milla euskal Oletki eder* liburua osotzeko, an-emen bertso-billa ibilli nintzanean, arri-egiñik. askotan gelditua naz, olerki edo poema berbera ainbat aldakuntzaz aurkiturik. Ez nekian zeñi oratu. Baiña ulerterreza da naspil ori. Ak emen eta besteak an jasoak ziran poema orreik, ak era batera eta onek bestera, eta zail izan aurrenena zein dan jakiten. Orre-gaitik, gure bertsozelaian batez be, txalogarri litzake, al dan gñjoan beintzat, aldaketa guztiak alde alde ta lerroz lerro ipiñi ta ziurtasunik geien daroana lenengo aldakitzat jartea.

Bertso ta ipuin esale argiak ugari dazauguz, zarretan geienak, gure erri euskaldunetan, Ezaguna dot andre zartxo bat makiña bat onako dakizana ta egun gutzia be kontari igaroko leukena. Ez daki irakurten ez idazten zer andirik. Bere guxasoengandik ikasi ei ebazan geienak gazte zala: bein amak kuma ondoan bere umetxoari kantetan dautsozanak, bein gerrateko jazokun eta gertakariak; gaur eliz-kanta samuxrak, bix Santuen bizitza ta Marijesiak; orain neska-mutiñenak, gero itxasoz andik izan ostean errixa itzulitako indianoaxenak. Danak gazigeza bere-biziko izurtzi ta gantzutuak, eta kantu-doiñu bizi-bizitan. Euskal bertso ta ipuin batzailleak, Azkue'k eta Aita Zabala'k baitik bat, ba-dakie ondo be diñodanaren egitasuna.

Eredu bat txit jatorra, Erretereri'ko Juan Krutz Zapirain. Brabante^Tko Genobeba'ren bizitza gai arturik, poema luzea egin eban, zortzi bertsoko 163 ahapafidi ta gu.ztira 1.304 bertsok.in. Ez ekian idazten, ez irakurten. Neguko gauetan, bere etr>azteak su-baztarrean emakume gazte axrigarri aren bizitzatik irakurten eutsonaz gairik naikca eban bere poema luzea antolatzeko. Oian zetzala, entzuna ausnar erabilli cstean, buruz eioten ebazan urrengo goizean emazteak paperera aldatuko eutsozan ahapaldiak. Poema osotu ta ogeitamar urtera be, berak 63 ebazala, entzun gura eutsonari oso-osorik esateko gertu egon oi ?an.

Bertfolariak eurak ez ei dira orren memori andiko, *táo* obeto, ez ei dabe ainbeste ardura jarten bertsoz diñbena gogoan euki dagien: errez bai yake lena baxrixo esatea. Muxika'ko bertsolariak, alan be, aita ta seme ta loba, makiñat'xo bat bertso badakiez alkarrri ta aurretikoai axtu ra ikasiak; ez gero Enbeita

zarrarenak bakarrik, aldikada baten an inguruan izan ziran beste askorenak be bai.

g) *Domuaren apaiña*

Biotza malkoz ta kantaz emoten ei da, inditar olerkari Rabindranath Tagore'k diñoanez. Nik au erantsiko neuskio: «eta bertsoz». Kantua ta bertsoa gure artean batera lez dabiltz; musikaz ta bertsoz ustu bai daroagu barne-osiña, geure biotza, gaur minberati biar irrikoi. Bertsolariak, eztarri eder kantaka diarduanean, eztau doiñu bat agin artean miazkatzen bakarrik: izki bako lelo gitxi da guxean, guk izkia (letrea) ezarten dautsagu musikeari.

Bat-bateko bertsoak, gaiñera, begiak argia lez eskatzen dau kantua. Era bateko ta alkarregandik banandu eziñak dira aozko bertsoa ta onek beregan daroan doiñuaren eragiña. «Ezin daiteke ulertu —diñosku M. Lekuona'k— kantu bagako euskal poesi errikoirik, ez sorburuan ez bizian. Bat-bateko bertsoariak abes-tuz dagi bere lana, ta dakian lez gogoratzea be ez yako errez kantuak lagundu ezik. Kantua baita berLSo-ritmuaren eroale». (ikus *Literatura oral ettskérica*, 54 orr.) Melodi-egoz doanean, ostera, berez-berez, ezetariko arreta barik daroa bertsoen neurriari dagokion igiera berezia; puntuaren amaia ta euskal olertilegeai buruzko zeatzasun batz.uk zaindu ezketiño, eztau ezeren eragozpen edo sosterrik.

Koplari bakotzak bere doiñuak ditu, batzuk oso ezagunak, beste batzuk ez ainbeste; batzuk euskal kantetan oiñarria dabenak, beste batzuk norbere-norbereak. Gaur doiñu asko ezagutzen doguz; batzuk atzerrietaraiño be zabalduak. Batbateko jardunean baiño melodi geiago erabilli oi dira *bertso berriak*, kantatzean, oneikaz askatasun geiago izan daikegu-ta. Alan be, bakotzak sail mardulak ditu; 60 kanta ta dantza doiñu diferente dakaz Orixe'k bere *Euskaldunak* poeman; Xen^eiar'ek zortzi bat bere-bereak ebazan, Jautarkol'en liburutik dakusgu-nez; Enbeita'tar Kepa'k, Bizkai'ko Urrentxindor sonatuak, oge-itik gora ditu bere-bereak, eta beste sei bat euskal kantaetan oiñarria dabenak.

Doiñu oneik geienez arin, bizkor ta samurrak izaten dira, eztabe neurkin edo konpasik, eta auxe da euren bereizkuntzarik gogoangarriena. Bertsolariagan itz ta kantu, bertso ta doñiu, dana da liparreko, uneko, momentuko: idurimen azkarra zer esanaren billa arat-onat saiatu bear ta be, egiaz bertsolari danak eztau motelago jardungo bere arazoan, kantuz darabillen melodiari dagokion berezko bizitasuna zairidu baiño.

Eta doiñuetan zeintzuk dira egokienak? Ba-da nun eta zer aukeratu gure kantutegian, bakotxak gogozko dauanetik kanpora be. Erri-abesti asko doguz konpasik ezta be ederto datozenak; beste batzuk «intziri, ames, ugin-zurmur, illargi-dizdiz, mendi-orlegitasun, kedats-mordo» dira, Kanpion'ek diñoanez. Oneik be eder yakez bertsolariei. Mugaz andikoak, guk baiño arduratsua-go zairidu oi dabe doiñuaren gozotasuna.

Gure zortzikoa gogorregia ei da bertsorako; zortzikoaren melodia —gure dantza-kantu aparta— jauzika ta arin dabilena da. Baiña bertsorako eztau bear aiñako leuntasunik: kantu gregorianua, barriz, egokiago dator, oneriyeragiña bizkor urdu-riagoa baita. Enbeita'k ba-ditu, luze-labur, zortziko antzera moldatzen ebazan doiñuak. Bai ta Iparragirre'k be abestu oi eban neurri beiñagotan; oni, baiña, kaletar doiñua esaten eutsoen Xenpelar'ek eta.

3. *Emaren bertsolaritasu)ia*

Bertsolaria, ao beteko itza. Erritar utsa, erriagaz morapillotua; «gure erriaren nai, asmo, buru-auste, amets eta bizieraren adierazlerik jatorrena», nunbait. Gure gogo-kondaira eder; geure-geure ditugu-ta, bertsolaririk bage «Euskal-erria ez litzake Euskalerra». Eta, ain zuzen be, bertsolaritasunak arpegi bi ditu: 1) bertsolari eragikorra, bertsoak bat-batean bota daroazan plaza-gizon ernea, ta 2) oni entzuten dagon erri bertsozalea. Bai, bertsolaritasuna kantariak eta erriak osotzen dabe, biak arnas bizi batean kiribildurik, biak gauza bat bera dagiela.

Egiaz diño, oneri buruz, bertsolari-sena ondo barreridik darabillen Jautarkol'ek: «Ez dezute iñoiz, bertsolaria dan bertsolaria, bakarrik kantari topatuko; nai ta naiezkoa du bere

inguruan erria. Eta erria ere, bertsolaria balitz bezelaxe, adi-adi egongo zaio, azken bertsoa igartzen eta askotan berekin batean esaten edo kantatzen duela» (*Xenpelar bertsolaria*, 13 orr.) Orain sei urte Bilbao'ko Arenal'ean nik ikusi nebenez, zalantzarik bage; an be, iñoizka, erriak berak azken puntua aurretik igarri ta bertsolariak baiño lenago amaitzen eban. Erriak ba-daki, gaiñera, zeintzuk diran bertso egokiak, eta zeintzuk bada-ezpadakoak, zeintzuk mamintsuak eta zeintzuk azal-samarrekoak. Nok diño gure langille, nekazari, arrantzale ta artzaiñak, ots, erri zeak ez dauala kulturarik?

Luzetxoa dan arren, bego emen dirdaitsu K. Etxegurai'k idatzia: «Bertsolariak beti izan dira gure artean, gogoz entzuznak. Baserritarrentzar. ez da iai pozgarririk bertsolaririk ez bada. Etxe batetik edo bestetik bertsolari bi ateratzen diranean, eta aurrez-aurre jarriarik, batak ziri bat besteari sartu, eta besteak lengoari ziri zorrotzagoakin erantzun asten diranean, ura poza, ura atsegiña baserritarren artean! Arpegian, begietan, esku ta besoetan, beren ibilleran ongi erakusten digute, bertsolarien ateraldi ederrakin atsegin aundia artzen dutela. Eta orrela, iñoren kalte gabe, poz ematen duten gizonak, txalo ugariz artu bear ditugu. Len esan dedana berriz esatera noa; gure txaloak, gure omenak, ez dute gudarientzat eta agintarientzat eta jakintsuentzat eta aberatsentzat bakarrik izan bear. Artzaia dala-ta, mendian bizi dala-ta, dirurik ez duela-ta, idaztietan bere izena ikusten ez degula-ta, ezereztzat iduki bear al degu gure erritar askorentzat gogoangarria izan dan bertsolari buru-azkarra? Ez noski. Batzuek idazti edo Jiburuetan ikasten deguna, beste batzuek Jaungoikoak gure begien aurrean ipiñi dizkigun zelai, baso ta txara, ibai ta erreka txistor, arkaitz eta leizc-zulo, itsaso zabal, ots-garbi eta lañoetan ikasten dute. Gure jakiteaz ez degu geiegi arrotu bear. Guk, liburuen aurrean urte asko igaro ta gero ere ez dakizkigun gauza asko dakizki goizetik arratsera lurrari aberastasuna atera naian dabillen baserritarrak, bere artaldean ondoren dabillen artzaiak» (*Pernando Amezketarra*, 20 orr.)

Erria, bere aJdetik, ezta iñoiz muker agertu bertsolariak txalotuteko; barruan dirakitson neurtitz-lera ori milla eratara adierazten dau. Basarri'k zentzun andiz: «Euskaldunen bertso-

zalctasuna arrigarria da. Erdaldun bat bertsoa edo poesira zaltetzeko, lenengo kondizioa eskolaz ondo xamar jantzita egotea dala esan diteke. Euskaldunak, berez, odolean darama itz neurtuenganako maitasun ori. Eskolarik zapaldu gabeko nekazari, artzai edo basamutilla, bertso onarekin béreala liLluratzen da. Baita bizi guzian itxaso zabala ostatu izan dun euskal arrantzalea ere. Bertsoak eta bertsoari ezartzen zaion doñuak barrenmuñak ikutzen dizkio».

Len zana gaur be ba-da. Peri edo azoka egmia dala-ta, idi-proba, aizkorajoku edo antzeko bat dala-ta, gure crritxoak ustu egin oi dira askotan. Eta bertsolari-demaren bat danean? Bein, Iztueta zaldibiarrak diñoskunetz, 1802'garreneko negu gorrian, lau millatik gora batu ziran Billabona'ko plazan bertsolarieri entzuteko. Arrigarria benetan. orduan bada etzan gaur Iako tar-ranta ta bultzirik. Ernandrko ErFoizena'tar Joxe Joakin (Txabalategi) ta Amezqueta'ko Zabala'tar Joan Iñaxio bertsolariak bosna ontza-urre apustu egin eben. Iru ziran mai-buruko epai-Ueak: bi bertsolari bakotxak berea aukeratuta, Aizarnazabal'go eliz-zaiña ta Pernando amezketarra, ta irugarrena erriko alkate-ak aukeratua, Jose Mendizabal Tolosa'ko apaiz entzute andikoa. Ordu bi luzetan ekin eutsoen bertsoa, «batak besteari asrnatu al zitza ten itz gairik nekezenak irikiaz, nondik eta nola alkar naspillatuko zuten, alegiñik au.ndienak egiten zituztela». Azkenez, ezín erabagi izan eben nor zan geiago; plazako jenteak deadarrez iñoan biak iokatu ebeia ondo ta utsaldirik bage. Iru epai-leak bertsoan iragarri eben euren eritxia.

Lenengo epaille, Aizarnaz^ba-'go eliz-zaiñak:

*«Txabalategi ia Zabala gaztea
Askok deseo kúte?t kari-uz ikustea:
Atsegin andictcn gclditu jendea,
Bata adin bal çgyr bear degu bestea.»*

Bigarren epaille Pernando Amezketarrak:

*aEzin gentzake, bada, besie gauzarik egín,
Nik gogoan neukana zuk d.ezu itzegín:
Utzi bear ditugu bick. berdin-berdin,
G-'puzkoa -guziak ar dezan atsegin.»*

Irugarren epaile Mendizabardar Jose'k:

*aJaunak, min(zo zerate griiia txarrik gabe,
PozkitXaíu nazxite txit asko alere:
Egia esateko ipiñiak gaude,
Uaia bezin bestea kaniari onak daude.»*

Urrengo urtean be bardin Tolosa'ko plaza zarrean batu ei 2Íran lau bertsolari, orduko onenak. Zabala, Pernando, Txabalategi ta Altamira'tar Joan Batista, tolosarra. «Plaza zarreko baranda banatara igorik —diño lztueta'k— kantatu zuten arratsalde guzian bi bitara. Ain atsegintasun aundikoa ta pozkidasua izandu zan arratsalde gogoangarri ura ezik, illunduta gero ere deadarka zeu.den entzuleak aurrera ere kanta eragiteko, eta uste det baldin eguna zabaldu arteraño'ko guzian ere ari izandu balira kantari, etzala aldenduko entzuleen artekorik iñor ere.»

Iparragirre, «estranjeri aldean» ez-ezik, Euskalerriko peri, zei-egun eta jaietan ibillia dogu; millaka ta millaka subizten ebazan bere kanru ederrez, «Gernika'ko Arbola» abestean batez oe. Agintariak bildurtu egin ziran, matxinada barri baten iturri izan leitekela-ta. Grduan, malt.zur^eriz oratu ta Tolosa'n giitza-pean ipiñi eben. Berak egoki:

*uZibillak eaan naute (dute)
biziro egoki,
Tolosa'n bear dala
gam au erabaki.
Criltzapean sartu naute
poliki-poUki...
Negar egingo luke
nttre amak ba'leki.'y**

Pello Mari Otaño, 1898'ko urtarrillaren 26'an, bigarrenez joian Argentina\ra. Pasai'n artu eban ontzia. Jente pilloa, eundaka batu ziran an bertsolari jatorrari agur egiteko, eurak be geienak bertsolariak edo bertsogrintzan jardunak beintzat. Pello'k an egíñiko azken-agur bertiroari Txirrita'k onela erantzun outson:

*«Ilbeltz illaren ogei ta seian
San Polikarpo eguna,*

Makiña jeade Antxo al(l<rra
 Puusua eman deguna,
 Á merikara dijudalaka
 Gitre Pedro Mari ona;
 ?,erto jakin fameliatik
 Aita jaltatzeu zaiguna.
 7,cñck etzuen izlimatuko
 Alako bizi lagunu?)

Eta zeian aztu, 1924'ean, Pernando Amezketarraren omenez, garillaren 13'an goiz ta arratsalde Amezketa'n eta gero lotazillaren 7'ean Donosti'ko Novedades antzokian egindako jaiak? Jai orreitan bai jentea ugari! Eta 1935'ko urtarrillaren 20'ean, Donosti'ko Kursaal'ean bertsolari-eguna ospatu zanean? Bertsolarien tarteko zan Basarri'k, egun zoragarri a gogoratuaz, onela diño: «Ordua baiño ondotoxo lenagotik, areto apain ura jendez gañeztua degu. Epai-maia ezarri dute, Juraduko jaun serioak artu dituzte beren aulkiak. Beren abildadeak neurtzera joandako ogei bertsolariak ere exeri dira bakoitza bere tokitan. Asi zan bertso-gudua. Iruna kantatuaz agurtu dute bertsojariak aurrekaldeko entzule-talde ugaria. Ezin da egokiago asi da jaialdia, ta ondo asten dana sarritan ondo bukatzen da, ocduan gertatu zan bezela».

Ogei burrukaiairiak, bakotzak amar aapaldi abestu ebazan lau jardun bestelakotan; berreun aapaldi guztiz, aapaldi bakoitxeko amar bertso batez beste. Dana zenbatzera ezkerro, barriz, bi milla bat bertso. Ezta gitxi! Poema eder bat antolatzeke besre. Eta jentea antxe adi-adi, bape nekatu barik, goizeko amaiketatik arratsaldeko ordu biak jota gero be; bazkal orduaz azturik, antza. Or, argi ta garbi gure erriaren bertsolaritasuna, or gure ^rriaren erti-sena. Eta zelan egotzi oi dogu guk ez dogula Jiteraturarik? Geure txikitasunean ba-dogu besteak aibat, baiña idatzirik ezer asko ez ba'geunka be, poema bizi oneik daukazan erria ezin daikegu esan eleder bagea danf.

Zeintzuk bertso yakoz ostera euskaldunari begikoen, barre-eragilleak ala sentimentuzkoak? Basarri'k, ia berak igarri gabe^ olango enkueta bat egíña dau. Gipuzkoa'ko irratitik eundaka bertso abestu ditu, zar ta barri, ta bein kartaz bete eutsoen etxea. Entzun berari. «Euskaldunen bertso-zaletasuna —diño— arrigarria da. Euskaldunak, berez, odolean darama itz neur-

tuenganako maitasun ori. Eskolik zapaldu gabeko nekazari, artzai edo basomutilla, bertso onarekin bereala lillurutzen da. Baita bizi guzian itxaso zabala ostatu izan dun euskal arrantzalea ere. Bertsoak eta bertsoari ezartzen zaion doñuak barren muiñak ikutzen dizkio. Gure erriari atsegin zaizkio bertso ariñ eta jostalarik; ondotoxo atsegiñago bizimoduaren erabera tajututako bertso mardul eta sentikorrak.

«Ba-det eskarmenturik asko au ondo iakiteko. Urteen bu-ruan, asteen bi aldiz, Donosti'ko «Radio Guipúzcoa»-tik mintzatzen naiz. Zar eta berri, eunka bertso entzunerazi ditut. Bertso parreragilcak bezela bertso sentimentuzkoak. Errenteri'ko Jose Zapiñain jaunak berc emaztearen eriotz ondoren jarri zitun bertsoak kantatzera askotan beartu nau erriak. Lenengo aldiz kantatu nitularik, etzenduteke sinistuko zenbat karta ta eskari etorri zan gure etxera; nik eztakit zenbat kopi atera Lzan nitun jendea atsegintzeko. Ezezkoa ematen asi bear izan nun azkenik, lan orrek denbora lastimagarria lapurtzen zidalako. Euskaldun baserritarra, pluma eskutan artuta karta egiten asteko, oso premizko edo gogozko zaion zerbaitegatik izango da. Beste gañontzean ezta pentsatu ere oíako buruzpiderik. Gure etxera amar bat karta irixten ziran egunero, Gipuzku, Bizkai ta Naparru'tik[^]. radioz entzun zituzten bertsoak eskatuz» (*Zeruko Argia*, 1964, Epaillak 22).

Gizon ez-jakiña zan Zapiñain ori, emaztea il yakola-ta biotza dardarazoaz orren bertso erdiragarriak egin euskuzana. Eta orren antzera, beste euskal bertsolari askok euren modua dabe bertsoak abesteko; apal ta ez-jakin izan arren, jakintsuak baiño indar geiago dabe arimearen osiña agertzeko; euren cgeria[^] euren teknika, euren gurpilla dabe azal ta mamin gauzak mol-datzeko. Eta, askotan, bertso ezerez batzuk naikoa dira «trajedi ikaragarri bat erriari adierazteko be».

Ba-dakigu, ba, mamiñari begiratu ezkeror erriari zeintzuk bertso yakozan atsegiñen. Eta azaletik, zein jazkera dau eder? Traketsa ala apaiña? Egia da, «bertso-berririk geienak, antziñakoak batez ere, euskera narTatxez, erderakada lotsagarritz bu-rutik oñetara jantzirik ageri zaizkigula», Jautarkol'ek diraus-kunez. Baiña bertsolariarena ezta erru guztia; lengo ta oraingo euskaldun jakintsuak be ba-dira errudun, eta ez gitxi, bertso-

etako doez Jaunak ornidu dauazan orreik, «seaskatik zekartenen buruak argitzen eta biotzak maitasun goitarrez berotzen» alegindu ez diralako. Beste aldetik, aldikada baten, Udarregi'n sasoiari eta, erderakada andiak botatea, erderazko itz asko bertsoetan erabiltea, modan egoana zan: jakituri-ezaugarria, noski. Beste batzuetan, erriak berak, olako bertso baldarrak, «jantzi ta soñeko arlotesren azpian, gatzaz josiak, biotz-ikutu goxoz igurtziak, irripar atsegiñez ornituak, irudipen bizizko argiaz jantzitakoak, azai gogorpean mami ezta dutenak», gogo beroz txaiotu izan ditu.

Gaur, osterari, taberna zuloetan izan ezik, ezta olakorik; gaur, zein bertsolaria zein erria, gero ta geiago ikasi ta buru-jantziak doakigu, ta erti-kutsuz landuriko bertsoa atsegiñago yake bieri, ganora barik egindako traketsa baiño. Ezta sarri gauza erreza izango, bat-bateko bertsoetan jardukeran batez be, lan akats bageak burutzea, erderakadarik eta ez sartzea. Baiña ekinaren ekinenez, asko ikasiz lortu daitekera da. Entzun one-taz San Martin'i. «Laster erantzun bearrak eta rima ta neurri ongi erabili bearrak, euskeran bertan kontu asko ipiñi barik jardun eragitzen diote. Gafiñera, euskera kontuetan, guziñok uste dugu jakintsuak gerala, naiz eta ezer estudiatu ez. Donostia'ko Bartoio-neko tabernan orrelako tablero bat dute, nai duanak, bertsoak bertan idazteko, eta ara orain dala denbora gutxi zer jartzen zuan:

*nEzo-gutzm diiut nik amaika Hzontfi;
 Fvskeraz dakite baiña, erdsraz nagusi;
 Euskotar osko dira ga\ ontan itxus-i,
 Euskera maite baiña, bat'erez ikasl.))*

Bertsolaria izateko, Ienengotik berezko etorria bear da, ta gero ekin eta ekin urte askoren buruan. Ezta bakarrik musika baten neurrian zerbait esatea; zerbait ongi esatea baiño» (*Olerti*, 1960, Garagarrilla-irailla, 180 orr.)

Eta, atenez, zein euskalgitan jardun bear da? Gaur badogu onetan nasterik naiko. Euskalgien batasunera jo gura, baiña zelako batasunera? Euskalgi danak dira eder, eta, batasuna egiterakoan, doguzan euskalgiotatik bat bera bazter itxi barik egin bearra daukagu. Zeregin au ezta gabetik goizerakoa,

astiro burutaekoa baiño. Berrogetamar urteotan, ez-arian bai-
arían, arlo andip.n rurreratu gara batasunean. Beioa orrela, bako-
txak bere izkelgian jardunaz, eta beste berrogetamar urtean
ia dana egiña da.

Bertsolariak be, bada, bakotxak bere izkelgian ekin bear
dautsoe. Egia da, gipuzkera modan dago koplarien artean, Biz-
kaia'n atan be. Baiña alperrik leiatzen dira ezer onik egin
naiean, ez dira erriaren biotzeraiño eltzen euren esan-izpiak.
cEztira sartzen herriaren bihotzean —diño auzi au errotik ikasi
ta aztertu dauan Oskillaso'k—, ezpaitira mintzatzen bizkaieraz
euren arteko norgehiagokoetan. Irigoyen'ek egiten duan lana oso
ederra eta garrantzitsua da, baina harira ethorri zait eta es-
kari bat egin nahi nioke hemendik. Alpontso: arren! saiatu
zaitez bizkaieraz Bizkaiko bertsolarien konkursoetan, eta eskatu
egiezu euren bertsoak bizkaieraz bota dagiezan» (*Egan*, 1963,
4-6, 165 orr.)

Guztiok leialki opa dogun izkelgi-batasunerako biderik egoki
laburrena auxe dogula deritxot.

4. *Bertsolari eskolatuak*

«Bertsolariak ba-dau bere eskola» entzuten dogu sarri. Ezta
guzurra diñoen au, dana dalako koplariak bere joera, mailla ta
estetika bereziak ditualako; bere sentipenak eta iduriak agertu
ta adierazteko, bertsogintzan jarduteko, besteak ez lako trebe-
tasuna, gaitasuna daukalako. Baiña ni ez naz orain bakotxak
bere-berea dauan doe ori azaltzen asiko, ortarako bada ber-
tsoiari bakotxaren lana banazean aztertu ta aztatu bearko neuke
ta orain ez dot astirik; ortarako, euskal bertsolari bakotxaren
noitasuna ta erabilí zitun kantagai eta asmo-iduri guztiak iña-
rrosi bearko litzakez eta orrek liburu au be mardulegi egingo
leuskit. Gabiltzan, beraz, azaltxoagoíik.

Nik, begirunez beterik, gain-gaiñeko begitu bat dagitset
euskal koplari guztieri. Eta ortarako, zelanbait alkarren arteko
banatasuna, aldea, agertu dedin, mendi-maldako muLño bitan
jarriko ditut; batzuk eskumako muiñoan eta ezkerrekoan bes-
teak: ikasi ta eskolatuak eskumakoan eta eskola bageak ezke-

rrekoan. Batzuk, baktzak bai dau bere aoxuria, eskumakoak txaiotuko dabez; besteak ezkerrekoen alde makurtuko dira. Baiña bego au argi: bai oneik bai areik trebe ta txalogarri doguz, baktza bere einan. Ezpei iñor mindu.

Ni neu beti nozue eskolatu zale. An naiz emen, ozen esan dot gure bertsolariak eskola geiago bear leukeela, orrela erneago litzakez-ta. Lenago trobadoreen artean be orrela ziran, batzuk geiago, beste batzuk ez ainbat. Baiña nok ukatuko daust eskolatuak gailenago ziranik? Ez naz ni bakarrik eritxi ontakoa; entzun M. Lekuona'ri: «Askotan ikusi izan degu nor edo nor, bertsolariai buruz lantua jotzen: Tamala, lastima aiLndia dala, alegia, orrelako etorria duten gizonak eskola gabeak izateaJ... Olakoen iritziz, bertsolaria eskolatu balitz^ eskotaz ere ohea litzake. Askotaz ere bertso obeak egingo lituzte» (*Basarri-ren Beriso-Sona*, Zarautz, 1950, itzaurrean).

Norbaitek esan dau aozko poesi ta idatzikoeran arteko aldea, diferenzia zearo kentzea komeni Jitzakela, biak be elertiaren agrpen egizkoak dirala-ta. Au zelan dan. Gurean nik ez dot uste egoki danik, gure erri- literatura dizdiz-erlantzik bikaiñena bage geratuko litzakigu-ta. Ortik, bada, nik ez diñot geiegi eskoiatu bear danik, baiña bai berezkoari lagunduxik goragoko poesi-maillara jaristen saiatu. Egia esateko, ezta komeni larregi eskolatzea be; ortara ezker, bertsolaritzari dagokion maillaz gora igon ezker, onek bere jatortasuna galdu egingo leukelako. Kontuz ibiltekoa da. M. Lekuona'k: «Oso kontuz ibilli bearra dago ortan. Bertsolariak ba-du alako zer bat, eskolatu en artean izaten ez danik. Ez *ezin* izan leitekealako, izan *oi* ez dalako baik. Eta bildur izatekoa da, bertsolari jatorrak eskolatzen astean, olako *zer* ori galtzea. Arriskua dago. Zer da, ordea, *zer* ori? bertsolarien *zer* berezi ori? Ez da errez e^aten. Gatza? bizitasuna? azkartasuna? zorrozatasuna? Nik al dakit? Jatortasuna, bertsolaritasuna. Dana daia, letradun poetak, gutxitan, oso gutxitan izan oi duten zerbait. Eta bertsolari bati ori kendu ezker, poeta bat geiago izan dezakegu, bañan baita bertsolari bat gutxiago ere» (Loc. cit.)

Orixegaitik larakua bere zuloan; bego baktza bere mailian. Ibil-mailla orretan, alan be, izan daitekez goraberak. Gaurko gustorako batez be, eskura yatorku ez-bardintasuna. Ber-

tsolari taide biok berezian jarte au, muiño bitan ipinte au ez datorkigu txarto. Azter daiguzan, beraz, orrelaxe; lenengo eskolatuak, gero eskola bageak. Goazen Gipuzkoa'ra, Bizkaia'ra, Nafarroa'ra ta mugaz arago, ta nainim aurkituko doguz eskolatuak eta eskola bageak.

a) *Berisolari eskolatnak Gipuzkočn*

Eskolatuak; nortzuk merezi ete dabe izen ori? Berezko doaia ikasiz ugaritu dabenak; ekiñaren ekiñez, bertsolariak berekiko dauan *zer* ori galdu barik, «bertsolari izateari ukorik egin gabe, len bezain bertsolari iraunik», eder-itxurazko kultur-soiñekoz jantzi diranak. Gipuzkoa'n iru artu geinkez eredu, oraingoz beintzat: Iparragirre, Bilintx, Pello Mari Otaño ta Basarri.

1) *Iparragirre*

Iparragirre, gizaldiak erantsi dautsoen arlote-maillan be., beti iduritu yat niri gizon ermu zintzoa; iñoren itzakaz esateko, «euskal pizkunde aurretik XIX'gn. eunkiak sorturiko euskal semerik begikoena, zintzoena, biotz zabalena». Mundu2 mundu ibiJli yakun euskera utsean kantari. «Gitarra zartxo bat da neretzat laguna», diño berak; eta orrela dabil euskaldun artista Itali'n, Suiza'n, Prantzi'n, Inglaterra'n, Ameriketn, kezka latz baten arra zili-milo biotzaren erdian. Euskaldun kezka zan bairuan eroiana, euskeraganako kezka, erriarenganako kezka urduria; eta berak sorturiko kanta ta musikaren bidez laster kutsutu ta piztuerazten ebazan entzuleen azur-aragiak be.

Urretxua'n jaio zan 1820'ko dagoniflaren 12'an. Zerain'en bere osaba bategaz gramatika ikasi ostean, gurasoak Gazteiz'era bialdu eben latiña ikasteko nunbait; andik urte bira, Iparragirre sendia, Urretxua'n eukien gozotegia itxi ta Madrid'era aldatu zan. Joxe Mari gure mutikoa Jesu-Lagundikoen ikastetxe baten sartu eben. Fernando VIFgarrena, Espaiña'ko erregea il zan ontan. Laster jagi ziran guda-txinpartak: batzuk illaren anai Karlos V'garren3ren aídekoak ziran, aren alaba Isabel IFgarrena

nai eben beste batzuk; or karlistak eta liberalak aurrez-aurre. Iparragirre, Karlos V'garrena euskal-fueroen aldeko zaia-ta, lenngotik onen saillean jarri zan: Madrid eta ango ikasketak itxi ta euskal mendietan dakusgu amabost-amasei urteko. Zauriz beterik dabil, On Karlos'en jagolekoen artean. Ez yakon eder izan Bergara*ko besarkada (1839) eta, erbestera iges-egiñik, or urteetan alderraL

Inguruko giro ta edesti-gertaerak asko kemendu ori dabe ertilariaren gogo. Orrez gaiñera, jaiotzez genduan Iparragirre etorri ta barren-jario andikoa; bohemiak bñzitzan ortik zear oarrikasiz be asko jantzi zan. Itz batean, eskolatua genduan iñundik be; baiña, bear bada, eskolak moztu eutsozan ari bere bertsorako egoak. «Musika bezelakoak zituan bertsoak ere —diño M. Lekuona'k—. Musika, Italia'n zear ikasia... eta bertsoak ere ortik zear zebillela kutsutuak.» Batzuk nasaftxo ta "baidresak dabezan arren, ba-ditu beste batzuk, «Ara nun diran», esaterako, zal ta dotore egiñak. Urretxuar argi oni, gaiñera, nok ebatsi legikeo arako erri-abesti «Gernika'ko Arbola» gardenaren ospea?

Bere errian naiz erbestean kezka bizi bat erabillen sarkor, eta kezka larri au iraunkortu nai arek erriaren uanean be. Jadetsi ete eban? Ona bein Egaña gazteiztarrak Madrid'eko kortietan esana: «Jaunak: Iparragirre, bake-egin ostean be, noiz edo bein bere erriratu zan. Baita erriz-erri bertsolari ibilli be. Zer abesten eban? Fueroak, besterik ez. Zuek, alan be, ez dakizue kantu orrek noraiño iñarosten daben erriaren biotza. Erria naspiitzen eba!a-ta, erbestera urtetako agindu eutsoen; arek, baiña, ez eban iñor il, ezta galbiderako ezer erakutsi be, agintarien aurka ez eban ezertxo egin. Fueroak erabiltzan bere kantuetan, eta agintariak biidurtu ziralako kanpora jaurti eben. Jaunak: ni izana naz gure mendietan Iparragirre'ri entzuten; «Gernika'ko Arbola» abestuko ebalako zurmurra zan, eta miJ.la-ka ta millaka lagun batu giñean. Aren kantatze eder! Abesti laburra da; emen daukat euskeraz, baiña ez dautzuet irakurriko izkuntza orretan, ez bait-zeunkie ulertuko. Neuk erderaturik, bai, irakurriko dautzuet». Eta gizon leiñargi arei itzulpena irakurri eutsen Egaña'k.

Gaur be bear gendukez Iparragirre bohemiak batzuk, gitarra

durundutsua lagun, Euskalerrian eta munduz mundu kantari. Kanta-modu au, ezin ukatu, gaurko ezta dogu. Or ibilliak ditugu, egundokorik zolien, aita Duval Prantzia'n, aita Alesander Argentina'n, aita Mariver, Gerona'ko erri txiki bateko txauburua, euren melodi iskitsuak gitarraz lagundurik abestu ta abestu. Mojatxoak be bai, era orretan zabaldu ta barreiatu nai izan dabe erriz-erri biotz-zokoan sentitzen daben Jainkoarekiko griña leratsua. Ondo legoke gurean be gisa ortako zabalkundea* euskal kanta, bertso ta oiturak nainora erraiñuturik.

2) *Bilintx*

Artistak, esaera dan lez, beti txoro, iskilmñ zale eztira ta, zirkulu ezkutuak billatzen dabez euren erti-lanetarako. Picasso kubo-margozaleak eta Max Jakob olerki barri-zaleak Paris'ko Ravignan kalean eukien euren lantegia; artista biok alkarri laguntzen eutsoen. Max'ek Picasso adoretzen eban, eta Picasso'k bein Max'i, onen olerki bat irakurriaz, bota eutson: «Olerkari bakarra zara gaur».

Indalezio Bizkarrondo, «Bilintx», donostiarra dogu, 1831'ko jorraitaren 30'an jaiotako ta 1876'ko garillaren 22'n illa. Donosti'n ba-da Esterlines kalca, eta kale-zirkulu ontan ezaguna lenago «Café Oriental» zirautsoena. Bilintx'en garaian ementxe batu oi ziran poesi-zale batzuk, Bilintx bera arteko zala. Sarri abestu ei ebazan emen bere maitezko ta zirizko bertsoak. Benito Jamar'ek «Poesía Euskara»-ri egin eutson itzaurrean diñoskunez, ementxe irakurri eutsozan berak Becker'en *Rimak* eta Aguilera-ren *Elegías*. Oso atsegin yakozan. Ementxe ezagutu ebazan Campoamor'en *Doloras* itz-neurtuak eta Heine doixtarraren mahe-leloak.

Guztioengandik, beraz, zerbait ikasiko eban Bilintx'ek, naizta zer andirik ez. Berez zan Bilintx bertsolari. Aurretiko bertso zarrak eta garaiko neurtitzak irakurrita eukazan, ba-ekizan olerti-legeak, ba-ekian zelan gauzak eder azaldu. Eta, olerkari arrotz orrein zerbait ikasi arren, Bilintx'ek bere-berea dau idatzi eban guztia. Becker'ek eta gure Bilintx'ek gai berbera abestuta be, Becker'ek eta Heine'k euren artean antzik ba'dabe be, arein

<eta Bilintx'en artean ezto gu olakorik sumatzen. Txoriak zer gitxi ikasten ei dabe bata bcsteagandik, bakotxak dau bere kantaera; Bilintx'ek erabat kantaera gozoa, gogoak emon oi eutsona errez ta gizonki abesteko. Maite-miña, ostera, beste biak baiño be bizi giartsuago adierazten dausku; ez dabil iñoiz inguru-minguru; ez lizunkoi: gura dauana diño, beti euskaldun.

Auxe, izan be, Bilintx'en bereizgarririk aintzatsuena, eusalduntasuna. Euskeraz pentsatu ta euskeraz minrzatu, or aren neurtitzen doairik urtenena. 1862'ko garillaren 24'an, Donosti'ko *El Guipuzcoano*'k argitara eban *Lniak* deritxona. Poesi ederra, itzcz ta doiñuz. Amairu ahapaldi ditu zorztiko txikitan; dama bat dau kantagai, ustezko dama bat, Lauaxeta'ren *Maitale kutuna* iduri. Au bere bikaiñenatarikoa izari ezta be, Heine'k eta Becker'ek eztabe ain ederto landurik. Irakur amabigarren; ahapaldia:

*aGozuaren biriutez
aren asmasiak
la-arazitzen ditu
nere oiñazjak;
usai oberik ez du
banatzen aiñziak,
loriak maitaiuaz
baratzen pasiuk.))*

Ez eban askorik idatzi, zatiren batzuk galdu eypadira beintzat; 36 olerki guztiz, eta zortziko txikitan geienak. Nagusia ^aiño atsegiñago yakon, ikusten danez, txikia. Itzulpenak be egin zitun, bat beintzat Najera'tar Manuel Villegas'en *Al céfiro* deritxona. Maite-lera bizi erabilligaitik, moral-arloan garbia zan; *Juana Bixenta OJabe* deritxona bererik irrixkoiena. Argitaratze kontuan, barriz, Bilintx eta Xenpelar doguz gure bertsolarietan geien zabal dabiltzanak: bertso-paper, kanta-liburu, esku-idatzi ta olakoetan beti agiri dira Bilintx'en neurtitz ain beroak.

Bat-bateko bertsolaria ete genduan? Bai, antza danez. Etzan sarri bertsoka Jarduna, baiña ez yakon palta etorria ta erreztasuna. Bein Ernani'n zala, bertsoan asi ango bertsolari bategaz eta itzetik ortzera azpiratu ei eban Bilintx'ek. Berak bc, *ni bertsolari naiz» diño *Aspaldiyan Joxepa* deritxon poeman.

Baiña Domingo Kanpaña, bere arotz-laguna, ei eban batez be saiokide ta zirikari. Zearka mearka txit edatua da beiñola ari bota eutson zortziko au:

«Mando baten gañ'ian
 Dovíngo Kanyaña,
 ez dijoa utsikan
 asto orren gaiña;
 a>oian dijoana
7nand.ua da, baña,
 gañekua erc bada
 azpikua arla:
 mando baten gañ'ian
 bestia, añaña!»

3) P. M. Otaño

Lengo bertsolari eskolatuen artean PeJlo Mari Otaño dogu geien nabarmentzen yakuna. Ba-eban berezko sena, berezko jasa; euskera gure izkuntzaren gorde-eztutuak ondo ezagutzen ebazan. Gaiñera, bertsoak besteak baiño apaiñago egiteko, umetatik aldean erabillen gaitz batek, sarri erasotzen eutson katorroak laguntzen eutsan: estulak ito bearrean artzen ei eban edozer abesten asi ala. «Auxe, nere iritziz, —diño aita I. Untzurruntzaga'k OtañoVen bertso-bildumari egiñiko aurre-solasean—, PeJlo Mari'ren bestek ez duten doai berezia: katarroa. Bertsoak idatzi bearrak, bestela baiño apaiñago orraztera beartzen zion. Orrezaz gaiñera mundu asko ibillitako gizona zan eta orrek asko erakusten du. Ot.año'ren bertsoak gutxitan arkitu oi diran jakin, armoni, olerki dariote; kezka izaten naiz batzutan Pello Mari'ren zenbait bertso olerki ala bertso ote diran.» (*Pedro Añari Otaño'ren Bertsoak*, Zarautz, 1959, 6 orr.)

Ona beste bere alderdi bat be, oargarria oso. Ez eban gogozko ardao edo sagardo-ontzi ondolik sortzen dan itz-jario txerbela; bertsolari asko lez eztabii zirikaldi ta esaera zorrotz bílla. Otaño ez dabil bide ortatik; iduriz ta biotz-ondoiz lan argi beteagoa da berak dagiana. Onetan bat etorren Enbeita'tax Kepa'rekin; au be gogoz leiatu zan bertsolariak ardangeletatik atara ta plaza-gizon egiten. Lotsor izan nunbait eta askotxo

ke-zurkuluetan ditugu soilki bertsolari trebe, agirian ez dira azartzen. Nik ez diñot danak an egin bear dabenik, «bertsorik fiñenak» sarri olako lurrun artekoak dira-ta; baiña, ikasiz ta lotsea aldameraturaz plazara urtetea egoki yake, bertsolariak bereak ditun iru doaiok, etorria, maltzurkeria ta lotsarik-eza, agirian erakutsi dagiezan.

Gure Otaño (1857-1910) Zizurkil'go Errekalde baserrikoa izanda be, Donosti'ko Amara'n bizi izan zan gatzetatik. Zerbait ikasi ta lanari lotu arren, ez eban aurrerapen andirik eta Ameriketarako bidea artu eban. Orduko be larri-min batek jana ekarren biotza.

*uGau eta egun ausiaz dago
gure Euskalerrri ederra
alC.e batera naiago nuke
ez ba'nitz emengotarra.
Mundu guzia ikaratzen du
Evs kaldunaren negarrak.
Saiatuzlak balio ezpadu,
zertako degu indarra?
Au da txoria gari tartcan
goseak egon bearra.m*

Zek eragin eutson amarreko au? Dana dala, min orrek eroan eban Ameriketara. Erri-min orrek ez dautso baketan itxiko; naiz-ta Argentina'ko zabaldietan artzaín bizi, bere jaiolurraren gozoak leun igurtziko dautso biotza. Min orrek^ batez be, zan eta odol bertsolari biurtu eban, eta sentipenez ta bulkoz gaiñezkako bertso-lan yaukalak itxi euskuzan; 32 bat olerki guztiz, Argentina'n egin eta bere aiton ta osabai bialduak geienak. «Elizakuak», «Aitona gizagaixoa», «Limosnatxo bat», «Amets bat» eta abarretan jario bero ugaria erakusten dau. 1897'an, Oiartzun'go euskal jaietan, Pello M. Otaño'ren «Anaitasuna»-k jaso eban neurtitz-sailleko lenengo saria; Txomin Agirre'n «Ai balekite!»-k, bigarrena.

Paperean idazten ez-ezik, bat-batean botaten be ba-ekian. Urte-mordotxoa Ameriketean igaro ostean, etxera biurtu ta Errekalde'ko ate aurrean bota ebazanak argi ta garbi egizten dauskue ori. Illoba kanpotik eta osaba barrutik, bertsojeta samurra euki eben.

Peilo Mari'k:

—aOsaba, baldin ez ba'dauka
egiteko aundiyen bat or,
gizon bat dago berorren galdez;
ate ondoraiño betor.
Berorrek ondo asko ba-daki
agintzen dana dala zor,
bcra jaio zan oiaren billa
illoba oraintxen dator.n

Joxe Bernardo'k:

—ñNerc illoba, esaïen dizut
ongi etorri zerala;
jaiotako oia jantziko dizut
gn**o aundiz beriala,
crropa zuri ederrenakin
paryaillak darizkiola,
Hinistamena eman dizudan
Myotzen bai dizudala.n

Pello Mari'k:

—zEsperatutzen nuben bezela
tgin nau errezi bitu;
gizon on baten sentimentuak
zeftek berorrek ba-ditu,
mese.de asko egin izan dit
denak esango ba'ñitu,
haftan memori sinple askotan
e^.n litezke kabitu.*

Joxe Barnardo*k:

—aEskerrik asko esaten dizut
aitormen ori dalako,
orregatikan nere etxian
tzer etzai zu faltako,
edari onak izango dira,
aukera berriz jateko:
zurc altzekin biok ederki
tripak ditugu beteko.%

Onako joan-etorri baten Maria Madalen Alberdi'gaz ezkondu
zan Donosti'n, sei seme-alaba izanik. Bere azurrak emen izteko

asmuz zan, erri-miña ezin eroanda. Gizonak^ baiña, ezin jadetsi gogo dauan guztia. Oroigai lez euskal usaiñez kutsuturiko bertso gartsuak bialdu euskuzan; bera an, Argentina'n, Santa Fe probintziko Rosario'n il zan, 1910'ko maiatzaren 5'an, bere jaiotetxeko intxaurra gogoratzen eutson «onbu» zarrari begira. Gizona il ba'zan be, aren euskal gogo bizia itxi euskuzan olerkietan daukagu.

4) *Eizmendi'tar Iñaki, «Basarri»*

Or Errexil zoragarri Erniopean; ortxe, Beama ballarako Granada baserrian, erreka jostalari bat ertzetik doakion txokoan, len-argia ikusi eban Basarri'k, 1913'ko azillaren 27'an, gerora, zazpi urtetik, Zarautz'en bizi dan arren; berak ederto:

*«Gyrasoak ni lokiz aldatu
nintfutn gazte nintzala,
baña nunaitian naiarmentzen da
arbol zarraren itzala.))*

Izan be, Euskalerra osoa dauka gaur bere itzalpean beñiola an erreka egalean sortu zan zugatz mardulak. Basarri gaur bertso-larú izlari ta idazle lez tantai jagi gerizpetsua dogu; bere jatorriari ta xume izateari uko egin barik, alan be. Entzun Bordari'ri: «Granada-errekako semeak, apal giroak sortua, ez du ukatu nai izan sekula bere jatorri xea; ta gorengo bidetik ibilli zitekeanak, erri-erriaren itzai díardu oraindik ere, arrantzale-base-rritar, gogo-anirimm azkurri oparia eskeñiaz». Olan da egiazki: gaur egunean euskal bertso-laririk onena danak zenbat mesede dagion erritar kulturari.

Gure koplari eskolatuen artean berau dogu eskolatuenik. Ez -aurki umetan asko ikasi ebalako, naimen sendo baten jabe dalako baizen. Amaika urterarte bakarrik zapaldu eban eskola; dan guztia izatera, ba, bere gisa eldua da. Irakurteko zaletasun ikaragarria izan dau beti; irakurritako asko beintzat gogoan artzeko erreztasuna be bai emon eutsan Jaunak. Bertsolari guztiak ei dira buru oneko.

Noiz asi yakirn bertso-tan? Errotariaren semea errotari izan

oi da geienez; bertsolariaren semea be bertsolari. Enbeita zarraren aita —«Txotxojeuri» eresten eutsoen izengoitiz— bertsolari zan, eta semea —Kepa— zelakoa! Basarri'ren aita bertsolari genduan, eta doai ortik izpitxo bat semeari ezarri ba'eutson be, ezta arritzeko. Oraintxe ogetamar urte doi-doi idazten euskun berberak: «Sarritan gustora egonak gera gure aitonen kontuak entzuten, lengo gertakizun, ipui ta gañontzekoakin. Bertsolari aitatu gabe iñoiz etzaizkigun ixiltzen orregatik. Amorratu utsak baidira ortara! Asiko dira au ta ori esaten, onela ta onela ziran, ta onelakoak au esan zien: bertso puntara berealaxe. Ta bertso zar asko berri-berri ta garai-garaiko gaurko eguntako ere. Bazuten doaia gure aurreko zarrak. Onenak zein ziran iritzia galdetuta, Pello Errota, Udarregi, Pastor Izuela, Sempelar, Gazteju Gorri, Errekalde, ta onelako izenak ematen dizkigute gure asabak. Oien kontu ta gertari ederrik bai!» (ARGIA' *ran Egutegia*, 1934, 80 orr.)

Aitona ta aita biak zituan bertso-zale errimeak; Azpeiti'ko sariaren bertsoak buruz ekiezan, eta sarri abestu bear izaten ebezan jenteak eskatuta. Beraz, txingar oneik biztu eben sekulako bertso-garra semearen biotzean, oraindik eskola-mutiko zala biztu be; lenengoak, egia, etziran bapoak izango, baiña bederatzi-amar urterako kantatzen ebazan nolabaitekoak. Etxean, gaiñera, tabernea eben; bertsolari ta bertsolari izeneko asko, batzen zan bertara. Etxean ikasi eban Basarri'k bertsolari izaten, ona ta txarra berezten. Ona berak: «Lengo zarretan ezagutu nunik iaioena «Gaztelu» zana izan zan. Gozoa, ondo itzegiña, laguntzaillea. Etorri oparoa zun eta tenor boza zoragarria. Pozik etortzen zan gure etxera «mutikoarekin» saioa egitera. Nik ura gogozko nun, baiña bai ark ere ni. Pedro «Prantexa» ere ezagutu nun; baita etxean berarekin kantatu ere. Edanak galdu zun. Nolabaiteko bizimodua zeramakin azken urtetan. Bertsolari bizkorra zan, ordea. Txikia nintzan artean, baiña, ona, erdipurdikoa ta txarra berezten garaiz ikasi nun».

Plazara agertzeko ordua be etorri yakon azkenik; amazapi urte bete baiño len abestu eban lenengo aldiz, Zestua'n. Iñolako moduz berak rmi ezta be, lagunak ara eroan eben beartuta. Errauskin errotaria zan beste bertso-laguna. Geroztik aukera ederrak izan ebazan beti, andik eta emendik noiznai deika asi

yakozan eta. Baiña guztizko agerpena, Euskalerra osoari lenengo agurra egin eutsona, 1935'an, Donostífn ospatu zan lenengo Bertsolari-Egunean izan zan. Kursargo aretoan onela diño:

«t/so zuri *bat inguratu zalt*
goizean egun argitzez,
claitasuna artxek sortu dit,
jaun maiteak, bere itez;
eia ni orain zuen aurrean
nazute pozaren pozez.
Lendabiziko, entzule onak,
Agnr ianori biotzezIn
ilkus Yakintza, 1935, Epaill-
Jorrailla, 143 orr.)

Gerora, amaika bider entzuna dau Euskalerrriak agur au. bai irratiz bai plazako oltza gainetik.

Egun ospetsu atan Donosti'n Euskalerrriko ogei bertsolari onenak batu ziran, orduan gaixorik ebillen Enbeita zarra kendu ezkeru. An ziran, Txirrita Ernani*koa, Lujanbio Alta'koa, Zepai Errez'Tgoa, Txapel Azpeiti'koa, Abarrategi Bizkaikoa, Tellaetxipi Errenderi'koa, Nekezabal Zarautz'koa, Sarasola Antigua*koa, Mintegi ta Erauskin Ordizia'koak, Kepa ta Jon Zabaleta Errenderi'koak, Sorozabal ta Etxeberría Aiete'koak, Uriarte Dima'koa, Kortatxo Itziar'koa, Basarri Errezil'goa, Larralde ta Matin mugaz andikoak, eta ALkain Urnieta'koa. Onein artean Basarri gazte ez-ezaguna zanarren, epai-maikoak beroni emon eutsoen lenengo saria. Urrengo urtean be egun bardiña ospatu zan Donosti'n, Basarri'k orduan bertsolari-zuzentzaille egiñik. Artara beste izen bat agertu zan, Uztapide, ta arrezkeroan izen biok alkax buztarruta dabiltz ospeareen egoetan. Bertsolari zarrak joan yakuzan, eta aspaldi bikote au dakusgu aurrez aurre, beti mailla bereziko ta txapeldun, euren bertso-saiuetan. Zenbat kantu-lan erriz erri! Andi ta txiki, ba ete da Euskalerrrian oneik zapaldu bako plazaxik? Eta norgeiagokak? Emeretzi bat onakotan, oker andi barik, Basarri'k esku artu dau, eta beti gelditu izan da lenengo. Azkenengoan, alan be, Euskalerra osoko txapelketa, 1962'ko Gabon-zar bezperan, Donosti'ko Astoria antzokian egin zanean, Manuel Olaizola, «Uztapide», izentatu zan Euskalerrriko txapelduna, eta Basarri bigarren.

Basarri*k eztau bear gorapenik. Danok dakigu bere arlo bi-kaiñean dagian lan txalotua; danok dakigu bertsolari garaia dala, gaur beste iñor ez aiñakoa, ikasia, eskolatua, edozeiñentzat eredu. Gizon danez leial ta zintzoa; sendi eder baten aita: laster dira ogei urte ezkondu zala, ta seme bi ta alaba bi ditu, ziñezko maitasunean errotuak. Almen zangarrez ornidu eban Jaunak, baita berak almen eta doai orreik ugaritu, indartu ta edertzeko lanean egiñalak egin be. Berezko doaiok, obeturik, nobere erriko oitura ta gauza zarrak goresten darabiltzan gizona aintzagarri ezpada, nor ete dogu?

Euskal aldizkari guztietan agiri dira bere bertsoak. Baita ba-ditu iru íburu beñipeiñean argitalduta: *Atano III* (Zarautz, 1949), *Basarrryren Bertso-sorta* (Zarautz, 1950) ta *Kaniari nator* (Zarautz, 1960). Azal ta mamin guztizkoa. Edozein gai dau erreze ta eder bere eztarriak: eleiz barri bat, Aita Santua, meza barria, mixiño bat, bertsolari zarrak, edozetariko kirolak, gure idazle andiak, baserri, goiz-aldiko zurruta, arrotzak, illargiaren kezka, txakur-jaiak, asto lapurtuak. Nai al dogu gai ugariagorik? Gaiok, oster, beti darabiltz garbi ta aratz. Begira, zein ederto, Donosti bardiñik bakoa margozten dauan:

*aGoi-golko mallak artu dituzu ta gañera eskubidez,
Gipuzkoa'ko aeme-alabak zurekin alaitu bitez.
Munduko berri dakiten askok au aitortzeko dudik ez,
Zu austekorik e.z dala iñon ez garbiz ta ez politez^
fikus Kantari nator, 158 orr.)*

Oraintsu —1964'ko loraillaren 17'an— omenaldi galanta egin yakon Basarri'ri Errezil bere sorterrian: meza nagusi, bertsolari-jardun, bazkari, txalaparta, scka-tira, jaioterriak opal dutako omenaldiaren eskintza. Nainun sortu dauan kezka ordez, egun orretan gorputzez an ez egozanak be, gogoz beintzat, ondo alkarturik egozan Errezil'go bertsolari garaiagaz. Kezka esan dot? Bai, ta ez pitiña. Entzun Bordari^ri: «Amaren sabeletik dakargu gizonak gure kera berezia. Askotan ez gera konturartzen joera edo ixuri ori —bakoitzarena— nora ta nolakoa dan. Alakoren batean nork bere barruan daramagan kezka-azia —jaiterri-sukarria— miñ ikuitu batek zauritzen du, ta bat-bateko txinpart argi-bizia jaurtitzen, Txinparta ori biotz-beroaren erra-

ñuc\ litzake, ta gure baitan berebiziko su gaianta sortuaz, **dana** gar ta pindar, kixkali-zorian ipintzen gaitu. Onelako **zerbait** gertatua nazute. Esan dezadan; gogoan **dut** oraindik. **Gogoan** dut oraindik biotza ta anima nola anpatu zidaten. Arbola **zarra**, «Enbeita». Landare berria —aren alboan— «Basarri». **Bi-biak** zuaitz ostotsuetako urretxindor kantariak, oleskari zoliak. **Ordu** ezkeroz ezagutzen dut Iñazio Eizmendi, biotzeko **adiskidea**. Egun artan piztu zan nerean, barruan daramaten itz-neurturako zaletasun bedeinkatu au». (*Zeruko Argia*, 1964, Lorailak 17, 5 orr.) Kezka ederra ez al da?

Onenbestez, bere idazle, bertso-kantari ta izlaritzako **gaita**-sunak saiets itxirik, esan dagigun Basarri dogula «gure **bertso**-lari». Nire abumz, bertsolari bi izan ditugu Euskalerrian, bes-teak baiño mailla pilloa gorago ibilli diranak: Enbeita zarra ta Basarri. Biok askotan batera ibilliak, plazarik plaza, gurean **eta** erbestean. Ogeigarren gizaldi ontako lenengo zatian **berrogetaz** urtetan saiatu zan Enbeita bertsolaritza, sagardotegietatik **ate**-rarik, gaur dauan goi-maillara jasoten. Landara barriak, **aren** indar zarrez kemendurik, gero ta geiago jaso dau «gaur **eguneko** edozein gai erabiltzeko diña izatera».

b) *Bizkaitar oleskariak*

1) *Felipe Arrese-Beitia* (1841-1906)

Gizonak ba-ditu griña ta naiera latzak; oneitatik bat illezkor miña. Gure Unamuno'k iñok baiño biziago nabari eban **leia** onen eztenkada. Aratz ekusan bizialdiaren laburra, aian **be bizi** nai. Zer egingo? Izenaren ospe ta durundua luzeazo eguzki-izpi lez, egunko ez itzaltzeko eran. Asmo orregaz idatzi **ebazan** geien bat bere liburu biurriak. Ospe orren izpiak, izan be, **eztira** berez ernetan; augaitik alegindu oi gara guztiok, zerbaiti **ekiñik**, eta geure nortasuna aitzen emonaz, izena gaillendu **ta albah** erpiñen jarten. Edegi kondaira ta ikusi zenbat gudari, **itxas**-gizon, legelari, antzerkigille ta ertilari asmo bardiñak **gartuta**. Orrela doguz Omer, Bergili, Milton, Dante, Cervantes...

Tzena illezkortu dabenen arteko dogu Arrese-Beitia be. Gi-

zaidi erdjtik gora da íf zala, ta aren gomuteak bizi-bizi diraa oindño euskaldunen artean. Maite dogun zerbaitek kilika gozoa eraso oi dausku biotz-azpian; orrela Arrese'k be: bere bizitzan dardar jarri ebazan bazterrak bertso sakon gartsuz, eta ezin inñolaz be aantzi aren eragiñaren zauskada sarkorra.

Otxandio'n, Bizkai ta Araba'ko mugan, Anboto ta Gorbeia' ren begipean, jaió ta bizi izan zan. Bere guraso Ander eta Tomasa'k bide artezez ibilten erakutsi eutsoen umetatik. Amairu: urterarte erriko ikastetxean saiatu ondoren, berez ekarren mendu onari erantzunik, Gazteiz'era bialdu eben marraztiera edo dibujoa ikasten, ol ta arrí-langille artean zati baten an jardunik. Markos Ordozgoiti izan eban irakasle. Onek, ikasíeen ikas-gríña bizkortzeko, norgeiagoka batzuk eratu oi zituan; Arrese gaztea etzan bein be atzera gelditzen.

Ikasíeen arteko czin-íkusi ta liskarrak etxeratu eben, eta «arrezkeroko urteotan —diño Azkue jaunak— lanari dautsala bizi izan da gurasoen ondoan: irudi ta altaragintzan batez bere. Ezin-escm-ala dira euskaluri ta ergoien edo baserrietarako egiñiko lanak. Onetarako erririk erri ibilli bear izan dau, eskuak lanean gogortuten yakazan artean, biotza euskereaganako ta Euskaf-Erriaganako samurtuten izan yakola. Onegaitik esan gíñaike,. Arrese'k Euskal-Errián batetik bestera ibilleran egin dabén bidea, bide bikotxa izan dala; ogibidea, guraso ta emazte-uméntzako; kobla edo bertso-bidea, ama Euskal-Erriarcntzako; bada esku-lanak buruan egin izan dautsazan utsuneak, asti-uneetan or ta emengo berbaz ta orrako ta onako koblaz beteten izan dauz».

Santugin ta neurtizlari dogu, ba, Arrese, ta beti langille amorratua. Santugintzak omen eta izen andia emon ba'eutson, askoz geiago ekarri eutson bertso-gintzak. Menéndez y Pelayo'k inñoz esan ei eban Arrese-Beitia'ren olerkílanak irakurtearren, pozik ikasiko eukela euskeraz. Adiskiderik baeban naikoa, orduko euskalrzaleen artean batez be: Etxegarai, Azkue, Manterola, Arzak, Kanpion, Arana, J. K. Gerra, Trueba, Lopez-Alen, Duvoisin, Abbadie ..

Atsegin yakon Donosti, emen bai zan bizi 1873'tik 1876'ra bitartean. Manterola *Euskalerría* amabosteroko aldizkariaren zuzendari zala ezagutu eban; paper onetan argitara emon eutso-

zan ainbat olerki; bere *Cancionero Basco* (Donosti, 1877-1880), bederatzi zenbaki iru sailletan, argitaldu ebanean, Arrese'nak be txeratsu jaso zituan, onen izena bikain egiñik. Manterola'ri opatua da 188Fko urrillaren 29'an ondutako zortziko ospetsu au:

((Euskaldun jaio nintzan,
euskairfuna azi,
Euskara utsik amak
eustav erakutsi;
Euskara maite-maite,
zablllz neugaz beti.
Euskara il ezkeru,
ez dot gura btet.))

Donosti'n argintzan be bear asko egiña dogu. Ikastetxe zarreko (gaur Bidai ta Urrutidazki-Biltoki) karel edo goi-ertzetako euskotar gizon famatuen iduriak, adibidez. Iltegi zarrean be berein obi ebazan arlanduan egiñak. Bein, epez aurkitzen zala, ango eleizatxoan ixil-ixil sartu ta aurrez-aurre, goikaldean, Kristo gurutz-untzatuaren iduri andia marratu eban ikatzez, ederto moldatua ta oiñaze-itxura sentikorrez bizkortua noski. Iduri-oiñean itxi eban bertso sakona urteetan antxe agiri izan zan, San Bartolome eritxon ortu santua puskatu eben arteño.

1906'ko urtarrillaren 16'an il zan gure oleskaria. Beingoan zabaldu zan il-barría Euskalerriko lur-zoko urriñenetara be. Garai atan *Euskalerría'ren* artezkari zan Lopez-Alen'ek au iño-an: «Zartada ederra artu du orain ere euskerak, osagaitza noski. Elizanburu ta Etxeberri Bidaso'z andik, Otaegi ta Arzak oraintsu Gipuzkoa'n eta Arrese Otxandio'n, negar-itxaso utzi dute Aitor'en izkera; ta are samiñago dugu ezten onen mingotsa, eusko endaren zorigaiztoz eriotzak egiten dun uts-unea beteko dunik ez dugula izango jakiteak. Danak ezagun zuten Euskalerrian euskal olerkari gorengoena, Arrese-Beitia, Gaur ere, ura gorago ekarrlz, bertso giar aiek aditzen ditugula iruditzen zaigu, Gipuzko Aldundiak euskal jaiak eratu poz-eztitan geudenetakoak. Entzule guztiak, su ta kemen, Arrese'ri jotzen zizkiofen txa^o ta esku-zartak! Bizkaitar olerkari gurenaren ezpaiñetatik zintzil zeuden guztiak, eta aren itz-eztena erriaren biotz-barne-raiño zijoa».

Gaztetatik ekarren bertsoarako griña; ogeitalau urteko zaía

egin ebazan lenengoak, karlisten gudatea zala-ta. Onek ondoren ekarria, ostera, ezin eban ezetara be jasan, euskal eskubideen galtzea. Ordurako be naiko murriztuta eukazan lege-zar ta eskubidez osotoro billostu eben Euskalerrria: Cánovas de Castillo gobernuko nagusi zanak, 1876-VII-2ran, gure foru ta lege zarren ondarrak zeatz suntsi-azo zituan. Karlisten sailleko askok ez eben begi onez ikusi beeratze ta murrizte ori, ta garai atakoak doguz alnbat euskaldun zintzo lege ta eskubide arein alde, bai erderaz bai euskeraz, idatzi ta ots garratzez oiuegin ebenak.

Antzeko naibage aldietan belarri zoli egon oi dira bertsolariak erriaren taupada zain. Ta ordukoak doguz Uranga, Egaña, Artolatarrak, Ganboa, Etxegarai anaiak, Otaegi, Manterola, Otaño, Landart eta ebar; baiña ordukoa dogu, batez be, ta guztion gaiñetikoa, Otxandio'ko oleskari jatorra. Gizon naiz erri batek, bere burua zorigaizpean ikusirik, zer egin oi dau? Ditun indarrok oro bateratu ta kementsu bizi-naia erakutsi daroa, ziurrik asko, pipiak joa ez baldin ba'dago. Orrela jazo zan orduan be: ezin etsi iltera, bizi nai oraindik. Eta, Kanpion argiak dirauskunez, euskaldun erriaren bizi-naia ta olerki-sena nastu ta dardar batean jarri ziran. Eta gizon batek —Arrese'k noski—, adimen ta biotz uts-utsik, deadar zulagarria bota eban munduan zear, lurraren ulu eskerga iduri; gizon bat jagi zan zoli gartsua erriaren samin gordiña kanta naian, eta gizon ori bere bizitzune aretan, gizon ta batez be olerkari daitekenik zintzo ta tinkoen agertu yakun, erri baten nortasun osoa. Lurpean ernemin egoan gal-aziaren jaiouneko otsaz beste iñor baiño lenago konaturatu zan; au da: euskal erriaren biotz azpiko zaratak, onen gogai ta eritxiak berak senti ta jaso ebazan egoki ta giartsuen. Belarri- zoli egon bear, erriaren muin-barreneko taupada zain, bertsolari dirdaitso izateko; eta ori egin euskun Arrese'k, bere erriaren samin andia elerti-mamiñez oretu. Eta, era berean, naiz-ta len ixilla izan, bere izena ospe-dardaraz mundu zear edatu ta oroitz-ormetan ezilkor untzez josi.

1879'an, lapurditar Abbadie jaunak eta Iruña^ko *Asociación Buskardk* euskal olertia biztuteko asmotan, poesi-konkursu ta zeingeiagokak iraun bidean jarrea erabagi eben. An agertu zan Arrese-Beitia, sugar ta adorez kuinkuin. Maiburukoen aburuz, aren olerki *Ama Euskeriari azken agurrák* zan an aurkeztu zira-

netatik sarigarriena. Arrezkero be, or-emenka, Euskalerrri guztian ugaritu ziran poesi-batzaldi orreik, eta otxandiar oleskari zalioa, amabost-ogei bat bidar beintzat, saritua izan zan. Urre ta zidarrezko esku-muturrez aberastutako makilla zan orduko saria.

Oso ugaria dogu Arrese: oraiñarte eztau iñok idatzi arek beste, bertsoan beiñik-bein Enbeita kendu ezkeru. Aren lenengo bertso-mordoa 1900'an agertu zan, *Ama Euskeriaren liburu kantaria* eritxona; urte bi gerotxoago, 1902'an, *Asti-orduetako bertsozko lanak*; Bilbao'n biok, Astui'ren moldetegian. Andik urteetara, 1933'an, *Olerkiak* argitaldu eban «Jaungoiko-Zale» bazkunak; eta bazkuna beronek, iru urte lenago, beste *Bertso-sorta* txiki bat, oleskariaren omenez Otxandio'n egin ebezan jaietan banatzeko. Gero, 1956'an, gizon jator a il yakunetik berrogei ta amargarren urtcan, aren olerki guztiak, edo geienak beiñikbein, ale errotu ta ma.rdo batean argitaratu genduzan, bederatzi sailletan banatuta:

1) 19 *kantu errikoi*; 2) 48 *lirika kantu*; 3) 32 *gora kantu*; 4) *Alamalauko*; 5) 46 *eliz-kanta*; 6) 28 *alegi*; 7) 62 *ipuin*; 8) 43 *irakurgai*, ta 9) 8 *erderatik euskeratutako*. Guztira, 27.000 Ínguru bertso. Liburuak 688 orrialde ditu. Dakusgunez, intxaurondo igalez abaildua da Arrese, oso narua. Euskalerrrian baziran garai atan be olerkari yaioak; baiña guztion artean, Eli-zanburu ta Zaldubi atera ezkeru, berau dogu gailen ta bi-kaiñena.

Bere olerkietan zeintzuk oberenak? Errikoiak, erantzungo dausku Kanpion argiak. Liraka-saillekoak ederto baiño edertoago landuak dira, edozein elertibildumatan panpotx agertzeko modukoak. Euskaldunok berez gara pentsakari, pilosopu: begira gLire baserritarrak; eta ortik datorkio nunbait Arrese'ri be bere lanetan aragiturik itxi euskun sendotasuna. Guztiz ederto egiñak, asko ta askoren artean, *Azken-agurrak*, *Negu agura zar*, *Anjela*, *Eriotza*, *Etxezar*, *lleta*, *Baserriko jaun baten bizitza*, ta abar. Ona agerbidetzat *Agur*, *ume* deritxonaren ahapaldi bi; bere alaba Maria Pilartxo il yakonean egiñak dira ogeitamar ahapaldiok.

aEs al tiozue gogortzat, arren, iñok eukiko;
Ez nagizue atx arrizkotzat iñok bota;
Ez nagiala zentzun bagakaz iñok bardindu,
Nire biótz au erdibiturik gaur dago-ta.
Lora eder hat atzo zan eta gaur da zimela,
Atzo zan nirc poza ta gaur yat naibagea;
At.zo zan nire etxe au agaz uda-barria,
Gaur be.rm бага au yat negu baltz illunpea.r)

Ziri-olcrkietan be maisu zan. Olerkera onek xede berezia dau : gizaakats eta ganoraezak darda gain erabilli. Olerki arin faburrak dira geienetan, iñori miñik emon bage egiñak. *Parcere personis, dicere de vitiis*, dasa esakun zarrak; gatxak zikortu arren, ez esan gaitz-duna nor danik; orrella egin eben Grezi'ko rn Erroma'ko neurtizlari askok. Edonun lez gure artean ba-dira olango arlote, maimutz> zurrkulu-zaleak; onein gaiñetik gogoz erabilli eban Arrese*k txibita; gaur mozkorti bat zan, biar diruzale ta esku-eutsi bat orrela darabillena. Bai ta sarri jo oi eben beragana erritarrak, negar ta erosta; areik pozera ekarten arek lcr ta lor egin; ona, adibidez, *Larregi eskatzea* deritxonean diñoana :

«—Esaidazu, Josepa, zer dozu negarrez,
Ainbeste zizpuru ia zotin ein bearrez?
Agertuizu barrua, garbiro dan legez,
Ta benturaz r,euk poztu algo zaitut errez.
-Barru nu agiteko agirian jarri
Bakizu bear dala bularra idigi,
Jdigateko goiik beruntza ebagi.
Niretzat ain gogorra dozu biotz ori?»

AmaitzekOj zelan idatzi ete eban Arrese'k ainbeste? Biotzak eraginda. Gai sakonak darabiltz geienbat, esaera guntsuak. Asko irakurria zan, eta bere aldiari dagokion kutsua ezin ari ukatu, berezkoa baita. Buru-muiñean sortzen yakozan gogaiak egoki apaintzen daki, irri-jostari noizka, zur ta ben ondoren. Biotza datorkio gero^ gar urdiña dariola, izadi naiz giza-edertasun orri benetako zoragarri itxura ezartera. Ederrak eder ta akatsak akats, orrelakoxeak ditugu Arrese'ren bertso-lanak. Eztogu gaurko olerkari, bai bere garaikoa; eztogu bertsolari soil, gorago egaz; dagi. Len ta orain euskal oleskari garaienetarikoa dugu.

2) *Enbeita'tar Kepa*

Muxika'ko Urretxindorra, ona beste bizkaitar oleskari aintzagarri bat. Gure gizaldiaren lenengo zatia, ia osorik, berak bete ta iñarrosi eban. Beraz, aren guztizko gizantza bear giñoan biribiltzea ezta egikizun erreza; aren gizaizatea ez-ezik, euskal literaturaren pizkundean aren eragin-zarta ta adierazpenaren bikaña pitin bat bera aitzen emotea zail danik ezin uka daikegu. Aren olerkia, azur ta aragi, ain da eder, sakon txukuna! Muxikarraren bertso-lanak batuak ditut —danak lez nik uste—; iru-reun ta berrogetasei bat guztiz. Arrese-Beitia'k berak baiño be geiago. Ez da gitxi.

Biotz andiko gendun Enbeita, bizialdi guztia txinpart-urtika igaroa. Suterrautsa biztu ezkeru, millaka txingarretan lertzen; olan dogu aren biotza. Txingar orreik olerkiak dira, bertsoak zein baiño zein bizi-eztiagoak. Ogetabi urte dira il zala, ta aren biotzak oindiño bizi-biz dardar dagi itxitako olerkietan, bere garaikoak millaka ta millaka dardarazi ebazan lez gu be bere kezkaz sorgindu naian. Gaueko urretxindorra zan; gau izan arren, kanta ta kanta jarduna. Bere kantagai ta asmo beroak: gure erria, gure euskera, gure erlejiñoa, gau itsuan egozanak esnatzeko, euskaldunen biotzak gora begira jarteko, atertu bari kanta ta kanta, urretxindorraren antzera intziri ta eiagora ta urruma gozotan. Ortik yatorko Urretxindor izena.

Zornotza'tik Gernika'ra goiazala, Areatza'ra baiño len, ezkerretik goi samar sagasti jori baten magalean etzanik, Usparitxa, Enbeita'tarren kuma loratsua. Ementxe jaiu zan Kepa, gure oleskari zardaiña, 1878'ko iraillaren 8'an; ementxe azi, ementxe bizi ta il be, 1942'ko abenduaren 12'an. Bere aita Juan Antonio, ogeit2bost urteko ta alargun, bigarrenez ezkondu zan, 1872'a.n, Erreterria'tar Mari muxikarragaz; bigarren ezkontza onetakoa zan Kepa. Areatza'ko erri-eskolan ikasi eban lenengo ta gero Muxika'koan; etzan motela ikas-arazoan, baiña sarri eroan bear izaten eban orduan modan egoan erestuna. Bein, txantxetan lez, eleizako teillatu ganera bota ei eban zorioneko erestuna, baita maixuak ederto zigorazo be aren berna-bizkarrak. Ez ei zan geiago eskola atara urreratu. Areatza'ko erretore jaun Sebastian Arrien'ek, baiña, antxe bertan, errota ondoan,

ikastetxe bat zabaldu eban inguruko neskato-mutikoentzat. Ira-
kurten, idazten, matematikak, Kristau-Ikasbidea ta gaiñerakoak
antxe ikasi ebazⁱⁿ Kepa gazteak.

Enbeita'tarrak, gurasoak eta zazpi seme-alaba, lur-lanez bi-
zita be, ba-eben beste ogibide bat txit etxekoa: otzaxa edo sas-
kigintza. Otzarok saltzera Somorrostro, Gueñes ta Truzios al-
dera joan oi ziran, eurenak eta ingurukoen otzara-pilloak bur-
dian artuta sarri. Kepa be joan zan iñoiz, lenengo aitagaz ta
gero bakarrik, eta ona ak ikusia: trabena geienen aurrekaldean
idiak egien egona. Ogetalau urteko zala, 1903'ko otsaillaren 21'an
ezkondu zan Ibarruri'ko alaba Mañasi Goiria'gaz. Ondiño bizi da
aren emazte au. Eta, beronek diñoskunez, amabi-amairu urtetik
alkar ezagutu eben, txera ta leia apartekoz ordutixik alkar maite
izanaz. Ez eutsoen Mañasi'ri alako otzaragille ezeuki bategaz ez-
kontzen itxi gura, baiña aurrera jarraitu eben ezkondu artearu
Ordukoak dira Kepa'ren ahapaldi oneik:

*alkusirik lora bat, ez emetik urrin,
Neure poz-atsegiña Goiko-Etxebarri'n,
Nik be.ra eskuratu eztagidan egln
Batek baiño geiag-ok ein dabe aletin;
Baifta zirkin andirik eztautsie eragin.n*

Usparitxa, euskal basetxerik geienen antzera, zelai-una za-
balean datza; gain-gaiñeko Atxalai erpin zorrotzaren azpian,
landa ta soloz inguratuta, zugatz ostotsuen erdian apatz. Etzan,
alan be, Kepa ezkondu zanean, gaur Iako etxalde eder joria;
gaur solo emokor diranak, len baso ta beresi ziran. Kepa'k, ba,
bertsogintzari etenbarik ekin arren, baserri-lana be ez eban
saiets itxi. Zugatz-zale zan, eta gaur be ba-da an ingurumari
igale-tantairik naiko, arek landu ta sartuak asko ta asko. Izadiak
eurrez eskintzen eutson bertsotarako gaia arduraz jaso ta ete-
kindu eban Kepa'k.

Osasunak ez eutson ainbeste laguntzen, eta 1919'tik aurrera
batez be, gorriak ikusi bear izan ebazan. Osagilleak aginduta
Laguardia'ra aldatu zan aize on billa; orreJaxe lau-bost aldiz,
urte-arorik geiena an igaro eroian. Gerra aurretxoan, 1936'ko
garagarriliaren 12'an, ara joan zan amabost bat egun an emote-
koran; baiña ez eban onuntz etorterik izan 1937'garren azke-

neraiño. Guda amaitzean etxeratu ta bere emazte ta seme-alabak —zortzi izan zituan guztiz— maitasun samurrez zaindu eben eriotz arterako guztian. 1942'ko abenduaren 12'n il yakun kanta-kantari alaitu ginduzan Urretxindor ernaia. Usparitxa'tik urrin, Muxika'n bertan, aldatz-goran iltegia; antxe datza obiratu gure oleskariaren gorpua.

Noiz asi zan bertsolari? Bere aita Juan Antonio be bertsolari genduan, eta aldameneko beroa errez itsasten. Kepa'k beintzat umetatik ekarren joera ori; astelenetan gurasoakaz Gernika'ra joatean sarri erosi oi ebazan garai atan barra-barra ebiltzan bertso-paperak: mordo andia ei eukan umetatik, eta soloan itaurren naiz bei-zaiñen naiz otzaragiñen ziarduala atsedeen bako kantaldiak ei eukazan gau ta egun. Zugaztieta'n ei ziran bein gipuzkoar bi, lanera etorri ta bertsoan egokiak. Arein jardunaldiak entzuten adi-adi gure gaztea. Beste domeka arrasti baten A4aguna'ko Zugadi bertsolaria zatatatu ebillen Muxika'ko bide-kurutzean; bere erritxo, ango mendi ta landak aupatu zitun, bai ta muxikarrai adarra jo be. Kepa'k eramzun eutson onein izenean, egokirik asko; baserritarrak esku-zartada beroz saritu eben, Zugadi berberagaz kideturik. Au, oster, bizkorgarri izan yakon mutil gazteari ta, arrezkeroan, bertso gintza zan bere ames bakarra.

Apurka⁹⁶ lenengoz adiskide artean, gero erri txikietan eta azkenez aziagoetan saioaldiak egiten asi yaku Enbeita. Au emeretzi urteko zala, sariketa bat antola eben Durango'n, erriko jaiak atxakitzat arturik. Berriz'en bazan garai atan bertsolari bat, Onbe, ospetsu samarra. Maikoak oneri emon eutsoen lenengo saria, Kepa'ri bigarrena. Andik sei urtera Ondarreta'n beste ekiñaldi bat, Zelaia Kepa'ren adiskideak eratua. Gipuzkoarrak ziran etorteko, Txirrita arteko; eta arrozko etozan, iñoenez, bizkaitarrik agertzen ba'zan lepoa berotzeko asmuz. Zelaia'k Kepa'ri: —«Ezagutzen al dok, Txirrita?» —«Ez, ba; entzutez bez». —«Orduan ez adi agertu; emen dituk Txirrita ta gipuzkoar onenak, eta eurak diñoenez, bizkaitarra mutu geldituko ei dok irugarren bertsoarako». —«Bai, neure ustez be onenak dira; baiñ^ mutu izte ori lartxo esatea deritxat». —«Zer orduan?» —«Begira: nik beti nai izan dot neu baiño geiago diranakaz burrukatzea. Ikusi egingo dogu».

Zazpi gipuzkoar ziran, eta bizkaitar bakarra itxasaldeko jai atan. Muxika'koak, asi aurretik beti lez, iru Agur Mari esan ebazan buruz. Dendatu ziran batzuk eta besteak. Erlero antzean zirikatu eben bizkaitarra; Aizarna bertsolari ospetsuak batez be, urte bete t'erdiko bere semearentzat emaztegeia eskatzen dautso Kepa'rí; eta Kepa'k zorrozkiro erantzuna:

*aZenbat pertso?ia dauzan
ainbeste jenño,
Aizarna'n errazoia
aundÁyok, orraiño;
semientzat nobiya
bear daula dtño:
urte bete ia erdi
ez ei dauz ondiño,
fmpak oba leukezak
nobixiya baiño.»*

Barre-algara itzela ler-azo eban urtenaldi onek, eta bizkaitar gazteari txapela erantzi bear izan eutsoen ango bertsolari ta entzuleak. Saioa atzenera zanean, maikoak erabagi au ontzat emon eben: Enbeita'tar Kepa'rentzat lenengo saria ta bigarrena Lujanbio'r.ar Manu (Txirrita)-rentzat. Kirikiño'k guztiz adeitsu besarkatu eban Kepa angoen txalo-zaparradapean. 1905'an, baita arrezkero be sarri, jentetza andia erakarri eban euskal batzarra eratu zan Mungia'n; izlariak Galartza ta Urrengoetxea erderaz ra Erretereria'tar Gorgoni ta Arrospide osagillea euskeraz; ondoren₃ olango jaiirik cz baitzan bertsolari bage ospatzen, an jagi ziran bertsolari bi, Azpiri gipuzkoarra ta Enbeita, mai-burukoen aíderti bietan.

Esalari urmela gendun orduko Enbeita, egun atan Mungia'n egiñiko jarduna adierazgarri. Orduantxe ezagutu neban —diño E. Orueta'k— Muxika'ko otzaragille izen andikoa, lan bitartean bere biotzari belarriak adi ipiñi ta aren taupada bigunak entzunik, olermenak bekoki gaiñean zelan mun egitson asmatzen eban gizon jator a. Aren adimen-biotzak zelan sortzen ebezan ahapaldi aratz errikoietan eiorik eztarri zear itz gozo eder ariz etorkiozanak! Aren bertso gartsuak euskal lur-usaiñez oreturiko eresi-kantak ziran; konturatu barik, erri entzulearen izate osoa naspil dardaraz jarten eben, euskera, enda-maitasarre ta erle-

jiñoa oiuskatzean batez be. Ardangela itxi ta kaleratuz joian gure bertsolaria; egiazko olerkari maillara igonaz doakigun Enbeita. Bai, garai atan egin yakun olerkari, erri-oiulari.

Arrezkero, ogei urtez bai, soñeko illun, aikondara zuri ta txapel baltzaz, Euskalerrri osoan bertso-kantari ibillia dogu. Etzan jairiic, Bizkaia'n berariz a bakorik. Bizkaitik urtenda, beti garaille, Gipuzkoa'n, Araba'n eta Napparroa'n be ibilli zan aspergaitz; mugaz andikaldetik be, bein baiño geiagotan, Baiona, Ezpeleta, Donibane Lohitzun, Donibane Garazi ta abar izan ziran aren jardunaldi bipillak eñtzun ebezanak. Zorrotza zan, eta inguruko izaki-gauzak zituan geienetan bertso-gurpil; nun-nai aurkitu, atsegin yakon ekiñaldia lekutu edo alik ondoen iñarduan tokian egokitzea, aurrez-aurre eukazan pertsona ta gauzak lekutzea batez be. Mendarte, erreka-gnrutze, zugatz ostrodunak alegi ta antzekotzat arturik, amaika gogai ta idurikizun gelgarri jalgi euskun! Onako ontan, Jaungoikoak guri emoniko doai joriak andikiro abesten ditu:

*«Euskal-errian ikustoguzan
aran, baso ia mendiak,
zugazti, zelai, aitz, iurriak,
landa ta lorategiak,
solo ederrak, arto ta gari
ta beste gauza guztiak,
gizaldietan zorundu dituz
eguzkiaren argiak.n*

Bein Lopez-Mendizabal'ek eta adiskideak Donosti'ra eroan eben, ango bertso-saio bat ikustera. Txirrita geratu zan txapeljabe. Onek, entzuleen artean bizkaitar olerkaria aurkitzen zala jakiñik, enbidotxo bat egotzi eutson ari, bertso batzuk eskatuaz. Bat-batean erantzun eutson Kepa'k, erri-maifasunaren alderdi bedegarra iñoizkorik gartsuen goretsiaz. Ango esku-astiñaldi be-roak! Eta Txirrita'k, azkenez:

*«Bizkai'tik etorri zaigun aldetik
txori aundían aurrean,
ní txepetx naiz-ta, erretiratzen
noa emendik, loisean.n*

Euskal-jaietan, lenengoz beintzat, Azpiri gipuzkoarra izan eban lagun; gero, Larrabeitftar Eustaki (Eulia), Erauskin, Beto-

laza begoñarra, Alkain, Tolosa, Imanol (bere anaia), Uriarte dimostarra ta «Kurloyas.

Omenaldiak izan zituan bizi zala, eta ez gitxi. Guztiotatik gogoangarriena, 1922'ko urrillaren Pan, Eibar'en egiña. Euskal-erri osoak esku arturik, ogetamar milla arimatik gora batu ziran. Pelota-jokua Egileor ta Okariz, errenteriarak, Zinkunegi ta Orozko bilbotarren kontra, ezpatadantzari ta banda-soiñuz gatz-ozpindua; Krutzeta aretoko bazkal-ostean, bertsolarien azken-txapelketa, azkenean, Ramon Sota'k, Pantaleon Olano'k, Mikel Urreta'k eta Manuel Arantzadi'k itz egiñik. Beste baten be, *Euskalduna* pelota-lekuan, bazkari oparoa eskiñi eutsoen, iru milla ta geiagok parte arturik.

Gizon gaillenok ez dira eguneroko lora. Gu kaskar geratzen gara euron alboan. Geure kaskartasunean jaso daiguzan begiak eredu orreitarra.

d) Arabar bertsolari eskolatua; J. P. Ulibarri.

Araba'k be, euskal olerki eremuan, bere igaliak ekarri zitun joandako gizaldietan. Joan Batista Gamiz, SabandoTco semea, goraipatu neban *Milla euskal olerki eder* liburuaren 348'garren orrialdean. Arrezkero izan dogu, beste batzuen artean, arabar onen barri; Okendo ibarrean jaiio 1775'ko dagonillaren 17'an, baiña bederatzi urteko zala bere osabakaz batera Bilbao'ko Abando'ra aldaturik, ementxe igaro eban bere bizialdi guztia, 1847'ko maiatzaren 5'an illik. 1797'an, Abando'ko alaba Maria Josefa Landa, amazortzi urte eginbako neskatilleaz ezkondu zan; ez eben seme-alabarik izan. Bere lanbide-txanteletatik agiri danez, abere-sendatzaille genduan. Baiña ez ontan bakarrik, beste sail askotan be erakutsi euskun bere trebetasuna: Abando'tarrak askotan egn eben euren erri-eteko agintari, ango ona ta ondasunak zintzoro begiratu egizan. Gernika'ko Batzarretan be iru aldiz beintzat aurkitzen da, 1814'an, 1829'an eta 1830'an, Abando'k eta Luyua'k bialduta.

Orañarte bere liburu bi ezagutzen doguz. «Gutun-liburua» ta «Batzar-liburua»; bigarren au erderazkoa, baiña euskrazko oarrakaz. Lenengoari loturik, zer dogu liburu au? Aita Linc

Dima'ko seme argiak au diño oneri buruz: «Ulibarri'k, berak besteai eta besteak berari egiñiko karta edo gutunak liburu batera aldatzeko oiturea artu eban, antza, 1822'garren urtea ezkerero. Orixe da> ba, liburu au: Ulibarri'ren gutuntegia, berak bialdu nai artzen zituen kartak jasoten dituan liburua, batez bere. Batez bere, diñot; kartaz ganera, beste gauza jakingarri batzuk bere ba-ditualako. Azkenengo orrietan dana da bertso-lanezkoa» (*Olerti*, 1962, I-II, 120 orr.)

Josef Paulo Ulibarri'ren Gutun-liburutik gauza bi dakusguz argi: ez zala edozelako gizona, bere karta-lagunak asko ta andikiak ziralako: Erro, Iztueta, Mendizabal, Nobia Salzedo, Valdespina'ko markesa, Anitua, Barrenetxea; orduan Gernika'n batzarkide ziranak; Berriz'ko Juan ta Praisku Zengotita-Bengoa "koronelak^ Estarta, Luno ta Zabala prailleak, eta abar. Bigarren, euskal biotz beroa. Entzun Aita Lino'ri: «Bai euskal-zalea ta bai euskal-esnalea bera? Onetan eztoгу iñoren urrengo. Joan dan gizaldiaren lenengo urte urdurietan, Ulibarri'k erakutsi eban, nik uste, euskaldunentzat biderik argiena ta zurrena. Godoy, Llorente ta Traggia'ren azpitiko ta agiriko joko Jorriñari erantzunik egokiena Astarloa'k, Erro'k eta olangoak emona ete zan? Burutik bururakoa, eztabaida utsezkoa zan iya onen jokabidea. Beste biderik artuko dau Ulibarri'k: euskalduntasuna zaindu ta zaildu; euskaidunak euskalzaletu, euskerea erabilli ta landu, ori zan egitekorik andi ta bearrezkoena. Eta egiteko orretan emon zituen Ulibarri'k bere urterik onenak. Berau baiño euskaldunen zuzpertzailleagorik gitxi. Euskaldunai iñoz bere ez egin erderaz, euskaldunai beti euskeraz. «Orra zeure adiskidearen esan maitia, Praisku», zirautsan Berriz'ko koronelari. Euskeraren areriorik txarrenak etzegozan kanpoan, barruan baiñoj euskaldunen zabartasuna zan euskerea galtzen eban sitsa» (*Loc. cit.*)

Amaren altzoan ikasi eban euskeraz, auxe bai zan garai atan Okendokoen mintzaira. Euskera landu ta idazten, barriz, ez daki-gu noz asi yakun. Gutunliburu ori baiño lenagoko lanak ba-ditu, ta ez gero garrantzi gitxikoak. Lenengo euskal egunaria berak osotu ta idatzi eban, urrean. Vinson'ek, bere *Bibliographie'n* onela: «Egunari eusquerazcoa erderazcotic itzuliya. Vizcai, Guipuzcoa ta Arabaco Provinciaentzat. 1815'garren urteraco. Bil-

baon». Ulibarri'rena dogu egutegi au; beraz, euskal egutegi-egileen aitita deitu gengikeo.

1814'tik 1832'garrenerainOj ia urtero, egillearen izen barik agertu ziran Gabon-kantak. «Abando'n sortuak dira —diñosku Aita Lino'k—, Biibo zarrean, Prantzizkotarren konbentuaren babesean, emen antxiñarik izan zan oiturari jarraitu gurarik edo.» Urte orreitakoak su barriz etozan; su-emoille, dudarik bage, Ulibarri, Abando'ko abere-sendatzaillea dogu. Eta egille? Baita, Bizenta Mogel'egaz batera. Idazkerak eta Gutun-liburuak ori dirauskue; 1824'tik aurrera kanta orreik edatzen laiatu zan bereak ba'lira lez, poitak erir.xitakoen zorion-agurrak be pitean bein artiLrik. «Batez bere 1826'koak, euren azal eta mamiz^ Ulibarxi'ren usain andia dauke; bapere ez MogePenik.» Jesus'en jaiotza gogorazi ondoren, euskal garra piztu bearrekoak ekazan. Onako au adierazgarritzat:

*«Bizkaia'n ezta biar erbeste legerik
geure foru maitiak nai doguz bakarrik.
Aldendu bitez, bada, gairttuen asmuak,
eta gorde osoro Bizkai'ko Foruak.
Eurak gordetzekotzat Diputaziñua,
Gernika'n baizarrarian daukagu autuba;
iñok gura badeusku Foruba lurpetu,
guztioak bear geunke esan; «gu gara gufn
Bakia da gureztat doerik onena;
baña balego iñor gura eztabena,
laster ikusiko dau buruban egurra,
eta gordcko dogu geure olla-lurra.»*

Ba-ditu beste bertso batzuk, zorion-agurrezkoak, idazki tartean sarturik. Irakur oneitariko bat, Agirre Ibarrondo'ri zuzendua:

*«Agirre Ibarrondo,
euskera ikasi ondo,
cderrick eta garbirik,
erdaldm jakituna
isteko ixillik.»*

Jentearentzat biotz onekoa izan arren, iru arerio ebazan: **ardoa**, erdereea ta tabakorria. «Oneik egiten deutsie Bizkaia'ri —zírautson Juan Bautista Anitua'ri— zankoa meatu, gibela txi-

meldu.» Eta ardao orde z txakoliña ta sagardoa edateko esaten
eutson Barrenetxea'ri:

*«Arturik edaontzia, edan, al dana,
txakolin sagardao gvzo, Bizkai'koa dana;
ez ardao erdeldunik, lúoz ez artu,
eztaiela aurradea alper eta txiker geratu.n*

Kariista zan nunbait Ulibarri ta, arein guda amaitu zanean, lurra jorik gelditu yakula dirudi, etxetik iñora urteteko adore bage. Baiña idatzi egiten eban asti-orduetan, bertsoz idatzi be. Gai askori oratu ta ekin eutson: «Zerua ta Lurra»: Aingeru gaiztoak, gizonen sortzea munduan, Kaintarrak, Tubal'en ondorengoak, Euskalerrri'ko etxe nagusien jatorria, Euskalerrri'ko meatzak, olak eta ola-gizonak, emeko Iur-lanak, egazti ta abereak, gure arrantzaleen egitsari andiak, ezkontza ta umeen aziera, lenagoko euskaldunen sendotasuna ta indarrak, eta azkenez, bere Okendo maitea, bertako mendi, baso, baserri ta ibaiak. Ba-dau emen Ulibarri'k arnas andiko poema bat osotzeko aiña egur eder. Etzan bertso gille punterengoa, baiña baldar ta guzti be bide barriak urratu euskuzan arabar biotz ederreko onek.

e) *Bordele napartarra*

Arnegi ta Luzaide —mugaz bata Prantzi ta bestea Espaiñi— auzo erriak dira. Juan Etxamendi Larralde, «Bordele», Luzaide'n jaio zan 1792'ko urtarrillaren 7'an; Pedro ta Mari Josepa ziran bere gurasoak; il be bere etxe Bordelia'n egin zan, 1879'ko orrillaren 30°an. «Bazterretxe bat ederra bideberri gainian; bide-biurguna sudurretarik di'indan... eta arraintzako putzua₃ berriz, erreka zokoan: ori da Luzaide'n «Bordelia», dño Joxe Msri Satrustegi'k (*Olerti*, 1962, 117 orr.) Erriko amalua etxerik zarrenetakoa zan, eta ango geienak lez ostatatutatik bizi ziran bertakoak; Konpostela'rako bide nagusiak Europa'n zear ekarritako erromesak izten ebena naikoa ei eben bizi izateko.

Juan Etxamendi'k bertsoak izenpetzean «Bordele» erabilli eban geienetan, eta «erran laike, bertsutako berak artzen zuen izenaren orde, etxeari berea itzultzen ziola». Noizean bein «Arrosagarai» be jarten eban. Zergaitik au, bere odoleko ez ba'zan?

Bere alaba Ana Josepa'k etxeratu eutson abizen au: birritan czkondu yakon eta lenengo senarra ain zuzen be Arrosagarai'tarra izan.

Luzaide'ko seme idazle Manezaundi'k —Enrike Zubiri Gor-taxi, 1867-1943— au diño Bordele'tzaz: «Espainia'koa zen. Bana argitasun bat behar dugu eman hortaz. Nere herrikoa zen, Luzaide'koa; bainan gu Espainia'ri eratzikiak edo lotuak izanikan ere, Benafartarrak, Garazikoak gira, muga egileen gainetik... Diteken gizonik izaite eta yite ezti eta berexikoa zen, eta eskual kantak eta neurtitzak bihotzian errotik sarturik zituen. Bainan erran behar dut Benafarroa'n, eta uste dut Laphurdi'n ere, pertsularia eta koblaria ez direla gauza bera. Lehenbizikoak dira etxian pertsuak egiten dutenak eta kantua berari emaiten dakenak. Bigarrenak, koblak egiten dituztenak oste baten aitzinian, edo besre batekin ari dena gai bati buruz iardesteka. Lehenbizikoetarik zen Boryel, nahiz koblakari ona ere. Omen handia zuen Benafarroa'n eta Laphurdi'n. Ehunka utzi dauzkigu bere bertsuak ezin geiago ederrak. Nork ez du ezagutzen hango Eskual-herrian bere kanta miresgarria «Lurraren pian sar nindaiteke»? Baztan'go «Oinazez» abestiaren parekoa da, eta bere histura ezta bihotz zolaraino sartzen da, amodioaren pairamenak erakusten dauzkuna, bihotz zauritua agerian ezarririk» [*Prosisías navarros*, Imña, 1958, 57 orr.)

Ba-dakigu, beraz, Bordele bertsolariak eundaka kopla boro-biidu euskuzan. Nun ditugu orreik? Nik aren bi emon nebazan *Milla olerki* bilduman: «Mendekoste pestetan» eta «Ene andregafari», 449'garren orrialdean. Manezaundi'ren gardiz, nik maite-leloen artean jarri neban «Lurraren pian» (80 orr.) be berarena dau. Satrustegi'k, ango paper zarrak eta berein esan aztertu ondoren, «Ikustera jiten nitzauzu» deritxon alkar izketa txairoa be arena lez damosku. Bederatzi ahapaldi ditu onek, guztiz politak. Ona bigarrena ta bosgarrena:

uEskerrik aski, adiskidia; ongi etorri zirela!
Mihiak bezain bictzak balu orren promesa /icfeZa.../
Oriek oro denborarekin egiak gerta dltela,
eglak gerta ditela^

«Fida zaitzke, ene maitia, gogua laxo utzirik;
Proposatzen baderatut zure goguan ez denik

*Jainkoak ez dezaidala emun oren baten bxirik,
Ez pausu baten biderik.))*
Ukus RSVAP, 19f2, 324 orr.)

«Gaztetasuna eta zahartasuna» be, oraiñarte kantutegirik geienak Otxalde bidarraitarrarena lez ekarten dabena, Bordele'ri erasten dautso Satrustegi'k. Orrela uste ei da Luzaide aldeaxi. Zazpiren ordez amaika ahapaldi dakaz Satrustegi'k damoskun onek, eta azkenengoak argi diño norena dan.

*«Sortzez eta balaioz ni naiz luzaidarra,
Orok dakitena Bordel xaharra;
Oraino hizi bainiz, ez dut solas txarra,
Gorputzez erbaildu ta kunkurturik bizkarra,
Galdurik indarra,
ezitu sukarra,
biotz ez azkaira
ez oia beharra:*

Aise pasaturen dut nere bizi ondarra.))
(Ikus RSVAP, 1962, 255 orr.)

Beste au be, ots, «Xuhar zenaren eriotza», 1864'an Arnegi'n egiñazoko eriotza gordiña ogetabat bertsutan emoten dausku Bordele'n zeaztasun guztiakaz, iruñia'n oraintsu idorotako papex zarretatik artua. Eurotan ba-da onu ta kontseju onik, jazoera latz aregaz tarteka.

*«Zer siinijikatzen du biMzeko errak
Erredoblatzen dira Satan'en indarrak.
Deus ez ñu balioko ondoko indarrak,
Kondiak eman behar dltu bat-bederak
Ahantñiko baitira tuhalet ederrak.))*

Atzenean, bertsu oneik zergaitik egiñak diran adierazten dausku:

*aKantu ok egin dira, ez libertzeko,
Baizik ere guziek esenplu artzeko:
Nehor ez da kapable justifikatzeko.
Zernahi cgin lirola ez da Jidatzeko
Botza eman duenak esposain galtzeko.))*

Ukus Egan, 1962, I-II, 37 orr.)

Muga-alde ori ez da, egia esan, lur elkorra bertsorako. Ur-ur, Esterenzubi'n jaio ta bertan oraintsu, 1960'an, illa dogu 87 urtegaz zortzi seme-alabaen aita, Juan Etxamendi, Bordele'n izen berekoa. Gizon arteza ta zorrotza, sarri erriko alkate izana, beti iñoren on billa jarduna. Bizi ta il kristauki. Ostera bi egin zituan Ameriketara; eta, an diru pizkat egiñaz, berak erosiak ziran «Gilontoinia» ta seroren etxea. Azken egunak itsu egin ebazan, eta il baiño lentxoago jai eder bat opaldu eutsoen jaioterrian bertan.

Euskal alorrean dogu entzute andiko; aren bertso ta kantak Euskalerrri guztian zabal dabiltz gatz-ozpindu ta jakingarri baitira. Lerro guztiak ditu fede bizi ta zentzunez blai-blai. Jainkoaz gero, erriko gora-berak zearo be zearo bertsozu zitun. Makiña bat ba-da or-emengo aldizkari ta egunerokoetan. Apaiz izateko ikasten ziarduala il yakon seme bat; ba-dau ari buruz bertso ederrik. (Ikus *Milla Olerki eder*, 1.127 orr., eta *Oleri*, 1960, 192 orr.)

g) *Etxahnn zuberotarra*

Piarre Topet, euskal elertian Etxahun, Gaztelondo'ko Topetia basetxean, Zubero'ko Barkoxe'en jaio zan 1786'ko garillaren 26'an. Aitak, bere antzik ez eukalako jaiotzatik zapuztu eban eta zoritxarra gaiñak artuta ibilli yakon seaskatik illobira. Amarik ez dausku aitatzen bere bertsoetan, eta ez eban ezagutuko bear bada. «Bi berset dolorusik» deritxon oierkian latz eta garratz jazten dau bere bizialdi osoko adurraren mergatza. Lenengo lerrotik muker ta narda-dario agertzen da aitaren kontra:

*«Ene persegitzien hatsarria zer zen,
egia den bezala deiziet erranen:
Aita batek zian ogen hau bere liaurraren,
haren. giterik gabc amak niindila sorthil ilkhen.))*

Gaztaro illuna, ziñcz! Aita ta osaba baten erruz, atzerakor ta bildurti azi zan ezetariko maite-bero barik. Biotza, alan be, gaztetan berez maitati, ta Piarre be, nekazari aberatsen seme.

izanagaitik bera, neskatil ezeuki bategaz maite-mindu zan; gu-rasoak eta aitabitxik, baiña, ez eben nai Jauregiber-ibarra auzoko neskatillakin ezkontzerik, eta etxe-jabetza barik itxiko ebelako zemaiz bildur-ikaraz ekarren gaztea. Azalez beintzat etxekoen esanetara etortearren, lanean asi zan buru-belarri.

*aHazi behar nun phuntin, lanin nintzan hasi,
Des-primut nentzan lotsaz, nahiz aita trenderazi;
Osagarria, hari kausitv nahiz, benin galerazi:
Blzipidta gal beldurrez, hura nian irábazi!v>*

Aita berean tinko, ta Etxahun'ek iñolako samíñez ezetza emon bear izan eutson neskatillari. «Urzo apal bat» oíferkian biotz-lertua dager; lur-jota geratu zan gaixoa. Ona min-jariozko lerro zurbillok:

*nJinkuak maradlka beza Gaztalondo Topetia,
Bai eta neskatila p*aubetan amorio ezartia!
Nik bategan ezari dildalako, izan niz desprimiitta,
Egiizniak eglm zerextan ordeñlaren haustía.»*

Ondoren, Piarre'k neska beartsua itxiaz bat, neska aberatsa begiz jorik eukien Etxahunia'koak: Arritxabalet apaiz ots andikoaren loba, Garazi Pelento 23 urtekca. Barkoxe'n ezkondu ziran, 1808'ko garillaren 26'an. Bertsolariak:

*aHogei efa bi urtik bete egunin,
Emazte bat hartu nin ene zorigaitzn:
Erraiten ahal beintu zerekl zeitan jin,
Ene vrka billilrra gorderik altzopin.»*

Laster askoan or liskar ta eztabaida; emaztearen erruz ille oitan giltzape euki eben. Gerora be, zegaiti bardiñez, sarri lo egin eban espetxe-itzalpean. Maitale bategaz ebiikion ezkontidea, eta Etxahun'ek bein, giltzapetik urten-ala, zizpa eskuan, etxerabidean itxaron eutson leikideari, bertan garbitzeko asmuz. Gau itsua zalako, berak susmotan eban Hegiapaltarra barik, Etxegoihenia'ko mutii gaztea il eban ez-jakiñean.

uBesiek eraman dik hik behar kolpia»,

diño errerik. Beste bein be, buruz-buru idorotako etsaiari bota nai izan eutson tirua, baiña ez yakon b>erun-alea urten suis-

kiilu-oditik. Atzemon ta morroillopean zanpatu eben. Gauzak garbitzerakoan, epailleak galde: «Zuk iltea nai izan zenduan, ezta?» Koblariak erantzun: «Bai, etzenduan au pekatu». Arrezkero, amar urte edo, antza, baitegian egiña dogu.

Geroztiko bizibídea berak adierazten dausku «Ahaide deleziu» erdiragarrian. Gerizpetik urtetean ez eukon etxera biurterik, eta, gaztetan jaukítako eriotz-ordaiñez edo, erromes asi zan ara ta ona.

*ulzan niüzú Jondane Jaka'zi, Erruma'n eta Loreta'n
BeV-, jente hynen medioz, biz'izan niz bidajitan.
Orai ere abiatzen ba'niz leheneko ber gísatan,
Jinko Jauno, lagiint nezazu e.ne behar-ordietan.v*

Konpostela'tik eta Erroma'tik itzultzean, bietan egon zan bere etxeko aie-kisketa joten, baiña ez eutsoen lekurik egin, kutsutua ta madaríkatua bai ebillen alderrai. Bizitz-atzanean erriratu zan, eta autortzerakoan, autor-entzuleak itz-neurtu elizkoiak ondu bearra ipiñi eutson neke-ordaintzat. Sarrantze'ko eliza atsegin yakon, eta ara joanik amabostero jaunartzen ei eban. Olatu zakar arte bizita be, bere bertsoak darakuskuenez, oso Jainko-zale genduan barkoxtarra. Munduz mundu asi aurretik onan eskatu eutson Jaunari:

*((Zelietako Jinko Jauna, zuri gomendatzen niüzil,
Ezi beste lagunauak akabi zítadatu.
Libertate una eta ilhilriak galdurik nilzU,
Korpitzaren gal lotsaz, munduz mundu ba-nuazil.))*

II aurretxoan, alan eta guzti be, etxean atotsi eben; eta bertan, eskaratzeko zizailluan, erromes erabilli eban burusian baturik, 1862'ko urtarrillaren 17'an il zan, 76 urteko. Barkoxe'ko iltegian datza bere illobia, sarreratik ezkerretarra amabost bat pausu.

Ona labur-miñean Etxahun'en bizialdi doakabea; ezpataz zulotua erabillen biotza, leza illunduan murgil arimea. Baiña, zoritxarrari eskerrak, gure literaturako bertsolaririk bikaiñe-netarikoa bilakatu zan. Eta aren lanak? Itzal txarreko iduriturik, aren bertso-ingurrazti guztiak erre egin ebezan goiz illaun baten. Gauza bakana, alan be: aren bertsorik geienak nekazari ta

artzaiñen gomutamenean irauñ dabe oraintsu arte. Kukua jo eben Barkoxe aldean beste koblakari on batzuk be, Beñat Mardo, Aroixe, Xapelxuri, Purttau, Berho, Idiarte ta gaiñera-koak. Oneinik eztau erriak gogoratzen txit urri baiño, Etxahun'-enak ainbat. Jaunak nai orrela; Erroma'ra bidazti abiatu aurretik egin zituan bertsoetan argi ta garbi darakus bere kantuak luzetu daitezcan guraria.

*nKantore horik hiltú dútilt Uñhurritze'ko bortian,
Erruma'rat abitu nintzalarik, hoiek ezari heñian;
Hil banendí ere holako bidaje liizian,
Ziberua'n kanta ditzatzien ene oitmentxian.v*
(Ikus Milla Olerki eder, 436 orr.)

Eun urtez gora dira a il zala, ra gaur-egunez be aren kantuak durundutsu dabiltz aoz-ao nekazari ta artzaiñen eztarri zolítetan; erre ebezcan aren ingurraztiak, baiña aren ziri-koplak aotik belarrira datoz gizaldiak zear. Euskal literaturan doguz orain eta ezтира sekulan galduko. Aren olerkiak ahapaldi biritil ta oarkizun jakingarriz orniduta gipuzkerara be aldatu ditun Jon Etxaide'k onela: «Etxahun eskolik gabea edo oso gutxi-koa gendun, beñepein, baiñan alaz ere, bere ziri-bertsotan eta olerki unkigarrietan, elejitan alegia, ba-dira iñungo olerkari eskolatuerenak bezain onak, giartsuak^ burutsuak, bulkoz eta iru-dimenez jantziak. Aien aldean akats bat izan lezakete soilki, eskoladunak baiño izkuntza oiesagoa, zakarragoa, arruntagoa erabiltzea, naiz-ta, euskal giarrez, euskal senez, aiena bezain joria edo joriagoa» (*Arnasei seme Euskalerriko*, Zarautz, 1958, 45 orr.) Egitan dabil donostiar euskal idazle trebe au.

Bere kabuz ekiña dogu₃ era berekian. Etxahun eta Arrese-Beitia gorenengo dira gurean barne-miñak azaltzen; ziri-bertsotan, barriz., Etxahun'ek eztau parekorik. Bitara sailkatu geinke bere sorpen mordoa: 1) *Ziri-olerkiak*, eta 2) *negar-olerkiak*. Beste batzuk be ba-ditu, baiña onein ingurukoak. Lenengoak, batez be, gaztetan mamindu ebazan, sarkor ezten antzera, zimikoi barne-kezka lez, gori burdin bizi bai'litz. Bigarrenak gizon umotuarenak dira^ baiña zotin garratza darioenak, itz eta esakera uzu ankerrez josiak (Ikus *Le Poète Pierre Topet, dit Etchahun, et ses oeuvres*, P. Lhande et J. Larrasquet, Bayona, 1946).

Alderakizunetan asi ezker, Orixe'k lenengo (*Euskal-Esnalea*, 1925, 45 orr.) Euskalerriko Verlaine'tzat jo eban; Pierre Lhande'k euskal elertiko Villon edo Verlaine'tzat. Alderdi ontatik gure Etxahun aztatu nairik, Zaitegi'tar Jokin jaunak lan ederra eskuratu euskun *Euzko-Gogodn* (1955, 44 orr.). Villon eta Etxahun'en artean ba-dakus arek antzeko zerbait, ez ostera Verlaine'gan. Villon (1431-1480) prantses olerkaria etxe bear-tsuko seme zan, bizi guztian zoritxarpean ibillia. Etxahun, odolberoko zala be, biotz eder baten jabe genduan; Villon, ostera, alper, mozkorti, jokolari, azpi-lapur, emakumezale, iruzurgiUe. Etxahun etxekoen gogorkeriak galbideratu eban, Villon txarrerako griña soillak; Etxahun ondu egin eban zigorrak, Villon galdu. *Biak*, orraitiño, Jainkozale min ta elizkoi sutsu.

Verlaine (1844-1896), ordea, etzan olakoa; ez eban Etxahun'en antzik. Etxahun geienetan erromantiku dogu bere olerkietan, ez eskoletako margo berezi orregaz, bizitzako zitalkeri-naibageak eiotzen mingots eta úkakor jardunik euskal poesiari tankerari erantsi eutsolako baizen. Verlaine aberats seme zan, umetatik zorian-irrizko kuman azia, kulturaz jantzia, Rimbaud (1854-1891) ta Mallarmé (1842-1898) olerkariakaz batera orduko erromantiku ta parnasotarra agur egiñaz, idurizko eskola edo sinbolismua sortu ebana. Etxahun doakabe egin eben, Verlaine berez biurtu zan gizagaldu.

i) *Joanes Otxalde*

Bordele napartar eta Etxahun zuberotarraren baranoan ez daigun aztu Otxalde bidarraitarra, onexek bai ditugu mendiz andiko bertsolaririk aipatuena. Eskolatua au be, Bizkaia'n Arrese-Betitia'k eta Enbeita'k egin ebenez, bere ogibidean lanari loturik, papera ta luma ziskuan erabilten zituna, lanerakoan gogai argiren bat ba'etorkion ingiratu egian. Orain mende erdi dalarik, gaiñera, oso sarri bertsolari ibillia da erririk erri. Oxobi zanak au iñoan orain urte batzuk: «Herriko pesta, tobera, eztei, pilota-partida ta gaiñontzeko bilkurarik, etzan berrogei urtean izan, Baigorri'tik Maule'ra, Otxalde bertsolaria gabe». Bearrekoa zan, antza, aren jarduna olango batzarretan.

Aren kantuetatik asko galdu dira; liburuetan dagozanak zentzunez onduak daukaguz. *Kantu berriak* deritxonean, adibidez, Euskalerrria ta bertoko gauzak goratzen ditu ahapaldi biribilletan.

*iiBerrogei mende untan,, Eskual-Herrietan,
JenSe 'oera 132i da ainitz gudukelan;
Etsaiak izan dira, bainan alferretan,
Beren ezurrak utzi dituzte lur autan.*

*Sartzen zen bezain sarri lur ortan moroa,
Aitek egiten z:iten batasun osoa,
Etien gainerat zaiu edatzen besoa:
Unki au etsaiantzat ez baitzen goxoa.*

*Erkul'ert pare ziren kantabre zaharrak,
Bihotzez ezti eta bertutez azkarrak;
Oro izitu ditu ek zuten indarrak;
AmoTrik ez du egín nehoiz menditarrak.n*

(Ikus Milla Olerki, 511 orr.)

Etxahun eta Otxalde lagun miñak ziran. Batak eta besteak ba-ekien alkarren balioa. Zuberotarrak, izan be, *Etxahun eta Otxalde* deritxon olerkia landu euskun. Ikus ahapaldi batzuk:

*a—Agur, adixkidea, Jinkoak egun hila!
Zer 'oerri den erradazut; zuk, otoi, Xuberu'n.
Ezagutzen d.uzuia Barkoxe'n Etxahun?
Halako koblaririk ez omen da nihun:
Bijitaz juan naite ez balitz hain hurrin.*

*—Jauna, ezagutzen dit Etxahun Barkoxe'n:
Egun oroz nitzazu hilllantik ebilten.
Beti gazte ezin egonez ari duzu zahartzen,
Laur-hogei urtik tizu bendien hilllantzen:
Bersct.ez eztuzu hanbat orai okupatzen.*

*—Jakin ere behauzu dudarikan gabe,
Zeren egín dautazun errespeiuiz galde:
Adilu izan duzu nitaz lehen ere,
Nor nizen erraitera ezpeitut herabe:
Lapurdi'n deitzen nute Jan Batixt Otxalde.*

—Etxahun Ziberua'n, Otxalde Lapurdi'n,
Buruazagi dirade kantore egitin.
Ezjcuizu gu beldur nur-nahi jin dadin,
Brranen diezugu orotan Uskal-Herrin,
Jokaturen dugula her plazer zaienin.

(Ikus Milla Olerki, 425 orr.)

Edu onetan, ari askotariko gaiak erabillirik, idurimen azkarak lagunduta, ainbat bertso taiutu euskuzan. Ortaz gaiñera, musika gozozko doiñua erabilten eban oneik kantetako, lapurditarrak oi dabenez.

j) *Piarres Ibarrart, «Bettiri»*

Baigorri'n ainbat urtez xantre izandako onek be eztau ospe makals mugaz andikaldetik. Urte batzuk dirala, Baiona'ko «Herria» astekariak argitaldu ebazan «Piarres Ibarrart» izenetan bere koplak ezagunenak, galdu ez eitezan antza.

Jatsu'n jaiola dogu, 1838'ko otsail goiz batez. Aren umezaroko gorabera gitxi dakiguz; ondo azi ta eskolatu ebela, bai, noz ta zelan sortu yakon bertsoka asteko doai berezia, ta olakorik, ezta guganaño aiputan eldu. Senitartekoak diñoenez, oso txiki zalarik, etxeokak mai baten gaiñera aupatzen eben, eta an «gogoratzen zitzaizkon zirto eta ateraldiak kantatzen zituen bert;v.-:itxuran emanik, aditzaile guzien jostagarri. Geroxago ostatuan behar zen trebatu eta bertze bertsolariekin norbait bilakatu: orduko famatuena ziren Etxahun xaharra, Borrdale, Athillo: Otxalde adintsu zen Ibarrarte'kin eta biziki laketen buruz-buru artzea. Hemezortzi urtetan Donapaleo'n kantatu zuen *Eliza-besta*», dirausku Lafitte jaunak oixtian aitaturiko liburuari ezarri eutson aintzin-solasean.

Gudari ibilli zan zazpi urtean, asti alperrik ez ga'tzeko, arduraz liburuak irakurri, prantses ikasi ta bere buru-jazteari lotua. Gero, sorterrira biurtu ta zapatari jarri zan. 1867'ko azillaren 19'an, Mariane Darre, 31 urteko neskarekin ezkondu zan, iru seme-alaba izanik. Baigorri'ko gazteak bein tobera-mustrabat eratu eben, eta ara dei egin eutsoen Bettiri'ri, bertsotan egiteko. Leiotik begira ei egozan erretore-bikarioak, bertsolariaren abots zoragarriaz arri-eginiñik. Orduan Barnetxe zan erretore, ta

J. B. Etxegarai bikario. Dana dala, apaiz biak itandu eutsoen nai ete eban Baigorri'n xantre sartu. Bertsolariak baietz, eta Jatsu itxirik, Baigorri'ra aldatu zan bere emazte ta zapata-tresnakin.

Gaztetan batez be bertsolari gisan ibilli zan errietako jai, ^intzarrots eta toberetan. Itz errezkoa genduan. «Ez zen —diño Lafitte'k— ozar atrebitu hetarik: itsuseria hastio zuen. Bainan ez uste izan horrengatik koblari idor samina zela: ez, hurbiltzekorik ere: jostakina zen, irri-gura; eta zaharrak orhoit dira haren ateraldi bakar zonbaitez.» Xantre sartu zanez gero, baiña, ez eban geiago plnzetan agerraldirik egin, Barnetxe erre-toreak galazo eutsolako. Adiskideen artean, bateo ta ezkontzetan, jardun arren, tobera ta olango jai-egun zaratatsuetan etzan agertzen plazara. Naiago eban, eleizako kantatzeari atxikia, ain maitagarri yakon bazter atako zeregiña zearo betetzea.

Azken-urteetan bertsoka ibilli ez ba'zan be erriz-erri, astiz eta asmuz luma eskuan, ainbat bertso ta neurtitz eder ondu ebazan bere zapata-gelatxoan. Euskal libertadea, euskal oitura, biziera, ikazkintza, artzaintza, soldaduzka, andra zar ta gizon-txoen maltzurkeriak, eleiz-bestak, izadiko aro ta gorabarak, po-lito jarri zituan bertsoz. Bein Mokozain erretorea Mixelen'go zubi gaiñetik arrantzuan egoan; bat-batez, arraiñak amua agin-katzean, aize zakarrak txapela kendu ta uretara jaurtzen dautso; apaiz gaixoak kañaberaz eutsi ta gelditu nai dau txapela, baiña an daroa urak lastoa baiiitza. Mokozain'ek au kontau eutson Ibarrart'i, bere txapelaren omenez bertso batzuk egiteko eska-tuaz. Ortik sortua da bere «Mixelen'go zubia» olerki yaukala. Irakur lenengo bertso biak.

*uMixelen'go zubia, zubi famatua,
Arraintzariendako toki hautatua;
Haize-hegoak han du azkarra xixtua,
Niri laster egin daut xapelaz tratua,
Xapelaz tratua.*

*Hameka orenetan, oraino barurik,
Zubi hartan arraintzan ari nüntzelarik,
Arrain bat naukalarik amuan loturik,
Haizeak eraman daut xapela burutik,
Xapela burutik,yi*

(Ikus Milla Olerki, 527 orr.)

Bego emen, atzenez, koblari argi onetzaz Etxepare miriku euskaltzaleak bere *Buruxkak* liburuan diñoana. «Ezagun da zer kobiari den; erran nahi dut hoberenetarik dela, ez baita orobat Eskual-Herrian nehor nausitzen zakonik, non ez diren Elizanburu eta Zaldubi. Gozoak dira haren bertsuak; asetzen daukute beharria; ez datxikite ele alferrik: baditeke ez duten bihotzari min egiten atseginarekin edo beren argiaz lilluraturik uzten izpiritua; bainan hunkitzen gituzte gure gizontasunean, jende gehienak bide hortaz hatzemaiten dituztelarik.» Aren amazor-tzitik amaika sartu nitun neure olerki bilduman.

Bizitz azkeneruntz, biotzeko gaixoak joa, Baigorri itxi ta Baiona'ra aidatu zan, bere alaba ezkonduarengana. Emen, 1917'ko garillean il yakon emaztea. Eta berak be urte zurbillak ikusi bear. Suiña, bada, gerran zan lau urte areitan, eta bera bakarrik bere alaba ta onen alabatxo bigaz. Oneik, jakiña, maite eben, eta orrela, onein txera gozoz azkorturik, 1919'ko maia-tzaren bostean joan yakun betiko atsedenera.

5. *Bertsolari eskolabageak*

Gure koplakariai buruz ainbat eritxi albandu dira, eztabaida ta istillurik asko sortuaz. Batzuk, akats-billa saiatuak, kirtenkeriak baiño ez dabezala esaten; beste batzuk, onetxek ditugula bide-erdiko olerkari. Emen be, baiña, auxe autortu daigun: gauzak ez dirala azpikoz gora jarri bear. Lelokeria litzake bertsolariai daben balioa gitxitu ta meartzea. Eta antxiñako Grezi'ra egazkada bat botarik, nire eritxiak ezer balio ba-dau, beukie auxe ziurtzat: ango Omer aiña ez ba'dira be, *rapsoden* edo erri-kantarien antzeko bai; naiz areik baiño geiago, areik bada buruz ikasiriko bertsoak abesten ebezan, eta gureak kantatu-ala asmetan dabezanak.

Eztabela gauza andirik esaten? Eskola bageak, bear bada? Nori egotzi onen errua? Basarri'k uste dauanez, euskaldun jakitunai leporatu bear orren zabarkeria, eta ez doa bide okerrez. «*c*jun dan gizaldiko euskaltzale argi batzuk —diño— bertsolarien etsai azaldu ziran, euskera loitu ta narrastu besterik etzutela egiten esanaz. Aurreko gizalditako gizon ikasiak zer egin zuten

euskeraren alde? Zer saiatu ziran biderakusle bezela? Orduko euskaldun ikasiak beren izkuntzarik aintzat artzen ezpa-zuten, eta oker guzia goitik bazegon, zer egingo zuten egin zutena baño geiago eskolarik zapaldu gabeko bertsolari apalak?... Garai artan entzuten ziran sermoi moduak entzun; garai artan ikasten zan dotriña ikasi, garai artan goikoak nolán zebiltzan ikusi, ta... zer egin bear zuten nekazari, errotari ta artzai bertsolariak» (*Zeruko Argia*, 1963, urrillak 20).

Itxikeri au bertsolariengan be ikusten zan, damurik; ez eben bear bestean berezko jarioa ugaldú ta eztatzen. Gaztetxo zala salatu eban au Basarri'k: «Gaur arterañoko bertsolariak erru aundi bat izan dute. Zabarkerian utziak. Bear dan tokian abes-teko konturik ez, ta ardantegitan ixildu ezin iñola. Tamalgarría! Beste gauza bat berriz, gai exkax gatz gabekoak. Ardo kontua, neska zar kontua, alkarri gaizki esatea ta olakoxeak. Ori ez da danen gogozko. Lagunarte batean batutakoan edo orrela, oso egoki dago alkarren arteko ziríketa ori, parra eragiteko ta jendea gozatzeko oso atsegiña dalako. Baña... gaur-gaur bezela, beste bide bat artu bear dute bertsolariak. Iñork ez dezala esan «taberna» zuloko «pailasoak» diranik. Deun edo Santu bat gorraldu bear danean, edo euskal erria goruntz jasotzeko era danean, olerkariren baten omenezko jaia danean, euskera zarra, edo erritxon bat, au edo ori zerbait danean, aurrean bear du bertsolariak, antxe ematen du ondo ta. Nere adiskide begiko dan Enbeita zarrak aiderdi ori izan du, ta zerbaitegatik dauka olako ospea. Beraz, egiteko au gaurko bertsolarien gaiñ gelditzen da. Irakurri ta ikasi egin bear. Gero euskal erriari abestu, euskerari, Erri zaindariari ta era orretan. Ta ortarako, jakiña, buruz osatu bear pixka bat» (*ARGIA'ren Egutegia*, 1934, 81 orr.)

Erri entzuleak be ba-dau emen zer ikusi ta zer ikasi. Geien-etan ezin geinkeo zentzunik ukatu, baiña ba-ditu bere ipi-apa ta goraberak. Zerbait dakianaren ezpan-ertzean aisa arrotu daroa barre-irri ezaiña. Askok uste dau bertsolaríai txalo jotea txakur-amesa lez dala, ta oneik txirristaka ta laba-labaka lez jardun arren, lau puntuko bertso baten iru besterik sartu ez arren, askotan jo oi dautsez entzuleak sekulako esku-zarta biziak. Noizean noizean potó egiñagaitik, txaloz eskertu. Ezta ori jokabide zurra. Eztanik ez yako iñori zor, merezia baiño.

Dana dala, gorago be esan dogunez, gure izkuntzari mesede ikaragarria ekarria ta egin dautsoe bertsolariak euren edozein gisatako saioekin eta erriak onein ekitaldi ta ziri-sartzeak ardurazko txaloz saritzearekin. Askotako bertsolariok, a baiño au trebeago, bakotzak dauka bere nortasuna, izaeran, ikasian, jardunean eta gaiñerakoetan. Zenbait aldetatik danok ezin berezitu doguzan ezkerero, batzuk bakarrik aitatuko dira emen, onein ingurumari aldaska lez beste asko moltsoturik.

a) *Gipuzkoa'n*

1) *Pernando Amezketarra*

Oneitatik betor, lenengo, Pernando Amezketarra. Gizon argi onek, beroni ezarrirako ipuin eta ateraldiakaitik ezeze, bertsoarako eban zan eta gunagaitik be, ospe andia irabazita eukon garaikoen artean; eta, gerorakoan be, Pernando Amezketarra, Xenpeiar, Txirrita onakoak dira entzutetsuen; ezta iñundiko jokolari, izlari edo politikurik oneik lango izena jaritxakorik.

Amezketan jaio zan Pernando, 1764'ko urriaren 10'an; bere aita, Martin Joxe Bengoetxea, adunarra zan; ama, Joxepa Antoni Altuna, amezketarra. Txikitatik ei zan biurria, lanerako *errex*a, amezketarren esanez. Artzaiña zan, eta artzaintzan ebi-Uela iñok zirikatzen baldin ba'eban, ameneko baten erantzungo eutson, bertso bizkor zorrotzetan. Alan be, Pello Otaño'ren antzera, eztarri txarra ei eukan. 1790'ko maiatzaren 3'an, Mari-Joxepa Sagastume amezketarragaz ezkondu zan, bederatzí seme-alaba izanik. Asentziñe-Txiki baserrian il zan, 1823'ko gari-llaren 9'an.

Aurretikoen oiturari jarraituki, bertsolaririk ba-zan garai aretan Gipuzkoa'n, baiña iñortxo be ez Pernando'k beste omen irabazikorik. Merezi eban goi-maillan ipiñi naita, aren esakunak eta bat-batekoak gitxik lez jaso ta osotu ebazan G. Muxika argiak onela: «Benetako gizona zan gure Pernando au. Buruz azkarra, esaeratsua, itzez etorri aundikoa, orduko bertsolarien artean gain-gaiñekoa. Bere esaera ta ateraldiak, egikera ta gertaerak, izkírimir ta ipuitxoak, or dabiltz oraindik

aoz-ao, esan eta entzun, guzioen pozgarri» (*Pemando Amezketarra*, Zarautz, 4 orr.)

Bein batean, txanteletan joan zan erretore jaunagana, eta kristau-ikasbidea itandu eutsan onek, bertsotan atan be:

*uNola sinistatzen dek
ik irc artean
iru persona dirala
Jaungciko batean?
Auxen esan beur dek
istante batean,
irarteln liburutik
atera artean.n*

Eta Fernando'kj pentsaketa luze barik, erretore jaunak amaitu ebaneko emon eutsan berea:

*tiNola sinisten dedan
nere alegiñakiñ
aditzera emang det
sagartxo batekiñ,
Usaio, kolorea
saborearekiñ
arkitutzen dirade
irurak batekiñ.yi*

Ametza ta Otobezino bertsolariak ez eben onik Fernando'n ziria sakatzen izan ezik. Onako baten, amezketarrak bertsuok bota eutsozan, zortzi bertsolarien izenak bertan egokiturik:

*Ametza omen dabil aide onarekin
noranai joangi' dala bere Migel'ekin,
Otobezino jauna arturik berekin;
laugarrena daukate Tolosa'n arakin.*

*Ni Zabala'rekin, Martin Amorexekin,
Prantxisko irabasen (?) arrurik gerekin...
Orain goçoa duanak lanari ekin.»*

Txabalategi'k eta beste ernaniar batek Lekimberri'ko bertsolari bigaz iñarduen eguerdi baten. Andik lasterrean, ernaniar bertsolari bi areik Fernando ta Zabala'gaz egozaia, Txabalategi'k au jalgi eban:

*uPernando ta Zabala erri batekoak,
 ba-dckit zeratela kapi'iri bapoak.
 Ez izanagatikan zuek aiñakoak,
 gu ere egin gindutzen zerbait Jaungoikoak.
 Lengo apusl.u-koak,
 napur e'rikoak,
 Lekuv.berri'koak,
 ctzirán pijcak,
 asko> obeak gaituk Emani'koak.»*

Ernanitarrak Amezketakoai egln goratarrea ez yakon eder Lzan entzule artean egoan Ametza bertsolariari. Konturatu zan Pernando eta, Ametza'ri poza emotearren edo, bederatzí pun-tuko au opaldu eutson;

*uAmetza omen dago gizon arritue,
 Uxuraren konirako entenditue;
 nnek jartzcn o.igu kaniu luzitue,
 gu geiago gerala ezir. sufrilue,
 kantuzko pleitue
 beartzen gaitue
 galduko zaitue
 jarri nai goitue,
 Amezketak zedukak kantuz kreditue.»*

Ametzak erantzun:

*nPernando'k nere ona ezin eraman txarra...
 Atzean geldii::eko ni ez naiz mantxarra.
 Zuri egiten dizute iseka ta farra,
 ekarri dezulako alkondara txarra.v*

Pernando'k, azkenez:

*uPrenda arlzen dirazu alhondararena;
 bai bakit ez derala emen dan onena,
 Txarra izanagatik au da neronena:
 zuk ederra daukazu, bañan besterena.yi*

Sarri íeiatzen zan Pernando Alegi'n, bere erritik bertan. Igarri barík eldu yakon bein alegitarrei gaberdia, Pernando'ren aotik zintzilika. A zan bertso-ixuria! Ezarian baiarian orduak aurrera; atzenean, kaleratu ta agur au bota eutsen alegitarrai:

*«Egundo ez du ukaiu geure alderdiak,
ezta ukatuko're Amezke^a erriak.
Baña nola ez gauden betiko etorriak,
gabon!, beste bal arte; agur, zintzarriak!*

*Egi bat esango cta neure aoz,
slnistu ez dezute egingo benturaz;
agur, alegitarrak', oraintxe ba-goaz,
naibazute jarraitu -i?itzarriak joaz.>*

Orain eun ta berrogei bat urte idatzi eban Iztueta'k Gipuzkoa'ko kondaira; Pernando'tzaz au diñosku bertan: «Orain ogei ta lau urte San Sebastian egunarekin eraman zuten Pernando Amezketarra Azpeiti'ra, erri bereko batekin itz-neuruetan jokatzera; baña etzitzaion egertu kontra aritzaillerik plazara. Egia da, bera zegoen ostatuko atarira joan zitzaizkiola gabaz, desgaraiean deadarra ta auparaka; baña ezaguturik Pernando'k aien asmo txarrak, beraren onerakoak etziradela, utzi izan zien gau artan kantatu gabe, eta bidaramunean ikusi zue-nean karrikan igarotzen bere kontrario ustekoa, bota zion aurkez aurke, besle anitzen artean itz-neurtu au :

*«Lagunak arturikan guzizko tirrian,
nere billa enbillen bart i gau erdian.
Erronkak boioluaz vrestuezkerian
ez dik ongi emain ncrk bere errian,
egunazko argían,
euskara garbían,
jokatu nai nian;
bañon ez nauk ipiñi iñon premian.n*

Pernando'gaz, ba, ezin zeitekean txantxetan ibilli. Txirristzori eukan beti erantzun bete-betea. Taiu ontakoa gendun Amezketa'ko artzaña, makur-gait^a, auzi ta egoera zirtizarta-koetan be oin labur ibilterik ez eukana.

2) *Xenpelar*

Gazterik il zan Xenpelar, 34 urte besterik ez ebazala. Alan be, zoragarria ziñez arek euskal elertian itxi euskun argi-zirrinta, itxasoz doian ontzi andi batek marratu oi dauanaren

antzekoa, urrean. Aren bizitza ta bertsoak errotik ikasi ondoren, *Xenpelar bertsolaria* argitara emon eban Errenderi'ko seme argi Jauregi'tar Koldobika'k onela dagi emeretzigarren eunkiko bertsolariarik ospetsuenaren gizantza: «Xenpelar, bertsolaria dezu soil-soillik, burutik oñetara bertsolari. Bertsolaria erritar eta errikoi-uts. Ortik datorkio, bere izenari gure erriak erantsi dion dirdira. Irudipen biziko ta biotz-samurreko erritar olerkaria. euskal gizartearen biotz-tanpadak igarri, ta bertso borobilletan abesten yaioa, erri xearen alde, nun-nai ta beti, bere abotsa jasotzen kementsua, plaza-gizon trebe, atsegin ta guzien begi-koa» (*Bizitza ta Bertsoak*, Zarautz, 1958, 17 orr.)

Errenderi'ko Xenpelar baserrian jaio zan, 1835'an, gure Juan Prantzísko Petrirena Errekondo. Barruan ekarren bertso-deia ta 12 urte ebazala asi ei zan bertsoak botaten. Mutiko zala Oiartzun'go Eula ta Egurrola baserrietan morroi urte batzuk egiñik, Errenderi bertako Eun-Ola andian langille jarri zan. Geroagora, Mari Joxepa Erretegi'gaz ezkondu zan, iru alaba izanik. «Gorputzez, ez aundi ta ez txiki —diño Jauregi'k—; bien arteko baizik. Arpegia, beltzerana; begiak, biziak eta biurri-xamarrak; burua, erne ta azkarra; gañerakoan, gizon elizkoia ta atsegiña, kristau jatorra, ta langille paketsua.»

Aren bertsoak sarri argia ikusi dabe. Emen ezagunenak: «Mutil zarraren bLzitza», «Andre gaxuen penak», «Andre txarren bentajak», «Betroi bati», «Azken juiziyoko eguna», «Konfesiuyen gañian», «Jesukristo'ren Pasiua», «San Jose'ren zazpi doloreak», «Santa Barbara'ren martiriyua», «Balentin Berriotxoari» ta abar. Danak erri-kutsuz ta berotasunez gaiñezka; «erritar olerkari eskola gabekoari dagokion eran, baño argi, labur ta bizi; erderazko antziñako romanceroan, lotsarik gabe, sartu zitezkelakoan nago» —diño Jauregi'k. Orrelaxe da egiaz. Ona jazotako bat: Elorrio'n, Balentin Berriotxoa jaio zan etxeak bizitz-oin bi ta beia daukoz; be ontan, eskumera Belentin'en aitak eukon aroztzeria ta ezkerrera Maria Monike Arizti'k zaintzen eban ardantegi txikia. Karlisten gerratean, Balentin martiri zala, ardantegi ontara ziran euskaldun gudari batzuk, Martiriaren amaren aurrean egozanik kontura bage, orduan aoz-ao ebiltzan elorriotar ari buruzko kanta samurrak abestu ebezan.

Xenpelar'enak ziran oneik. Eta gudari arein poza, nun egozan konturatzerakoan!

Bizente Erretegi, «Muxarro», ta Xenpelar sarri ibilli oi ziran, adiskide miñak izanik be. bertsoz alkarri ziriak sartzen. Euleak ziran biok, eta Eun-Ola andian alkarregaz bear egiten eben. Muxarro, baiña, erretzaille utsa genduan eta arterik ezin artu pipakada batzuk erre barik; lan-tokian eragotzita egoan ezker, beste txoko ixii bat aurkitu eban ortarako. Xenpelar, laster konturaturik, joan yakon gorde-zirrikitura; baita bertso oneikaz. eraso be:

*v.Aizak i, mutil mañontzi,
nagusari goraintzi:
e.z ai dakiken or pipa artzia
ez dala Uzentzi?
Jeniyo txar oiek utzi,
besteta ezurrak autsi:
giza-legia noia bear dan,
ezin erakutsi.»*

Muxarro be etzan koplakari aula, eta onela erantzun eutson:

*«Víc ba-det giza-legia
Prantzisko'k baño obia,
beste tatxarik etzait arkitzen,
ariote-pobrea:
jeniyua det noblea,
koriesi paregabea:
v.eri ezurrak austeko nun dek
abillidodea?»*

Xenpelar'ek barriro:

*«Ziri bat scrtu dit neri
orain bestea berari:
abillidade gutxi dedala
ez esan iñori:
azala daukak ik lori,
mamirik ez duk ageri,
ezur igarrak austen zailla duk,
ba-zekiat ori.n*

Muxarro'k amaitu:

*uKnplitzik ire ordenak,
ez dik kalteko nor denak,
be.stela parra egingo ditek
begira daudenak.
Ik nun daukazkik kemenak
m."vderatzeko gaillenak?
EZVT igarrak autsitzen dizkik
indarra duenak,yi*

Bein, Oiartzungo Txiki-Erdi'n bederatzi bertsolari batu ziran jardunaldi luze bat egiteko. Xenpelar'ek bederatzi puntuko baten sartu ebazan danak, aurkez-zurrian. Ona:

*Pnnderiyako onek memoriya erne
Lexoti'k jartzen digu zerbait umore;
Txarrik ezin bota du Ibarre'fc naxtare;
—Nik oiekin ezin det luzitu batere—;
Xorrola dotore,
Baila Bordondo're
Artotx parcgabe,
Aroi.xa kaniore...
Larraburu jartzen det gobernadore.i)*

Bat-batean esan ezeze, jarri be bertsorik asko egin zituan Xenpelar'ek, eta azoka ta peri-egunetan batez be, onetarikoak pilloka saldu izan dira. Onenbestez naikoa gureztat. Beronen bizitzako goraberek jakin eta bertso ederrez barnea asetu nai dauan irakurleak ikuskatu bei Jauregi'k atunduriko liburu *Xenpelar bertsolaria*. Gizon jakintsu ta ertilari bikaiñak txalotzen ba'ditugu, onako apalak be, «iñork erakutsi gabe, berezko senaz. eta etorriaz, beren erriarren naiak, iritziak eta asmo-ametsak, basatxoritxoen antzera, kanta-kantari adierazi zizkiguten beste gizon apal oiek ere, gure maite-oroigai goxo bat beñik, merezi dute. Gizon apal oiek, ba, gure bertsolariak ditugu, eta oien artean, bikaiñenetako bat, Xenpelar», diño Jauregi apaizak

3) *Pello Errota (Pello Joxe Elizegi)*

Ona emen beste bertsolari bat, oso entzuna. Eundaka aldiz ibilli zan tipi-tapa, aguretuta be, ara ta ona; buru soil ta ezpan

irribera, ez eban Gipuzkoa'ko plazarik itxi itzetik ortzerako bertso piperminduz jentea alaitu barik. Onela G. Muxika'k, bere garaian erderaz egiñiko lan baten: «Zein Udale'k ez eutson otesgin erriko jai nagusietan erritarrak alaitu egizan? Oltza jagi batean, aulkian jarrita, belaun gaiñean txapela ta aiztomuturrez egokiro landuriko makilla eskuan, edo-ta zutik, erriko kale nagusiren bateko balkoian, txapela begietaraiño sarturik, nok eztau ordu luzeetan bertsoka ikusi bere alboan ezarrirako edo beste balkoi baten aurrez aurre daukazan bertsolariakaz? Bere antzeko zer maltzurak zitun batzuetan arerio, aurkako, bi ta bi zenbat ziran ekienak; beste batzuetan, bertsolari gazteakin leiatu bearra izaten eban. Baiña zar nai gazte, ziranak zirala, Pello Errota'k beti bereganatzen eban erria» (*Destellos de Historia Vasca*, II, 35 orr.)

Idazle argi onen itzai ezin geiago ezarri Pello Errota'ren gorapenez. Asteasutarra genduan berau, 1840'ko lotazillaren 23'an jaioa; bere aita be asteasutarra ta ama, Joxepa Erramona, Sorabilla'koa. 1860'ko garillaren 24'an, ZizurkiFgo Galardi baserriko neskatx Joakina Antoni Bengoetxea'gaz ezkondu zan, zortzi seme-alaba izanik; oraindik bizi da aren alaba bat, Mikela Elizegi, 1869'an jaioa. Asteasu'tik kilometro batera lez, Billabona'ko bitxabal ondoan, Goiko-Erota baserrian bizi izanik, bertan il zan Pello 1919'ko otsaillaren 3'an.

Orduko bertsolari guztiakaz eukan artu-emon. Ogei urte ebazanerako asi zan kantari, eta, onek eta arek zirikatu arren, danentzat eukon merezitako erantzun bat-batekoa. Illuntze baten, tratulari bigaz tope egin eban bidean. Peritik etozan oneik, gogo-jausi ta buru-makur, peri txarra izan zalako. Pello'k onela areik poztu naita:

*«Pobre ta aberats, zar eta gazte,
maiztar ela naguslyak,
ez gailzala iior despreziatu
Inungotkuaren graziyak;
zertako dira mundu ontako
tratu la irabaziyak?
Ementxc utzita joanak dira
oraindañoکو guziyak.»*

Santa Ageda bezperan eta, etkez etxe kantari jarduteko sarri dei egiten eutsoen, bost bat ogerleko lan-saritzat emonik. Etxe bakoitzean zituan bere koplak, lenengo nagusi jaunari, gero etxeko andreari ta azkenez seme-alabai. Neskatxa bati bein au abestu ei eutson:

*ttKguvez err. ederra zera,
gaubian berriiz apaiña;
beste guztiak utzi litezke
zu neretzako ba'ziña.»*

Sarri lez Aia'ra uruna saltzen joanda etxerakoan, illunduta nunbait, argi barik etorren burdian nasai. Alako baten, or mi-keletiak; estutxo artu eben oneik, lege-auste a zala-ta. Bertso bat botaten ba'eutsien, alan be, parkatuko eutsoen egiñiko okerra. Eta Pello'k:

*'Biria luzia ta ankik ezin jaso,
ners buru zuri (y) au zoratu dek oso;
batere uste. go,be artu naube preso,
agur, gisov prestuak, eskerrikan asko.)i*

Ameriketean urte mordoska egiñik erriraturiko batzuk lillu-ratufa itxi ebezan Pello'ren bertso-jardunketak. Eta indiano orreik Kuba'ra ta Argentina'ra eroan eben 1891'garren urtean. Buenos Aires'en, TandiPen eta, bertsolari igaro zitun zortzi bat illabete. Andikako eskutitzak bertsoz egin ebazan etxera, osterako goraberak eta ikusiak zearo azaldurik.

1897'ko maiatzaren 4'an il yakon emaztea, eta an ziran bertsolarien aurrean onako au bota eban:

*üGazterik egin gendun alkarrekin junta,
ogei urte baño len giñzan ezkonduta;
cm.in bn'r.rrik nago Jainkuak kenduta
Ai, ?eruan balego emazte dipunta!s*

Aita Zabala'k, bere Auspoa'ren liburu saillean, ale bat argitara emon dau gure Pello'ren lanakaz: «Pello Errota'ren biritza, bere alabak kontatua». Ondoren eskintzen dauskuz beste iru, arek jarritako bertso-paperak, erriaren aotik jasotako bertso, gertakari ta ateraldiak, PelLo'k bere ondorengoetan itxitako itzala. Ezta gitxi be. Gorde begie orreik aren izena.

Asteasutar onen jarrai, betoz emen beste izen bi be: Zizurkil'go *Joxe Bernardo Otaño*, Pello Mari'ren osaba, ta Usurbil'go *Udarregi*, Juan Joxe Alkain, 1893'an Azpeiti'ko jaietan batez be berebiziko istilluak atera ebezanak. D'Abbadie jaunak eraturiko iaioetan, astean beste bertsolari batzuk be ekin eutsoen arretan, laster iruok bakarrik geratu ziran: Pello Errota, Udarregi, ta Joxe Bernardo. Pello Errota'k jaso eban saria; beste biok, ostera, minduta gelditu yatzuzan, eta ortik sortu zan sekulako eztabaida, alkarren kontrako bertso-paper asko argitaraturik. Lenengo Udarregi'k jarri eutsozan Pello'ri ta Pello'k erantzun; barriro be Udarregi'k Pello'ri, baiña Joxe Bernardo be tarteko egiten eban, eta Joxe Bernardo'k egokitu eutson erantzuna. Amaika bederatzi puntuko ditu erantzun onek; ona lenengoa :

*«Usurbil aldetikan dilut notiziyak,
vpretzako dirade sopra gaziyak,
Jvan Jose Udarregi'k biraldu-aziyak;
poziēntziyan nago Jaunari graziyak,
gure nobleziyak
ala mereziyak,
kontu itxusiyak
rtauzkat itusiyak,
nola ongi bukatu gaizki asiya?»*

Irugarren txandan Udarregi'k bien kontra daragoio. Irakur bere erantzunaren bosgarren ahapaldia. beste guztiak lez bederatzi puntukoetan au be.

*HMiñberatzen asi da Errekalde OT,
oñazia sentitsen, ala dirudi;
lenago emon dizka bedorrek besteri,
dakiyala ari da, txorua ez da ori,
or dauka Elizegi,
zer biar dit neri?
Juan Jose Udarregi
apenas dan ari
tz diran gauzak esaten projimuari.fi
flkus Azpeiti'ko premiyoaren bertsoak,
Zarautz, 1963, 63 orr.1*

Udarregi etzan edozelan amor emotekoa ta laugarren aldiz be jarri ebazan bertsoak, eta Migel Anton, Pello'ren semeak

eta Oiartzun'en errotari egoan Juan Krutz, Pello'ren anaiak erantzun eutsoen. «Dana dala —diño aita Zabala'k—, bertso oiek Euskalerrri guzira zabaldu ziran. Bertsolarien artean ezpaita sekulan sortu au bañon sesio gogorragorik. Jendea, batzuek baten alde ta besteak bestearen alde, jarriko zan noski; bañan bear-bada Udarregi'k besteak baño lagun geiago izan zituan. Udarregi, 1895 urteko Urriaren 2'an il zan, eta esan diteke aren eriotzak jarri ziola errematea auzi oni.»

4) *Jose Manuel Luxanbio, «Txirritan*

Ona beste bertsolari yaio bat, bere bidetik, goi-gaiñeraiñr>eldua. Onen bizitzako típi-taparik ugari ta bat-bateko bertso-sail bat eskiñi euskun Aita Zabala'k, ilíebete batzuk dirala, «Txirrita» izenez. Eta liburu au irakurri ondoren, zer diñoket? Bertsolariaren nortasuna, asko beintzat, izamenean dakarren kezka agertzean dágoala ezin uka daikegu. Txirrita'k, berein kez karen naasian, miñetan erabillena ezilkortasuna eban: gizaki andiena berau. Irugarrena lez ei dogu entzutearen bizitza, geure ertilanetan irauñ-miña. Gurean larregi nabarmentzen eztan alderdí eder batek dizdiz dagi gizon onegan. Bizi-zoriari jarraituki, zartuaz joian pizkaka, eta gogolari zan ezkeru, ba-ekian gizaki-ospearen aultasuna. Norbait erioi daroa, ta aren gomutarik? Kea baizen uzter bai da giza-bizitza. Adur illuna ziñez! Txirrita'k ba-eban, zartzarokoan, ilgo zanaren susmoa; baiña «ni ilda gero be, nire bertsoak kantaiko dira», iñoan berak. Irurogeitamar urteko zala jarriak dira bertso oneik.

*v.Ga?te-gazterik asi nitzun da
orainda?o bitarlian,
zenbait umore eder jarri det
Kantabria'ko yartian;
pixka bañan ez naiz aztuko
sariuagatik lurpian;
riere aitametak izango dira
beste larogeí urtian.n*

Andik bost urtera il zan, 1936'ko bagillaren 3'an, Goizueta'ko erriaietan bertso-saio batera dei egin eutsonean onezak artuta..

Gizona il zan lurrerako; aren ospeak, barriz, larogei urtez ezeze, gizaldien gizaldiz dizdikor dau iraungo. Gizaki gurenak ez dira osorik lurrerako be ilten; olakoen izenak edesti-orrietan ezil-korturik geratzen yakuz. Berak xaloki aurtortzen dauanez, ainbat umore eder zabaldu eban Euskalerrian, ainbeste esan zorrotz eta eztenkada. Gizon zanez ba-ebazan bere akatsak. Andiak ala txikiak? Edozeiñek dabezan antzekoak. Dana dala, akatsok eza-gutu ondoren, bere bizitza ontzen saiatu zan alegiñean, azken-urteetan batez be. Orrez gaiñera, giza-barrena egiñetan era-kutsi oi dan ezkeru, Txirrita'ren bizitz-ispillu bere bertsoak dira, ta oneik aztatzean onak, ganorazkoak pixu geiago dabe zatar eta aldrebesak baiño.

Bere itzala itxi euskun bertsolari-landan, eta ertzak ondo artua itxi be. Eskolaz jantzia izan ba'litz, asmotsu ta zorrotz, gizaki gurenen jauregian izartzeko aiña yakun. Aren bertsoak geienetan eztabe sentimentu andirik azaltzen, zorrotzasuna bai ta eurrez atan be. Alderakizunetan asi ezkeru, Bilintx adibidez gozo samurra dogu, Txirrita latz sarkorra. Ona bertso bi gai beretzaz. Gaztelu'k era Txirrita'k, 1910'an, Azkoiti'ko euskal jaietan Aiameda'ko balkoitik bertsoan iñarduen. Txirrita'k onako au bota eban neskata baten antz-iduria ñirñirtzeko:

*uBuruko ille rubiya eta
begirazuna listia,
musu polita, arpegi itña
gorputza ederra bestia,
txanbra ta mantal gorriarekin
korsia zerbait kostia,
apretak txurk, galtzeta beltzak,
au dek ordia neskia.))*

Bilintx'ena dogu, ostera, gai berbera adierazoz egiñko zor-tziko txiki au:

*«Arpegiya polita,
gorputza liraña,
txikiz ez det esaten
oñaren tamaña;
ibitzen airetsua,
jantziyan apaña,
aren grazfiyak dira
ezin esan aña.y>*

Ona beste au be, Txirrita egokiro margoztuten dauana. Nagia zan lanerako, eta bein, kanpotik egotaldi luzea arrotu ondoren, etxeratu zan; baiña gurasoak etxaldean arazotu nai ebelako edo, laster aldendu zan barriro. Kanporatzean zortziko au ezpaldu ei eban:

*íBart arratsean eíorri nintzan,
gaur atera naiz etxetik;
aita ta ama errietan da
zakurra zaunkaz atzetik,
ni etxerako ona ez izan,
gauzak itxura bazetik;
gure Jainkoak libra nazala
komeni ez dan gaitzetik M*

Bai ta bere amari srauzitako beste au be. Amari ez yakozan eder semearen ortik onako ibillera luzeegiak, lanerako uzkur bertsorako azkar. Berandu samar etxeratu zan baten, akar-zurrian arpegira bota eutson, etxetik landa gau osoa be bertsoka emonik, etxean ez ebala tautik kantatzen. Eta semeak aurrez-aurre erantzun betea:

*«Atso lepa-luze bat
dala nere ama,
Errenteria'n dauka
sorgiñaren fama;
soñean jazten ditu
lau edo bost gona,
ni gaiztoa naiz, baiña
bera ez dek ona.»*

Amak, jakiña, asarre bizitan, gaizto-zitalka astindu eban bere aldamenetik.

Latze baserria bere sorleku, Ernani'ko lurrean; antxe jaio zan 1860'ko dagonillaren 14'an, goizeko irurretan. Bere gurasoak, aita, Bautista, ernaniarra zan eta ama, Juana Joxepa Erretegi, oiartzuarra. Baserri au gero lantola batek artu eban, eta bertakoak. San Markos mendiaren azpian, Errenderi'tik Astigarraga'rako bide ondoan, eskumatik dagoan Txirrita baserrira aldatu ziran. Etxe au euskaldun tankerako zabal andia da, eta guztiz zoragarriak bertako inguruak. Gure bertsolaria emen jaio etzarnarren, toki oni zor dautso ain ospetsu egin dauan izena.

Txikitan morroi egon zan an-or-emen. Koskondutakoan, barriz, argintza izan zan bere ogibiderik beiñena. Euskalerrian eta Euskalerritik kanpora arrobietan, etxe ta lantegi-giñen ibilli zan geienbat; baita ormagiñen be, Bilbotik Donosti'rako bultz-bidea egin zanean baitik bat. Nun lana, antxe egoan ostatuz be. Esana danez, bensolariak beti langille txar; Txirrita bardin. Baiña ortik jan bear, eguneroko lanaren izerditik. Beti ez yakon au be eskumende jarten, eta billatu egin bear. Goiz baten nagusi bati itandu ei eutson: «—Aizu, nagusi; lanik ba al dezu neretzat?» Eta nagusiak erantzun: «—Lan gutxi zeukagu». Eta Txirrita'k: «—Lan gutxi aski det nik».

Arrobi-zulo ta mendi-ertzetan lanari atxikia baiño, bere etorri ugaria bertso-kantuz inguruetako sagardotegietan erakutsi naiago eban aurki. Txikitua eskuan, ari ta oni zirtoka aldia erre, ori zan bere gogozkoen. Gau-zale ta parrandari genduan, mutil zarrik geienen antzera. Gisa orretan bikain aizatu oi ebazan ango ta emengo andre, neskazar, sorgin, adu gaiztoko, mutil arlote ta gizon txerbelak. Eta ementxe datza, ain zuzen, Txirrita' ren eskolak dauan bereizkuntzarik nabarmenena. Nik ori uste beintzat.

Amasei bat urteko zala Oiartzun'era joan zan bertsoetara. Etorri nareko agertu zan mutikoa, eta jentea, txalo bitartean, nungoa zan itaunka ebillen. Txirrita'k laster ase eban aren jakin-miña.

*uEzagutzen al dezute Jose Lmtse'kus,
Gizon txiki xamaT bat, pizhor antaekua
Ni aren semia naiz olako trapua,
aiiak eixetik aurrian bíaldutakua.»*

Anai bi ta lau arreba izan zituan Luxanbio'k, batzuk ezkondu ta ondo samar bizi ziranak. Ezkongai dirauen neska ta mutil zarrai amaika ziri sartu arren, bera etzan sekula ezkondu, bein eta barrero ortarako asmuz ibilli ba'zan be. Gurari au ta ezteguetarako deia onela margoztu euskuzan:

*nOgei eta bí urtetarako
nitzan ezkondu nayian,
irurogei ta baderataitan
oraindik nago gayian;*

*lendábiziko nere preoya
botalzen duten jayian,
suzko zezenak izango dira
Zurriola'n ta Kayian.»*

Orduko bertsolari geienakaz artu-emonean dagerkigu. Laztan ebazan Pello Mari ta Joxe Bemardo Otaño, Pello Errota, Enbeitza zarra, Ermu'ko Txindurri, Art2ai Txikia, Errenteri'ko Txintxua, bere lengusu Saiburu, Telleri-Txiki, S. Erauskin, Zapirain anaiak, Joxe Krutz Olloki, Prantses-Txikia, Pello ta Juan Zabaleta anaiak, Gaztelu Gorri, Regino, Ernani'ko Paulo Zubiarrain, «Elio», Joxe Migel Otxotorena ta abar; guzti oneikaz, bai plazetan bai taberna-zuloetan, konta ezin ala bertsoleta egiña zan. 1935-1936'an, Donosti'n jaituriko bertsolari-egun bitan be agertu zan, naiz-ta makulu biren gaiñean. Oraindik larogei urterako batzuk palta yakozan arren, urte-mordoa bere gain arturik, onela dabes:

*uLarogei urle gaiñean ditut,
nago anketako miñez,
Donostia'ra etorria naiz
erren aundia egiñez.
Bi bastoiekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez.
Euskera ia aztu zait eta
erderarikan jakiñ ez,
maixu batekin eskolan laxier
asi bear tief latiñez,n
(Ikus Yakintza, 1935, Epail-
Jorrailla, 146 orr.)*

Zaartu zanean, berenez baliatu eziñik, Altza'ko baserri Gazteluene'ra, bere arreba gazteenaren etxera aldatu zan. Etxekoen txeraz ta baserriko ikuspegi ederrez gaiñezka, il arterako guztia, amabost bat urte ementxe emon ebazan. Urteetan aurrerago ta bertsoetan, bai esanez bai jarriz, zoliago ebillela esan gengike. 1936'an, il zan urtean bertan, Txirrita'k eroan eban lenengo saria Donosti'ko bertsolari-guduan. Gerra ta bakea maikoak jarritako gaia. Danak diardue zein baiño zein obeto bakearen alde. Txirrita'k be, gerraren etsai, bakeaganako maitasarra adierazorik, onela:

«Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan.
Ni naizzen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan:
semcak gerra ez joateaiik
mutil zar geldiu nitzan,yi
(Yakintza, 1936, EpaU-JorraUa,
151 orr.)

Auxe da Txirrita, erakusgarritzat ipiñiriko bertsuok diñoena. Bereko jitez ta jakituriz asean, euskal baserriar askoren erara nunbait; bertsorakoan, erantzun erosoan miiñean gertu eukona. Bere gogoa, euskal gogo berezia, bertso-arietan pilpilka itxi euskuna. Txirrita, bere eskola dauana, berezi ta jatorra; bere itzala dauana, ta itzalpe orretan ainbat bertsolari ibilli dira ta dabiltz, eguzki biran izarbelak antzo. Itzal bi, Enbeita'rena ta Txirrita'rena; bata eskolatuena ta eskola bagekoena bestea. Oso apartekoak? Ba-leiteke. Muxikarra, txit guren, jagi ta olerkitsu, erriaren adimen-biotzera doa zuzen; ernaniarra, be, erri-erakarle, umore oneko, ziri-sakatzaile, maltzur, zorrotz, trakets. Biotatik n.or obe? Biok, nik uste, bakoitza bere ein eta maillan. Enbeita'ren joera bikain lerdengoa izanik be, Txirrita'rena ba-leiteke errikoia goa ta onen izaera bereziari obeto dagokiona.

Esanak esan, itzal bi, eskola bi ditugu emen. Bebil bakoitza, azke ta eskuko da-ta, kutunen dauanaren eskolako itzalpean. Arek eta onek, bakoitzak bere bolura ura eroan nairik, izango doguz eskier istillu ta zaratak; baiña aizu bekio ari nai oni gogokoen bidetik ibiltea. Mugaz andik ba-dira gaur egunean bertsolari bikain bi: Mattin eta Xalbador. Etienne Salaberri'k oraintsu onan bereiztu ebazan: Mattin, zorrotz, sarkor, zirtolari; Xalbador, goxo, jaiki, olerkitsu. Nori zagokioz? Erriak txalo-zaparradak sariztu dauz urtenaldi amarrutsuak, baiña gizon ikasiaren bertso bigun, egoki sentimentuzkoak geiago. A'luxika'ko Urretxíndorra bigarren oneitakoa zan, gaur aren seme Barentin, Basarri, Xalbador ta beste batzuk ditugun lez.

b) Bizkaikoak

Jakinzaleak, il arren, leia bardiñez joak itxi oi ditu, jarraitu

dagioentzat. Au jakintza bera sortzea baizen gurena bide da. Eta bertsolariak? Ez ete dira onein egipenak be, amairik ez dauan mailladia lez luzatzen? Itxas-olatu ainbat dozuz; olatuak orain inguratzen dau txera-jario ur-ertzeko atxa, zakar erasoten dautsa gero bits zuritan itxirik. Bertsolariak, era berean, barru daroan suaz kezkatu opa dauz entzuleen gogoak oro, bertsoen ezten ezkutuaren bidez arein nor-izanean bere zer-izana tinkotuaz. Olantxe doguz, besteak beste, bizkaitar bertsolariak; iñor mintzeko asmorik bage, asmotsu ta giarrak.

Ez doguz, damurik, gipuzkoarrenak baizen ezagun onein joan-etorri ta aziorraziak. Goikoa lagun, iñoiz edo bein asti-une egokirik baldin ba'dot, onein gora bera ta bertso-lanik onenakaz liburu mardul bat osotutea gura neunke. Bitartean, begoz *emen* euren izenak, besterik ezta be, guztion irakasgarri.

Gaur lez antxiña etzan Bizkaia'n eleizaterik bertsolari bakarrik. Biibao'n, Mungia'n, Gernika'n, Markiña'n, Durango'n, bost alderdiotan ziran bertsolari auta ezin obeak amazapi, amazortzi, emeretzigarren mende zear ogeigarrenerarte guztian. Gernikaldeko marijesiak eta Bilbao'ko Gabon kantak gorago aitatu doguz. Kanta zarrrik asko ez dakigu norenak ez noizti-koak diran. Dana dala. mugaz andik Gazteluzar'ek, Oihenat'ek eta besteak lez, Bilbao'n (1611'an) jaio ta San Anton eleizan bateaturiko Rafael Mikoleta'k, *Modo breve de aprender la lengua vizcaina* 1653'an idatzi ebanean, gizon leiñargi ta onen morroiaren arteko autu bizian polito dantzatzten ditu maitaleen pozatsegiñak. Irakur lauko au:

«A/per-alperrik iminikozu
zeure ivdarra ta izana,
zerren eztozu oiortuko
lenao biotza zeugana.»

Orain iru gizatdi Mikoleta'k erabillen euskereak eta gaur guk Bizkaia'n darabilgunak alde andirik ete dauka? Ez farregi aintzakotzat artu gure ele zarra urte gitxiren buruan asko erabirritu dala diñoenen esanak.

Au eskolatuen maiñiakoa dogun arren, amazortzigarren mende erdirantza, bizkaitarren bertso-griña asetzeko ondu ebazan nunbait Lekeitio'ko seme Aita Agustin Basterretxea'k (1700-1761)

bere bertsozko liburuxkak: 1) *Gizonaren ákabuko lau gauzak*; 2) *Anima penitente baten negarrak*, eta, batez be, 3) *Jesu-Kristo gure Jaunaren Pasioa*. Aita Kardaberatz'ek gipuzkeraturik, bizkaieraz ta gipuzkeraz ogei bat bider argitaratua izan da, Aita Galdots eibartarraren aburuz. Gaur be, Aste Gurenez, kalerik kale eta eleizetan atertu barik dantzuguz aren oiartzun ederrak.

«*Jesu-Kristori kendu ezkerá
 pekatubakaz bizitza,
 baldin ezpadot negar egiten
 arrizkua dot biotza:
 guztijok lagun
 kantadu daigun
 bsre penazko er.otza.x*

Aramaio'ko seme Pedro Iñazio Barrutia'k (1682-1759), 1711'-tik 1752'arte Arrasate'ko eskribau izan zanak, *Gabon gaberako ikuskizuna*, Ienengo euskal antzerkitxoa, dan-dana bertsoetan idatzi euskun. Daukazan erderakada ta guzti, matasa ta gun, ez dago txarto asmatua. Txerrena, barregarria, erriko mutil ta etxe-ko andra, Aingeru, Josepe ta Andra Maria dira bertako antsez-notiñak. Mari'k onan, Umetxoa altzoan dauala:

«Eji eno laztantxoa, aji negar tanta bat da asko
 Oraingaiñiiko kulpa egiñak guztiak deseginzeko.
 Amoriook irizi zaituz zerureanik lurrera
 Adanen ume desterraduak zeugcna konbertizera
 Majesta^aea ba'eti dakusl, besteti umildadea
 Jangoik.oa ta uizona zara. milagro parebagea
 Zeureak dira gure biozak, muudu guztia zeurea
 Erakusk-Lzu Jaun zerukoa, zarala gure jabea
 Eji ene laztantxna, eji, etc.n

Ele ederrak adar asko dauz, eta idurizko edo sinbolismu-eskolaren adar gaillen bat txiletar olerkari Bizente Huidobro'k irazandakoa dogu, ots, gure asmamenean ondoz ondo datorren iduri-sail dizditsua (creacionismo). Argi-mintzean iduriak lez, gogai ta biotzkada iradu ta arrapaladan dabiltzalako, lerro-amai-keran eztabe punturik jarten. Azken orduko barrizaleok baiño askotaz lenagokoa dogu onetan be gure Barrutia, lerro-azkene-tan ez eban ba punturik ipinten. Baiña zenbat obeto, bai ira-

kurteko bai aituteko, klasikuak .iez gauzak egoki ta eraz sailkatu-rik!

Emeretzigarren gizaldian baita bertsolari ziran. beste askoren artean, gure Trueba'k *Los Plateros de Durango* izenburuz «Euskalerria» (XI, 1884, 181-182 orr.) aldizkarian aitatzen dabean Juan Kurutz de la Fuente ta onen aita ta anai bi zidargiñak. Laurak ziran durengoarrak, eta Juan Kurutz, noiz jaioa dan ez dakigun arren, 1834'an il zan. Bertso-sailtxoa idatzi eban Juan Kurutz'ek: amaíru izenburu damoskuz Truebak. Iruña'ko «Revista Euskera»-k nrgitaldu ebazan batzuk; *Arre Potxo, Eulijak, Dima'ko fiestak, Aita Palazios* eta *Zagarra* (III, 1880, 187-191; 217-223 orr.), esate baterako. Durango zidargiñak (*Los Plateros de Durango*) izenpetu arren, Juan Kurutz'enak ziran bertsoak eta bere anai Antonio'rena areik eroien soíñua.

Eta ogeigarren mende asieratik aurrera ainbat bertsolari ebiltzan kanta-kantari Bizkai'ko zoko guztietan. Urrerorik urrengo danen aipua eitera ezkerre geiegi luzatuko gintzazalako, banaka batzuen izenak ezin alan be ixilzorroan gorde. Idurimenak eta olermenak duindutako oneik, Kepa Enbeita'k biztuazo ta goimaillaratu ebazan, danak taberna-okoillutik igesazo ez baiña. Autor daigun ozenkiro: aren esanetara jarri ta plaza-gizon egin ziranak kukurruku galantak jo ebezan, besteak len lez oillo-irrintzika ziarduen bitartean.

Kepa'ren aita bera bertsolari ona zan, Txankan Iburriko, Pedro Areatzako ta Zugadi Maumeko sarri izaten ebazan lagun Txankan abade izateko ikasten ibillia, baiña karrera ori itxi ta ezkondurik Ibarruri'ko Igizabal baserrian bizia, !au-bost seme-alaben aita; berezko etorriari erantzunik, etzan au txepela bertsoketan, batez be igande-arrastietan; Gernika'n il zan. Txankan'ek ba-eban bere aldetik beste bertso-lagun begiko bat be: Pedro Areatza, Muxika-Areatza'n jaio ta Aiangiz'eko Lezamen basetxean bizia; ezagunak ziran umetatik, eta alkarri zirí-sartzen jardutea atsegin yaken oso. Biak arrozko ta eritxikoak. Ona iru puntuko oneik.

Txankan'ek:

—*ttPedro maitia, entzun egizu
la ibilli zaite konluen,
ígizabnl'go bertsolaria
bere kantuko tonuen,
obeagorik ez dagoala
Aiangiz'eko puntuen.y)*

Pedro Areatza'k:

— *«Germka'tikan pixkat albora
erri txiki bat Aiavgiz,
Lezamen dauko bere izena,
antxe bizi naz aspaldiz:
nai dozunian etorri zaite,
ariuko zaitut aprendiz.»*

Erraimun Zugadi, barriz, Maume'ko semea zan, Gernika ta Durango aldean sarri askotan bertsoz egiña. Errietako jaiak alaituaz, idi-probak eta antzeko baseritar jolasak atondutea eder yakon. Bein Muniketa'ko landan egiñiko idisaioatatzko bertsoak argi diñoce:

*«Kantatu gura diiut zenbait bertso berri
aditzen emateko probalariari.
Dirua jokatu da publikuan garbi,
Boita depofiladu presidentiari.»*
(Ikus *Denkrar.J.er der baskische Sprache,*
Berlin, 1857.)

Ogeitabost ahapaldi ditu proba-kantu onek. Beaskoetxea ta Undagoitiko Joxe ziran probalariak; aurretik ogeta amairu dukat ipiñi ebezan Juan Zugadi'ren eskuetan. Biak lerrenak eginda be, Beaskoetxea'k galdu eban, baiña ezin etsirik, izugarrizko barbulla ta esamesa arrotu ondoren, Gernika'ko epafkariagana joteko asmotan ibilli zan gixajoa.

Durango'ko erri-jaietan bertsoiarien burruka txiki bat antolatu eben, Kepa Enbeita'k emeretzi urte eukazala. Garai atan ba-zan Berriz'en izen andi samarreko bertsolari bat, Onbe. Mai-koak —Arrese-Beitia zan tarteko— oni emon eutsoen lenengo saria; Kepa'ri bigarrena.

Lumo'ko Joxe, Enbeita'gaz sarri bertsotan jarduna be, etorri jorikoa genduan. Bide-lan izerditsua baiño naiago eban, barruan erne-min ekarren bertsotarako griñari durua jareñik, biotzan asazkalditxo bat emon. Onen antzekoa baita Begoña'n bizi izan zan Betolaza Karkamo be; bertsolari «xelebre, trabes utsa», ezagutu eban batek oraintsu inostanez. Bilbao'ko Aldundiko txilindru-zaiña zanez, bideetako beroak egarri sortu oi eutson eta Begoña aldeko sagardotegi ta txakolin-etxeak ondo ezagun ebezan onen etenbako bertsokantak. Au ta Mungia'ko Bartolo sarri ibilli ziran Enbeita'gaz erririk erri bertso-kantari; beraz, etziran edonor.

Alan be, Bizkai'ko plazetan Enbeita'gaz geien ibilli zana Uriarte dogu, Txirrita bera baizen zorrotza ta takada ederrak saltzen ekiana. Esteban Uriarre Etxebarria Dima'n jaio zan 1894'an; argiña zan, eta bizialdirik geiena Bermeo'n argintzarloan igaro ostean, ementxe il zan 1947'an, arri-autsak egin-dako gaiztasunez. Bizkaia'n ez-ezik, Gipuzkoa'n eta Nafarroa'n be bertsofari ibillia; 1935'garrenean, Donosti'n eratu zan bertsolari-egunean an dakusgu Uriarte dimostarra be beste ogei bertsolarigaz. Irugarren saioan, maikoak bertsoaren asiera emon bear eutson bakotxari, bertsolariak bere kabutan emondako doi-ñu ta itz-amañtze bardiñean jarraituki.

*<{Ekin tazu oraintxc
nere lagvn zarra...}>*

emon eutsoen Uriarte'ri, eta onek otoz-otoan erantzuna:

*«Orrétako bai ciala
orain ordu txarra.
Bn-dak-izn aragiz
na\zcla mmlkarra,
kantura^o amaitu
da nere indarra.n*

Enbeita'tar Imanol, «Garbinai» ta «Uribitarte'tar Ibon» izen-goitiz, Kepa'ren anaia, Areatza'ko Usparitxa baserrian 1884'an jaio ta 1946'an illa, bertsolari ta idazle goirenengoa zan; aren idatzi ta bertsoak Euskalerra osoan dira ezagun. Nainun aurkitzen eban kantagi txanbeliña: ondo-egiñaren eskerra, ezeuki

baten biotz-intziria, neskatil baten irria, udabarriaren berbizkudea. Ameriketatik luzero samar ibilli arren, ez yakon aitzu amaren altzo bigunean ikasitako euskera, eta itz-lauz ta olerkiz irakurgarri nsko itxi euskun.

1958'an, lenengo bertsolari-txapelketa Bilbao'n ospatu zanean, egun ori Bizkai'ko bertsolari zar baten omenez egitea erabagi zan. Nor zan berau? Luzio Elortza, Nabarniz'ko semea, Arro-la'ko mendietan beti artzain, amaika bertso esana. Mendi orretan ba-da Maruelexa esaten yakon toki bat, gaztelu antzeko lur ta arrizko mukulu eskergea, IV edo III gizaldi Jesu-Kristoren aurretik bertakoak egiña, uste danez. Elezarrak diñoanari siñistu ezkeru, antxiña batekoen dirutegi andia gordeten dau lur-mukutz arek. Oroigailu *sk* eta bertatiko ikuspegi zoragarriak arrotzen dauz antza artzain bertsolariaren idurimen-ariak.

Ondarru gizon andietan beti ospetsu. Tiburzio Urrosolo, Joxe Brontx eta Joxe Burgoa, bertako semeak, bertso apaiñak biribildu ebezar; Ondarru ta Ondarru'ko gizonak goi-maillan jarririk. Urrosolo'k, beste gauza askoren artean, 1890'garren urtean ondarrutarrak atzemon eben arrain izugarriaren bertsoak iari zituan : arrain ori eskuratzeko erabilli ebezan gorabera guztiak zeatz-zeatz edesten dauskuz amalau zortziko nagusitan; ogei ta amabi oin zan luze arraiña ta pisuz zazpireun arrua. Brontx'ek, barriz, Ondarru'k aibokoakaz izaniko estropada-burrukak gogora dakaz bertso-sail bikaiñetan; eta Burgoa'k Berriatu'ko zezenarenak batez be. Bildurgarria zan berau antza. Ona bederatzigarren ahapaldia:

*«Belarriak zutunik, dantzari adarrak,
nstituduten zituzen ota eta larrak,
zezen orrek zeraman sua eta garrak,
taserritarrak bildur, eme eta arrak;
arrazoic. tlezute, nere lagun zarrak.»*

Barriatua'ko Ezkerra'k bere aldetik, 1926'garren urteko agorraren lenenetan ondarrutarrak Donostia'n, Alfonso Espaiña'ko erregearen aurrean irabazi eben arraunketa azaltzen dausku bizibizi amalau bostekotan.

Goazen, azkenik, Markiña ta Trabaku zear Ermu sakonera. An daukagu zar-zar, baiña oraindik bizirik, Gillemo Bengoetxea, «Txindurri». Larogeta sei urte ditu lepo-gain, eta gaur be, gorputzez txiki baizen argal dan arren, tente ta zut dabilkigu, barreneko gazte-poza begietan dizdiz alaian erakusten dauskula. Mendizale amorratua izan da beti, gaur be mendiz-mendiko joan-etorri ta ibillera galantak burutuz; garai baten pelota jokuan etzan makala, Justino Urtzelai ta Azkoiti'ko Txikiá menderatu ei zitun iñoiz. Aldarte, umore onekoa beti, lagunartekoen naibage ta oiñazeak arintzeko kontulari errimea ta atsegiña. Gaztetan, barriz, bertsoketari loturik, olako gatz-ozpin apartekoa gai guztietan jarten eban. Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko bertsolaririk onenakaz artu-emona izan eban urte askoren buruan; Txirrita, Prantxesa, Gaztelu, Pello Errota, Uriarte, Eulia, Betolaza, Enbeita ra gaiñerako guztiak gogoan ditu gaur eguean be. Azken-gerratean bereak eta bost ikusi bear izan zituan; ba-ditu orduan atarako bertso gartsu, ikukor ta samurrak.

Mungia aldean, Laukiniz'en, ba-dogu oindiñokarren beste bertsolari gogoangarri bat: Larrabe'ti'tar Eustaki, «Eulia», erriaren ames ta biotz-zauskadak arretaz jaso ta barren-jario oparotsuz kantatzen dakian gizon zintzoa. Eulia ta Txindurri lagun miñak ziran, akarregaz bertso-saioretan ibilliak. Eulia eztiz ezti ta txindurria bidez bide, a zelako langille asmotsuak! Bai ta Ispaster aldean Koskorrotza'tar Gabin, eundaka biotz doakabe bertso-eztiz gozatua be, onein kezka-bideetatik ibillia ta gaur be oraindik dabillena dogu. Gizaki txalogarriak, ziñez!

d) *Mugaz andikoak*

Er.da bat-bereko gareanok ezta arritzeko ekanduz be bat-samar izatea. Ortik, Larreko (P. Fermin Irigarai, 1869-1949) idazlari erneak iñoan: «Mugaz aruntzako euskaldunak eta gu, odol berekoak gara; oiturez berdinak; izkuntzez, kantuz, bertsolariz eta ipueiz berberak; itz batean abenda edo arraza bereberekok. Ek eta gu kantariak, dantzariak, soñulariak eta pilotariak aire berean, gu ainbat ek, edo geiago. Gure artean be-

zenbat bertsolari edo geiago, eken artean ere» (ARGIA Ven *Egutegia*, 1932, 43 orr.) Beraz, ba-dira mugaz araindiko euskaldunen artean be bertsolariak, eta ez gero bada-ezpadakoak. Eta gaiñera, berrogeitaka urtez Baiona'ko astekari *Eskualduna'k* bizkortu ta suteraz ebazan bertso-zaleok.

Ango literaturari guztizko begiratu bat egiñik, auxe dakusgu argi ta garbi: aurreko lau gizaldietan areik izan dirala, naiz itz-neurtuan naiz askatuan, arnas andiko goi-gaiñez beti gailen ibilli diranak. Sarri egillearen izena jakin ezta be, arein kantuak eta bertsoak punterengoak doguz. Egille batzuk be, zorionez, ezagunak ditugu eta ba-dabe oneik alderdi jatorrik. Eta euskal lur atako iru probintzietan be, odol berekoak izan arren, bertsolari bakotxak bere nortasun berezia dauala autortu gengike: lapurditarra zur, zintzo ta jagia dozu; benapartarra nasai ta zirikorra, ta zuberorarra ames-zaleago. Ona batzuk.

Lapurdin Ibarrart aitatu, Errotxil eta Mattin ditugu entzutetsuenak.

Errotxil —Capdeville zan bere deitura— pelota-jokuetan esale ibilli oi zan; abots zolidun, ba-ekian giza-biotza irabazteko bidea. Bertsolari lez goenenetakoa izan ezta be, arrano egaza yakon atsegiñen; ez gareana erakutsi naiak, alan be, edozein jarten dau goragale: burdia eztaigun azpiz-gora erabilli, berezko ditun txirringa gain eroso baizen.

Lapurditar bertsolarien maixu, ezpai barik, Senpere'ko seme Mattin Irabola dogu. Ez ekian idazten ez irakurten, aian be oi ez lango bertsolaria izan genduan; Euskalerra osoan guztiz ezaguna. Gorputzez txiki, arimaz andi; etsaiaren aurrean izukor. Aren bertsoarik asko dira oraindik be entzuleen oroirnean. Ez, etzan aren entzutea auntzaren gaberdiko eztula, ta nainondik deia artu oi eban bertso-jardunera joateko eskatuaz. Bein, Sara'ko erri-jaietan zan, 1925'an; or Mattin eta Louhosoa'ko Larralde aurrez aurre; mai-burukoak asi eban doiñuz bertsoketari egokion gaiaren lenengo puntua: bietatik zarrenak, lengo andrazkoen gona luzeak aldezfuko ebazan, bigarrena gona motzaren alde agerturik. Ordu bi luzetan jardun eben gai orri buruz, erioen ahapaldiak gero ta garrantzitsuagoak zirala. Az-

kenez, berandutuaz joiala-ta, maikoak amaitu-azo bear izan eben saioa. 1935'an Donosti'n egin zan bertsolari-gudian be Mattin'-ek bigarren saria jaso eban.

Be-naparru aldeau oneik aitatu bear: Xanxo, Apezena, Zubiat, Etxarren, Goianetxe, Erramuzpe ta Jauregi beintzat.

Xanxo zamaltzaiña, bere egikizunari erantsia, Baigorri'ko bahiaran ibilli zan 1835'tik 1850'rako guztian. Etzan bertsolari makala; baiña, bere esana lar gogorra ta noizean bein pozoitsua zalako, sarri zauritu eutson biotza atsekabezko ezten-muturrak. Mugazaiñakin be izan eban zer ikusia, bere maltzur-izateari eskerrak geienetan ondo urtenarren. Xanxo'ren sastaketa etzan gozoa.

Manex Apezena, Banka'ko Bildostegi baserrian jaioa. Ba-eban arnasa, bai ta etorri betea be, zirti-zartarako maixua. Eta bat-batekoa bota ez-ezik, idatzitakoak erririk erri saltzea be eder yakon: arazo ontan maltzurra ta salatze-kontuan oso azeria genduan. Lapurretan be iñoiz egiñik, amar bat urte giltzapean emon ebazan. Bere lobeak salatu ete ebaneko zurmurrua zabal ebillen errian, eta Manex'ek, au jakiñik, erruki ta lotsa bage zigortu eban bertsoz.

Zubiat Behorlegi'koa be, geriza andiko gizakia, bertsolari egin-egiña. Sarri yoakozan eske batzar, apari naiz besta-egun batean bertsoan jarduteko. Bein, 1909'an, Mendibe'n aurkitzen zala, Donibane-Garazi'tik dei egin eutsoen. Zer zan jazoten zana? Inlaterra'ko Errege Eduardo VII'garrena bertan egoan, bertsolari batzueri entzuteko gogoz. Joan zan Zubiat. Berak eta beste batek, jarri eutsoen gaia —iturria ta itxasoa noski— arturik, sekulakorik asmotsu ta dizditsuen jokatu ziran, azke-nean, Behorlegi'koak batez be, Erregearen gorapenezko txalorik beroenak entzunaz.

Joanes Etxarren, Irulegi'ko semea. Adimen argidun, izlari trebe; berstolari saillaen, ezpairik ez dauan entzutearen jabe zan. Gaztetan, diru-ekurraren kili-kiliari ezin eutsirik, Ameriketara joanda an igaro ebazan urte mordo batzuk; or doga

gero, ezkur-jabe, bere baserrian patxaraz bizi dalarik, bertsolari. Aren neurtitzak ezten-saillekorik ederrenak izan arren, bera etzan izatez akar-bertsolari, biotz-zabal ta maitekor baiño.

Esterenzubi'ko Goianetxe ezta eskasa, «Santibate» zale amorratua iñolaz be. Etxarren otseña zan, eta diñoenez, ugazabak cta morroiak euren bíziko berstoaldiak euki eroiezan, igande arratsaldeetan iñoiz bertso ta bertso goizalderaiño jardunik. Lurralde atan, Irulegi'n bereziki, mastoi joriak dagoz, eta ango mistel apartsuak asko lagunduko eutsien ziur bai ziur.

Asko irakurria da Peyo Erramuzpe, Banka'ko bertsolari ez-tia; edesti-kontuan gazte-gaztetatik asko zaletua. Berezko joera, baiña, olerkirakoa eban; eta Beltza apaizak zirikatu ta Zaldubi'k esku-samur zuzendurik, bertsolaritzako egikizun errez-ezean maixu egin zan, aren bertso biribiUak adierazten dauskuenez. Izaditik jasoak dira aren kantu-gairik geienak; sumakor ta bigun, bizialdiko edozein zeaztasuni edari gozoa ataraten dautso biotz-ondoan lauskituz. Au be, orraitíño, irri zuri zale. Ona *Gaizki errailea* deritxon olerkiaren laugarren ahapaldia:

*uLasto bat bera ikvsten betl bertzen begian,
Saviatsa bezain handia behf'ere bzrian...
Bere hutsak beti kuku çibelesko zakian,
Bertzenak aifzimekoan gvziak agerian.»
ilkus MHLa Olerki, 1115 orr.)*

Ospetsua baita Jean Jauregi, BaigorriTco semea, Tihista bere jaiotetxearen izenez be naiko ezaguna. Bertsolari piña, neurri-legeak eta ondo zaintzen ekiana. Gogaiz aberats eta biotzez bero, iturritik ura lez jarioka ebazan bertsoak. Eta au be ziri-lari. Írakur Baigorriko erlojuari egiñiko zerbait. Amazazpi lauko daukaz bata baiño bestea bikaiñoago josita.

*«Aldi xartua dago erioia Baigorri'n:
Hunen eritasuna nork deza-ken jakin?
Mediku jakintsu bat nunbaltik jln dadin
Bertsu haukien bidez behar dut galdegin.»*

*Ouziek ba zakiten alpaiurik zela
Holako erloirikan bertzetan etzela,
Balnan denbora orai neketan zoala.
Azkenekotz gelditu da, ezinduz bezala.n*

Zuberoa'k be, bere aldetik, ohoretan ditu ainbat olerkari bat-bateko. Etxahun gorago itxi genduan aintz-aulkian omen-dua; beste askok be merezi dabe izenez ta omenez zeru goiraño jasotea, baiña danak ezin lekuturik, bi bakarrik dakarguz zelaira: Beñat Mardo ta Ligeix.

Beñat Mardo da aurki Zubero'ko bertsolaririk urtenena, XVHPgarren gizaldi barruan; Chaho'ren eritxiz berak dau ego aldeko Euskalerrian osperik zabalena. Eta aren lanakaz bildumak osotzera ezkerro, ale lodirik asko egiteko beste lan ei dauka. Geienak, alan be, galdu ziran betiko. Gaur zori ohea dogu orretarako, ots, bertsolarien jardunak artu ta literaturaren orrfetan tinkotzeko tramankulu ederrak daukaguz. Antxiñakoak ez eben olangorik.

Barkoxe'koa zan »Viardo, Etxahun aitatu lez, eta bertsolari osotzat joten eban bere burua. Museña be, an bertako zintzarriegillea, bertsolari zan nunbait, baiña ez ain egokia. Mardo'k ez sartzeko diñotsa olako zeregiñetan, bera dala buruzagi ta.

*«Ni deitzen nuk Befiat Mardo, Barkoxe Baxábillako:
Otoitzen hait eztizadala kantorerik hunt haboro,
Eztakika ni nazala buruzagi hartako?»*

Bai, nagusi zan izan be. Aldiuro kantari, errez ta garbi, rxi-rrizkillá adar gaiñean letxe. Zio bi zitun ortarako: barren-giroa, ídurimen bizkor ta oarkorra lenen, eta erritarren entzun-griña bizia bigarren. Zenbait urtetan bera zan txapeldun Zubero'n eta baranoan, etzan iñor bertso-alorretik a uixatzekorik. Berrogetamar urteko zala, alan be, giza-gogo umotuak keme-nik geien izan oi dauan sasoian, Mardo'k ereiñotz-abarrak irabazten ebazan arren, buruko uleak galtzen... Egun batean, berak bertso-burrukara deituriko koplari batek, jentetza andiaren aurrean, gaixo ori erauzi eutson maltzurki arpegira. Bere bizi-tzan, orduantxe izan zan lenengoz azpiratua.

Larraiñe'n jaio zan Luis Ligeix, eta Game'n il 1935 inguruan. Ezta errez neurtzen euskal arloari Ligeix'ek zenbaterai-

ñoکو mesedeā ekarri eutson. Gaztetxo joan yakun ezkerō, ausia geratu zan aren bertso-lana. Baiña, zelanbait esan, olerki gozo illezkor batzuk laga euskuzan, eta orreitatik dagerkigu zan aiñaکو gizoua: ameslari, biotz-bero, neurri doi ta zeatzekoa. Lamartine prantses olerkari erromantikuagaz kidetu dau norbaitek, eta larrañetar onen gozotasun eta negarbera gogotan artu ezkerō, baipen egikorra iduritzen yaku.

Gudan anai bat galdu eban Ligeix'ek; aren omenez egiña dau *Gerlaondoko amets bat*, gogai ta idurikizun soUlez gaiñezka. Ezker-eskuma dogun ederrak, au da, izadikoak zoratzen dau; eta *Lau sasoak* deritxon poesian urteko lau aroak jarten ditu izlari. Goiak bizialdi luzea emon ez ba'eutson be, aren lorratzen jarrai dabiltzanak eztira gitxi. Ots: bertsolari-azia erein eban or eta etnen; azi ori gaur, lasto ezeze, garaturik da'go.

6. Bertso-jartzailleak

Iru erataکو bertsolariak iragarri genduzan asieran: bat-batēko bertsolari edo plaza-gizonak, bertso-jartzailleak eta fioren bertso-esaleak. Azkenengo onein artekoak, ziuurrik asko, lenago gurean izango ziran arren, gaur ez dogu olakorik ezagutzen. Edonor ezta gai, bertsolari izanik be, jentearen aurrean jarduteko, ezta esateko be. Bai batzuk bai bestetzuk lan ederra egin leikee bertsoak paperetan jarriz edo iñorenak esanez. Jartzailleak izan doguz, eta ez gitxi be, len naiz orain. Garai batean bereziki, alako edo olako istilluren bat sortu ala, bertsolari batēgana jo oi eben bertsoak jarteko eskatuaz; orrela jarri ta paperetan argitara emondako neurtitz asko da Euskalerrian.

Euskalki guztietan ziran, nik uste, bertso-jartzailleak. Gorago aitaturiko Gabon-kanta, marijesa, olentzero, Agate ibesti ta abar olakoxeak dira aurki. Bizkaia'n J. P. Ulibarri'k, Bizenta Mogel'ek, Aita Uriarte'k eta izena estali eben beste askok kanta-paperak biribildu euskuezan. Olakoxeak dira, 1857'an, MuniketaTco idi-proba baten gaiñean jarriak, Markiña'ko iturrian dagozanak, gerrate ta olakoak gai dabezanak, Markiña'n Konstituziñoa erre ebenean egiñak. Orrelaxe dagiez gaur be, bertso eskatuak alegia, Enbeita'tarrak eta onein inguruak.

Gipuzkoa eztabil atzerago. Bilintx eta Xenpelar'ek ugari jarri ebezan; oso bLUatuak ziran otañotarrak, eta Txirrita'ri «bertso kantatzera ez-ezik, alako edo olako ixillu edo kontu zala-ta, maiz etortzen zitzaizkan bertsoak jartzeko eskean», diño Aita Zabala'k; paper bakotxeko amar ogerleko eskatzen zituan Txirrita'k, Asteasu'ko Aumerri'k ostera ogei. Etzan, ba, lan ordaindu bagea, Ezkontza galdutako bertsorik geienak be era orretan egiñak dira, ta Txirrita'k ba-dau onelangorik. Fermin Imaz Etxeberría'k, Donostia'n 1879'an jaio ta Donostia'n bertan 1929*30 il zanak be makiña bat bertso-paper atara ta saldu eban erriz-erri. Azpeiti'ko sariaren bertsoak be jarriak dira danak.

Egiturari begiratu ezkeru, ez mamiñaz ez neurriz, eztabe bear bada jagitasun andirik, poesi larregirik. Baiña gure literaturan ez datoz txarto; ba-dabe euren alderdi ederra, aintzatzat artzekoa. Guzziok gara geure aldiko seme: aldiak erantsi oi dau guregan zerbait, baita guk aldiarengan be. Bertso geienok garai atako kondaira dira, bizi-bizia izan be, orduan jazotakoen eritxi beroa. Oraingo aldiak be bikain letorkez onako bertso-jartzailleak, poesi zoziala dagienak, gaurko jazokunik umotuenak, gaurko eztabaida ta auziak, egiñak eta eritxiak bertso-miesetan baru ta edesti-berotasunez iraunazoten dabezanak.

Gaur, be, egia esan, olako zarbait ba-dagigu. EuskaltzaindiaTc, adibidez, urtero saritzen ditu bertso-paperak. 1962'an, Txirrita'ri Ernani'n egiñiko omenaldia zala-ta, Iau sari banandu zituen irabazleen artean; lenengo saria Isasondo'ko Jesus Lete «Ibai-ertz»-ek jaso eban amabi bertso gaz osoturiko paperaz, bigarren Sebastian Salaberria'k ama euskerari jarritako amabi bertso gaz, irugarrena Manuel UrangaTc ama alargunari jarritakoak, eta laugarrena Basilio Pujana'k amabost bertso paper bategaz. Basarri'k au dirautso Manuel Matxain'i, ArantzazuTco Ama gai arturik jarri ebazan bertso batzuegaitik: «Eztaitut aurrez aurre kantatzen iñoiz somatu. Eztaukazu egin bearrik ere. Jarrai zazu artutako bidetik; segi zaiozu bertsoak paperean jartzeari. Lan bat beziñ txalogarria da bestea. Gaur ba-dira aurre aurre esandakoak zintzo ta zuzenik artzen dituzten txesnak. Alare, zenbat bertso bein da betiko aizeak eramaten ditunak!

Jarritakoak or gelditzen dira. Norbera ezkutatuagatik, iraun egiten du egindako lanak. Zuk balio dezu. On aundia egin deza-kezu bide orri eutsiz» (*Zeruko Argia*, 1964, Garagarriak 14, 6 orr.)

Oraingoak ala lengoak obeak? Agure zartxo askoren ustez, garai batekoak ei ziran bertsoak, susterrezkoak, funtsezkoak, benetakoak. Ez gara guztiok ao sabai bardindunak: ari atsegin yakona, oni ez yako kutun. Dana dala, entzun barriro be auzi ontan kiderik ez dauan Basarri'ri: «Garai batean bertso asko jartzen zala egia da. Asko jartzea ta onak jartzea ez tira gau2 berdiñak. Millaka bertso zar azterkatua naiz nere denboran. Txiki-txikitandik senti nun zaletasun au nere baitan. Lasto asko ta gari gutxitxo arkitu izan dedala aitortu bear. Sarritan aitatu det Aita Zabala'ren lan txalogarria. Betiko illunpeak artuak zeuzkan amaika bertso ari zaigu argitara ematen. Oietan ere, ordea, lastoa ondotoxo ugariago ale garbia baño. Ezta gañera arritzeko. Geiegi da egin zutena, motibo geiago gabe egiteko. Bilintx, Otaño, Xenpelar'en zenbait bertso, ta Zapiraiñenak kendu ezkerro, bestetara beerako aunditxoa arkitzen degu. Erabat jota, gaur bertso-jartzalle osoagoak dauzkagu. Mujika, Albizu, Lete, Salaberria, Matxain eta abar, bertsoaren teknika obeto betetzen dutenak dira. Neurritz, mamiz eta esanaiz, guzira jota, alegia». (*Zeruko Argia*, 1964, Garagarriak 14, 6 orr.)

Ezta arritzeko, esan bear emen be. Mundua aurrera doa edozein egiturari buruz; gu ez gara gibel geratzekoak. Or le-
kukotasuna industri-garazetan. Euskal arimeari zutik eusten
dautson adierazpenik beiñena dogun bertsolaritasunak —naiz
esatean naiz jartzean— ez ete dausku aurrerarik egingo? Jato-
rrak bertso oneik:

«Arnasa galtzen duen gizonak
galdurik **dauka bizia.**
Euskal anima iltzen bazaigu,
bukatu zaigu guziahia

7. Gaiak zelart?

Erri kaskar ta azi, gitxi ditugu gaur euren jaietan bertsola-
riren batzuk esku artzen ez dabenak. Goralgarri ez ete? Ber-

tsoaren sastak ígartzeke kilimatzen dauz gure biotz-izpi ezku-
tuak, eta bertsolariak nun araxe jentea parrastaka. Bizkaia'n,
Gipuzkoa'n, Napparroa'n naiz mugaz andikalidetik, jai edo txap-
elketa bat atxaki arturik zenbait oste pillotzen dan! Geia-
goturik ikusi nai geunkez, alan be, euskal oitura jatorra zain-
tzen daben plazagizon errime onein sailla. «Bertsolariak ditu-
gun arte, ezta ilgo gure euskera», maiz entzuna da. Orrela izat-
tekotan, gizon garaiok indartu bearra daukagu, onei laguntza
emotean euskerari berari laguntzen dautsogu-ta.

Koplariak geienik taberna-zuloak dabez kutunen, antxe diar-
due iñundikorik girotsuen. Andik kanpora? Batzuk bai, andik
landa be errez asko zailatu oi dira, beste batzuk ez ainbestean.
Erri-jai, antzoki, agiriko nor-geiagoka ta olakoetan, barriz, ar-
dangela keetsuetako bertsoak baiño pizkat goienagoak eskatzen
dira. Ortarako gai eztana, ortarako ikasia eztana txepetx geraz-
ten da sarri.

Erri-jai ta batzaldietan, gaiñera, bertsolariari laguntzea on
eta bidezkoa da. Zelan, baiña? Gaiak jarriaz eta. Bertsolaria
sarri nundik asi ez dakiala aurkitzen da. Itz egiteko naiz ber-
tsotan jarduteko agintzen dauskuenean, gaia billatzea izan oi da
nekezena. Bultz-burdia bein burdin-ari gaiñean jarri ezkeru,
txairo ta errez dabilkigu. Beste orrenbeste jazoten yako ber-
tsolariari be, gaia emondakoan eroso dabil. Beraz, errietako jai-
anfolatzaillen egikizuna da bertsolariari, bide artezez joan dai-
tezan, gai egoki batzuk aukeratzea. Ez diñot au neure kasa;
ona oraintsu Dorronsoro jaunak idatzia: «Gaur egunean, ber-
tsolarien arazorik gogorrenetako bat auxen dala derizkiot, (gai
egoki bat jartea noski); bañan konponketa erreza duen arazoa
benetan, ez bai da asko kostatzen gai jartzea. Eta mesede aun-
diak ekarriko lituzken konponketa izango litzake benetan, naiz
bertsolariantzat, eta naiz entzule guztientzat. Gai jartze onek bert-
solaria osatu egingo du, bai gizon bezela eta berdin bertsolaria
bezela; oldozten edo pentsatzen erakusten bai dio» (*Zeruko
Argia*, 1963, urrñlak 13).

Igaz (1963) Berriz'ko jai San Pedruetan jentez borbor egoan
erria. Jaiak dotoretu nairik, an ziran bertsolariak be bertako
Udalak deituta. Norgeiagoka bat eratu eban biñaka, iñoiz gitxi
egñña dan rnoduan nunbait. Ara jo eben Bizkai'korik onenak

eta jardunerako bikote oneik osotu genduzan zotzean: 1) Lopa-tegi-Sardui; 2) Enbeita-Ireneo; 3) Mugartegi-Arregi, ta 4) Ibar-zabal-Azpillaga. Kopa ta diru, sari galantak barru-kilikagarri. Maikoak: Abeletxe idazlea, Basili Pujana bertsolaria ta ni. Pedro M. Aldana, Muxika'ko gazte argia, bertsolarien zuzendari. Entzule ta ikuslez bete-beterik inguruko plaza ta e!eiz-bira guztia; altabotsak eta magnetofoiak alboetan.

Dana orrela gertu, bertsolarien saioa. Gaiak irutan banandu zixan: 1) *sarirako*, bakotxak iru ekiñaldi; 2) *saritik kanpora*, bertso biña bakotxak; 3) *azken-agurra*, bakotxak bana. Gaiok, ain zuzen, Berriz'ko erriari ta bertokoai dagokiezanak izan ziran. Berriz'ko erreka (Lariz ta Sarri), Berriz'ko auzo (Andikona ta Murgoitio), Berriz'ko so!o, baserri ta lantolak; Berriz'ko gizon jakitun, gotzain ta santuak; Berriz,ko ezpata-dantzari, probazale, txirringulari, erregatera, gazte ta zar t>sbrit-otsean erabilili ebezan. Jardun ederra! Antzeko batzaldi ta erri-jaietan onangoxeak dira, nik uste, gairik aukerakoenak, erriak bizi-bizi txalotzen dabezanak. Jaf-aldia egiten dan Iekuko kondaira azaldu, bertako gizaki ta gauza ospetsuenak aldaxrikatu: geure gogozax dira oneik eta beti yakuz atsegin, biotz-barrenean olako gili-gili gozoa daragiskuenak.

Gaia emote onek, esan dogunez, errezru egin daroa bertsolarieren lana. Ezagun eztan errian edozelan jardutea, motz baita, aurretiaz nundik nora ígitu jakin, askotaz obe. Orretarako, norbaitzuk batekoz bestera usteta be, gaiak nok emona edo epaimaikoak alboan eukitea egoki asko. Jokabide au gora andikoa dala diñosku Basarri'k, eta jatorrizko bertsolariak beti begi onez ikusi daroana; kezka andi bat uxatzen yako orrela, arlosa astun bat gaiñetik baztertu. Maikoak auzo izan ezketiño, gaia oneik dautsoe-ta, bertsolariak ez dauko zetan arduratu; areik esana egiñik, biribildu dau bere egin-Igea. Garrantzi pizkateko jaialdi guztietan era orretan egokitu bear litzakez gauzak. Onela BasarriT<: «Erritako pesta guzitan, erri bakoitzean norbaitek bear hike bertsolarieri gaia jartzeko kaxgua. Axtaka jakingo genduke erri bakoitzean zer komeni dan ixiltzea ta zer komeni dan kantatzea. Baita jendeari gogozkoen zer zaion ere». (*Zeruko Argia*, 1963, uztaillak 14.)

Tsnkera askotan dabe bertsolariak euren jarduna: puntua jarrita, gai azkean alkarregaz leian, ogibide bat emonda, lau puntu emonik (nai, zai, alai, zelai) bertsoa osotu, bederatziz puntukoak eta abar. Gaiak maizenik aurkakoak izan oi dira: Itxasoa ta Lurra, Eguna ta Gaba, Ura ta Ardoa, Erria ta Uria, Gizona ta Emakumea, Zarra ta Gaztea, Ezkondua ta Ezkongea, Burdia ta Bultzia, Soloa ta Mendia, Ona ta Txarra, Txikia ta Andia... Ogibideak, barriz, artzaiña ta nekazaria, okiña ta jostuna, joko-etsaia ta jokazalea, osagillea ta bertsolaria, langillea ta alperra, gizon bena ta barregarria, pelotaria ta txirringularia, apaiza ta bizargiilea, ta olakoak. Azken urten oneitan, baiña, «iñoiz baño indartsuago, iñoiz baño xaloago, iñoiz baño itxaronkorrago agertzen» yaku bertsolaritza, goi-bideetan zear dabil, eta geure oitura zar oni bear lez eusteko, beronen atzeurreak zaindurik beti goi-erraiñu ortan ibilli daiten leiatu bearraen gagoz.

Gai barriak autu ta eskuar jartzen leiatu bear, batez be. Zelako gai barriak? Meatz-zulo barriren bat ete da? Entzun unetxo baten bertso-saillean maixu dogun Bordari erneari. «Ez nijoa —diño—• bertsolariak alkarren artean nola ta zer gai erabilli bear dituzten esatera. Dabiltzate!a kanpo-libreko txoriak beze-la askatsun osoan. Bertsolariak nortasuna galtzea gauz izugarria izango litzake. Ez, ez. Berezkoa du bertsolariak etorria, ta asmatzaille ezik, umore onaren seme izan bear du. Bost ajola zaio bertsolariari, alakoa bada beintzat, zer esango edo bai esango arazoari. Zerbait esateko alkarri bide ematen diote, eta goiak eta beak naasz ordutan jardungo dira bertsotan. Txapelketarako, ordea, besterik da. Gaiak aitu egin zaizkigu. Agortu egin zaigu ixtiUa! Ixtilla esan dut, ez itxasoa. Itxasoa agortzerik ez baft dago. Ba, berebiziko altxorra, izugarritzko arrobia, amesru ezin alako itxasoa aukeran daukagu, gaiak aukeratzeko. Nun? Gjre Esaera zarretan. Gure atsotitzetan. Gure Errefrauetan, Gure Itz zuurretan».

Eta eredutzat esaera zar bat dakar lau puntuko bertsotan esana. Adibidez, gai au, aspaldiko esakun au jarten dautso bertsolariari:

«ГитиНфо *intxaurrek amalau,*
bertora fuan da lau.n

pelketa zala-ta. Oiakoak baztertzefco, maikoak gogoan euki bear dabezan gauza batzuk emon ebazan Goitarki'k *Jesus'en Biotzaren Deyc'rn* (1963, otsaila, 20 orr.) Oso mamintsuak dira-ta, beioa emen arek idatzia.

«Aurten Donosti'ko txapelketa onetan —diño— istilluak eta alderdikeriak izan dira ugari. Nik auzi orretan ez daukat eretxirik, baña gauza bat esan guxa neunke. Maikoak erabagia emoteko gai oneik gogoan euki bear leukiez:

- 1) *Euskera* zelakoa erabilli dauan bertsolariak. Itz garbienekin ta joskera jatorrenekin nok esan dauan garbiago ta errezago. Euskera garbiena eta biguñena.
- 2) *Imdimena* nok argiago eta apaiñagoa. Nire ustez oso motel dabiz gure bertsolariak gai onetan. Orretarako, benetakako «olerkariak» askotxo irakurri bear dira: Lizardi, Lauaxeta, ta batez be Orixe. Olerkariak irakurtea kalte egfтен dautsola bertsolariari esatea, astokeri aundia da. Ofiez dabilienari trenean ibHteak kalte egiten ete dautso?
- 3) *Adimena* edo *zorroztasuna*, erantzun egokiak eta bizkorrak emoteko. Gai onetan Uztapide da nagusi, nire ustez. Erriak azkar eta zorrozki erantzutea gauza aundientzat dauka, buru-zoliaren erakuspidea dalako.
- 4) *Biotza* edo *sentimentua*: Bertsolariak erriaren biotz zakoneraño sartu bear dau. Euskaldunak kanpotik legorrak izan arren, barrutik umeak bezain negartiak gara. Bert8o biozkor edo erromantikoak atsegiñez abesten doguz.
- 5) *Bertsoen azal* edo jantziari be begiratu bear yako. Ondo neurtu ta puntua bardiña, ta abar...

Oneixek bost gauzok gogoan eukirik maikoak erabagi artu bear dabe. Esate baterako : Uzfapide: Euskera, ainbeste mailla; Irudimenez ainbeste, Zorroztasunez ainbeste... Gero mailla guztiak batu, sumau, ta azkenean guztiz ainbeste mailla. Onela bertsolari guztiakin egiñaz, maillarik gorenera igoten dana, axe TXAPELDUN. Maikoen txartelak onelangoa izan bear leuke:

| BASARRI | | VZTAPIDE | |
|-------------------------|----------|-------------------------|-----------|
| <i>Buskera</i> | 2 | <i>Euskera</i> | 1 |
| <i>Irudimena</i> | 2 | <i>Irudimena</i> | 1 |
| <i>Zorroztasuna</i> | 1 | <i>Zorrozt. asuna</i> | 5 |
| <i>Biotza</i> | 3 | <i>Bk>iza</i> | 3 |
| <i>Bertsoa</i> | 3 | <i>Bertsoa</i> | 3 |
| <i>Guztiz</i> | 10 maiUa | <i>Guztiz</i> | 11 mailla |

Gero maiko guztien txartelak alkartu, mailla guztiak sumau ta azkenengo erabagia onela emon :

| BASARRI | | VZTAPIDE | |
|-------------------------|-----------|-------------------------|-----------|
| <i>Buskera</i> | 9 | <i>Euskera</i> | ! |
| <i>Irudimena</i> | 20 | <i>Irudimena</i> | H |
| <i>Zorroztasuna</i> | 15 | <i>Zorroztasuna</i> | 24 |
| <i>Biotza</i> | 24 | <i>Biotza</i> | 24 |
| <i>Bertsoa</i> | 18 | <i>Bertsoa</i> | 18 |
| <i>Guztiz</i> | 88 mailla | <i>Guztiz</i> | 88 mailla |

Era au, zetan esanik bere ez, zuzenagoa izango litzake, bai ta bakotxaren balioa aztatzeko aukerakoagoa be. 1935'an, jasa ta ganora andiz jaitu eben bertsolari-eguna, eta orduan be onako zerbait egin zan. Epaikari bakotxari saiorako beren-beregi irarritako orriak emon eutsoezan. Orri areik, alderdi batetik bertsolarién izen eta erriak eukezan, eta bestetik bertso bakotxari emon legikeon ainbestekoa agertzeko, bertsoai puntuak ipinteko era. Onela:

| | |
|---------------------------------|----|
| <i>Oso irorrari</i> | 0 |
| <i>Txar-xamarrari</i> | 5 |
| <i>On-xamarrari</i> | 10 |
| <i>Onari</i> | 15 |
| <i>Oso onari</i> | 20 |

Edu onetan epaikari bakotxak errez erakutsi legikean bere eritxia, eta danenak lerroz-lerro baturik, guztizko erabagi zuzena be bai. Puntuak jarteko, barriz, Goitarki'k diñoan antzera jokatu zan: bakotxaren balloa gogoan euki. Jai aren barri damoskun Zubimendi'tar Joseba*k, Epai-maiaren iritzia deritxon lerroetan au dakar: «Epai-maikoak beren iritzia agertzeko, kontuan eduki bear izan dituzte bertsolarién sorpena, irudipena, bertsoarako erreztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oiñen

berdintasuna. Baita ere emandako gaiak erabili zituzten edo ez; eta bakoitziari emandako ogibidearen jabe egin zan edo ez». (*Yakintza*, 1935, Epaíl-jorrailla, 153 orr.)

Besteak beste, auxe dala deritxat biderik artez ta zintzoena bertsoen azta ta duintasuna ebaztean. Asmatu leikez beste modu batzuk be, baiña au oso bidezkoa ta bertsolari bakotxaren jardunari, azal ta mamin, egoki-egoki ikutzen dautsona danik ezin iñola be ukatu. Onela egin ezkeru, erriari be erakutsi leikeoz bakotxak izan dituan azken-puntuak, eta asarre, eztabaida ta alperriko zarata asko itzuri ta zokoratuko gendukez.

Alderdikeri-alorra dogu baita maikoen zenbakia be. Errietako jai ta olango batzaldi gora gitxikoetan ez dautson arren, Euskalerrri osoko txapelketak diranean, esaterako, komeni litzake maikoak erki bakotxetik bardin samar izatea. Onela edo: Bizkaikoak 2, Gipuzkoa'tik 2, Napartarrak 2, mugaz gorakoak 2; eta lendakari bat. Bederatzi guztiz. Osoagoak izango litzakez maikoak euren eritxiak emoterakoan, eta erriak ez leuke ikusiko ezetariko azpi-jokorik. Zurra da erria, ta naitaez garbi jokatu bear onako gauzetan. Gaur kirol-griña lez edatu da gurean bertsolari-zaletasuna, eta gari garbiz jokatzen ikusi ezik, errez moteldu oi da leia ori. Bertsolaríak eurak, gaiñera, sentikorrak ditugu edozeiñen antzera, eta ba-dakie, naikoa ondo jakin be, euren artean nor nor dan.

Erria aitatu dogun ezkeru, ona beste tankera berezi bat bertsolarien jarduna epaitzeko: erri osoa epaille jarri. Onek» alde onak eta txarrak dabezala be, iñoiz gora andia izan dau. aurtengo udabarri aurretxoan Bilbao'n ospatu zan abeslari ta? abesti-txapelketan adibidez; baiña, ontaraku, erriak be ikasí bearra dauko: entzule asko ez dira konturatzen gaur be, Basarri'k diñoanez, bertsoaren aria nok daroan zuzen eta nor dabilen bidetik urrinduta, zabalduta. Naiz-ta betelanez ta akatsez beteak izan urreko puntu guztiak, azkenengoa gatz eta ganoratsu amaitzen ba'dau, esku-zarta beroak artu daroaz. Erria, beraz,, ikasiago ta epaille zorrotzago egin daikegu.

9. *Bertsolarien Zaindaria*

Gaur modan daukagu bazkun, alkarte ta onakoak goi-zain—

dari bat izatea. Egazlariak or dabe Karmel mendiko padar nausia, Eiias deuna, Jaínkoak orrela nai izanik, suzko gurpildun burdi azkarrean zerura aldatua. Olerkariak, Espaiña'n beintzat, Donibane Gurutzeko dabe zaindari. Gure bertsolariak? Ez al dabe olakorik bear? Baietz deritxat. Asmakizunetan batez be goi-argia naitaezkoa da, pitiña izan oi dalako gizakiaren egatzada goitiko laguntza barik.

1962'garren urteko bertsolari-txapelketak ots andia iñarrosi eban Donostia'n, Basarri ta Uztapide'ren inguruan atan be. Batzuen eritxiz etzan zuzena Epailarien erabagia, beste batzuentzat bidezkoa zan. Auzi orretan aiko-maikoka sartu barik, saio aretan epai-maikoak aitaturiko bertsolari gorengo bieri itauna da guretzat garrantzitsu: ea nor litzaken gure bertsoárien zaindaririk egokiena. Bien erantzunak oso gogoangarri. Basarri'k uste ebanez, Asis'ko Prantzisko deuna litzake bertsolarien zaindari aukerakoa.

*«Ura betl ibutzen zan desgrazian alal,
Troriarí kantatuz, arraiari're bai;
Frantzisko'ren faw.a gaur zabaldua, da nunal,
Otso zakarra ere artzen zuen anái:
Nik bente zaindaririk beintzat ez nuke noi.»*

Ezta errazoi aula. Baiña bada oindiño geiagorik. Menéndez Pidal'en gardiz, bertsolariantzat zaindari ederra litzake Asis'ko santua, bera ta bere anaiak Jainkoaren bertso-kantariak —iocularos Domini— ziralako. Millagarren urte alderuntz, alan be, o'ako asko ziran; geure lurrean be bai, Gontzalo Bertzeo, Andra Maria'ren bertso-kantatzaillea. Guk ez dautsagu, egia esan, ezer kendu nai Jesukristoren irakatsiak itzez-itzez beterik zerubidean zear gogotsu ekiñaz deuntasma-mailla gueneraiño gonik, 1226'garrenean il zan santu andiari. Baiña eztozu uste ain asao joan bearra daukagunik euskal bertsolariantzat zaindari bíila. Gurean doguz, eguzki antzo, mundu guztían ospetsu diran santuak: Napparroa'n Prantzisko Xabier (1506-1552), India ta Japon zear biotza sutan, Kristo'ren fede-azia siñisbakoeren artean ereiten lor eta lerrak egiñik, Txina'runtz joiála Sanzión ugartean, euskera2ko otoitzak ezpan gain, il zana; Gipuzkoa'n, Loiola'tar Iñaki deuna (1491-1556), Jesu-Lagundía sorturik, ainbat mesede Eleizeari ekarri eutsone; Benapparroa'n,

Garikoits'tar Mikel (1797-1863), Betarrandarren Lagundia sortu ebana; eta, Bizkaia'n, Berrioxoa'tar Balentin Doatsua (1827-1861), Elorrio'ko seme argia, Manila'n eta Tonkin'en arimabilla martiri gertatua.

Xabier'ek, Loiola'k eta Garikoits'ek ba-ekien euskeraz mintzaten eta idazten. Eta bertsoan? Ez dakigu. Laugarrenak, bai, Berrioxoa'k bertsolari izena merezi dau. Ona: Logroño'ko apaiz-ikastetxera joan zanetik, ots, 1845'tik Tonkin'en burua moztu eutsoen arte guztian, idazki asko egin eutsiezan bere gurasoai: aitari itzal andiz erderaz idatzi arren, amari euskeraz egin oi eutson beti, eskertsu ta gozotasunez blei-blei egin be. Ogetabost bat idazki ditu orrelaxe egiñak. Eta, arritzeko, idazki geienotan, bertsoz dagiz lerrorik nsko, piperminsu ta sermoe antzera diarduanean batez be. Azter daiguzan batzuk.

1847'runtz, Balentin ikasten ari zala, ama makalik ebillela iragarri eutson aitak. Denda txiki bat eukon amak etxean, eía semeak uste eban goizegi jagi ta arazo orretan jardunak kalte egin eutsola. «Ai, amatxo! —diño— amaika bider errukitu naiz berorregaz konsideratzen izan duanian zer otzak pasatu biarko zituzan goizetan aguardiente tratuan». Amairu edo amalau urteko zan bere arreatxo Elbira, Balentin'ek au idazterakoan; oni egozten dautso amaren gaixoaren errua.

*«Berori otzak arizen zeguan artian,
alabia egongo zan oge epelian.
Ama kriada, ta etxeko andra alabia,
ostera bere izango dau etxiak abia;
eçurrak, egurrak
p.gin blar gaitu ziurrak;
larregi errukiorrak izatiak
ekarri oi ditu buru-austiak.»*

Beste bein, 1851'an, mezako zaia, etxean izanda Logroño'ra biurtzean amak emoniko bizkotxo batzuk galdu egin yakozen bidean. Amak au jakiñik naigabe andia artuko ebala uste eban semeak, eta diño:

*«Zeì! negar egin,
zein negar egin,
bizkotxo barik dago
dago Balentin.n*

Eta beingoan amari onuak, miñik biziena emon bear dauskuna Jainkc-maitasum galtzea dala adierazorik:

aO graziya, graziya,
zurc preziyua
guztiz fla andiya!
Jaungoikuaren Semiak
guretzat irabaziya,
gure amorez igaruaz
eriotzako larriya;
zugaa munáullk doianentzat
úa zeruko gloriya:
aintxe ikusi nai nuke nik
nerç ama Mariya.»

Ikasketak amaitu ta Dorningotsr egin ondoren, 1857'garrean, Kadiz'tik mixiolari joian Manila'ra. Ara eltzean amari idazten dautso: «Lau euskaldun bere etorri gera, noizian bein itz egin dogu euskeraz. Bat zan San Franzisko fraillia eta bera Otxandioko semia. Andrakumia beste bat, Irun'en zituan bere asabak. Beste batek eukan barkuaren agindua, eta au zan Bermion jayua. Fraile dominikua laugarrena, seraia da Mari Elizalde'na». Amaren abizena Arizti izanagaitik, izengoiti orregaz ezagutzen eben. Bertsoz amaitzen dau bost illabete itxasoz egiri ostean idatziriko eskutitz au be.

uATnatxo, bete dot ia papela,
usie dot gaurko osko dabela.»

Laster askoan, 1857'ko azillaren 30'an, barriro idatzi eutsen gurasoai, aitari erderez ta amari euskeraz. Beretarren artetik urriffiago ta aren biotza samurrago. Eta oraingoa dana bortso-tan. Irakur osorik.

«Nere. amatxo mait.la:
zelan dago gure gentia?
Ixilik dago kartia,
akaeo erratu egin eban bidia;
Izanik ain luzia,
ezta mllagro andia.
Oindiño badatikat esperantzia,
leiruteko amaren letrUi;
alperrik ikarai egon plumla,
amoriyuak brntxitzen dau guzia.

*Ze genfe áira eskon-barriyak?
Gente honratua emon oí dau Urrutiya'k.
Pruebak emongo ditu lengusiña Mariyak.*

*Amatxo, bada berori bapere makurtu?
Aí, urtiak iñori ezteuise barkatu;
oindiño ezta ainbeste atsotu,
ardatzian nork berori bentzitu?
Baña urtiak gaitik ez ikaratu;
Jaunaren bilditrrian bizitza bada pas&tu,
il barik ezta iñor zeruan sartu.*

*Txoruentzal utzi deigun mundua;
Jauna maltatzen badaukagu biotza berua
ezta faitako zeruan osiatua,
Alpe.rrik lurrian nekez jan artua,
bizitza pobria zerurako da atajua,
ez larregi desiatu dtrua.
Alperrik izan urria ederra,
galtzen bada gure anima bakarra,
ezta faltako begiyan negarra,
ez lepuan xua eta garra.*

*Errosariyo sendua eskuan,
Aita guria eta Ave Mariak aguan,
pensamentu santuak buruan,
ze gauza ederragorik munduan?*

*Ea bada, ama guria,
deyez daoo berorren semia;
euki daigun biotza garbia,
zergaitik dan Yaunaren legia.
Iñoz badau pekatuak loitzen,
zergaitik ez gera Eleizan sartzen?
Aingeruak zer.uan asko d'ra pozten,
pekatariyak pekatua dabenian konfesatzen.*

*Laster utziko dot Manila,
bisitatzen noya gentlla;
izanagaitik gizon txkiya,
asi biar dot bizar andiya;
tapatzen danlan arpegiya,
orduan bai ni ikaragarriya.*

*Agur, ama, ondo bizi,
ez larregi burua ausi.
Agur, urrcngo artian;
badao dibersiñua kartian,
biolza bada nasaitu dedilla,
ondo dago berorren mutllla.*

*Leituko ditu letra onefc?
Ala uste dau Balentinek.»*

Idazki au osorik bikoteetan egin eban gure Doatsu euskal-zaleak. Argi dago berton gure Martiri santuaren etorri ugari, jasa ta bizitasuna. Orrezaz gain, Tonkin'go domingotar mixiño-lurraldeko Gotzain zalarik be, ez eban galdu ez ñabarritu bere gagnetaroko alaitasun nasi-eziña.

Ona beste eskutitz bat garrantzitsua, erdizka beintzat bertotan egiña. Karta bi dira izan, bata erderaz ta bestea euskeraz, Okaña'ko karmeldar lekaime biri, lenago berak moja-bizitzan zuzendutakoai egiñak. Bata Maria Luisa da ta bestea Maria Antonia, bigarren au euskalduna ta euskeraz idazten deutso. Lau onu damotsaz. Begira, laugarrena ta azkena

*aOrazifuari euki egiozu aftzifio andlya,
Oraziño barik ez zera izango egiazko mcmjla.
Zeure lanen erdietan jaso biotza zerura;
Antxe daukagu geure ondasun guztia.*

*O nere Motzeko Jesus maitia!
Larri dabil emen gentia.
Noiz libratuko da gorputzeka sokia?
Noiz izango naiz guztia zuria?
O zelan luzetzen dan neure bizitzal
Bgin bedi gauza guztietan zeure borondatia.n*

Atzanean, zeruragiñoko agurra dagitso, idazki au erfe ta kiskeltzeko aginduaz. Baiña areik ez eben erre, ezta apurtu be, Makao'tik 1858'ko zezeillaren 18'an egiñiko kartatxo au zer donetzat arreta andiaz gorde baiño. Andik laster, 1861'an, 34 urte ebazala, samea ebagi eutsoen. Mixiñoetara Elorrio'tik urtekeran onela mintzatu ei zan: «Santu egitera noa, Bizkaia'k bat izan dagian». Izan be, 1906'ko orrillaren 24'an, Eleizako Doatsuen lerroan ipiñi eban Pio X'garrenak.

Ez al dau merezi gure bertsolarien zaindaritza?

10. *Bertso-batzaldiak*

Batzaldi, norgeiago ta guduak, edozein gauzetan, egoki ta egundokoak izan oi dira zaletasuna sortu ta erako burpilla gaiari emoteko. Orrcgaitek, barrutiko lera bati erantzunaz, bertso-batzaldiak eratu izan dira an-emen, eta antxiñatxutik atan hie. Iruña'ko gotzain zan Antonio Venegas de Figueroa'k, lóOÇ'garren urtean, onako bertsogudu bat antolatu eban Eukaristia'ren omenez; Pedro Ezkurra, Mil<el Aldatz, Toan Elizalde ta Martin Portal aurkeztu ziran batzaldi aretara: M'IIa *Olerki eder* Kburuan datoz iru lenengoen lanak.

Gerora, emeretzigarren gizaldiaren asierara arte, utsune andia nabaitzen dogu alor onetan. Amazortzigarren gizaldia, izan be, ez genduan bertsorako joria izan; Etxepare'k, Oihenart'ek, Gazteluzar'ek eta gaiñerakoak aurreko mendeetan emoniko adore ta kemena meko egin zan urrean; Kardabertz'ek eta Mendiburu'k, eurenaz, bota ebezan olako arnas-ufa batzuk, baiña ezer gitxi. Geroago be, 1813'tik 1853'raiño, ainbat eguberri-kanta, iñauteri-abesti, erregeen gurte, langille maisuen festa, artzai-goki, baratz-zai kopla,erregiña-erregeen omenezko zortziko ta zezen-zalaparta egin ebazan Jose Bixente Etxagarai orduko bertsolari ospetsuenak, erri-jaiak bertso ariñez goratzea eder yakonak; baiña jai areitan etzan nunbait bertsolari-saiorik antolatzeten. Paper zarretatik ezta beintzat agiri.

Gero, bai, lapurditar Abbadie jaun jakintsuak ainbat euskal jai, sariteka ta batzaldi —ontzurrez ta makillaz orniduak— eratzeten asi zanean, mordoka ugaldu ziran bertso-zaleak be. Batzaldiok onela egin ziran: Urruña'n (1860-62-63-64-65), Sara'n (1866-67-68), Donapaleu'n (1877), Elizondo'n (1879), Maule'a (1880), Markiña'n (1883), Durango'n (1886), Gernika'n (1888), Uztaritz'en (1892), Azpeiti'n (1893), Donibane Loitzun'en (1894), Hazparne'n (1895), Maule'n (1896), Kanbo'n (1896), Sara'n (1-897), Oiartzun'en (1897), Zestua'n (1898), Aramaio'n (1899), ta abar. Aramaio'ko au, ogetaz urteetan onako jaialdiak exatu zituan Abbadie euskaltzale jakitun aberatsa il ta gero, egin zan. Euskalerriko zazpi aldeetan jaialdi galantak jarri ta egin ebazan jaun arek, Araba'ko lurrean be egin nai izan eban; gogo au bete aurretik il zan arren, bere alargunak, Azkue jaunak la-

gunduta, burutu eban gurari ori. Iraillaren 9 ta 10'garren egunean ospatu zan; lenengo egunean batzaldi oneikaz: 1) Abegorri ta zurdabereen erakusketa; 2) lasterkarien ariñeketa; 3) tanzo edo lekaio-batzaldia; 4) albokariena; 5) bertsolariena; 6) txistulariena; 7) gorulariena; 8) pedardunena, edo eskuak gexritik kendu barik, pedarkada ura buruan dala atzera-aurrera nok lenago egin; 9) aureskuariena. Bigarren egunean meza nagusia, aureskuia, ezpata-dantzariak, eta «azkenez Batzaldi onetan urrezko makilla bat eta ontzurre bateko saria izan dabeasan bertso-lana ta beste neurtitz zaar batzuk» irakurtea.

Batzaldi oneitatik batzuk oso entzute andikoak izan ziran, Elizondo'koa, esatera: 1879'an, an agertu zan euskaltzale kemen-tsu —bigarren karlatar gudua aurreratxoago amaitua zan—, Otxandio'ko seme azkar Arrese-Beitia, bere *Euskera lorazko sortatxuaz* lenengo saria eskuraturik; orduan ezagutu eban lenengoz gerora ainbat idazki beraz adoretu eban Duvoisin kapitaina. Napparroa'ko Euskal Bazkunak, urteetan euskeraren alde lan bikaiña egin ebanak, orduntxe asi zan olerki-guduak ugaritu ta oiñean jarten. Jose Manterola euskaltzale jatorrak be orduantxe sortu ebazan, mugaz andikoen oitura beregandurik, Euskal Jokuak Donostia'n; jai oneitan bertso-sariketak egin oi ziran, eta alderbi bietako olerkariak, Bordele'k, Larralde medikuak, Bidarra'ko Otxalde'k, Dfarrart zapatariak eta gaiñerakoak bialtzen ebezan euren lanak. Elizanburu'k berak be, naiz-ta mailla batztik gorago ibilli, irabazi ebazan bere sariak onango bertso-batzaldietan.

Gu bizi garean mende onetan ezgara muker jardunak euskal jai ta batzaldiak or-emen eratzen. Abbadie jakitunak asiriko bertso-r.orienka ta guduak ba-diraue oraindik, Zumaia'n (1900), Oñati'n (1902), Irun'en (1903) ta abarren. Gerotxoago, *EiAskal-Esiidea* (1908) sortu zanean, aldizkari onek artu eban bere geien bat jaiok antolatxeko ardurea, baita Zarautz'en (1912), Ondar-rabi'n (1914), Donosti'n (1920, 1922, 1925) ta abar, gitziz atse-gingarriak egin be; 1927'garren urtean berrogeta lau olerki eldu ziran sari-billa, beraz bertso-zelaia ugaritu ta biztuaz joian, bai emen bai mugaz andik: mugaz andik *Eskualduna* asterokoak eukan jaion ardurea.

Gure izkuntza ta gauzak biotzez maite ebazan euskaltzale

talde batek, 1926'garren urtean, *Euskaltzaleak* bazkuna sortu eban, eta alkargo au asi zan ia urtero olerki-egunak eratzen; lenengoa Errenderi'n (1930) ospatu eban, zidarrezko aritz abar-txoar saritzat emonaz. Orduko sariketara bialdutako lan guztiak txorta baten argitaraturik, Aitzol'ek onela iñoan: «Ez uste, iralurle, goi-goi maillako olerkiak edo argitaratzen ditugulakoan gaudela. Ain itxuak ez gera, lauso pizka bat begietan ba-daukagu ere. Baiña gauz eder, sotil eta politak aurkituko dituzulakoan gaude. Dana dala, gure elerti pizkundean aurrerapen txalogarria egin degula deritzaigu». Bazkun onen asmoa zan arren bertsolariak biztu ta goratzea, lenengo olerki-gudura bertsolarienak baiño goitxoagoko lanak aurkeztu ziran. Urte aretan, alan be, Eusko-Ikaskuntza'k Bergara'n ospaturiko V'garren Batzarreko bi azken egunak *Euskaltzaleak* eratu ebazan jaiari opatuak izan ziran, eta irailaren 7'an, zapatuan, ainbat ume-taldek eta bertsolarik eskua artu eben. Bertsolarietatik an ziran Txirrita, Iraola, Larralde, Lujanbio, Toloxa, Matxin, Bitoria ta Odriozola.

Irugarren oleriti-eguna Emani'n ospatu zan, 1932'ko dagonillaren 7'an, Iturriaga'ren omenez. Loramendi'ren «Barruntzaleioan» zidarrezko aritz abarrez saritzua; bai ta, poema-saíllean, Txomin Jakakortajarena'ren «Len-euskotarrak» be. Beste sail bat be ba-zan: erririk erri batutako bertsoena. Lau txortak jaso etzen saria: Gazteiz'ko Apaiz-ikastetxeko Kardaberatz-taldekoak, Ander Ezenarro'k, Eulojio Gorostiaga'k eta Aita Damaso Intza'k. Urrengo urtean be, txorta bardiñakaitik, sariak jaso ebezan Joakin Dorronsoro'k, Ander Ezenarro'k, Aita Bedita Larrakoetxea'k eta Eulojio Gorostiaga'k; Urretxua'n egin ziran urte onetako (1933-VII-16) oleriti-jaiak, eta azkenean erriko «Ederrena» frontoian, 500 ezpatadantzarik dantzatu ondorean, bertsolarien zirti-zarta bizia.

Erri-bertso oneik batzeak bere garrantzia eban, eta *Euskaltzaleak* bazkunak ez eban albora itxi gura. VI'garren Eusko Oleriti egunerako —1935'ko bagillaren 2'an, Bedoña'n ospatuko zan Loramendi'ren omenez—, zernai gaiezko ta ariko olerki ta edestizko naiz aiegizko poemaren ondoren, irugarren sail bat, erri-olerki sorta eskatzen zan, baldintza oneikaz: «Bearre-zeko da, olerki oiek erritar gorri izatea; beraz, orain ala Jioizpait, erriak erabilliak. Entzun bezelaxe idatzi bitez, *ivz*

bakarrik ere aldatu gabe, erderakeri zakarrena ba-litz ere. Adierazi bedi zein urtetan jaso dan, ta noren ezpañetatik. Olerki oiek gai askotarikoak ditezke. Ibiltalde-abestiak (esate baterako, Olentzaro, Urteberri, Santa Ageda, San Nikolas'etakoak..); erri-jaietakoak (naiz dantza naiz su; aizkolketa, ala sari-joko...); lanbidezkoak dala, egurketa, arilketa, artajorra, arraintza, t. a.); jainkotiak (Ama neschutzari, Deunei, erriko Zaindariari, gurutze-bidea...); irrizkoak, alegiak eta abar eta abar» (*Yakintza*, 1935, Loreil-Garagarrilla, 236 orr.) Bertso barriak be ontzat artzen ziran.

Lurra onela gertaurik, 1935'garren urteko Done Sebasten egunean Donosti'n ospatu zan, oso andikiro, lenengo *bertsolari-eguna* «Ludi onetan —diñausku Zubimendi'tar Joseba'k jai aren barri emonaz—, utskeri bitartez, garrantzi aundiko gauza asko sortu oi dira ta bertsolari egun au, ain aundiki ospatu ba'degu, utskeri oietako bati zor zaio. Lendik ba-zuan «Euskaltzaleak» bazkunak egun ori eratzeko asmoa; baiña, gaur, gertaera onek eragozten ziola; biar, beste batek garrantzi geiago zeukala; urrengoan politika gaia nagusi, eta orrela, batean ta bestean gure bertsolari eguna atzera. Baiña egun batez, Donostia'n Eusko Gaztedia'k daukan areto apañean, ustekabeko gertaera bat sortu zan. Bertsoen indarra ikasi zan une aretan eta, ordutik, bazkun onek ere bertsolari'en atde zerbait egiteko asmo sendoa anu zuan. «Euskaltzalearen» asmoa lendik jakiñik, ona nola biak batasunez eratu zuten iai-aldi au» (*Yakintza*, 1935, Epail-jorrailla, 140 orr.)

Esan dogun egun orretan, Poxpolin-antzokia jentez gaiñezka egoala, amar ta erdietan an ziran bertsolariak epaikarien aurrean. Antzez-lekua ederto apañduta; erdian, sei epaikarientzat maia; epaikariak, Ariztimuño'tar Joseba, Altzaga'tar Toribi, Olaizola'tar Joseba, Lekuona'tar Imanol, Zubimendi'tar Toseba ta Olano'tar Txomin. Mai onen albo bietan, bertsolari'entzat jarleku dotoreak egozan; ogei bertsolari oneitan jarri ziran !au erreskadatan. Ikusleen eskumatik lenengoan: Basarri (Zarautz), Zepai (Errezil), Txirrita (Altza), Txapel (Azpeiti), Lujanbio (Altza); bigarreanean: Abarrategi (Bizkaia), Tellaetxipi (Errenderi), Nekezabal (Zarautz), Sarasola (Antiguo), Mintegi (Ordizia), Erauskin (Ordizia). Entzuleen ezkerreko lenengo erreskadan: Kortatxo

(Itziar), Alkain (Urnieta), Larralde ta Matxin lapurditarrek; ezi-erreko bigarren erreskadan: Zabaleta, Kepa (Errenderi), Zabaleta, Jon (Errenderi), Sorozabal (Aiete), Etxeberria (Aiete), Uriarte (Dima). Antzezlekuko zapia jasoaz batera, mai-burukoak «itz labur mamitsueta, jai ura zer zan eta zer izatea nai zukean argi azaldu zuan».

Lau saio egin ziran bata bestearen ondoren. Eta epai-maikoak, antxiña lez, bertsotan emon eutson asiera lenengo saioari. Lenengo au doiñu ta gai azketan izan zan; bigarreneko, epai-maikoak bertso batean emon eben dolñua, Otaño'k «Limosnatxo bat» kantatzean erabilten ebana, ta gaia be epailariak esandakoa; irugarren aldirako, maikoak bertsoen asierak banan-banan emoten eutsoezan bertsolari bakoitxari, doiñu aretan eta itz-amikera bardiñean bakoitxak jarraiturik; laugarren ekiñaldian, biñaka agertu ziran, zeñi zer jarten yakon aurretik jakiteke, bakoitxak arazo edo ogibide bat txanteiean ebala. Maikoak bertso onegaz adierazo eben laugarren saioaren asiera:

*uBertsoetako saioa oraln
emendik degu berriteen,
bakoitzak lendik ezarrilako
langintzak gogoz goratsen.
Bertsolailak binaka dira
ertabaidetan azaltzen
eta asieran esan bear du
2er lav.uintzan dan mintzaieen,
gero, leiatuz, jarraituzeko
bata. bestea menpetzen.n*

«Bostna bertso —diñosku Zubimendi'k— abestu bear zftuzten bikoitz bakoitzak. Eta saio onetan bere goi-argi, trebetasun ta zirrikada zorrotzak ederki agertu zituzten... Ordubiak joak zixan azken-saio au amaitu zanerako. Iru ordu osoetan egondu ziran ainbeste ta ainbeste lagun, k-nengo bertsolari eguneko gora-bera guziak ikusirik, ango trebetasun buru-argiak in arri-tuta.» (Loc. cit.) Epai-maikoak, ondoren, euren eritxia agertu eben, «bertsolarien sorpena, irudipena, bertsotarako erreztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oiñen berdintasuna», baita ere emandako gaiak erabilli zituzten edo ez, eta bakoitzari emandako ogibidearen jabe egin zan edo ez» kontuan eukirik. Lenengo

saria (100 pezeta) Basarri'k jaso eban, bigarrena (75 pezeta) Matxin'ek, irugarrena (50) Zepai'k eta laugarrena (25 pezeta) Alkain'ek. Usurbil'go «Gabon» bazkunak bere ald«tik, ango seme jator Udarregi zanaren izenean, txapeldun geratzen zan bertsolariari sari bat eskiñi eutson; sari emote au Basarri bizi zan errian, ots, Zarautz'en egin zan urrengo igandean.

Bertsolari gudu onen otsak oraindiño ziraueía, bigarren bertso-eguna ospatzeko gextu-ianetan asi ziran Buskaltzaleak bazkunakoak, azken batzaldia Done Sebasten eurregunean, ígandez, egin zan arren. Era barri bat erantsi gura izan eutson, gaiñera, jai-aldi oneri, luzeegia gertatu etzedin eta «nolabait ere laburtu nairik, cta bide batez, bertsolari guziak neurtzeko era izan zezaten». Rai ta egin be Euskalerrian egundo lendik izan eztan alakoxea, garrantzi ta ospe andikoa. Gípuzko aldea zati bitan erdibiturik, Tolosa'n egin zan inguruko bertsolarien aukeratzea, ta Azpeiti'n gero angoen artean; Naparrak eta raugaz arutzkoak Elizondo'n eulu eben eurena: Bizkai'tik ez ei zan iñor agertu. Tckosa'n, 1935'ko azken igandean, zar eta gazte bederátzi bertsolari agertu ziran: «Ondartza» (asteasuarra), «Pantxo» (asteasuarra), «Txapartegi» (asteasuarra), Etxeberria (andoaindarra), «Moxo» (iruratarra), Ezeiza (ibarratarra), Ugartemendia (amassarra), Lujanbio (errenderiarra) ta «Txirrita» (altzatarra). Lau saio egin ebezan; Ienengoan, neurritz, puntuz ta zer-esanetan, azke riran. Bigarrenerako gai au emon yaken:

*aEgmrri jaiak ospatuzeko
kantlk onenak aukera
la Olentzero ta Gabon-gabaz
isaten dan oiuera.fi*

Irugarren saioan, epaiileak emon eban asierea. Txirrita ta Lujanbio onetan nagusi. Laugarrenean, azkenez, biñaka jarri ziran bakotxari izentaturiko langintza jaso ta aupatzen. Txirrita'k eroan eban lenengo saria, Lujanbio'k eta EtxeberriaTc bigarrena ta irugarrena, ta Ezeiza'k laugarrera.

Urtebarri egunez beste ainbeste egin zan Azpeiti'n. Arratsaldean, azoka enparantzan asi zan bertsoketa, koplakari onein artean: «Kortatxo» (Itz'ar), «Uztapide» (Zestua), «Nekezabal» (Zarautz), «Txapel» (Azpeitia), «Akotegi» (Azpeitia), «Muño»

(Bidania), «Zepab (Errezil), Uranga (Itziar), Etxaniz (Azkoitia), Garate (Azpeitia) ta Eizmendi (Azkoitia). Emen be, Tolosa'n legez, lau ekitaldi egin ziran; bigarren saiorako gaia onela:

*«Inaki Deuna, San Inazio'n
egintz onenak aukera
la oere aintza, aipatu, gora
azveitiarren izakera.n*

Sariak, ostera, gisa onetan jaso ebezan: Zepai'k lenengoa (75 laurleko), Txapel'ek bigarrena (50 laurleko), Uztapide'k irugarrena (25 laurleko) ta Muño'k laugarrena (15 laurleko).

Irugarren azterketea, napar ta zuberotarrentzat, Elizondo'n, Baztan'go uri nagusian ospatu zan, urtarrillaren 12'an. Amar bertsolari agertu zizan «Antxitonea» trinketean: Mitxel Dargaitz (Otsondo), Simon Ibarra (Sunbilla), Joanes Ibarra (Ziga), Patxi Elorga (Lekarotz), J. M. Mutuberria (Eltzaburu), Jean Harriet (Alduide), Joanes Iriarte (Banka), Marziel Larrosa (Banka) ta Beltran Sahargun (Banka). Oi diran lau saioak egin ebezan doiñu ta esaera bikaiñez oreturik eta entzuleen artean maikiña bat barre-algara ta txalo atera-eragiñik. Sariak, barriz, onela: Iriarte'k lenengoa, Mutuberria'k bigarrena, Harriet'ek irugarrena ta Dargaitz'ek laugarrena.

Indar-neurketa guzti onein ondoren, Donostia'ko «Victoria Eugenia» antzokian egin zan azken batzaldia, urtarrillaren 19'an, goizeko amaiketari asita. Aitaturiko iru errietan aurretiaz egiñiko neurketatik amar bertsolaria berezi ziran Donosti'korako: Zepai, Dargaitz, Etxeberria, Harriet, Uztapide, Lujanbio, Mutuberria, Txapel, Iriarte ta Txirrita. Aurreko urtean Zubimendi'k lez, oraingoan Basarri'k zuzendu zituan bertso-saioak, lenengo gai ta doiñu azkean, bigarren asterako gaia emonda, irugarren galde ta erantzun, eta laugarren bertsolarien artean langintzak banatu ta bata bestearen aurka jarririk. Eta saio gutietan trebe jokatuaz, lenengo saria (150 laurleko) Txirrita'k irabazi eban, bigarrena (100 laurleko) Uztapide'k, irugarrena (75 laurleko) Zepai'k, laugarrena (50 laurleko) Dargaitz'ek eta bostgarrena (25 laurleko) Iriarte'k.

Jai-aldi onen barri emotean onela amaitzen dau Zubimendi'k: «Bigarren urtean ospatu degu Bertsolari Eguna. Beste

askoan iraungo al du gure errien onerako. Bertsolaria erri mamikoa degu. Erriak benetan maite ditu ta auek, egiz, maite dute erria. Erriak maite ditu gure adimen argiko bertsolariak. Ardangelan, par-egiñazteko bakarrik ez dira jaio. Buru argi ta esaera eder dituzten gizon auek, euskera zaitzeko bearrekoak ditugu. Berak bizi diran artean euskera etzaigu ilko, eta euskera bizi dan artean gure erria ere ez». (*Yakintza*, 1936, epail-jorrailla, 157 orr.)

11. *Orair.go txapelketak*

Donosti'ko ekiñaldi oroigarri aren ostean, ogeita bi bat urteko ixil-unea izan zan bertsolarien artean; etzan beintzat esateko batzaldirik egin. Alan be, gogoia etzan palta, sua ba-zan errian ta bertsolarion artean. Eta Euskaltzaindia'k, 1958'garrenean, bitzuan gurari bizia baturik, bertsolari-txapelketa bat eratu eban Bilbao'ko Arenal'ean. Arrezkero, eten bage, urtetik urte ospatu dira jardunaldi ederrok bai Bizkaia'n, bai Gipuzkoa'n, bai Naparroa'n eta bai mugaz bestekaldetik. Edestirako be, guztiotatik zerbait jarri daigun emen.

a) *Bizkaï'ko txapelketak*

Bizkaia ezta urria :zan beftso-auzian. Bertsolarietan be, gorago esan dogunez, oraïndik ezta agertu Muxika'ko Urretxin-dorra baizen gozo, sakon, giartsurik, eta ainbeste idatzita emon dauskunik. Aren inguruan, baiña, banaka batzuk baiño etziran sortu, emen Bizkaia'n beiñik-bein. Eta banaka oneik be etziran egazkada luzekoak: 1936'garren urtean, Donostia'n ospatu zan Bertsolari Egunean beintzat Bizkaï'tik etzan iñortxo be an aurkeztu; emen ziran Dima'ko Uriarte, Mungia'ko Bartolo, Begoña'ko Betolaza, Getxo'ko Llona, Laurkiniz'ko Eulia ta gaiñerakoak Kepa'gaz sarri bertsotan ibilliak. Baiña etziran agertu, muxikarrak eurak be cz eben adorerik izan gipuzkoarrakaz egun andi aretan indarrak neurtzeko.

Besteak beste, Kepa'k erein eban bertsolari-azi joria bere

semeen biotz-zokoetan eta oneik euren baserri Ubparitxa'n gau ta egun bertsotan jardun oi eben. Or Enbeita'tar Sabin, 1908'ko dagonillaren 26'an jaioa ta gaur be ezkondu ta Usparitxa'n bizi dana, bertsolari zorrotza, etorri ugarikoa, bertso txinpartatsuen jaubea, ogeita iru urtera arte plazarik plaza ibillia. Or Imanol, 1913'ko garagarrillaren 31'an. jaioa, plazetan iñoiz bertsolari ikusi ez arren, abots zoli ederreko koplakari biguna. Or, batez be, Enbeita'tar Balentin, 1906'ko orriUaren 20'an jaioa, len ta orain bertsolari zintzoa. Lenengoz Bizkargi'n egin eban bere aita-gaz, amabi urte ebazalarik, eta gero amazortzigaz asi zan erriz erri; ogeita bi urteko zaia, Mungia'n, Uriarte, Bartolo, Betolaza ta Llona'gaz batera bertsotan egiñik, berak atara eban lenengo saria; urrengo urtean Aigorta'n be bardin, Llona, Bidaurrazaga, Betolaza ta Aizerna lagim ebazala. Bizkai, Gipuzkoa, Araba, Naparroa'n eta Prantzia'n ibillita dago bertsotan, 1932'an batez be Basarri'gaz Donibane Garazi, Atarratze, Kanbo ta beste errietatik bertso-jira bat egiñik. 1958'an eta 1859'an Bizkai'ko txapeldun urten eban.

Eta Balentin'en semeak? Gurasoengandik asko ikasi daro-
agu ta oneik be aitagandik dabe bertsotarako griña biurra. Abel ta Jon bakarrik aitatuko doguz. Abel, 1942'an jaioa₃ umetatik bertso-zale izanik be, amazotzi urterarte ezta plazetan ikusi; Mungia'n egin eban bere Jeriengc agerraldia, ta zazpi bertsolariren artean irugarren lotu zan; urte bat geroago ta toki berean bigarren lotzen da amar bertsolariren artean; gero ainbat erri aratu ditu bere bertsoakic: Gexnika, Bakio, Munpia, Zornotza, Laukiniz, Gamiz, Meñaka, Ea ta abar.

Enbeita'tar Jon, ostera, bertso-zalc gaztea ta bertsolari alaia dogu. Zortzi urterako bertsotan egiten eban. Lenengoz, bederatzi urtegaz, jentea arri egiñik izten dau Euba'ko jaietan. Urte berean, Gernika'n, Basarri ta Deunoro Sardui batetik eta bere aita ta bera bestetik ekiten dautsoe bertsotan, bertsolari ta entzuleak ikaratuta itxirik; Zarautz'en be bardin, aita-semeok egiten dabe Basarri ta Uztapide'kin. Erririk erri dabilela, Mungii'ko txapelketan ez eutsoen itxi esku artzen gazteegia zalako, baiña txapelketa ostean bersk txapeldunagaz egiñiko saioan sor ta lor gelditu zan jente goztia Gerora, Gernika'n, **Mungia'n**₅

Bilbao'n, Zornotza'n, Euba'n, Oromiño'n ta abar ibilli da. Muxika'ko Zabale baserrian jaio zan, 1950'ko epaillaren 22'an.

Kepa'ren semeak ezeze, alabak be —Bingene Itziar, Miren Begoña ta Eburne— bertsolari dira, ta euron seme-alabai be biotz-guneraiño sartu dautsoe griña ori. Euskal literaturan eta bertsolaritzan orren ospetsu dan Deunoro Sardui'tar Errupin eta Enbeita'tar Bingene'n semea da, gaur ezkondata Gernika'n bizi dana. Irakurle piña ta bertsolari sakon zentzunduna; 1959'an, Bermeo'n, inguru atako txapelkun geratu zan; 1960'an, Gernika'n, lenengo; 1961'an, Ondarroa'n, bigarren; 1961'an, Bilbao'ko txapelketa nagusian, bigarren; 1962'an, Bilbao'n bertan, Iaugarren. Saxdui'tar Begoña be, onen nebea, 1940'an jaioa, emakumea baiña bertsolari errimea dogu; gaux moja aurkitzen dala be, bertso beroetan agertzen dausku barruan daroanaren zaletasuna.

Miren Begoña Areatza'ko Zubipuntara ezkondu ta onen semea dogu Axuxia-Enbeita'tar Ireneo, 1947'ko zezeillaxen 10'an jaioa, bertsolari leun mena. Amairu urtegaz urten plazaxa, ta 1959'garrean, Mungia'ko ekiñaldian txapelkun lotu zan; urte berean, Gernika'n, txapelketa azken aurrean, bigarren; Bizkai'ko azken txapelketa nagusian iru aldiz esku artu izan dau. Onen aita Kepa Axuria be ezta bertsolari eskasa, baiña onez gaiñera bertsolarien zuzpertzaille mazala dogu; urte bete bat inguruanj bertsolari-eskola sortu ta iraun-azo berak egin eban, Areatza'ko bertsolariantzat oso onuragarri.

Muxika'n ba-dira oindiño beste iru bertsolari ixillik itxi eziñak: Jon Lopategi, Pedro Ortuzar («Iturri») ta Pedro Mari Aldana. Lopategi 1946'an jaio zan Muxika'ko Aldabera baserrian; 1960'an agertu zan lenengoz plaza-gizon, Mungia'ko rxaapelketan irugarren geraturik; 1961'an, Mungia'n txapelkun; 1962'an, Gernika'n eta Bilbao'n be txapelkun; 1962'an, Donostia'n ospatu zan Euskalerriko txapelketa nagusian bederatzigarren gelditu zan. «Iturri», ainbat erri aratua ta jente askori barre gozatsu eragiña, 1933'ko jorraillaren 25'an jaio zan; lenengoz amabost urteko zala plazara urtenik, 1959'an Bermeo'ko sariketan irugarren saria irabazi eban. P. Adari Aldana, asko irakurria, bertsolarien saio zuzendari lez guztiz trebea agertzen da.

Efrigoiti ta Luno aldean be ba-ditugu beste batzuk. Juan Joxe Uriarte Bilbao, 26 urteko gaztea, 1962'garren urteko ekiñaldian Mungia'n bertsotan saiataua; Arrieta'n, Jainko'n, Errigoiti'ko Metxika'n, jaietz eta meza barrietan, sarri entzun dira gazte onen kanta ta esan gozatsuak. Juan Olarra Zubiaga, 25 urtekoa be, Mungia'n izan ezik, beste toki guztietan ibilli da Juan Joxe Uriarte bere erritarragaz. Juan Joxe Guarrotxena be, gaur Muxika'n bizi arren, Errigoiti'koa da, ointxe soldadutza egiten dagoana; zaletasun andia dau, ta oraindik ardo-etxeetan bakarrik saiatu arren, laster dogu plaza agiritan be. Manuel Basabe Luno'koa da jaiotzez, amazortzi urte baiño ez dituna; Mungia'ko norgeiagoketan laugarren urten eban. Diñoenez, onona dator.

Nabarniz bere aldetik ezta azkena arlo onetan. An bizi da Elortza bertsolari zarra, gorago aitatua. An bizi da baita Dionisio Arripla, 1929'ko iraillaren 10'an ango Lekerika auzuneko Bizko basetxean jaiotua; amairu urtegaz asi zan bertsotan Ispazter'ko ardantegi batean, ta arrezkero nun-nai erakutsi dau bere alaitasuna, batez be errietako jaietan: 1956'an ta 1962'an, Forua'n, Kristobal deunaren egunez; 1961'an, Bermeo'ko San Pedro jaietako sariketan irugarren saria irabazi eban, eta Nabarniz'en ia urtero egin dau bertsotan, bertoko jaietan, Sardui, Lopategi, Iturri ta onakoakaz geienik.

1958'garren urteko dagonillaren 24'an, Bilbao'ko jai inguruan, ospatu zan Bilbao'n bertan Arenal'ean, bizkaitar bertso-larien lenengo txapelketa. An ziran Bizkai aldeko plaza-gizonik onenak, eta zazpi millatik gora batu giñean euroi entzutearren. Bai ta gogoz ta luzaro txalotu be euron jardun bizi jori zirikalaria! Ordu bi ta erdian zein geiagoka ekin ondoren, sariak onela jaso ebezan: 1) Balentin Enbeita'k, Bizkai'ko Aldundiaren Edontzia ta 3.000 laurleko; 2) Juan Ormaetxe'k, Bizkai-Aurrez-Kutxak emoniko edontzia ta 2.000 laurleko; 3) Joxe Alberdi'k, Udaletxe-Aurrez-Kutxaren edontzia ta 750 laurleko. Eta beste lau sari 500 laurlekoko bakotxa, Getxo'ko seme Asensi Bidaurrazaga'k, Eusebio Zubiaga'k, Luxu'ko Kastrexana'k eta Polentzi Zarraga'k. Nazario Oleaga, Euskaltzaindi'ko Zadorlaria izan zan sari-banatzaiUe.

Zazpi bertsolariotatik Enbeita ezaguna dogu. Ormaetxe La-

rrauri'koa da semez, eta urte askotan errietako ta auzunetako jaietan bertso-ekiñaldi galantak egiña. Joxe Alberdi, gaur Mañari'n bizi arren, Yurreta'ko semea dogu; ain zuzen be, Mañari'ko atxarte zoragarria ezta txarra giza-idurimena biztu ta arrotuteko; orixegaitik edo, Alberdi, barne-griñari ezin eutsirik nunbait, asko ibilli da bertsoketan. Zubiaga, jaiotzez bilbotarra izanda be, umetatik Barrika'n bizi izan da, ta gaur Urdulitz'ko «Arriaga» baserrian daukagu; itxasoz itxaso luzaroan ibilli arren, legorreratzean, lagunak zirikatuta, or ibilli izan da erriz erri, jai ta erromerietan kanta-kantari. Zarraga be, 1906'ko urrillaren 26'an Leioa'n jaioa izan arren, ogei urteko zala Berango'ra aldatu ta arrezkero guztian ementxe dauko bere bizilekua, «Errekondo» baserrian; amalau urteko asi zan bertsoetan, eta Mungia'n, Bilbao'n, Zeanuri'n, Bermeo'n, Gernika'n eta beste askotan ibilli izan da bertsolari lez.

Euskaltzaindia'k eratu eban, batez be, asiera ederra izan eban txapelketa au. Urrengoan ugari ta obeto, ta ez Bilbao'n bakarrik; urrengo urtean, udabarrirantza asita, Bizkai'ko erri askotan, erri-jaiak dirala-ta, lenengo erriz erri ta atzenez Bilbao'n, txapelketa orreik ospatzeko asmua artu eban Euskaltzaindia'k. Orrelaxe egin da arrezkeroko urteotan. Lan txalogarria, ziñez.

Bigarren sariketa, 1959'garreanean, axola ta gora geiagoz egiteko, bost zatitan banatu zan Bizkai osoa, toki bakoxtetik txapeldun bat atara ta azkenez onein artean, Bilbao'n, igazko lekuan bertan, saio nagusia egiteko. Erri-txapelketak onela egfn ziran: 1) Urkiola'n, bagiUaren 13'an, Alberdi txapeldun; 2) Mungia'n, San Pedro bezperan, Juan Ormaetxe txapeldun; 3) Bermeo'n, San Pedroetan, bagillaren 29'an, Deunoro Sardui txapeldun; 4) Markiña'n, garagarrillaren 18'an, Juan Azpillaga txapeldun, eta 5) Zeanuri'n, Andra Marietan, dagonillaren 15'an, Basilio Pujana, bertako semea, txapeldun. Errietako sariak: lenengoa 1.000 laurleko ta Udaletxearen kopa, ta gaiñerakoak bosteuna laurleko bakoxtak. Zeanuri'n, gaiñera, ba-zan beste kopa bat be bertako sendi batek puntua ondoen amaitzen eban bertsolariari eskiñia; bertako seme Joxe Mari Artetxe'k irabazi eban sari au.

Iraillaren bostean Bilbao'ko Arenal'ean ospatu zan Bizkai

osoko bertsolari ernaien txapelketa. Amaika bertso-esaldi eder ta txáfo bero izan zan. Millaka euskaldun —amar millatik gora— batu giñean zelai aretan. Bertsolarien aitaita, Nabarniz'-ko Elortza, artzain ta bertsolari zarra ta urriñetako lurraldeetatik eldutako Anasagasti gotzaiña be an ziran. Sei bertsolarik jardun eben bertan: Enbeita, Alberdi, Ormaetxe, Sardui, Azpillaga ta Pujana'k. Enbeita, igazko txapelduna, geratu zah barriro be txapelaren jaube. Lenengo saria, Bizkai'ko Aldundiaren kopa nagusia ta Bizkai-Aurrez-Kutxaren iru milla laurleko; bigarrena, Bilbao-Aurrez-Kutxaren edontzia ta milla laurleko; gaiñerako guztiak, milla laurleko bakotxak. Urte onetan izan ziran beste bertsoketa batzuk, Ondarroa'n, Durango'n, Gernika'n eta Lekeitio'n baitik-bat.

1960'garren urtean, Erregen ingurimtza, au da, urtarriUaren 10'an, Arriaga antzokian egin zan olako euskal jai eder bat; lenen, antzokia jentez beterik egoala, Bizkai'ko ta GipuzkoaTio bertsolaririk punterengoenak, •—Enbeita, Azpillaga, Basarri, Uztapide ta Mitxelena'k— euren bertso saio entzungarria; eta, gero, Elgoibar'ko antzelariak, ondo be ondo, fiitor Garitaonandia zanaren «Aitona ta Billoba» eskiñi euskuen.

Gero asi ziran urteroko bertsolarien sariketak. Lehengo-a, Urkiola'n, garagarrillaren 19'an, Ermu'ko s^rne Jerman Urigucn txapeldun; bigarrena, uztailaren 17'an, Mungia'n, Ireneo Axuria txapeldun; irugarrena, uztailaren 24'an, Markiña'n, Juan Mugartegi txapeldun; laugarrena, dagonillaren 14'an, Zeanuri'n, Dima'ko seme Faustino Etxebarria txapeldun; bostgarrena, dagonillaren 15'an, Ondarroa'n, azken txapelketa nagusian Bilba-o'n jokatu eben lauk esku artu eben —Enbeitin. ta Azpillaga kenda—; bai ta errietan txapeldun geratu ziranak be.

Azkenez, irugarren txapelketa nagusia Bilbao'ko zezen plazan egin zan, iraillaren 11'an. Zortzik jokatu eben, Enbeita'k eta Azpillaga'k, eta Ondarroa'n azkener2ko gelditu ziran seirok, Ireneo, Alberdi, Mugartegi, Ormaetxe, Pujana ta Deunoro. Zezen plazako saioan Juan Mugartegi geldiru zan txapeldun, orrezaz gaiñera Bizkai'ko Aldundiaren kopea ta diruzko saria beragandurik; bigarren Juan Azpillaga atera zan. Gazte bi oneik i)errituarrak dira: Mugartegi Berriatua'n bertan 1933'ko dago-

nillaren Zó'an jaioa, ta Azpillaga, Pasai'n jaio arren, umetarik Berritu'n bere amaren etxean bizi izana. Bizkai'ko alderdi edex cntan ba-dira oindiño beste iru gazte, Berriatu'ko Joseba Arreg: Laka, Larruskain'go Iriondo, Markiña'ko Ibarzabal, indartsu ta itxaropentsu datorkiguzanak.

Laugarren txapeiketa onela egin zan. Lenengo Urkiola'n, San Antonio egunez, Ermuko seme Prantzisko Mendiola txapeldun; bigarren, garagarrillaren 16'an, Mungia'n, Juan Lopategi txapeldun; irugarren, garagarrillaren 18'an, Markiña'n, Juan Ibarzabal txapeldun; laugarren, dagoniillaren 15'an, Yurre'n, Dima'ko seme Jesus Uriarte txapeldun; bosgarren, dagoniillaren 21'an, astelenez, Gernika'n egin zan azkena. Txapelketa nagusia, barriz, Bilbao'ko Coliseo Albia'n ospatu zan, dagoniillaren 27'an. Antzokia jentez gaiñezka egoan, eta saioan Juan Azpillaga gelditu zan txapeldun, eta Deunoro Sardui bigarren.

Bosgarrena, au da, 1962'garren urtekoa onela eratu zan. Garrillaren 13'an, Urkiola'n, Mañari'n bizi dan Julian Martitegi txapeldun; garagarrillaren 15'an, Mungia'n, Juan Lopategi txapeldun; garagarrillaren 18'an, Markiña'n, Joseba Arregi txapeldun; dagoniillaren 12'an, Yurre'n, Basili Pujana txapeldun; dagoniillaren 20'an, Gernika'n, azkenaren aurreko saioa, Juan Lopategi nagusi. Azken ekiñaldi nagusia Bilbao'ko Erdi Maillako Ikastetxean egin zan, dagoniillaren 26'an. Lopategi geratu zan lenengo ta Azpillaga bigarren. Urrengo urtean be toki bardiñetan egin ziran lenengo ekiñaldiak, eta gero Bilbao'n, Irakaskintza Erdi Maillako Ikastetxean, irailaren 22'an, azkena.

b) *Naparroa'ko txapelkelak*

Euskakzaindia'k urtez urte eraten ditun txapelketa oneitan Bizkairt'k bota eban *or dagol* zoli ozen bat, eta beste probintzi guztiak baiño durundutsuago Naparroa'k emon eban erantzuna. Ango Atdundiko «Principe de Viana» deritxon Alkarteak daukan *Euskeraren Aldeko Saillak* bere gain artu eban bertso-txapelketa arazo ori, ta urteotan oso ederki daroa aurrera, napar euskal erri askotan ainbat bertsolari gazte erne-azo ta itxarturik.

1960'garren urtean iru saio egin ziran ango errietan, Lekunberri'n, Elizondo'n eta Lesaka'n. Lekunberri'koa, ango ingurukoentzat, garagarillaren 26'an ospatu zan. Ona txapelgo atara agertu ziran bertsolarietatik amar: Yaben'go Anjel Aldatz, Goizueta'ko Bautista Perurena, Errazkin'go Martin Oresa, Arribe'ko Manuel Iriarte, Gorriti'ko Klemente Ezkurdia, Goizueta'ko Ander Narbarte, Gaintza'ko Moises Narbarte, Arano'ko Pedro Narbarte, Arruitz'ko Migel Errekalde ta Madoz'ko Prantzisko Goikoetxea. Amarrok egin eben, oso ederki, lenengo agurrak, bigarren ogibide edo langintza emonda alkarregaz teman, ta abar. Goizueta'ko Andres Narbarte gelditu zan txapeldun, Lekunberri'ko Udaletxearen kopa ta Euskeraren Aldeko Sailla'ren bi milla laurleko irabazirik.

Bigarren saioa Elizondo'n egin zan, uztaillaren 25'an. Amar bertsolari agertu ziran emen be: Eugi'ko Joxe Anjel Linzoain, Eugi'ko Urbano Egozkue, Arraioz'ko Pedro Ibarra, Arantza'ko Bautista Ibarra, Lesaka'ko Markos Maritxalar, Lesaka'ko Maurizio Mitxelena, Arizkun'go Juan Perurena, Eltzaburu'ko Joxe Mari Mutuberria, Sunbilla'ko Simon Ibarra ta Arizkun'go Felix Iriarte. Oizko banako, biñako ta gaiñerakoak osotu ondoren, Juan Perurena geratu zan txapel-jaube.

Azkeneko txapelketa nagusia Lesaka'n egin zan, il barritsu zan beratar olerkari Larramendi'ren omenez, iraiillaren 25'an. Lekunberri'n eta Elizondo'n aurrenen gelditu ziranetatik zortzi sanu ziran azken-saioketa ontan: Yaben'go Anjel Aldatz, Goizueta'ko Andres Narbarte, Goizueta'ko Bautista Perurena, Arribe'ko Manuel Iriarte, Arizkun'go Juan Perurena, Arizkun'go Feix Iriarte, Arantza'ko Bautista Madariaga ta Eltzaburu'ko Joxe M. Mutuberria. Asierako agurrak, bakotxak bertso bi gai azkean, bakotxari gaia emonik eta abar egin ostein, Andres Narbarte gelditu zan txapeldun, eta Juan Perurena bigarren. Antonio Arrue Euskaltzaindikoaren zorion eta eskerrezko itzez amaitu zan Lesaka'ko euskal jai atsegingarria.

Urrengo urtean be (1961) bardin egin zan. Aprillaren 23'an, Betelu'n, lenengo saioa, Errazkin'go Martin Oresa txapeldun; garagarriHaren l'an, Irurita'n bigarrena, Lesaka'ko Migel Arozamena txapeldun; iraiillaren 24'an, Leitzan irugarrena, Andres Narbarte txapeldun. Eta, azkenik, urriillaren 29'an, Etxarri-

Aranaz'en, ango frontoia jentez beterik egoala, Naparroa'ko bigarren azken txapelketa ospatu zan. Epai-maiko oneik egin eben: Pedro Diez de Ulzurrun'ek, Jose Agerre'k, Antonio Arrue'k, Aingeru Irigarai'k, Aita Antonio Zabala'k, eta Alfonso Irigoien'ek. Zortzi bertsolari aurkeztu ziran: Areso'ko Martin Azpiroz, Aranaz'ko Madariaga, Arriba'ko Iriarte, Lesaka'ko Arozamena, Errazkin'go Oresa, Arizkun'go Perurena, Goizueta'ko Andrc Narbarte ta Areso'ko Mikel Zabaleta. Bautista Madariaga gelditu zan txapeldun, Etxarri-Aranaz'ko alkate jaunaren eskutik ango Udaletxearen kopa ta txapela, ta Euskeraren Aldeko Sai-Ua'ren eskutik bi miUa laurleko artuaz.

Amaikeran Arrue'k itzaldi au egin eban: «Euskakzaindiaren eskerron biotzkoia erriko agintari prestu eta agurgarriei gaurko euskal jaialdi eder eta atsegin au egiteko eman dituzten erraztasun ra laguntasunarengatik. Orobat Iruñe'ko «Príncipe de Viana» deritzaion tarteko gizon goragarriei Naparroa'ko bertsolari txapelketa auek antolatu dituztelakoz. Eta zorion beroenak gaurko bertsolari guziori ta ontan garaille gelditu dan Madariaga bertsolari trebeari; eta bai ta Betelu'ko, Irurite'ko, Leitze'ko ta gaurko emengo sariketan esku artu duten bertsolari guziei. Bertsolariak dira, inñolaz ere, euskera itzegiñaren, euskera mintzatuaren, euskera errikoiaeren eta, itz batean, euskera jator eta egitezkoaren eusleak eta guardatzaillerik garaienak. Zer geiago? Oar bat entzule guziori: Orain illa bete bat, igande arratsalde batez, Leitza'ko enparantza nagusian, antziñako bertso gogoangarri batzuen bidez esan genudana, orain ere esango degu:

*«G-uztíok cain getitzak icrbait
bakoI'ck al thianian,
JaungcAkoa ta Evske.ru jaríe?!
aaaza guzien gniñan n*

Beraz saia gaitezen guziok, auzolan gisan, euskeraren alde, gure alai izkuntz xar maitearen alde lanian. Ta batez ere ondo entzun: Izan gaitezen gu gero *euskaldunak!* Guziok badakizute zeresan nai duan *euskaldun* itzak: Euskaidun ítzak esaten du, noski, euskera dakiana, euskera duana, euskeraz mintzatzen dana, euskera itzegiten duana. Beragatik gaurko euskal jaialdi zoragarri oneri bukaera egoki bat emateko, Pello Mari Otaño zanak

bein batez bere semeari bertsotan esan zion bezela, nik ere esango dizutet zuei, entzule guzioi eta bakoitzari Euskaltzaindia'ren izenean, biotz-biotzez:

*{<Ez deza,-.utt:la azlu gaur vcri entzuna,
iti bntera'so au da esko-tzen zaizuna:
Uan iaitea nv.nai cla htti EUSKALDUNA!>*

<Tkus Nafarroa'ko Brr/solarien. Txajti'lkela, Irviñft, ISñBi

1962'garrenean, artutako oiturari jarraituaz, Errazu'n ospatu zfin lenengo saioa, uztailaren 1'goan, eta Bautista Madariaga txapeldun; Goizueta'n bigarrena, dagonillaren 19'an, eta Ander Narbarte txapeldun; eta, azkenez, Bera'n saio nagusia, irai-Uaren 23'an, Mikel Arozamena txapeldun ta Mikel Zabaleta bigarren gelditurik. Urrengo urtean (1963) Areso'n egin zan lenengo jardunaldia, maiatzaren 19'an, eta Arano'ko Manuel Uitzitxapeldun; Arizkun'en bigarrena, garagarrillaren 23'an, eta Sunbilla'ko Simon Ibarra txapeldun; azkena, barriz, azaroaren 17'an, Iruña'ko Gaiarre Antzokian ospatu zan. Arozamena lotu zan txapelaren jabe ta Ander Narbarte bigarren.

d) *Gipuzkoa'ko ixapelketak*

Gipuzkoarrak eztabez ain neurriz ta urtero egin leiaketa oneik, baiña bai or-emenka guztizko batzaldi aintzagarriak. Gipuzkoa dogu. eziparik bage, bertsolarien kabi bero ta etzan egoki aizeraturik geratzea. Eta Naparroa'k leial erantzun ba'eutson bizkaitav zantzo zoliari, gipuzkoarren erantzuna aren aiñakoa edo zoliagoa izan zan.

1959'garren urtean, Bizkaia'n lez zerbait eratu nairik, Aginaga'n ospatu zan lenengo ekiñaldia, Agirre txapeldun urtenik. Gero, agorraren 9'an, Ordizia'n bigarrena, Garmendia nagusi zala. Bertsolari barrien txapelketa zan au, ta Aita Baztarrika'k onela damosku bertako barri: «Euskalzaleak bazun antxe nun ase bere egarria: txistu, eskusoifñu, auresku-txapelketa, dantzasariketa, bi irri-antzerki euskeraz, ta baita ere, nola ez, bertsolariak. Gipuzkoa'ko bertso'ari berrien Txapelketa gaiñera. Igaz goierrikoena genun. Orregatik inguruetako errietatik erruz etorri

zan jendea. Bertsoetarako enparantza laster bete-bete zan ta an irauñ zuten denak, bi ordu ta erdi luze, tarteka belarriak erne, tarteka erdiparrez edo txaloka, ta geienak eguzkitan. Nola erakartzen duten oraindik bertsolariak gure erria! Bertsoetarako griña bizia izan euskaldunok! Amasei bertsolari gazte ziran txapelketarako. Ona emen izen-abizenak; bertsoetarako zotz eginda atera ziran ez jartzen ditut: Jesus Basoarte, Zumaiarra; Domingo Garmendia, Berrobiarra; Bizente Mujika, Ormaiztegiarra; Tomas Lasa, Lasartearra; Florentino Nosellas, Berrobiarra; Jesus Eskisabel, Legorretarra; Joxe Luis Lekuona, Ernaniarra; Jose Agirre, Azpeitiarra; Patxi Etxeberria, Lasartearra; Jose Usabiaga, Errenderiarra; Jose Otamendi, Amezketarra; Patxi Arregi (Moxo), Irurarra; Patxi Beloki, Bidaniarra; Joxe Migel Iztueta, Lazkaotarra. Epai-maian Basarri ta iManuel Lekuona apaiza ezagunak eta beste iru euskalzale eseri ziran. Eguerdiko amabietan, zintzoki Agurmariak esanda, ekin zioten bertsolariak lanari... Maiekoen iritziz Garmendia, Berrobiarra, atera zan txapeldun; bigarren Iztueta, irugarren Mujika, laugarren Agirre ta bosgarren Lekuona; beste guztiak sari berdiña craman zuten. Amaika bertso eder entzun genun». (*Olerli*, 1959, urrilla-lotazilla, 242 orr.)

Andik laster, Eibar'ko euskaltzaleak jai eder batzuk eratu ebezan, azaroaren 6, 7 ta 8'an. Azken egun onetan egin zan Gipuzkoa'ko bertsolarien txapelketa nagusia be, zazpi bertsolari esku arturik: Uztapide'k, Lizaso'k, Mitxelena'k; Lasarte'k, Zepai'k, AgLre'k eta Garmendia'k. Uztapide'k erabazi eban, Gipuzkoa'ko Aldundiaren makilla ta iru milla laurleko jasorik. Bigarren Mitxelena gelditu zan, Gipuzkoa'ko Erasketxearen kopa ta bi milla laurleko jasorik. Bigarren Mitxelena gelditu zan, Gipuzkoa'ko Erasketxearen kopa ta bi milla laurleko eskuratuturik. Beste guztiak be, baktzak seireun laurleko artu ebezan, Eibar'ko Club Deportivo'ak emonda. Amar millatik gora ziran luzaro, adi-adi, an egon ziran entzuleak.

Onela gauzak, 1960'ko lotazillaren 18'an, Euskalerriko bertsolarien norgeiagoka egin zan Donostia'ko «Victoria Eugenia» antzokian. An batu ziran, Gipuzkoa'tik, Uztapide ta Mitxelena; Napparroa'tik, NARBarte ta Perurena; Bizkai'tik, Mugartegi ta Azpilla, eta mugaz goialdetik, Xalbador ta Mattin. Oneitako

oncnak Basarri'gaz jokatu bear eban Euskalerriko txapela; guztiotatik onena Uztapide atera zan, eta onek neurtu ebazan Basairi'gaz bere indarrak, Basarri'k irabazirik.

Urrengo urtean (1961), Erregen egunean, Bilbao'ko «Capitol» antzokian batu ziran Euskalerriko bederatzi bertsolari onenak: Gipuzkoa'tik, Basarri, Uztapide ta Mitxelena; Nafarroa'tik, Narbarte ta Madariaga (au Perurena'ren ordez); Bizkai'tik, Mu[^]gartegi ta Azpillaga, ta Prantzi aldetik, Xalbador ta Mattin. Ba[^]lentin Enbeita'ren len-agur ondoren, bederatziok jardun eben zoragarriro ta, entzuleak iñoenez, Gipuzkoa'ko txapelketa bera baiño obe ta gatz geiagokoa izan zan emengo bertso-jardun apaiña.

1962'ko urtarrillaren 6'an, Donostia'ko «Victoria Eugenia» antzokian beste bertsolari jai andi bat opatsu zan, Euskaltzaindiak eta «Centro de Atracción y Turismo'k antolatua. Goizean Gipuzkoa'ko bertsolari gazte bikaiñen artean saio eder bat egin zan, urrenguk esku arturik: Oiartzun'go Joxe Luis Lekuonak (Lexoti), Lizartza'ko Kasiano Ibarenek, Berrobi'ko Domingo Garmendiak, Azpeiti'ko Joxe Agirre'k, Errenderi'ko Kosme Lizaso'k, Zumaia'ko Jesus Basoarte'k, Lazkao'ko Joxe Migel Iztueta'k (Lazkao-Txiki), Ormaiztegi'ko Bizente Muxika'k. Joxe Luis Lekuona lotu zan txapeldun, eta Joxe Agirre bigarren. Arratsaldean, Basarri ta Xalbador'ek Uztapide ta Azpillaga'ren aurka jokatu eben, leiaketarik eder txalogarrienean. «Arratsaldekoa etzan txapelketa izan, ez ta ere nolanaiko saioa. Lau bertsolariak bi bikotetan jarri zituzten: igazko txapelduna ta laugarrena bigarrena ta irugarrenaren kontra. Beraz, Basarri ta Xalbador, Uztapide ta Azpillaga'ren kontra. Bikote bakoitzak bestearen kontra jokatu bear zun. Alako gaiak eman zizkioten ere: muslariak, pelotariak, guardizibillak eta ijituak, beltzak eta zuriak. Lau bertsolariak gutxitan bezin ongi saiatu ziran» (Ikus *Auspoa*, 10'garren zenbakia, 9 orr.)

Urte au (1962), gaiñera, oso emokorra izan zan erriz-errizko saioetan be. Zortzi egin ziran guztiz, ta Donostia'n gero azken-jardun nagusia. Bergara'n ospatu zan, uztaillaren 8'an, ta Osintxu'ko Jesus Egileor garaille; Deba'n, uztaillaren 22'an, ta Itziar'ko Manuel Uranga garaille; Azpeiti'n, agustuaren 2'an, eta Azpeiti'ko Manuel Lazkano txapeldun; Oiartzun'en, agusuiaren

4'an, eta Kosme Lizaso nagusi; Beasain'en, iraillaren 30'an, eta Joxe Migel Iztueta nagusi; Tolosa'n, urrillaren 7'an, ta Kasiano íbarguren txapeldun; Eibar'en, azillaren 11'an, eta Joxe Migel Iztueta nagusi; Ernani'n, abenduaren 9'an, eta Oiartzun'go Joakin Mitxelena txapeldun. Eta, amaitzeko, Gabon-Zar bezperan, Euskalerra osoko txapelketa nagusia gertatu zan Donostia'ko «Astoria» antzokian. Zenbatnai bertso eder, sakon ta zorrotz esan ondorean, Manuel Olaizola'k (Uztapide'k) bereganatu eban Basarri'k 1935'tik berea eban Euskalerra guztiko bertsolari-txapela.

Urteokaz, Gipuzkoa'n, beste toki askotan be eraldu dira beriso-iai itxurazkoak, Deba'n, Elgoibar'en eta abar, erriko jaiak dira!a-ta batez be. Loiola aldean, barriz, oso zentzunez eta burutsu jokatu dabe orretan, lenengo *Loiolatxo* deritxon tokian —ango San Jose-jaietan bereziki— ta erri-irratiaeren bitartez gero. Aparteko bertso-batzaldiak eratu dabez an azken-urteotan, Euska'erriarentzot ondo mesedegarri.

e) *Bidasoa'z andik*

Mugaz aruztik bc, naita osoan emengoen antzera ez izan, olako zerbait egin izan da, beiñola Abbadie euskaltzale jatorrak asitako oiturari ekiñik. 1958'an, Urruña'ko erri dotorean ospatu zan txapelketa gogoangarri bat. Eta gero, ots andia atera-miñez nunbait, Paris'en bertan iokatu zan azkena. Urruña'n aukeraturiko lau oberenak jokatu eben: Basarri'k, Uztapide'k, Xalbador'ek eta Mattin'ek. Zarata ikaragarria atera eben ango entzule ta iakitunen artean. «Etzun iñork uste —diño izparkari batek— euskaldun bertsoiariok Paris'en atera zuten bezelako burrundara atera bear zutenik. Baiño, naiz arrigarri izan, burrundara ori bene-benetakua izan zan. Ez bakarrik España'ko eta Frantzia'ko radiuak, baita ere radio alemanak eta batez ere inglesak txapelketa orren berri ausarki eman zuten; televisiuak ere bere programan sartu zitun, Paris'tik pasatzen diran beste edozein gizon-emazte famatuen gisa. Sorbona'ko eta beste ikastola nagusietako gizonak bertan ziran. Azkeneko egunian Palais de Chaillot edo *Trocadero* deitzen dan etxe nagusi ederrera ekarri zituzten. Bai

arrabots aundia ta ederra bertsolariak Paris'en atera zutena!»
(*Karmel*, 1959, urtarrilla-otsaila, 31 orr.)

Gerora, Hernandorena jauna ibillia dogu lapurditar, baxenapartar eta zuberotarren artean edu ortako txapelketa batzuk eratzten. 1961'ko apirilaren 16'an, Azkain'en, Eskualzaleen Biltzarrak, Mixel Labeguerie jauna buru, bertsolari-egun zoragarria gertatu eban, Euskalerriko onenak bertan esku arturik.

1963'garrenean, Aldude'n egin zan bertsolari-eguna. An ikusi zan bertsolariak nor diran. Ona an jarri eben gaia: «Zeintzuk dira lagun batean aurkitu nai zeunkezan gaitasunak?» Eta ona Xalbador'ek, *Lurraren pian* airean, zelako bertso-mordo bikaiña stera eban:

«Óí adixkide onak tuztenak dirade gizon urosak.
Adixkideak ezagutzev. tu bere lagunen bihotzak.
Harck ez dilu ez berexíko ez beroak ezta hotzak.
PenarekUan ikustcn ditu bere lagunen ez ontsak,
Eta. barkatzan ere ba-d.aki guk egiten tugun hutsak.

Adixkideak kalitaleak izan baitezazke milla,
Zur'inguruon zu beti ontsa kusi beharrez dabilo.
ñerdin psarre izana gatik zureztat beti umila;
Mintzaiu behar baluke ere, egonen ixil ixila.
Bainan úelako adixkidea nun ote ditaíke bita?

Sortuz geroztik beti nabila ni erc hor bidez bidc,
Eta jar'zen naiz aipatzen dugun adixkidearen atde.
Frrdin bila'zen dugv ba nuriba.it, bainan guziak debalde.
T'asaturikan ere zombait goiz bai eta zombait atsalde,
\o.!.i.iko nuke nihatirek izan tiorrefako adixkide.v

Aurtcn (1964), Kandelarioz, egin zan Urruña'n beste bertsolari jai eder bat. Goizean meza, dantzari ta bazkaria, kanta ta bertsoz gatz-ozpinduta. Bazkari ostean, Basarri'ren olerki-irakurtze ta Monzon'en itzaldi ondoren, bertsolarien partida; an ziran Xalbador, Xanpun, Errexil, Matin, Uztapide, cta gai emoi-He Garate'neko Tean Iratzoki. Basarri'k eta Mattin'ek batez be, txit entzungarri jokatu eben, «biak kalapitan, batek bestearen baratzent ardiak sartzerat utzirik».

Hazparne'n bardin, 1964-1 V-5'an, igandez, ospatu zan bertsolarien eguna. Goizean, mezarako, mutiko ta neskato dantzari-soiñekoz apainduta, Egi txistularia buru ebela, kale-jira ederra

eginda, dantzariak, bertsolariak eta jai atara etorritako guztiak eleizaratu ziran. Arratsaldean, íru orduz jardun eben bertsolariak erriko trinket barrian; Loiato kantariak aurkeztuta gero, an entzun ziran Mattin eta Xalbador'en esan zorrotzak, betiko umorc ta arnasa beroz bala-bala. Napar-goialdeko Lizaso erri-txoa utsimaz jóíala-ta, zer-esan ugaria zan orduan. Xalbador'ek eta Azpillaga'k erri ortako goraberak ekarri ebezan argitara; Azpillaga'k egin bear eban Lizaso'ko alkatearena, ia etsia bere erria erdi-utsik ikuisaz; Xalbador'ek, barriz, Lizaso'ko gazte batena, bere erria gaízkatzeko gertu agertzen zanarena. Batak eta besteak makíña bat bertso eder bota eben zortzi bat zortziko nagusitan. Ona, adibidez, iru ta Iaugarren ahapaldikoak:

Alkatea-k:

*tiLendabizíko o.ma\$á emen
Lizaso'n artu genduan:
<a orái, saltzcko esperantxakin,
itxv neor sinistuan:
(a zeñek taki çure lur on'ek
zenbatzu balio duan:
lur sakratu au ordaiudutzeko
'iiririk ez da munduan!*

Gazteak:

*Nin dira herri huntan sortu-ta,
ihes joan direti gaixoak?
Zonbeit mendiak ehortzi ditu,
bertze batzu itsasoak.
Ni goztea naiç, zainçlu nai ditut
çtita huntako kasoak:
ícrutik keinuz ari baizatzk.it
nigarreian arbasoak...»
ilkus Herria, 1961-rV-9'koa)*

12. Bertso-paper sarikeiak

Antxiña ba-zan gurean bertso-paperak irakurteko gale bizia. Eta, gorago ikusi dogunez, bertso.aririk onenak bertso-paper-giñan aleginduak di'ugu. Gaur be, olako zerbait barriztu naian,

sail ortan len beste eztala idazten eta, Gipuzkoa'ko Erasketxeak lau bertso-sari ipiñi zitun bertsolarien klasekoentzat: 1) Bi milla pezeta; 2) milla ta bosteun pezeta; 3) milla pezeta, ta 4) bosteun pezeta Urte-barruan argitara emoniko bertso-paperik onenak sarituko dira; bertso berriak izango dira, gaia zernai dala.

1962'garreanean, ain zuzen be, Donostia'n egin zan sariketa. Epai-maiko izan ziran: Manuel Lekuona, Fernando Artola, Juan Maria Lekuona, Antonio Arrue, Aita Martzel Andrinua, Aita Zabala, Pedro Diez Ulzurrun, Juan San Martin eta Alfonso Irigoieni Eta ao batez erabagi eben: Lenengo saria Jesus Lete'rentzat, bigarrena Sebastian Salaberria'rentzat, irugarrena Manuel Uranga'rentzat, eta laugarrena Basilio Pujana'rentzat. Bakotxak amar, amabi, amabost bertsoko paperak aurkeztu edo argitaratu zituen. Sariak, ostera, 1963'ko maiatzaren 12'an, Ernani'n, Txirrita'ren omenez egiñiko bertso-jai ederrean banatu ziran.

Bertso-paperok ez dira edozelangoak. Ona Lete'k Pepita'ri jarritsko ahapaldi bi:

*uTratatzen asi giñan pozikan gaztetan,
Itzak pasa giñuztan err'iko jestetan
Esan uion: uNavkazu amarez benetan,
Ez nazazu eduki olako penelan.yi
Baietza eman ziran orduantxe bertan*

*Urrengo jaierako egin gemun plana,
NÍU baiño obetogo atera zan dana.
«Amoriyua daukat, Joxe, zureganen
Sz a! da au, Pepita., esan zenduana?
Mingañez legun, baiñan azpilikan lanavt*

Bertso-jartzaille au, Jesus Agustin Karmel Lete Sarasola, Isasondo'ko semea dogu, 1921'ko agustuaren 28'an jaioa. Bere gurasoak: aita Juan Mari, ordiziarra, ta ama Maria Teresa, isasondotarra. Oria ibai ondoan, Erriko Etxean bertan jaio zalako, «Ibai-Enz» jarten dau bere bertso-paperetan. Erriko Etxe aretan ostatua eben gurasoak Jesus txiki zala, ta ara joaten ei zan sarri Patxi Erauskin zaldibitarra, bertso-paperak saltzen; ge-roago ezagutu ebazan Txapel, Zepai eta Artxanberri bertsola-

rtak, Isasondo'ko euskal jaietan, eta orduantxe biztu yakon be-
rari be bertsoarako grifa bizia. F.zta bat-bateko bertsolari;
bertsoak landu, preparatu egiten ditu. Ona Ernani'n, saria jaso-
keran, jaulkitakoa:

*«Ikusten det Ernuni dotore jantzita,
Pozaz zorutzen nago enuntz etorrira.
Auxen zabaldu nai det alderdi guztita:
Gora Ervani eta berdintsv Tzirrita.'»*

Basili Pujana Etxeandia, Zeanuri'ko Zulaibar auzoan, 1913'ko zezeillaren 27'an jaioa da. Errian bertan asi zan bertsoa, ta le-
nengoz Paulo Sagarna'gaz batera, Benito Aturxa txauburuak
eta Bizente Etxezarraga'k (Zidorra'ak) eratutako Kristau-Ikas-
bide jai baten. Gero, sarri abestu izan dau erriko jaietan or-
emen, eta Bilbao'ko, Arratia'ko, Gernika'ko ta Ondarroa'ko txa-
pelketetan esku artu.

Igaz be (1963) ospatu zan sariketa ori, ta Tolosa'ko seme
Gillermo Albizu'k jaso eban lenengo saria, au da, bi milla
pezeta «Txakurkume bati» deritxo amaiu ahapaldiko bere
orri egalariari. Beste iru bertso-paper be sarituak izan ziran,
bakotxa milla pezetagaz: Jesus Lete'ren «Zurrutari jarriak»,
Manuel Matxain'en «Arantzazu'ko Amari jarriyak» eta Sebas-
tián Salaberria'ren «Euskal Erriko oiturak».

Alan eta olan, guztiok leiaka lan egifik, euskal izena mun-
duan zear entzun bedi, bertsolarien oiartzunak gizaldiz gizaldi
kizetua.

AURKIBIDEA

| | |
|---------------|---|
| Sarrera | 5 |
|---------------|---|

I ZATÍA— BERTSOLARIAK ANTXIÑA

| | |
|--|----|
| 1. Bertso-esaleak | 13 |
| 2. Bertso-egilleak | 16 |
| 3. Bertsolarien ibillerak | 19 |
| 4. Bertsolariak literaturan | 22 |
| a) Egipto'n, Txina'n, Japon'en, India'n, | 25 |
| b) Ebreotarren artean: Idazteuna | 26 |
| d) Griegoen artean: aedak, rapsodak | 28 |
| e) Erromatarren artean: Bergili | 29 |
| g) Kelr'arren artean: Bardoak, eskopak | 31 |
| i) Jermaniarren artean: eskaldak | 31 |
| j) Prantzia'ko elezar kantariak | 32 |
| k) Probentza'ko trobadorak: Prantzia'n eta Itali'n ... | 33 |
| 1) Espaiña'ko ta Portugal'ko uriburuetan | 35 |
| 5. Bertsolariak erri-izkuntzen azkortzaille | 37 |
| 6. Euskera, gure izkuntza zarra | 40 |
| 7. Euska! gogo zarra ta bertsolariak | 46 |

| | | |
|----|-------------------------------|-----------|
| 8. | Euskal kanta zarrak | 51 |
| | a) Gerta-olerkiak | 53 |
| | b) Maite-leloak | 63 |
| | d) Irri ta negar | 66 |
| | e) Ardao-kantak | 68 |
| | g) Jainkozko kantak | 70 |
| | i) Pastornak | 74 |

II ZATIA.—EUSKAL BERTSOLARITZA

| | | |
|----|---|------------|
| 1. | Bearrezko legeak | 82 |
| 2. | Bertso-gaiak | 83 |
| 3. | Gaitasunak | 85 |
| 4. | Euskal iduri-kerak bereziak | 87 |
| 5. | Euskal neurtitzak | 92 |
| 6. | Zenbait zeaztasun: zortzikoak, bederatzi puntukoak eta abar. | 107 |
| | a) Zortziko nagusia | 107 |
| | b) Zortziko txikia | 110 |
| | d) Zortziko barria | 110 |
| | e) Zazpi ta seikoa barriro. | 111 |
| | g) Bederatzi puntukoak | 113 |
| 7. | Euskal poesiaren jantzia | 115 |
| | a) Bertsoaren igikera ta azentua. | 117 |
| | b) Neurria. | 125 |
| | d) Etena. | 128 |
| | e) Amai bardiña. | 129 |

III ZATIA.—BERTSO-MUETAK

| | | |
|----|--|------------|
| 1. | Ume-bertsoak | 139 |
| 2. | Kirol-bertsoak | 141 |
| | a) Peiotariak | 143 |
| | b) Aizkolariak | 149 |
| | d) Korrikalariak: mendigoizaleak. | 153 |
| | e) Arraunlariak | 155 |
| | g) Burrukalariak: ikubilkalariak | 160 |

| | |
|---|-----|
| i) Ostikolariak | 162 |
| i) Txirringulariak | 164 |
| 3. Erlejiñozko bertsoak | 166 |
| a) Gabon kantak | 167 |
| b) Andra Mari euskai kantetan | 176 |
| 4. Neska ta mutil zarrenak | 185 |
| 5. Ameriketara doazanenak | 188 |
| 6. Trikitixak | 193 |

IV ZATIA.—GURE BERTSOLARIAK

| | |
|---|-----|
| 1. Euskal bertsolaria | 200 |
| 2. Bertsolariaren nortasuna | 204 |
| a) Eten-iduriko aria | 206 |
| b) Idurien bizkortasuna | 210 |
| d) Andik onako ibilli urduria: bertso aldrebesak. | 211 |
| e) Gomutamen euskorra | 214 |
| g) Doiñuaren apaña | 217 |
| 3. Erriaren bertsolaritasuna | 218 |
| 4. Bertsolari eskolatuak | 225 |
| a) Bertsoiari eskolatuak Guipuzkoa'n | 227 |
| 1) Iparragirre | 227 |
| 2) Bilintx | 229 |
| 3) P. M. Otaño | 231 |
| 4) Eizmendi'tar Iñaki, «Basarri». | 234 |
| b) Bizkaitar oleskariak | 238 |
| 1) Felipe Arrese-Beitia | 238 |
| 2) Enbeita'tar Kepa | 244 |
| d) Arabar bertsolari eskolatuak: J. P. Ulibarri. | 249 |
| e) Bordele napartarra | 252 |
| g) Etxahun zuberotarra | 255 |
| i) Joanes Otxalde | 259 |
| j) Piarres Ibarrart, «Bettiri». | 261 |
| 5. Bertsolari eskolabageak | 263 |
| a) Gipuzkoa'n | 265 |
| 1) Fernando Amezketarra | 265 |
| 2) Xenpelar | 268 |
| 3) Pello Errota (Pello Joxe Elizegi). | 271 |
| 4) Jose Manuel Lujanbio, «Txirrita». | 275 |

| | |
|--------------------------------------|-----|
| b) Bizkaikoak | 280 |
| d) Mugaz andikoak | 287 |
| 6. Bertso-jartzailleak | 292 |
| 7. Gaiak zelan? | 294 |
| 8. Eta epai-maikoak? | 298 |
| 9. Bertsolarien Zaindaria | 302 |
| 10. Bertso-batzaldiak | 308 |
| 11. Oraingo txapelketak | 317 |
| a) Bizkai'ko txapelketak | 317 |
| b) Naparroa'ko txapelketak | 321 |
| d) Gipuzkoa'ko txapelketak | 324 |
| e) Bidasoa'z andik | 327 |
| 12. Bertso-paper sariketak | 329 |